Kazeta-idazkera: arauak eta estiloa hitzen jokoan

Jose Inazio Basterretxea Polo
Jose Mari Pastor Gonzalez
Alazne Aiestaran Yarza

Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea
UEU

KAZETA-IDAZKERA: ARAUAK ETA ESTILOA HITZEN JOKOAN

Jose Inazio Basterretxea Polo
Jose Mari Pastor Gonzalez
Alazne Aiestaran Yarza

Udako Euskal **Unibertsitatea**
Bilbo, 2013

© Udako Euskal Unibertsitatea
© Jose Inazio Basterretxea Polo, Jose Mari Pastor Gonzalez, Alazne Aiestaran Yarza

ISBN: 978-84-8438-448-9
Lege-gordailua: BI-0825-2013

Inprimategia: PRINTHAUS S.L., Bilbo
Azalaren diseinua: Igor Markaida
Hizkuntza-zuzenketen arduraduna: Ander Altuna Gabiola

Banatzaileak: UEU. Erribera 14, 1. D BILBO telf. 946790546 Faxa. 944793039
Helbide elektronikoa: argitalpenak@ueu.org
www.ueu.org

Elkar Banaketa: Igerabide, 88 DONOSTIA

Galarazita dago liburu honen kopia egitea, osoa nahiz zatikakoa, edozein modutara delarik ere, edizio honen Copyright-jabeen baimenik gabe.

Aurkibidea

LEHEN HITZA **5**

1. KOMUNIKAZIOA: GARAPENERAKO GIZA BALIABIDE ASKOTARIKOA **9**
1.1. Komunikazioa: gizakiaren joko kognitibo eta azaltzailea 10
1.2. Erredakzioa eta lan-antolamendua 15
1.3. Duintasuna lanbidean, etika profesionala 23

2. EUSKARAZKO KOMUNIKAZIO-SEKTOREA **31**
2.1. Euskarazko prentsaren historia lantzen 31
2.2. Euskal kazetaritza modernoa 40
2.3. Euskal prentsa XXI. mendean. Zer dator? 52

3. KAZETA-ESTILOA: ZEHAZTASUNAREN ARGIETAN **59**
3.1. Argia 61
3.2. Zehatza 63
3.3. Xumea 65
3.4. Erakargarria 66
3.5. Aholku praktikoak 67

4. ALBISTEA, INFORMAZIOAREN OINARRI **73**
4.1. Definizioa 73
4.2. Sarrera edo lehenengo paragrafoa 99
4.3. Sarrerak ondo idazteko aholkuak 114
4.4. Albistearen egitura 114

5. GOIBURUA: TITULATZEA, OSAGAIAK ETA EREDUAK **123**
5.1. Goiburua: irakurketa gidatzeko autobidea 124
5.2. Titulu mota nagusiak 127
5.3. Ongi titulatzeko aholkuak 130
5.4. Ariketa praktikoetarako gida 132

6. AIPUAK: ERRAZENA EZ ZAILTZEKO AHOLKUAK 141
6.1. Estilo motak 141
6.2. Erabiltzeko aholkuak 142

7. MUNDUA INTERPRETATZEN ETA BALORATZEN 149
7.1. Hedabidearen lan-mekanika, interpretazio-erabakien arragoa..... 150
7.2. Gertakariak baloratzeko irizpide profesionalak 154
7.3. Carl Warren irakaslearen bederatziko handia 158
7.4. Zenbait adibide..... 161

8. INFORMAZIO-ITURRIAK, KAZETARITZAREN GILTZARRIAK 167
8.1. Definizioa..... 167
8.2. Iturrien jokaera eta helburuak 168
8.3. Informazio-iturri motak 169
8.4. Iturrien sailkapena..... 174
8.5. Iturrien esleipena..... 176
8.6. Iturriekiko itunak eta jokabideak 179

9. ARIKETA-PROPOSAMENAK 183
9.1. Gertakaria itsasoan..... 184
9.2. Lan-istripua..... 187
9.3. Trafiko-istripuak..... 190
9.4. Elkarrizketa..... 193
9.5. Erreportajea, albistea egiteko..... 197

10. BIBLIOGRAFIA..... 201

Lehen hitza

Bihar-etziko berriemailearentzako eskuliburua izan gura du honek. Oinarri-oinarrizkoa. Bere garatze akademikoan eta trebatze profesionalean, hainbat izango dira berriemailegaiak esku artean hartuko dituenak. Lehendabizikoa —hasiera-hasierakoa— izan nahi du honek, abiapuntua jarriko diona hautatu dituen unibertsitate-ikasketen bidean.

Zentzu zabalean hartu dugu berriemailea jomugan: bihar-etzi paperezko kazeta nazional batean arituko den kazetaria; telebista-kamera eskuan duela, bailarako telebista batean bere jornala irabaziko duen profesionala; irratian ahotsa probatuko duen esataria; edo, *blog* batean, herriko udalbatzako berriak kontatuko dituen internauta.

Berria lantzeko irizpideak —behin-behinenak— azaldu nahi ditu eskuliburu honek. Abiapuntu klasikoa aurkituko du berton ikasleak. Eta ikusi, ikusiko du ikasle arretatsuak hemen azaltzen direnak egokitzen eta doitzen joango direla ikasketa-prozesuan aurrera egin ahala: behin irakasle baten eskutik, beste behin ikaskide zaharrago baten eskutik, inoiz esperientzia propioak hala kontseilatuta… «berria» lantzea ez baita ezer irmo eta hila, zer bizia baino.

Hiru ildo nagusi jorratu beharko ditu berriemaile-ikasleak bere gaitzearen eta doitzearen bidean. Hirurak ditu beharrezko. Ez du balio batean trebe izateak, besteetan trebeziarik ez badu. Kate motzean lotutakoak dira hiru horiek. Honako hauek:

Hizkuntza. Berriemaile-ikasleak argi eduki behar du ezinbesteko lan-tresna komunikatiboa duela hitza, berba, elea. Oinarrizko erreminta du hori. Hori gabe, motz ibiliko da bere jardunean. Ez du arrakastarik erdietsiko. Hizkuntza gramatikalki zuzena erabili behar du berriemaileak, komunikatzeko egokia, bere mintzakidea harrapatzeko bezain bizia eta alaia. Hizkuntzaren baliabide zabalak ezagutu behar ditu berriemaileak. Oinarrizko hizkuntza herdoildu eta gutxi praktikatuak ez dio balioko… Abilezia pixka bat eskatzen zaio berriemaileari bere jardunean. Hizkuntza zurrun eta motzak ez du inoren begirik irekiko, ezta belarririk gozatuko ere.

Ofizioa. Berriemaile-ikasleak argi eduki behar du ikasten den jardun arautu bat dela albisteak idaztea. Bere legeak dituena, bere erregelak. Egitura propioa du albisteak. Ez bakarra, egia esan. Baina, berria ezin da edonola eman. Argi hitz egin behar du albisteak. Modu zehatz eta jakin batean hitz egin behar du. Ikasi eta landu beharreko artea da albistea ondo idaztea.

Trebakuntza praktikoa. Ofizioaren langintzan, luze aritu behar du berriemaile-ikasleak. Arte orok eskatzen du diziplina, baita berriemailetzak ere. Jardutea, zuzendua izatea, jarduna autoebaluatzea behin eta berriro… ezinbestekoak ditu berriemaile-ikasleak.

Ofizioaren deskripzioa eta trebakuntza praktikorako bideak —oinarrizkoak eta lehendabizikoak— jarri gura dizkio eskura liburu honek berriemaile-ikasleari.

Azken urteotan unibertsitatean nahiz hedabideetan garatu diren irizpideak gogoan hartu izan ez balituzte autoreok, liburu honek ez zuen inoiz argia ikusiko. Gure aurretik gaia landu duten guztiei, gure esker ona.

ESKULIBURUAREN EGITURA

Liburua hasi, hasten da komunikazioaren definizio ireki bat planteatuta: *komunikazioa da gizakiaren joko kognitibo eta azaltzailerako lan-tresna behinena.* Komunikazioaren irakurketa orokor bat planteatzen da liburuaren abiapuntu gisa, non ezaugarritzen baitira komunikazioa mugatzen duten hiru espazioak: mundu errealaren espazioa, berriemailearen irakurketa eta haren errealitate eraikia, eta albiste-kontsumitzailearen espazioa (haren interpretazio bere-berea).

Liburuaren abiapuntuan, lantokia deskribatzen da: erredakzioa eta haren lan-antolamendua. Eta, era berean, eskuliburuaren lehen orrialdeetan, lanbidearen irakurketa etikoa praktikatzen da.

Bigarren urrats batean, euskarazko komunikazio-sektorearen irakurketa diakroniko bat egiten du eskuliburuak. Bertan, euskarazko prentsaren historia labur bat azaltzen da. Azaldu, azaltzen da Espainiako Gerra Zibilaren eragina euskarazko medioen sektorearen suntsipenean. Bestalde, euskal kazetaritza modernoaren aurkezpena egiten da. Bai eta XXI. mendearenganako hurbilketa bat: nora doa euskarazko prentsa?

Kazeta-estiloa deskribatzen da hirugarren urrats batean. Lau ardatz hartu behar ditu gogoan ikasleak. Bat: ondo informatzea da gauzak modu argian kontatzea. Bi: ondo informatzea da gauzak modu zehatzean kontatzea. Hiru: ondo informatzea da gauzak modu xumean kontatzea. Eta lau: ondo informatzea da gauzak modu erakargarrian kontatzea. Horixe da kazeta-estiloaren oinarria. Lau hanka horiek eutsi behar diote profesioaren eraikinari.

Albistearen definizioa eskaintzen da beste kapitulu batean. Albistearen definizioa, albiste motak, albistearen osagaiak… Beste guztien gainetik, kazetariarentzako ezinbestekoak diren kontzeptu bi landuko dira atal honetan modu sakon-sakonean: *sarrera* eta *piramide iraulia.* Klasikoak bilakatu dira horiek fakultatean, baita hedabideetan ere.

Goiburuaz dihardu hurrengo kapituluak: titulatzeko lan-tresnak deskribatzen dira bertan. Tituluak, azpitituluak, sumarioak, tartekiak… irakurleari laguntzeko tresna diskurtsibo eta grafiko horiek ikasiko dira atal horretan. Era berean, ikasi, ikasiko da elementu nabarmentzaile horiek eta albistearen osagai behinenak uztartzen eta elkarri lotzen.

Gertakariak baloratzeko irizpideak eskaintzen dira beste kapitulu batean. Eta beste batean, informazio-iturriak. Eskuliburuaren azken orrietan, ariketa-proposamen batzuk daude. Bai eta oinarrizko bibliografia bat ere, eskuliburuan esandakoak sakontzeko.

Eta lehen hitz hauek amaitzeko, kontu bat, gogoan izan behar duzuna: zu zarena izango da kazetaritza bera.

1. Komunikazioa: garapenerako giza baliabide askotarikoa

Erraza ez da *komunikazioa* definitzea. Halere, gutxi ala gehiago, denok intuitzen dugu hitz horren azpian dagoena, nolabait. Intuizio horietan oinarria hartu, eta komunikazioa zer den azaldu nahi dio atal honek komunikazioa zeregin profesional gisa landu gura duen ikasleari. Kazetari izan, ikus-entzunezkoetako gidoilari izan, publizitate-etxe bateko sortzaile izan, harreman publikoetako eragile izan… denok hausnartu behar dugu komunikazioaz, gizarteek eta gizakiek garapenerako duten lan-tresnarik eta behinena baita.

Intuizioaz jardun dugu arestian. Bada, batzuetan, komunikazioaz aritzean, garraioari buruz ari gara: errepideak, trenbideak… hara-hona ibiltzeko moduez. Beste batzuetan, aldiz, komunikazio hitza datorkigu burura egunkariei, irratiei, telebistei eta Interneti buruz hizketan jardutean: komunikabide hitza edo hedabide hitza aterako da orduan mahai gainera, sinonimo gisa. Inoiz, komunikazio hitza aterako zaigu pasabidearen baliokide moduan: gela komunikatuak (ate bat konpartitzen dutenak), ontzi komunikatuen teoria (ura ontzi batetik bestera igarotzen denekoa)… Inoiz, komunikazio hitza agertuko da propagandaz eta publizitateaz jarduteko: komunikazio-kanpainak, komunikazio-kabineteak…

Bizitza arruntean presente dagoen terminoa da komunikazioa, beti esangura bera ez duen arren denentzat. Baina egon, hortxe dago. Ez zaigu arrotza. Une batzuetan, esangura bat aitortzen diogu; beste batzuetan, beste bat. Berba oso polisemikoa da komunikazioa, bere bidea egiten duena, egin, gure artean.

Baina hura gabe —komunikaziorik gabe— nekez izango da gizakia gizaki, eta gizartea gizarte. Historia da komunikazioa. Egungoaren albiste. Biharkoa marrazteko arkatz.

Hiru atal berezitu dauzka kapitulu honek:

Lehendabizikoaren ardura da komunikazioaren mundu askotarikora hurbiltzea eta komunikazioaren azpian dagoen joko kognitibo eta azaltzailearen testuingurua marraztea.

Bigarrenaren ardura da komunikazioaren mundu irekia hedabidearen jardun praktikora eramatea eta egunkarietako erredakzioaren lan-arloaren deskribapena eskaintzea.

Hirugarrenaren ardura da komunikatzaile profesionalaren jarduna erakustea, bere muga etikoen joko-zelaiaren baitan.

1.1. KOMUNIKAZIOA: GIZAKIAREN JOKO KOGNITIBO ETA AZALTZAILEA

Izatez, garapen-urrats ororen oinarrian dagoen harreman bat da komunikazioa: zerbait komunean izatea edo komunean jartzea da komunikatzea. Elkarlanean sortu, batera eraiki… ideia hori dute beren baitan *komun* hitzak eta *komunikazioak* berak. Denei dagokiena da komuna: denentzako balio duena, denek aintzakotzat hartzen dutena, denak aintzakotzat hartzen dituena. Konpartitzea ere izan daiteke komun hitzaren azpian aurkituko duguna. Hori guztia dugu komunikazioaren baitan.

Eta, izatez, zerbait oinarrizkoa da komunikazioa, alegia: beste kontu askotarako abiapuntu gisa ulertzen dugun zer bat.

Komunikazioa da batzuen arteko zerbait, zerbaiti begira dagoena. Zabala da komunikazioaren landa semantikoa: komunikazioaz dihardugu, herrien arteko harremanei buruz ari garenean; komunikazioaz, hedabideez aritzean; komunikazioaz, enpresa barruko aginte-jardunari eta produkzio-mekanikari buruz ari garenean; komunikazioaz, maitaleari egindako laztanaz edo belarrira esandako hitz goxoaz.

Bai mundu ireki eta askotarikoa, komunikazioarena. Noranahiko bidea da komunikazioa: ez da hauts hutsa.

1.1.1. Komunikazioa: ikasi eta azaldu

Egin dezagun aurrera eta saia gaitezen komunikazioa definitzen irakasgai honi interesa dakiokeen arlorantz hurbilduz. *Komunikazioa da batzuen arteko zerbait,* hala esan dugu arestian. Zehaztu dezagun hori.

Hasteko, *batzuk* horiek zer diren argitu dezagun. Abiapuntu gisa, esan dezagun ezen, komunikazioa dela gutxienez harreman bat biren artekoa. Hori gutxienez, zeren *batzuk* horiek izan daitezke: bikotea, lagun talde txiki bat, Tourreko tropela, nahiz telebistari begira dagoen entzule talde anonimo eta elkarren artean ezezagun hori. Ikuspuntu zabal horretatik begiratuta, komunikazioa defini daiteke bertan esku hartzen duen jende kopuruaren eta beraien arteko distantzia fisiko, nahiz intelektualaren arabera: intimoa, hurkoekikoa, nahiz publikoa eta soziala. Guri, hemen, komunikazioaren esparru publiko eta sozial hori interesatzen zaigu batez ere.

Era berean, arestiko horrekin batera, abiapuntuko hitz hauetan, definitu beharko genuke zer den *komunean* dutena edo komunean jartzen dutena elementu horiek —gutxi nahiz asko izan—. Eta, komunean dutena da *informazioa:* era askotariko

datuak, inpresioak eta bizipenak biltzen dituen materia bat —bere aldetik, testura, forma eta esangura askotarikoa dena—.

Hartara, lehen urrats definitzaile moduan esan daiteke komunikazioa dela gutxienez biren arteko harremana, informazio-truke bat oinarrian duena, edozein delarik informazio horren edukia eta edozein delarik trukerako erabilitako modu eta bidea.

Aktibitate zeharo zabal eta irekia da komunikazioa: landareek praktikatzen dute, animaliek praktikatzen dute, makinek praktikatzen dute, pertsonok praktikatzen dugu.

Landareek eurek badakite zein zeinen ondoan egon daitekeen, baten itzala edo beste baten erroa mesedegarri gerta dakiekeelako. Animaliek eurek ere komunikazioa dute beren arteko hierarkiak markatzeko ardatz, ugalketa-beharrak asetzeko bide eta afektibotasuna erakusteko lanabes. Komunikaziorik gabe, ezer gutxirako lirateke baliagarri makinak: ordenak hartu eta eman nahiz prozesuak abian jartzeko, beharrezko dute horiek ere komunikazioa.

Gizakion kasu propioan, harremanetarako bide eta informazioa trukatzeko bide izateaz gain, lantresna kognitibo eta azaltzaile garrantzitsua —ezinbestekoa— da komunikazioa.

Giza lan-tresna kognitiboa da komunikazioa, zeren mundua ulertzeko, mundua gureganatzeko —maila sinbolikoan eta intelektualean—, inguratzen gaituenarengandiko informazioa jaso behar baitugu: modu zuzenean esperientzia sentsorialen laguntzaz edo, modu delegatuan, besteren kontakizunaren bidez. Hartara, komunikazioak laguntzen digu mundu hori ulertzen eta ikasten. Informazioa da, testuinguru horretan, harreman komunikatiboa ahalbidetzen duen materia trukagarria —emangarria, salgarria, erosgarria…—.

Lan-tresna azaltzailea da komunikazioa, zeren haren bidez jar baitezakegu besteen eskura dakiguna, sentitzen duguna, amesten duguna, imajinatzen duguna… Ulertzeko bezala, erakusteko ere bada baliagarri komunikazioa; ez bakarrik baliagarri, ezpada ezinbesteko.

1.1.2. Ordezkapena

Abiapuntu gisa, ikasturte honetan argi geratu behar du ezen, ezer izatekotan, ordezkapenean oinarritutako harreman-prozesu bat dela komunikazioa. Era askotako konbentzioen gainean eraikitako harreman-prozesu bat da komunikazioa. Eta, mundua komunikagarria izan dadin, mundu hori nola ordezkatu dago konbentzio horien guztien oinarrian.

Filosofo presokratikoek eurek aurreratu zuten bezala, hitza —giza komunikaziorako dugun lanabesik eta behinena— itzal bat da, alegia: zerbaiten

ertz eta profilak ikusarazten dituena. Baieztapen horretan aditzera ematen denez, hitzak ez du bere osotasunean ordezkatzen adierazten duena, nola itzalak ez duen ordezkatzen bere objektua haren osotasunean: ertz nagusiak erakusten ditu, profilak marrazten, baina ez detailerik ezta ñabardurarik ere. «Ekintzaren itzala da hitza», horrela utzi zuen idatzita arestiko hori Demokritok. Hartara, akzioa ordezkatzera datorren zer bat da berba. Akzioa du komunikazioak bere baitan.

Historian hurbilagoko Erroma klasikoan, ardura berezia eskaini zitzaion ordezkapenaren fenomenoari. *«Vocabula sunt notae rerum»,* Zizeron irakur dezanak irakurriko du horrako hori. Esan nahi baita: gauzen zeinu dira hitzak. Alegia: gauzen ordezko.

Autore modernoak maiteago dituenarentzat, Norbert Elias izan daiteke ordezkapena azaltzeko erreferente. «Giza komunikazioan, hitzek nola era guztietako objektuak, hala funtzioak eta imajinazioak ordezkatzen dituzte», dio.

Ikuspuntu horretatik begiratuta, hitzak ordezka dezake objektu ukigarri bat —hala nola: *liburu bat*—, ordezka dezake gizakiaren eginbehar, edo funtzio bat —*enkarguetara noak*—, ordezka dezake pentsamendu bat —*ongi aterako zaidan azterketa*—.

Zerbait beste zerbaiten ordez ematea da komunikazioaren giltza. Izate anitzeko entitateak ordezkatzen dira komunikazioan. Eta ordezkatzeko modua bera ere, era askotarikoa da. Jatorri desberdineko entitateak ordezkatzen ditugu ezaugarri desberdineko zeinuen bidez. Zeinu ordezkatzaile horiek osatzen dute informazioaren mundu askotarikoa.

Berbaren aurreko komunikazioaren garaietan, orro apur batzuen bidez eta mugimendu zenbaiten bidez komunikatu zuen gizakiak bere ardurakoa zen oro. Ondoren, gizarte oralak zehaztasun entzungarri adostua ekarri zien komunikatzeko sistema primitiboa osatzen zuten jauzi eta hots haiei. Idazten —informazioa marrazki figuratiboen nahiz abstraktuen bidez gordetzen eta trukatzen— ere asmatu genuen, gerora. Bai eta idatzitakoa bulkada elektrikoa bihurtu eta zibermunduan sartzen ere. Marrazten, abesten, pianoa jotzen, filmak errodatzen… modu askotara ikasi dugu komunikatzen, baina oinarrian beti dago errealaren edo figurazioaren ordezkapena. Baina, ordezkapena betiere. Eta, ordezkatua bistara edo belarrira ekartzen duena da informazioa.

Beraz, komunikatzea da ordezkatzea. Hori, hasteko.

Alabaina, komunikatzea bada beste zerbait ere: indar-harreman bat. Ordezkapenean, informazioaren eraikuntzan esku hartzen duten guztiek —gizakiek— ez dute ez indar bera ez pisu bera, ez prozesuan —informazioa sortu eta ekoizteko urrats kognitiboan— ezta emaitzaren zabalkundean ere —informazioa besteenganaino helaraztean edo besteekin konpartitzean—. Ordezkapena zentzu askotarikoa bada ere, prozesuaren puntu kardinalak zehaztea ez dago beti denen eskura. Horregatik diogu, esan, indar-harreman bat ere badagoela komunikazioaren faktuan.

«Arma-bidez gerla irabazten duenak erabakitzen du hitzaren norabidea», Joan Mari Irigoienek ongi erretratu zuen faktu hori, *Lur bat haratago* eleberrian.

Eta, hala izan da historiaren joan-etorrian. Mundu esklabistan, modu eraginkorrean komunikatu, batez ere klase indartsuenek komunikatu dute, haiek ordezkatu dute mundua euren irakurketa partikularrarekin. Ondo ezagutzen dugu Grezia klasikoan zer pentsatzen zuten klase indartsuenek: hor daude filosofia eta literatura horren lekuko. Aldiz, inork al daki esklaboek pentsatzen zutena, kantatzen zutena?

Antzera gertatu zaigu monarkien garaian, iraultza eta matxinaden aldietan… boterean nor izan, hark idatzi du historia, hark ordezkatu du mundua bere hitzekin, bere marrazkiekin, bere kontakizunekin. Salbuespenak, salbuespen.

Gizartea merkatu bihurtu zaigun honetan, beste zentzu bat hartu du ordezkapenak: merkantzia izatea. Gaur egun, komunikazioa ez da bakarrik ordezkapen bat, ahal duenak burutzen duen aktibitate bat… horretaz gain, komunikazioa da dirua sortzen duen aktibitate bat. Informazioa, hartara, merkantzia da, salerosketari begira ekoitzi den zerbait.

Eta, informazioaren kasu jakinean gainera, gertatzen zaigu ezen interes publiko dena interes pribatu bilakatzen dela, alegia: nozitzen dugula interes publikoaren apropiazio bat, korporazio pribatuek lideratzen dutena. Komunikazioa bada, izan, beraz, arestikoaz gain, dirua egiteko artea, besteak beste.

1.1.3. Komunikazioaren espazioak

Gizakiari eta hedabideei gagozkiela, hiru espaziotan gauzatzen da komunikazioaren prozesua.

Hiru horiek dira:

a) Mundu erreala.

b) Mundu norbereganatua.

c) Mundu besterenganatua.

Alde batetik, komunikazioak oinarria hartzen du mundu errealean: denok osatzen dugun mundu horretan, gauzak gertatzen direnekoan. Egitateen eta gertaeren mundua da lehen espazio hori betetzen duena.

Kazetarion eta komunikatzaile profesionalon kasuan, *erreferentzia* bat behar izaten du komunikazioak abiapuntu gisa. Erreferentzia hori mundu errealean aurkitu ohi dugu. Mundu erreal hori da bertsolariari puntua ematea legez: hori gogoan hartuta abiatuko du hark bere jarduna. Kazetarion kasuan, berdintsu: mundua hor dago, eta gu haren baitan, hari so, haren eraginpean, hura eragin nahirik… puntua —erreferentzia— behar dugu, informatzen hasteko.

Zerbait komunikatu nahi dugunean, zerbait ikusi —entzun, jakin, sentitu…— dugulako da. Hasierako erreferentzia hori, komunikazioaren oinarrian dugun abiapuntuko erreferentzia hori da mundu errealetik gure errealitateen mundura dakarguna, eta, inoiz, era batera edo bestera aktuatzera garamatzana. Istripu baten lekuko izan gara. Liburu bat irakurri dugu. Norbaitenganako tiradizoa sentitu dugu… Komunikatu gura izan dugu. Horren berri eman.

Gizakiak bereganatzen duen munduari dagokion espazioa da mundu ikusia, mundu ikasia. Errealitatearen mundua da hori: mundu erreala barik, mundu interpretatua. Egitate beraren aurrean, denok ez dugu modu berean erreakzionatzen, ez baitugu denok modu berean hura ikusten eta ulertzen. Mundu barneratu hori da, beraz, komunikazioaren bigarren espazioa osatzen duena.

Zaila da mundu eta espazio bi horiek laban zorrotz batekin banatzea, zeren, gizakion kasuan, mundua beti da norbaitek ikusia eta interpretatua. Gutako bakoitza da mundu errealaren lekuko —bere erako lekuko—. Bere erako lekuko eta kontalari, zeren inork ezin baitu ezer transmititu eta komunikatu objektibotasun osoan, subjektibotasunean baizik. Nor den edonor, bere modura da mundu errealaren lekuko. Muga konpartitu batzuk dauzkagu denok eta, noski, horien baitan funtzionatzen dugu; baina, nahikoa askea da komunikazioaren bigarren espazioaren formazio intelektuala. Komunikazioaren alor kognitiboa betetzen du espazio horrek: mundua ulertzea, eta hartaz intelektualki jabetzea.

Eta, azkenik, mundu kanporatua dugu: esportatzen duguna, kanporatzen duguna. Espazio horretan aurkitzen dugu azaltzen duguna, kontatzen duguna, diskurtsoen bidez besteenganaino helarazten duguna. Mundu besterenganatua. Mundu komunikatua da hori. Komunikazioaren alor azaltzailea da hori. Eta hor ere, muga batzuen baitan, nor bere erako kontalaria da.

Elkar elikatzen dute hiru espazioek, une oro (ikus: 1. irudia). Ez dira espazio itxiak. Ez dira isolatuak. Batentzat mundu besterenganatua dena, beste batentzat da erreferentzia eta, hartara, bere aurrean den mundu erreala: berak ikusten duena, berak barneratu behar duena, berak, ulertu eta gero, bere diskurtsora eramango duena, hala egitea deliberatzen baldin badu. Zeren, batentzat diskurtsoa besterik ez dena, beste batentzat da abiapuntuko erreferentzia, munduaren kogniziorako lehendabiziko urratsa.



1. irudia. Komunikazioa, hiru espazio kateaturen paradigma.

1.2. ERREDAKZIOA ETA LAN-ANTOLAMENDUA

Komunikazioaren fenomenoa azaltzeko hiru espazio kateaturen arteko bigarrenean kokatzen da hedabideen mundu produktiboa. Bigarren azpiatal honetan, erredakzioen funtzionamendu ohikoa azaltzen da, informazioaren eraikuntza profesionalaren nondik eta norako nagusiak deskribatuta.

Egunkari bateko egituran hiru arlo nagusi bereizten dira: sail administratiboa, argitalpen- edo erredakzio-arloa eta produkzio-arloa. Hiru arlo horiek ezinbestekoak dira egunkaria aurrera ateratzeko. Hirurok elkarren beharra dute, elkarri lotuta baitaude. Hiruretako bat gabe ez dago produktu informatiborik egiterik.

Arlo administratiboa oso esparru zabala da. Eremu horren barruan zenbait azpiatal ditugu: finantza-sailean, esaterako, fakturez, langileen soldatez, aseguruez eta zergak ordaintzeaz arduratzen dira; giza baliabideak deritzon arloak, berriz, langileen kontratazioa, gaitasunak, eta lan-baldintzak kudeatzen ditu, besteak beste; arlo komertzialak argitalpenak saltzeko ardura du harpidetza eta kanpainen bidez. Hori guztia marketinari lotua da, produktuaren irudiari, publizitateari, helburu jakin batekin: egunkaria gizartean sustatu eta merkatuan txertatzea.

Produkzio-arloak egunkaria inprimatu eta argitaratzeko ardura dauka. Jarduera teknikoa da, egunkaria argitalpen bihurtzeko azken fasea. Kazetariek erredakzioan osatutako produktua haren esku dago. Okindegiko labea bezalakoa da. Kazetariek labore-irina, gatza, ura, orea… osagai guztiak nahasi eta konbinatu egiten dituzte, neurri egokietan. Produktua eginda dago, baina labean sartu behar da, jangarri izan dadin. Irakurgarri, egunkarien kasuan.

Erredakzio-arloak, aldiz, egunkariaren beraren edukia lantzen du: irakurleek gero esku artean izango duten edo webgunean irakurriko duten produktu informatiboa. Erredakzioa da arlo horren azala eta mamia, kazetarien bilgunea. Kapitulu honetan erredakzioa eta haren hierarkia eta lan-antolamendua aztertuko ditugu.

Erredakzioa —idazgela ere deitzen diote— kazetariek lan egiten duten leku nagusia da, ez bakarra, baina bai garrantzitsuena. Erredakzioaren espazio fisikoa egunkariaren egoitza nagusian dago. Handik kanpo, lurralde-ordezkaritzak daude. Kazetariak erredakzioan elkartzen dira; bertan erabakitzen da zer argitaratuko den eta nola; bertan idazten dira testuak; bertan zuzentzen dira kanpotik bidalitako lanak hedabideak kaleratu baino lehen. Idazteaz gain, bestelako lanik ere egiten da erredakzioan. Leku horretan hartzen dira eguneroko jarduerari eragiten dioten erabaki garrantzitsuak, egunkariaren ildoari eta edukiei zein hedabidearen geroko garapenei eta proiektuei dagozkienak.

1.2.1. Kazetariak eta hierarkia erredakzioan

Kazetariak, berez, hauexek ditugu: egunkari batean edo beste hedabide batean idatziz zein irudien bidez informatzeko edo iritzia sortzeko eginkizuna duten profesionalak. Esparru zabala da kazetaritza, eta hainbat jarduera motak osatuta dago. Zentzu klasikoan, kazetariak hiru multzotan banatuko lirateke: erredaktoreak, erreportariak eta editorialgileak

Erredaktoreek informazio edo albiste bihurtzen dituzte gertaerak, argitaratu edo hedatzeko behar adinako garrantzia dutela erabakiz gero. Erreportariek ikertu egiten dute, albisteak osatu, elkarrizketak eta erreportajeak idatzi. Idazgelaz kanpoko kazetariak dira. Horregatik, kale-erredaktoreak ere deitzen zaie. Editorialgileak, ostera, editorialak idazten dituzten kazetariak ditugu.

Egunkariaren erredakzioan badira beste lagun batzuk, kazetari-lanak egiten dituztenak. Informazioa jaso eta kudeatu egiten dute. Informazio hori interpretatu eta, azkenean, hedatu ere egiten dute, haien transmisioaren euskarri nagusia hitza izan ez arren. Lankide horiek erreportari grafikoa, diseinatzailea eta marrazkigilea dira, besteak beste.

Batzuen ustez, ikuspegi ortodoxotik begiratuta, lagun horiek ez dira kazetariak, ez baitute berririk idazten. Kazetaritzaren zentzu tradizionalean halaxe baloratu izan da: informatu, idazten duen kazetariak baino ez omen du egiten. Zenbait profesionalek pentsaera hori barneratu dute. Hala ere, ukaezina da erredakzioko beste kide horiek ere eginkizun informatiboa betetzen dutela eta egia da irudi batek —argazkia, infografia edo marrazkia izan, edo egunkari baten edizio digitaleko grabazioa— testu batek beste elementu informatibo izan dezakeela, zenbait kasutan. Profesional horiek informatu egiten dute. Beraz, kazetariak dira.

Antolaketa-sistema baten bidez egituratzen da egunkaria. Bertan hainbat profesional daude elkarrekin lanean; nork bere eginkizuna du, baita erantzukizun-maila ere. Hedabideen tamaina eta ezaugarriak ez dira beti berdinak izaten, eta haien egitura zertxobait aldatzen da horren ondorioz.

Egunkari baten oinarrizko lan-banaketa honelakoxea izango litzateke, ñabardurak ñabardura:

- Erredaktorea

Erredaktorearen zeregin nagusia testuak idaztea da. Bi erredaktore mota ditugu. Kale-erredaktoreak —erreportariak, alegia— eta mahai-erredaktoreak. Mahai-erredaktoreek idazgelan bertan egiten dute lan. Ez dituzte informazio propioak idazten. Albisteak editatu egiten dituzte. Beste iturri batzuetatik idazgelara heltzen den informazioaz arduratzen dira: berriemaile berezien testuak txukundu eta osatzen dituzte, informazio-agentziek bidaltzen dituzten informazioak birmoldatzen dituzte, eta azken orduko albisteak idazten dituzte.

- Erreportaria

Erreportaria kazetaritzaren gailurtzat jotzen dute askok. Erredakzioaren oinarria da, funtsezkoa. Idazgelatik kanpo lan egiten du. Kale-erredaktoreak dira, azken batean. Erreportaria albiste-ehiztaria da: informazioa bilatzen du, eta atzematen dituen egitate edo gertakari guztietatik garrantzitsuenak bereizten ditu, bere ustez albiste bihurtzea merezi dutenak. Informazio baliagarria eskaintzen dio gizarteari, albiste, elkarrizketa edo erreportajeen bidez. Bere lanabesa hitza da, idatzizkoa zein ahozkoa. Horregatik, hizkuntzaren maisua izan behar du mezua modu egoki, argi eta ulergarrian helarazteko irakurleari.

Erreportarien arloan badira profesional batzuk, euren jardueraren arabera ezaugarri bereziak dituztenak:

Freelance erreportaria: kazetari independentea da. Ez dago egunkaria argitaratzen duen enpresaren egituraren barruan. Artikulu edo kazeta-lan bakoitzeko ordaintzen dio hedabideak.

Erreportari espezializatua edo aditua: arlo jakin batean —politikan, esate baterako— zaildutako profesionala da. Esparru horretako informazio bereziak lantzen ditu, interes handikoak. Bere lumak prestigioa du. Ez da edonolako lana eta, beraz, ez zaio edozeini eskaintzen. Lehenagoko jardunean maisutasuna erakutsi duen kazetariak hartzen du ardura hori.

Berriemailea edo korrespontsala: egunkaria argitaratzen den hiritik edo herrialdetik kanpo lan egiten du kazetari honek, modu iraunkorrean. Informazio-jario oparoa duen hirian bizi da. Kanpotik bertara joandako pertsona da, baina denboraren denboraz bertakoek bezain ondo ezagutzen du hango errealitatea. Termometroa jartzen dio herrialdeari, eta gertakarien garrantzia neurtzen du, multzo horretatik hedabidearen egoitza nagusira igorriko duen informazioa aukeratzeko. Normalean kronikak idazten ditu, kutsu interpretatiboa duten testuak, baita elkarrizketak eta erreportajeak ere.

Berriemaile berezia: egunkariak gertakari jakin baten segimendu informatiboa egiteko leku batera bidaltzen duen erreportaria da. Hauteskunde-kanpainak, kirol-ekitaldiak, gatazkak, ezusteko gertakariak eta hedabidearen iritziz interesa duten albisteak jorratzen ditu.

Erreportari grafikoa: gertakarien segimendu grafikoa egiten du, argazki edo grabazioen bidez. Aspaldi, erreportari mota hau bigarren mailakotzat jotzen zuten kazetaritzaren arloan. Orria betetzeko testuaren barruan ezartzen zen argazkiaren egilea zen, besterik ez. Egungo kazetaritzan gero eta leku gehiago hartzen ari da irudia, telebistaren eraginez. Erreportari grafikoak irudian espezializatuta daude. Argazkiekin batera, gainera, grabazioak ere erabiltzen dira, ikus-entzunezko dokumentuak eta testigantzak. Haren grabazioak material horiek eskaintzen dizkio irakurle eta ikusleari.

- Editorialgileak

Hedabideko editorialak idazten dituzte, hau da, egunkariaren ildo ideologikoa edo pentsamendua islatzen duten testuak. Erantzukizun handiko lana da, ez dago edozein kazetariren esku. Izan ere, editorialak egunkariak duen iritziaren berri eman behar du, eta kazetariak ondo ezagutu behar du esparru hori. Horregatik zuzendariaren konfiantza osoa dauka. Batzuetan, egunkariko iritzi-orrialdeez ere arduratzen da. Sail horretan badira beste kazetari batzuk ere: kritikagileak eta zutabegileak. Lehenek lan edo emanaldi bati buruzko analisia egiten dute era subjektiboan. Bigarrenak interpretazioaz eta iritziaz baliatzen dira euren testua osatzeko. Ez dute hedabidearen ildo ideologiko bera izan behar.

- Diseinatzailea

Egunkariaren diseinuaren arduraduna da. Hedabidearen diseinua sortu eta garatzen du, eta elkarlanean dihardu beste kazetariekin. Diseinatzaileak egunkariaren ikus estiloa osatzen du, hedabidearen aurkezpen-txartela, nolabait. Orrialde bakoitzean zer elementu sartuko diren erabakitzen du, baita nola txertatuko diren ere. Haren lana ez da estetika hutsa, baina. Kazetari horrek ere informazioa kudeatzen du. Horregatik, infograma-egilea ere izaten da, sarri. Infogramak informazioa ematen du marrazki eta grafikoen bidez. Profesional horrek modu grafikoaren bidez transmititzen du informazioa, irudi, zeinu eta deskripzioetan oinarrituz. Askotan, albiste nagusiaren mamia laburbiltzen du era ulerterrazean.

- Marrazkilaria edo komiki-egilea

Errealitatearen berri ematen du, batzuetan modu aseptikoan, beste batzuetan ironiaz. Egitate edo pertsona bati buruzko iritzi sarkastikoa aurkezten du modu kritiko eta barregarrian.

- Dokumentazio-arduraduna

Dokumentazio-sistema egoki, gaurkotu eta ordenatua funtsezkoa da kazetariari lanean laguntzeko. Dokumentazio-arloan kazetariek edo dokumentalistek jarduten dute. Beste hedabideek edo informazio-agentziek zabaldutako informazioa, datuak eta dokumentuak sailkatu eta gorde egiten dituzte. Artxibategia osatzeko egungo teknologia berrien baliabideen laguntza dute dokumentazio-arduradunek.

- Sailburua

Sail bateko arduraduna da. Sail horretako kazetariak koordinatzen ditu. Ildo horretan, lanak banatzen ditu, eta epe motz, erdi eta luzerako agenda osatzen du, beste lankideekin batera. Hori guztia lotzeko eguneroko eta asteroko bilerak egiten ditu sailkideekin, bere esparru informatiboko azken berriak eta aldaerak ezagutzeko.

- Erredaktoreburua

Zenbait sail edo informazio-esparruren koordinazioa eta garapena hartzen ditu bere gain erredaktoreburuak. Zuzendariarekin eta zuzendariordeekin batera hedabidearen ardatza da, errealitatearen kudeaketa informatiboari dagokionez.

- Zuzendariordea

Izenak berak azaltzen duenez, zuzendariaren ondoren egunkariaren jarduera informatiboan erantzukizun handiena du zuzendariordeak. Zuzendariaren konfiantza osoa du, eta harreman profesional estuan dago harekin. Zuzendaria ordezkatzen du hura ez dagoenean. Normalean goizean zuzendariorde bat egoten da erredakzioan, eta arratsaldean, beste bat.

Egunkariaren egituran zuzendariorde bat baino gehiago dagoenean, haien lana atalka banatzen da. Badira informazio-zuzendariordeak, erredaktoreburuekin batera eguneko informazioaren kudeaketan aritzen direnak. Edizio-zuzendariordeek, aldiz, produktuaren azken emaitza gainbegiratzen dute. Itxiera-arduradunak dira, eta bukaeraraino geratzen dira erredakzioan. Badira iritzi-zuzendariordeak ere. Horiek egunkariko *Iritzia* atalaz arduratzen dira. Gain-gainetik segitzen diete argitaratzen diren hausnarketen edukiari eta horien ildo ideologikoari. Zuzendariaren konfiantzazko pertsonak direnez, editorialak idazten dituzte zenbait kasutan.

- Zuzendaria

Hedabidearen arduradun profesional, legal eta morala da. Arlo profesionalean, zuzendaria produktu informatiboaren kalitatearen bermea izan behar da, itxura zein mamiaren aldetik.

Egunkariaren erantzule legala ere bada. Argi ibili behar da, erne, argitalpenaren eduki informatiboa legearen esparruaren barruan ote dagoen. Zuzendariaren erantzukizuna ez da legearen esparrura mugatzen. Badira lan egiteko modu edo informazio mota batzuk, legez onartuak direnak, baina moralki onargarriak ez direnak. Hori dela-eta, zuzendariak informazioaren edukiei eta horiek jorratzeko moduari begiratzen die, eta lan egiten du egunkaria bide etikoetatik urrun ez dadin. Horregatik, bera da egunkarian argitaratzen den guztiaren azken erantzulea, erantzule nagusia. Zuzendariak bere egiten du kazetariek idatzitako lana zentzu sinbolikoan, baita praktikoan ere: testuren bat argitaratuz gero, sinadurarik ez duena, berak izango du horren erantzukizuna. Hedabidearen irudia da, legearen aurrean ez ezik, gizartearen aurrean ere.

1.2.2. Erredakzioko lan-antolamendua

Lantegi baten modukoa da erredakzioa; nork bere eginkizuna eta lekua ditu, eta egitura horrek hierarkia jakin baten barruan funtzionatzen du. Izan ere, beste edozein lanbidetan bezala, kazetaritzan ere lankide guztiek dute, era batera edo bestera, erantzukizun bat, betebehar bat. Bakoitzak bereari eutsi eta behar bezala erantzuteko, antolatu beharra dago. Gaurko antolamendu egokia izango da biharko argitalpenaren bermea, kazetariek euren lanaren helburua ondo bete dezaten: gizartea informatzea.

Erredakzioaren antolamendua puzzle berezi baten modukoa dela esan daiteke. Berezia, peza bakoitzak bere lekua duelako, baina leku hori ez da guztiz aldaezina. Puzzle normal batean peza mugitu eta beste nonbaitera eramanez gero, irudia aldrebestu egiten da. Peza ez da behar bezala sartzen, peza bakoitzari dagokion lekuak egokiera bakarra duelako. Erredakzioaren barruko antolamendua ez da hain zurruna, baina. Kazetariak ez daude, derrigorrez, leku tinko batean beti. Badago haiek sailez aldatzea; postu eta ardura batetik beste batera joan daitezke hedabidearen komenentziaren arabera.

Horrela, lankideen erantzukizunak desberdinak dira, eta aldatu egiten dira denboraren joanean: baliteke gaur erredaktorea dena sailburua izatea bihar; oraingo sailburua erredaktoreburua edo zuzendariordea izatea datorren astean; erredaktoreburua edo zuzendariordea, berriz, baliteke zuzendari bihurtzea. Edo alderantziz: erredaktoreburu bat sailburua izatea, edo sailburua erredaktore bihurtzea, hamaika arrazoi direla medio. Aldaketa guztiak egin daitezke, noski, baina tentu handiz ibili beharra dago: puzzlea malgua da, baina ez hautsezina. Pezak leku ezegokietara aldatzen badira, kalte egingo dio horrek puzzleari eta berak islatzen duen irudiari. Produktuari, alegia. Horregatik, aldaketak egin egiten dira, bai, baina normalean hedabideek ez dute gehiegi arriskatzen lehen ekinaldian. Ez da komeni.

Egunkariaren barne-antolamenduak ohitura edo arau batzuk ditu. Prozesu horrek material informatiboa hasieratik bukaeraraino kudeatzea du helburu, hau da, egitate edo egintza bat izan denetik gertakari hori albiste bihurtu eta egunkariaren paperezko orrietan edo pantailako edizio digitalean hedatu arte. Eguneroko lanean informazio-oldeak inguratzen du kazetaria; gertakari-zurrunbilo batean bizi da profesionala. Bere lana egitate horiek etengabe sailkatzea da, hortik zerk merezi duen eta zerk ez erabakitzeko, berak eta egunkariak dituzten albiste-balioei segituz. Horiexek dira oinarriak, heldu beharreko lanabesak, produktua egiteko.

Norberak zeintzuk ardura dituen argi izatea, horiek ondo mugatzea da lan komunaren oinarria. Zuzendariak, esaterako, ez du jakin behar egunero sail guztietan dauden albisteen berri, ezta datozen egun edo asteetan arlo guztietako kazetari bakoitzak egin dituen aurreikuspenak ere. Zoratzeko modukoa izango litzateke horretaz guztiaz jakiten saiatzea. Ezinezkoa. Zuzendariak ezin ditu kazetari guztien agenda, ideiak eta proiektu informatiboak ezagutu.

Zuzendariak konfiantza du bere taldean, eta badaki sail guztien barruan kate bat osatzen dela. Kate horretan transmititu egiten da informazioa: erredaktoreak bere agendaren berri ematen dio sailburuari sailak egunero eta astero egiten dituen bileretan. Edo, besterik gabe, lanaldiko edozein unetan. Sailburu horrek, bestalde, bere lantaldeko kazetarien lanaren eta aurreikuspenen berri emango die erredakzio-zuzendaritzako kideei. Erredakzio-zuzendaritza hori berdin antzekoa izaten da egunkari guztietan. Normalean, zuzendariak, zuzendariordeek eta erredaktoreburuek osatzen dute.

Egunkariak jasotzen duen informazioa kudeatzeko lan-bilerak egiten dira erredakzioan. Hedabide bakoitzak berezko funtzionamendua duen arren, eremu honetan badira ezaugarri komun batzuk, besteetan bezala. Eskuarki, egunkari guztietako erredakzio-arloan gutxienez bi bilera egiten dira egunean: goizeko edo eguerdiko bilera eta arratsaldekoa.

Goizeko bileran erredakzio-zuzendaritzako kideak elkartzen dira: zuzendaria, goizeko zuzendariordea eta erredaktoreburuak. Lehendabiziko bilera horretan eguneko agenda informatiboa aztertzen dute. Erredaktoreburuek haien esparruko

sailetako arduradunengandik jasotako aurreikuspenak aurkezten dituzte, parte-hartzaile guztien artean albisteak aukeratu, garrantziaren arabera ordenatu eta horiek jorratzeko moduak zehazteko.

Arratsaldeko bileran parte-hartzaile berdinak biltzen dira, baina goizeko zuzendariordearen ordez arratsaldekoa izaten da gelan. Bilera horrek bi helburu zehatz ditu: batetik, goizean aurkeztu eta aukeratutako informazioa nola garatzen ari den aztertzen da, albisteak eskatu bezala jorratzen ari diren, ezustekorik izan ote den. Biharamuneko egunkariaren azalean zer gai sartuko den ere erabakitzen da bertan. Erredaktoreburu bakoitzak berak kudeatzen dituen esparruetako eduki nabarmenenen berri ematen du, horiek azalean, egunkariaren erakusleihoan, ager daitezen. Bestetik, biharamuneko agenda osatzen hasten dira, hurrengo egunean, goizeko bileran, jorratzeko prest izan dadin.

Bi bilera horietan ohikoa da egunkariaren edizio digitalaren arduraduna ere egotea, bertan zabaltzen den informazioa baloratu eta erredakzio-zuzendaritzako beste kideen artean Interneteko edizioan sartzea merezi duen edo ez erabakitzeko.

Erredakzio-zuzendaritzaren bilerak ez dira egunero hedabidean egiten diren bakarrak. Sail bakoitzean bilerak izaten dira lanaldiaren hasieran. Sailburua bere arloko kazetariekin elkartzen da, eta guztien artean eguneko eginkizunak aztertu eta banatzen dituzte. Lehenago, sailburuak lurralde-ordezkaritzetako arduradunekin hitz egin du, bertako informazioa jaso eta bilerara eramateko.

Bestelako maiztasuneko bilerak ere izaten dira egunkarietan. Asterokoak izaten dira, eta erredakzio-zuzendaritzak zein sail guztiek egiten dituzte. Erredakzio-zuzendaritzan epe ertain eta luzerako aurreikuspen informatiboak aurkezten dira. Horietaz gain, kazeta-informaziotik haratago dauden gaiak jorratzen dira: egunkariaren funtzionamendua, egoera ekonomikoa, lankideen proposamenak eta kexak… Sailen asteroko bileretan sailburua, saileko beste kazetariak eta esparru horren ardura duen erredaktoreburua batzen dira.

Erredakzio-zuzendaritzaren bileretan, antzeko dinamika izaten da: batetik, aste osorako aurreikuspen eta gaiei heltzen diete. Bestetik, erredaktoreburuak lankideen kezkak aditzeko abagunea da, gero erredakzio-zuzendaritzari transmititzeko. Era berean, erredakzio-zuzendaritzan hartu diren erabakien berri ematen die erredaktoreburuak saileko kideei.

Horixe izaten da egunkari baten antolamendua eguneroko jardunean. Ezohiko gertaerak suertatzen direnean, tratamendu berezia eskatuko dutenak, aldaketak izaten dira. Orduan, krisi- edo larrialdi-bilerak egiten dira erredakzioan, ezusteko egoera horiek ahalik eta modurik txukunenean kudeatzeko eta, horrela, egunkariaren funtzionamenduari ahalik eta kalterik txikiena egiteko.

1.3. DUINTASUNA LANBIDEAN, ETIKA PROFESIONALA

Ezin du edonola egin bere lana kazetariak, informatzaile profesionalak. Mundua diskurtso bihurtzeko lan horretan, profesionalak duintasunez eta etikaz egin behar du beharra. Hirugarren azpiatal honetan, horretaz hitz egiten da.

Mundu errealaren, errealitate askotarikoen eta audientziaren arteko bitartekarilan azaltzailea eta interpretatzailea egin ohi du kazetariak, eta eginbehar horretan duen funtzio eta erantzukizun soziala buruan izan behar du une oro. Egiazko informazioa jasotzeko eta ezagutzeko pertsonek duten eskubideak[1] gidatzen baitu bere jarduna neurri handi batean, eta hori bermatzeko lana egin behar du kazetariak. Bitartekarilan horretan, mundua etengabe interpretatu behar du kazetariak eta, ondorioz, behin eta berriz hautaketa-lana egin behar du. Zerbait gertatu eta jendartean ezagutzera ematen den arte, kazetariak hautatu egiten ditu munduan zehar izandako gertakarien arteko horiek, besteren albisteak kontu horietaz… eta argitara ematen ditu bere ustez datu aproposenak direnak, era berean, hitz egokienak aukeratzen ditu sortuko duen testurako, eta horiek guztiak toki egokienean kokatzen ditu egunkariaren orrialde batean.

Beraz, kazetaritza da etengabeko aukeraketa ezaugarri duen lana, hedabideen ustezko objektibotasuna suntsitzen duen lana, intentzioak markatutako eginbeharra, alegia (Armentia eta Caminos, 2009: 65).

Horrek ez du esan nahi, ordea, interpretazio hori asmo txarrez egiten denik gertaerak itxuraldatzeko, nahiz eta hori ere gerta daitekeen eta gertatzen den, nahi baino gehiagotan seguru aski. Etengabeko interpretazioak gidatzen duen eginbehar hori duintasunez, erantzukizunez, zintzotasunez, inpartzialki, iturriak kontrastatuz eta egiari zor zaion errespetuaz egitea eskatzen zaio kazetariari. Eta halaxe behar du izan, baina ezin dugu ahaztu, halaber, kazetaria ezer baino lehen, pertsona ere badela eta erratu daitekeela, huts egin dezakeela. Horrelakoetan, gaizki egindakoak onartu eta lehenbailehen konponbidean jartzea da zentzuzkoena eta zintzoena. Errakuntzak errakuntza, kazetariak baditu eskura legezko baliabideak eta legearen markotik kanpoko neurriak jarduna arautu eta etikaren ikuspegitik behar bezala antolatzeko.

1.3.1. Legea eta haren mugak

Euskal Herriaren Bidasoaz hegoaldean, kazetaritza-jarduna arautzeko legemaila duen araua, Espainiako Konstituzioan aurki daiteke, haren 20. artikuluan hain zuzen ere. Bertan, informazioa jasotzeko eta emateko eskubideak babesteaz gain, eskubide horien mugak zeintzuk diren ezartzen da. Sekretu profesionala eta kontzientzia-klausula aipatzen dira 20. artikulu horretan.

1. Nazioarteko hainbat arauk jasotzen du printzipio hori kazetarien jardunaren funtsezko betebehar gisa. Kazetaritzaren etikaren oinarrizko printzipioen ataleko lehenengo artikuluan jasotzen du Unescok eta horrelaxe biltzen du Kazetarien Jokabideak arautzen dituen Printzipioen Adierazpenaren lehenengo artikuluan Nazioarteko Kazetarien Federazioak ere.

Sekretu profesionala

Informazio-iturriak ezagutzera ez emateko kazetariak duen eskubidea da kontzientzia-klausula. Orobat, informazioa lortzeko erabili dituen oharrak, audioak edota informazioa duten bestelako euskarriak sekretupean gordetzeko eskubidea bermatzen dio kontzientzia-klausulak informazioaren profesionalari. Oinarrizko eskubide honen funtsa da informazio librea bermatzea eta kazetariak bere jarduna burutzeko berme guztiak izatea. Gaur egun, espainiar Konstituzioan jasotzen bada ere, kazetariaren sekretu profesionala ez dago legez arautua.

Kontzientzia-klausula

Kontzientzia-klausularen helburua kazetariaren independentzia bermatzea da profesionalek euren lanbide-eginkizuna gauzatzen dutenean. Eskubide horren arabera, informazio-arloko profesionalek lan egiten duten komunikazio-enpresan euren harreman juridikoak eten ahal izango dituzte honako bi kasuetan: a) lanean diharduen mezubidean funtsezko aldaketa gertatzen denean informazio-joeran eta ideologia-ildoan; b) enpresak langileak lekualdatzen dituenean bere taldeko beste komunikabide batera eta aldaketa horrek informatzailearen lanbide-joera modu nabarian haustea dakarrenean. Halako kasuetan kalte-ordaina izango da langilearentzat. Sekretu profesionala ez bezala, 2/1997 Lege Organikoak arautzen du kontzientzia-klausula.

1.3.2. Kode deontologikoak

Zuzenbidearen kontroletik kanpo geratzen diren hainbat esparrutan murgiltzen da kazetaria eguneroko jardunean, baina ba al daki profesionalak nola kudeatu behar dituen halako egoerak? Lanbidearen obligazio ez juridikoei zintzotasun osoz aurre egiteko kazetariak argi izan behar ditu zenbait kontzeptu eta horien artean deontologia profesionala egongo litzateke.

Kazetaritza-jarduerari eragiten dion arau multzoa da kazetaritzaren deontologia profesionala. Informatzailearen kontzientzia profesionala erregulatzen duen kazetari-lanbidearen arau bilduma. Kode deontologikoetan bilduta egoten dira arau horiek. Lanbidearen jardunean, autodiziplina eta autokontrolerako talde profesionalak erabaki eta onartutako printzipio, arau, irizpide eta agindu etikoen bilduma sistematizatua dira kode deontologikoak (Real, 2010: 278). Kontua da, kode deontologikoek ez dutela lege-izaerarik eta haien aplikazioa erabat borondatezkoa dela bai komunikazio-enpresentzat bai eta kazetarientzat ere, ez baitute inolako zigorrik jasoko autorregulaziorako neurri horiek aplikatu ezean. Hortaz, norberak bere buruarekiko eta publikoarekiko duen errespetuak eta erantzukizunak gidatuko du eginbeharra.

Kalitatezko kazetaritza egin nahi bada, ezinbestekoa da kode deontologikoak aintzat hartzea eta jarrera etikoz jardutea. Horixe izaten da maiz komunikabideen kalitatea neurtzeko aipatzen den ezaugarria. «Edukiei aipamena egin ostean, hedabide baten kalitate-mailari buruz aritzeko sarritan erabiltzen den argudioa da, bertan ari diren profesionalen aldetik kazetaritzaren kode deontologikoen eta arau etikoen betetze-maila» (Pérez, 2004: 11).

Nazioarteko, nazio, zein hedabideen baitako kode deontologiko eta arau osagarriek jasotzen dutenaren arabera, honako printzipio hauek azpimarratzea iruditu zaigu ezinbesteko kazetaritza duin, zintzo eta kalitatezkoaren izenean:

1.3.2.1. Egiatasuna eta informazioa jasotzeko eskubidea bermatu

«Egiazkoa eta osoa den informazioa jasotzeko gizarteak duen eskubidea da kazetaritzaren deontologia profesionalaren funtsezko oinarria» (Alsius eta Salgado, 2010: 20). Hortaz, ez du inoiz gezurra den informaziorik kaleratuko kazetariak, ez berak gezurra dela jakinda bederen. Izan ere, «gezurrak apropos esaten dira; errakuntzak oharkabean igarotzen dira» (Basterretxea, 2002: 245). Bere esku dituen baliabide guztiak erabiliko ditu profesionalak informazioaren egiatasuna frogatzeko. Gertaeren gaineko zurrumurru eta esamesek ez dute tokirik informazioetan, ez baitira albiste, ez haien egiatasuna frogatu bitartean. Halako tentazioen aurrean, tentuz ibili behar du kazetariak eta zintzo jokatu. Oharkabean egindako errakuntzak ahalik eta azkarren zuzenduko ditu.

1.3.2.2. Informazioa modu zilegian lortu

Arestian aipatu bezala, kazetaritzaren printzipio oinarrizkoena egiatasuna bilatzea da eta ikertu egingo du kazetariak gertaeren egiatasuna frogatzeko, betiere legeak markatzen dituen mugen baitan. Batzuetan legearen eta etikaren mugetan barrena aritzeak ez du bermatzen egia osoa ezagutu ahal izatea eta oztopo bilaka daiteke interes publikoa duen gai edo gertaeren bat argitara emateko. Zer egin kasu horietan? Kode deontologikoek argi diote zilegia ez den edozein prozedura erabilita ezin dela informaziorik lortu, eta kazetariak ez duela inoiz bere identitatea ezkutatuko informazioa lortu ahal izateko, baina salbuespenak ere kontuan hartzen dira etika profesionala arautzeko gida (ikus: Perez, 2004) eta zenbait kode deontologikotan.

Marko juridikotik at dauden jokabideak (identitate faltsuak, mikrofonoen erabilera, kamara ezkutuen erabilera, espioitza…) salbuespen-egoeratan soilik erabili ahal izango ditu kazetariak informazio lortu, egiaztatu edo jokabide antisozialak salatzeko. Hots, gizartearen gaitzespena merezi duten jarrerak erakusteko, kazetariak ezin badu informazioa lortu eta egiaztatu bestelako bideak erabiliz, edota aurretik erabili izan badira beste prozedura batzuk eta emaitzarik ez badute izan. Hala nola, prozedura horiek erabilita lortuko den informazioa argitaratzeak konprometitutako pertsonei sortzen dizkien kalteak baino abantaila gehiago ekarriko dizkionean

gizarteari. Kontuak kontu, mugak ezartzea zaila da oso, eta kazetariak argi izan behar du halako jokaerak salbuespenezkoak direla eta erabiltzen direnean, publikoari argi adierazi behar zaiola zer-nolako prozedurak erabili diren informazioak lortu edo egiaztatzeko.

1.3.2.3. Norbanakoen eskubideak errespetatu

Gizaki orok tratu berbera, bereizkeriarik gabekoa, jasoko du kazetariaren aldetik. Beraz, pertinentea ez bada, ez die aipamen berezirik egingo gizakiaren arrazari, erlijioari, sexu-aukerari, minusbaliotasunari eta haien bazterkeria eragin dezaketen bestelako ezaugarriei.

Kazetariak, baina, ezin du ahaztu bere jardunbideak gizartean duen eragina eta, horregatik, gutxitutako taldeak kaltetu edo haien diskriminazioan lagundu ditzaketen estereotipo eta topikoak saihestu egingo ditu. Izan ere, ez diote informazioari ezer berririk gehitzen eta, aldi berean, gutxiengoak estigmatizatzeko arriskua areagotzen dute. Zentzu horretan, arrazismoa, sexismoa eta homofobia eragin ditzaketen erreakzioen aurrean erne egon behar du kazetariak.

Era berean, herritarren errugabetasun-printzipioa errespetatuko du kazetariak epai baten bitartez kontrakoa frogatu ezean. Hots, atxiloketa-agindua tartean dagoenean, pertsona bat atxilotu dutenean edota prozedura judizial formala hasten den kasuetan, herritarraren izena zabal dezake kazetariak, baina inolaz ere ez du pertsona hori gaizkiletzat joko, ez behintzat horrela frogatzen ez bada.

1.3.2.4. Informazioa eta iritziak banatu

Kode deontologiko eta etika-arau gehienek argi jasotzen dute informazioaren eta iritziaren arteko bereizketa egiteko beharra. Izan ere, egunkariek atal bereziak eta berezituak dituzte informazioak plazaratzeko eta iritziak ezagutarazteko. Kazetariak kontu handiz eta zintzotasunez ezberdinduko ditu batzuk eta besteak. Hortaz, informazio-generoetan ez zaio kazetariari bere iritzirik onartuko. Era berean, distantzia hartuko du gertaeren inguruko datuak emateko orduan eta datuen deskribapen zehatza egiten ahaleginduko da. Informazio-generoetan erabiltzen dituen protagonisten iritziak argiro agertuko dira adierazpenen formula ezberdinen bitartez eta bakoitzari dagokion atribuzioa modu gardenean adieraziz, publikoarengan nahasmena saiheste aldera.

1.3.2.5. Argazki eta irudien tratamendua

Informazio-elementuak diren neurrian, argitara ematen diren argazki, irudi, grafiko eta infografiek errealaren isla ahalik eta zintzoena jasoko dute, inoren intimitatea eta ohorea kalte ditzaketen irudiak zabaltzeko orduan. Esku artean duen

material grafikoan adingabeak eta hildakoak agertzen direnenean zuhurtziaz jokatu behar du profesionalak, sen komuna erabiliz eta sentsazionalismotik ihes eginez.

Gaia labainkorra izateaz gain, aspaldian hedabideetan iraunkorra den ardura etikoa ere bada. Hondamendi natural, gerra, auto, hegazkin, tren, autobus istripu edota suizidioen berri ematen duten irudietan zer elementu eta nola erakutsi edo babestu (Alcalá, 2010: 243).

Arauak arau, kazetariak behin eta berriz eguneroko jardunean bere buruari galdetu behar dio ondo ari den ala ez, idazteko erabiliko dituen hitzak eta terminoak egokiak diren ala ez, adierazpenak era aproposean jasotzen dituen ala ez, erabiltzen dituen iturriak fidagarriak diren ala ez… Horrek guztiak etengabeko birziklatzea eta ikastea eskatzen du eta horixe da norberak bere buruari eskatu beharko liokeen autoperfekzioa lortzeko bide bakarra.

Kazetariak bezalaxe, kode deontologikoek ezinbestekoa dute berritzea sasoian sasoira egokitzeko. «Profesionalaren jardunean ezinbesteko diren gaiekin lotura dutenez, kode deontologikoek bere baitan hartzen dituzten arauak eraberritu egin behar dira bi edo hiru urterik behin, gizartea aldatuz doalako eta profesionalaren eginbeharrean eragina izango duten egoera eta ñabardurak jasotzea beharrezkoa delako. Ezinbestekoa da informazioaren eta gizartearen inguruan sortzen diren arazoak kontuan hartzea zaharkituta geratu ez daitezen» (Real, 2010: 279) .

1.3.3. Estilo-liburuak eta erredakzio-estatutuak

Estilo-liburuek eta erredakzio-estatutuek kazetariengandik gertuen dagoen lanbidearekiko erregulazio profesionala jasotzen dute, kazetariak lanean diharduen enpresan dituen eskubide, betebehar eta jardunaren mugak biltzen baitira bertan. Esan daiteke estilo-liburuak kazetarien barne-erabilerarako gidaliburu paregabeak direla.

Estetika- edo diseinu-arauak, idazketa-arauak, arau teknikoak, hizkuntzaren erabilerari buruzko arauak, deontologia eta kazetaritzaren etikari dagozkion aholkuak eta aipamenak, kazetaritza ulertzeko modua eta hori praktikara eramateko moduak, edota, legearen arabera arazorik ez izateko jarraitu beharreko arauak batzen dituzte estilo-liburuek.

Euskaraz ari diren hedabideen artean *Berria*k eta *Goiena*k bakarrik dute estilo-liburua. 2003an itxi zuten *Euskaldunon Egunkaria*k ere argitaratu zuen estilo-liburua 1992an.

Euskal Irrati Telebistak 2012an eman zituen lehen urratsak bere estilo-liburua izateko.

1.3.4. Irakurlearen arartekoa: ombusdman delakoa

Irakurlearen arartekoaren funtzio garrantzitsuena zera da, irakurleen interesen alde egitea argitalpenak argitaratu ditzakeen akatsen aurrean: informazio faltsuak direla, nahasmenak direla, egunkarien printzipio editorialen desbideratzeak direla…

Gure artean ez dago *ombusdmana* edo irakurlearen arartekoa hedabideetan izendatzeko tradizio handirik eta euskarazko komunikabide pribatuetan horrelakorik ez izatea da horren adibide garbiena. Aitzitik, EITBn, haren Administrazio Kontseiluko txandakako presidenteak betetzen du *ombusdmana*ren eginkizuna.

Japonian, 20ko eta 30eko hamarkadetan hainbat egunkaritan izendatu ziren irakurlearen interesak defendatzeko pertsonak. AEBn 60ko hamarkadaren bukaeran ezarri ziren prentsako lehenengo *ombusdmanak. El País* egunkaria izan zen Espainian irakurlearen arartekoa izendatzen lehena Espainian 1985ean. Gerora, *La Vanguardia*k, *La Voz de Galicia*k, *El Correo Gallego*k eta *El Punt Diari*k ezarri zuten euren egunkarietan irakurlearen arartekoa.

1.3.5. Kazetariaren lan-baldintzen duintasuna

Duintasunaz eta etikaz ari garen honetan, ezin aipatu gabe utzi hedabideetan ari diren beharginen lan-baldintzen duintasuna. Lanbideak egoera zaila bizi du gaur egun munduan eta Euskal Herria ez da salbuespena. Prestigio eta sinesgarritasunaren galerari, komunikazio-enpresen krisia eta, oro har, komunikazio-ereduaren nora eza gehitu behar zaizkio eta horrek guztiak ekarri duen lan-prekarietatea. Euskarazko komunikabideetan ari diren profesionalen lan-baldintzak (ikus: Aiestaran, 2009) kaskarrak dira oso.

Horrenbestez, nahitaezkoa da lan-baldintzak duintzeko hausnarketa serioa egitea. Izan ere, langileak dira proiektuetako zutabe eta oinarri nagusia. Langilerik gabe, ez dago enpresarik, ezta produkturik ere. Kazetariei euren jokabide eta jarreretan duintasuna eta jarrera etikoa izatea eskatzen zaien modu berean, haien lana arautzen duten baldintzetan duintasuna exijitzeak zentzukoa dirudi erabateko zintzotasunaren eta erantzukizunaren izenean.

Prentsa idatziak gero eta ale gutxiago saltzen ditu mundu osoan eta krisiaren ondorioz egunkariak ixtea gauza arrunta bilakatu da. Halaber, hedabideak talde mediatiko handietan batzea ohikoa bihurtu da azken hamarkadan eta konglomeratu mediatiko handi horien atzean dauden jabeek gehienetan ez dute kazetaritza-jardunarekin zerikusirik, haien helburu bakarra dirua irabaztea baita.

Informazioa gizarte-ondasuna izatetik merkantzia izatera igaro den honetan, lehia basati eta nork baino nork, nola edo hala, gehiago saldu behar duen une honetan, dena onartzen da, kazetaritza-lana gidatzen duten oinarrizko printzipioak alde batera utziz.

Egoerak arduratzeko moduko itxura du eta zaila da hedabideen etorkizuna definitzea. Hala ere, inoiz baino argiagoa ematen du gainontzeko hedabideen artean nabarmentzeko beharrak, eta gakoa kalitatea eskaintzean dago. Jarrera etikorik gabe ez dago kalitatea eskaintzerik, ezta kazetaritzaren funtsa eta oinarria ulertzerik ere. Erabaki kolektiboa, baina batez ere, indibiduala da deontologia kontuan hartuz jarrera etikoz jardutea. Etengabeko esfortzua eskatzen duen eginkizuna alegia. Eta horrek ezberdinduko ditu kazetari ona eta kazetari kaskarra.

2. Euskarazko komunikazio-sektorea

Liburuko bigarren atala da hau. Euskarazko gizarte-komunikazioaren irakurketa historikoa egin nahi da berton. Euskarazko komunikazioa, sektore gisa, gizarteak eta akademiak orain-oraintsu onartu eta deskribatu duten fenomenoa da. Orain oraintsura arte, euskal hedabideei buruz hitz egitean, Euskal Herrian sortu, kudeatu eta banatu izan den gizarte-komunikazioaz hitz egin da, alegia: hizkuntza-irizpideak barik lurralde-irizpideak gidatu izan duen sektorearen ezaugarritzeaz.

Euskal hiztun-komunitatearen interesekin bat etorrita, bat egiten dute eskuliburu honen autoreek Euskarazko Kazetaritzaren Lehen Kongresuak (2004. urtea, Euskalduna Jauregia, Bilbo) euskal komunikazio-sektorea definitzeko emandako irizpide nagusiekin, dioenean euskaraz garatzen dela euskal komunikazio-esparrua. «Euskarazko komunikazio-esparru delako horretan, muinekoa, esentziala lehen hori da: alegia, euskara. Horrek bereizten du gurea, antzekotzat jo litezkeen gainerako esparruetatik» (Basterretxea eta Zuberogoitia, 2005: 31).

Beraz, ez da lurralde-hautua, hizkuntza-hautua baizik definitzen duena sektorea. Edo, nahi bada, euskararen lurralde bizi, aktibo eta produktiboa da sektorea definitzen duena.

Atal honetan, hiru azpiatal aurkituko ditu irakurleak. Lehenean, euskarazko prentsaren deskribapen historikoa egiten da, XVIII. mendetik frankismoaren azkenera bitartekoa. Bigarrenean, euskarazko kazetaritza modernoaren sorrera eta indartze-fasea azaltzen dira. Hirugarrenean, XXI. mendea begietan hartu eta kazetaritzak norantz jo lezakeen hausnartzeko irizpideak eskaintzen dira.

2.1. EUSKARAZKO PRENTSAREN HISTORIA LANTZEN

Oraina ulertzeko ezinbestekoa da iragana ezagutzea. Horixe da atal honetan proposatzen zaizuna. Hots, euskal prentsaren hastapenetara, proto-prentsara alegia, jauzi egin eta XIX. mendetik XX. mendearen erdira arteko euskal prentsaren ibilbidea egitea.

Euskal kazetaritzari errepasoa egingo dion atal honetan, gogoratu beharra dago Euskal Herrian berandu hasi zela kazetaritza, inguruko herrialdeekin alderatuz gero. Izan ere, euskarazko kazetaritzaren hastapenak ezagutzeko XIX. mendera egin behar

da jauzia. Bestalde, ezin da ahaztu euskarazko kazetaritzaren ibilbidea, zoritxarrez, arazo ekonomikoek baldintzatu dutela hasiera-hasieratik. Halaber, oso gogoan izan behar da euskarazko kazetaritzaren gibelean borondatezko lan handia egon dela betidanik, eta hala dela gaur egun ere.

Alderdi politiko ezberdinen ideiak oso presente izan ziren XIX. mendean eta XX. mendearen hasieran sortu ziren euskarazko kazetaritza-egitasmoetan. Ezin ahaztu era berean, kristau-erlijioaren eragina euskarazko proto-prentsan. XX. mendearen hasieran jaio zen egun euskarazko prentsaren dekano bilakatu den *Zeruko Argia,* kristau-erlijioaren babespean.

Batzuek zein besteek ereindako haziari esker ikusi zuen argia *Egunak*, euskal kazetaritzaren historiako lehenengo euskarazko egunkariak, Espainiako Gerra Zibilaren harrabotsen artean. Iraupen laburra izan zuen zoritxarrez; argitaratu eta 6 hilabetera kaleratzeari utzi behar izan zioten, Francoren tropek Bilbo menpean hartu zutenean. 1939an, Francok diktadura ezarri zuenean, klandestinitateak eta erbesteak markatu zuten euskarazko kazetaritzaren patua.

Nolanahi ere, diktaduraren begi zelatari zorrotza gainean zutela, 50eko hamarkadan aldizkari kulturalak eta informazio-aldizkariak sortu ziren: *Jakin, Anaitasuna, Goiz Argi…*

2.1.1. Proto-prentsa

Atal honetako abiapuntua XIX. mendea izango da; ordukoak baitira argia ikusi zuten lehenengo euskarazko testuak, almanakeak hain zuzen ere. Aipatzekoa da 1815ean Jose Paulo Ulibarri arabarrak sortutako *Egutegi eusquerascoa.* Ale bakar bat baino ez zen kaleratu, arazo ekonomikoak tarteko. Dena den, ordurako, euskaraz informazioa emateko beharra argi ikusten zuten euskaraz idazten zekitenek. Era berean, ahozko tradiziotik zetozen bertsoak informazioa emateko eta propaganda egiteko erabili ziren.

Euskarazko prentsaren hastapenak zedarritu zituen sasoiari epea jartzekotan, 1834. urtea izango da abiaburua euskarazko kazetaritzaren hasiera datatzeko. Urte horretan, *El Correo del Norte* aldizkari liberalean lehenengo euskarazko testuak agertu ziren, Gipuzkoako nekazariak ideia liberaletara hurbiltzeko helburuarekin.

Hamalau urte geroago, 1848an, Agosti Xaho zuberotarraren ekimenez euskara hutsezko *Uscal-Herrico Gaseta* sortu zen. Astean behin kaleratzeko aurreikuspenek porrot egin zuten, eta birritan agertu zen hilabeteko maiztasunez.

Ameriketara joan ziren euskaldunek zenbait kazeta kaleratu zituzten, nahiz eta gehienek toki txikia egiten zioten euskarari (Díaz Noci, 19995a: 40). Hala ere, *Escualdun Gazeta* (1885-1886) eta *Californiako Eskual Herria* (1893-1897) izan ziren XIX. mendean Ameriketan euskaraz soilik idatzitako prentsaren bi erreferente nagusiak.

2.1.2. Prentsa politikoa

XIX. mende osoan polarizazio politikoa prentsaren ezaugarri bilakatu zen. Izan ere, orduko agerkari gehienek jendearengan eragitea bilatzen zuten. *Le Réviel basque* errepublikazalea eta *Eskualduna* aldizkari kontserbadorea izan ziren horren erakusle garbiak Ipar Euskal Herrian.

Eskualduna Baionan sortu zen 1887an, eta 1944ra bitartean kaleratu zen. Horrela, ordura arteko euskarazko aldizkaririk iraunkorrena bilakatu zen. 1944an, Piarres Lafitte zuzendari zela, *Herria* aldizkariak hartu zuen *Eskualdunaren* lekukoa. Gaur egun astero kaleratzen da *Herria* Baionan.

Hego Euskal Herrian prentsa politikoa bilakatu zen alderdien babesleku, eta pentsamolde abertzalea hedatzeko asmoz, 1913. urtean sortu zen *Euzkadi* egunkari elebiduna. Ebaristo Bustintza *Kirikiño,* Esteban Urkiaga *Lauxeta* eta Nikolas Ormaetxe *Orixe*k idatzi eta zuzendu zuten *Euzkadi*. Egunkariaren azken alea 1937ko ekainaren 15ean kaleratu zen, argitaratzeko debekua jaso zuten arte.

Euzkadi sortu eta 20 urte pasata, 1932an, *Euzko* euskara hutsezko astekaria sortu zuten jeltzaleek. Askoren ustez, horixe izan zen jeltzaleen aldetik euskarazko egunkaria sortzeko egin zen aurreneko ahalegina. Besteak beste, Manuel Ziarsolo *Abeletxek*, Tomas Agirre *Barrensorok,* Inazio Eizmendi *Basarrik* eta Estepan Urkiaga *Lauxeta*k hartu zuten parte egitasmo horretan. Ez zuen bizitza luzerik izan ordea, 1934an, arazo ekonomikoen ondorioz, ez baitzen gehiago kaleratu. Edonola ere, zeregin garrantzitsua aitortzen zaio *Euzko*ri: *Eguna* lehenengo euskarazko egunkariaren eredua jarri izana alegia.

2.1.3. Kultura-aldizkariak

XIX. mendearen bukaeran kultura-aldizkariek norabide berria ezarri zioten euskal kazetaritzari. Kulturak ez ezik, politikak ere bazuen tokirik aldizkariotan. 1897an Resurrección Mª Azkueren eskutik *Euskaltzale*k ikusi zuen argia estreinakoz eta astero argitaratu zen 1899ra arte. Kaleratu zen hiru urteetan, euskaraz egindako lehenengo aldizkari modernoa bilakatu zen. Aldizkari kultural eta informatiboa zen. *Euskaltzale*ren ildoari jarraituz, 1902an, Azkuek berak euskarazko bigarren aldizkari kulturala kaleratu zuen: *Ibaizabal* astekaria. Aurrekoa baino informatiboagoa zen, nahiz eta poesiek, ipuinek eta bestelako testu literarioek tokirik bazuten. 1903an desagertu zen.

1916an sortu zen *Euzko-Deya*[2] euskarazko kultura agerkaria abertzaleen ekimenez. Hamabostean behin argitaratu zen 1923ra arte, Josu Telletxea eta Arsenio Beazkoetxearen gidaritzapean. Ezin aipatu gabe utzi, bertan agertu zela euskarazko lehenengo komikia izan zena: «Teles eta Niko».

Euskaltzaindia sortu zen urte berean, 1919an, Euskaltzaindiaren organoa izan zen *Euskera* (1919-1936) aldizkaria argitaratu zen.

2. *Euzko-Deya*k bi aro izan zituen, 1916-1920 eta 1921-1923. Primo de Riveraren diktaduran behin betirako desagertu zen.

2.1.4. Erlijio-aldizkariak

XX. mendeko 20ko eta 30eko hamarkadetan garrantzi handia izan zuten erlijio-aldizkariek Euskal Herrian. Erlijioa euskarazko agerkari gehienen ardatza baitzen gai politiko, sozial eta nekazaritzarekin lotutako gaiekin batera.

2.1.4.1. Zeruko Argia

Zeruko Argia aldizkariak aipamen berezia merezi du orrialdeotan, berau baita euskarazko prentsaren dekanoa. 1919an Iruñeko kaputxinoek lehenengoz argitaratu zutenetik etengabe kaleratu da gaur egun ezaguna den *Argia* astekari informatiboa bihurtzeraino. Gorabeheraz betetako ibilbide horretan, zentsuraren atzaparkadak, arazo ekonomikoak eta itxierak gainditu behar izan ditu egunotara heldu arte.

Damaso Intza zuzendari zela ikusi zuen lehenengoz argia *Zeruko Argia*k 1919an. Hasieran aldizkariak gai erlijiosoak lantzen zituen nagusiki, bertan ziharduten idazle gehienak kaputxinoak baitziren. Nolanahi ere, jende guztiari zuzendutako kazeta zen eta Euskal Herri osora hedatu zen.

Espainiako Gerra Zibilaren hotsek *Zeruko Argia* isilarazi egin zuten 1936an, baina Iruñeko kaputxinoek 1954an berrargitaratu zuten hileko maiztasunarekin. Hala ere, ezin izan zuen zentsuraren bortizkeriatik ihes egin eta 1960an Informazio eta Turismo Ministerioak emandako agindu batek kaleratzea galarazi zion. 1963an *Zeruko Argia* eraberrituta birkaleratu zen. Astero kaleratzen hasi zen eta informatibo bilakatu zen, Agustin Ezeizaren ekimenez. Orduan ere, zentsurarekin hainbat arazo izan arren, poliki-poliki bere bidea egitea lortu zuen.

2.1.5. Informazio-prentsa

Europan eta gainerako herrialdeetan informazio-prentsak lehenengo urratsak eginda zituela, XX. mendeko 20 eta 30eko hamarkadetan heldu zen Euskal Herrira euskarazko kazetaritza informatiboaren gailurra.

2.1.5.1. Argia[3]

*Argia*ren lehenengo alea, 1921eko apirilaren 21ean kaleratu zen Donostian, karmeldar fraide talde baten ekimenez. Euskaltzaleak izaki, euskara bultzatzea zen helburu nagusia eta euskaraz irakurtzera ohituta ez zeudenak euskara irakurtzen jarri nahi zituzten. Ordura arte Azkuek *Ibaizabal* eta *Euskalzale* aldizkari kulturaletan landutako ildoari jarraitu zion *Argia*k ere. Astero 800 ale kaleratzen zituen.

Primo de Riveraren diktadura-garaia igarota, egunkari bihurtu nahi izan zuten *Argia*, eta ahaleginak egin, egin ziren baina egitasmoak ez zuen aurrera egiterik lortu, arazo ekonomikoen ondorioz beste behin ere. *Argia* astekaria garai hartako masa-

3. Hau ez da egun ezagutzen den *Argia*ren aurrekaria. Gaur egun kalean den *Argia* 1919an sortu zen *Zeruko Argia*tik.

komunikabidetzat har daiteke, mass-mediek zituzten ezaugarri asko eta asko bere egin zituelako. Sasoi berrietara egokitzeko asmoz, egunkari bihurtzeko ahaleginak egin zituen eta horrek porrot egin ostean, *magazine* bihurtzeko saiakera egin zuen. 1936ko Guda Zibilak, ordea, betiko itzali zuen *Argia*ren distira.

2.1.6. Espainiako Gerra Zibila eta euskal prentsa

1936ko uztailaren 18an hasi zen Espainiako Gerra Zibila Francoren estatu-kolpearen ondorioz, eta gertaera horrek, sasoi hartako komunikabide orotan eragin zuzena izan zuen, eragin negatiboa batik bat. Euskal prentsarentzat egoera latza izan zen, euskaraz ezer kaleratzea oso zaila edo ia ezinezkoa bilakatu zelako. Hori gutxi balitz, kalean ziren hainbat kazeta desagertu egin ziren gerra piztu eta hurrengo hilabeteetan.

2. irudia. XIX. mende-amaiera eta XX. mende-hasierako zenbait argitalpen (Gonzalez, 2008:40).

2.1.6.1. Eguna, lehen egunkaria euskaraz

Desagertutako agerkarien zerrenda luzea bada ere, guda-garaian aldizkari batzuk berrargitaratu egin ziren eta berriak sortu ere. *Eguna*k, gure historiako euskarazko lehenengo egunkariak, Espainiako Gerra Zibila bete-betean zela ikusi zuen argia. 1937ko urtarrilaren 1ean jaio zen eta 6 hilabetez baino ez zen argitaratu. Bizitza labur horretan, gudariei sostengu morala emateko betebeharra izan zuen, besteak beste. Alabaina, ordura arte euskarazko prentsan izan zen betiko ametsa frogatu nahi izan zuen *Eguna*ren sorrerak. Hots, komunikabide eta harremanetarako baliagarria eta eraginkorra zela euskara. Honatx *Eguna*k bete zuen funtzioaren inguruan Joseba Agirreazkuenagak egindako interpretazioa:

> Gure ustez, *Eguna* ez zen gudariei begira sortu zen egunkari soil bat, gudarien artean indarra, kemena eta abar eragiteko tresna. Jakina, horretarako ere bai izan zitekeen erabilia baina gudaldiko egunkari gisa ez zegoen asmaturik. Beste helburu batzuek eragin zuten euskal egunkari horren sorrera, hots, helburu euskaltzaleak, euskara gizarteko harremanetarako eta komunikabideetarako tresna egokia izan zitekeela ere frogatu nahi zuten, besteak beste. Unamunoren heriotzaren berri eman zutenean, euskara kultur eta zibilizazio hizkuntza bezala azaltzen zela azpimarratu zuten egunkari jaio berrian (Agirreazkuenaga, 1989: 100).

Manu Ziarsolo *Abeletxe*ren zuzendaritzapean, Augustin Zubikarai, Estepan Urkiaga, Jose Mari Arizmendiarreta eta Alejandro Mendizabal kazetari eta idazle gazteek jardun zuten egunkarian. Agirreazkuenagak dioenez, ez zuten kazetarilanetan eskarmentu handirik, herriko kronikagile izatetik edo apaiztegitik kazetari profesional izatera pasa baitziren gehienak.

10.000 aleko tirada izan zuen eta horietako asko eta asko gudarien artean banatzen zituzten. *Eguna*k ideologia jeltzalea zuen eta bere zutabe informatibo nagusiak honako hauek ziren: gerrari buruzko nondik norakoak azaldu, faxismoaren aurka egin, euskal abertzaletasun jelkidea zabaldu, Euskal Gobernua defendatu, euskara eta euskal kultura zabaldu, kristautasuna hedatu eta nekazariak defendatu. 1937ko ekainaren 13an *Eguna*ren azken zenbakia kaleratu zen. Bezperan, Bilboko Babes Hesia hautsi zuten tropa frankistek.

Euskaldunok ez dugu berriz euskarazko egunkaririk irakurtzeko aukerarik izango 1990eko abenduaren 6ra arte. Hots, *Euskaldunon Egunkaria* jaio zen arte.

Hona hemen, euskarazko lehen egunkariaren lehen editorialaren testua (1937-01-01):

> **EMEN GARA!!**
>
> *Pozez gañezka gatoz eta poz oreri eutsi eziñez negara yatorku begietara. Ezin dogu ziñestu. Euskeltzale ta euskaldon gustion ames zoro ta ezintzat uste zana, egi ta ixatean biurtuteko agindu zindua artu dogu goxetik gabera.*

Eta EGUNA yoatzue gaur, euzkeldunok, zuen gurari ase-gatxak beteten; EGUNA zuen biotzen maiaetasunak piztu ta gartsututen; EGUNA bular eta arpegi goridun arantzale sendo-bulartsuen keska ta astuntasunak alaitu ta arinduten; EGUNA gustioi deika, oroen maitasun eskale, euzkeldunon kutun ixateko miñez.

Amesez gainezka ta itxaropen bixiz gatoz, Euzkerea erabilkatxa dala uste dabenei arpegi emoten dautsoegu eta gure aberkidiei atsegin yakezan izparak euzkeraz bakarik, argi-argi eta ziatz-ziatz emoteko ustietan agertuten gara.

Urte bari, bixitz-bari, diño esaera zarak. Negarez intzirika, guda zital eta negargarian odoltuta argituten dau urtiori begira jayoten gara, euzkerearen bixitz bari ixateko asmoz. Eta gure jayotza txiruan, oroipenak meitekorena dogu gure erijaren azkatasunaren aldez euzko-mendi aberatsen gibeletan diñarduen gudari erimientzat eta euzkerearen aldez zintzoro ekin ebelako erailduak ixan ziran euzkel-idazle argi ta jakintsuentzat gure gorasarerik beroena gordeten dogu. Gure agura baita euzko izparkari ta izparingientzat, bereziki gure aberiaren azkatasuna elburutzat dabela jokatuten dabenentzat, "Euzkadi" ta "Tierra Vasca" buru dirala.

Etxepareren ames berberez kutsututa gatoz. Eta EGUNA biotz, begi eta gogoetan darabilgunok, idazle zar aren kanta bero ta gartsuz didar dagigu: ***Euzkera, jalgi adi kanpora! Euzkera, jalgi adi plazara! Euzkera, abil mundi gustira, EGUNA´ren egoetan!***

Euzkadi´ko zelai loratsutan ludi osuari begira, Jel ikuritza oso-oso ta zindo-zindo aldeztu ta erakutsiko dogu, ikuritz oren maitasun, ontasun eta zuzentasuna baster gustiean erein, zabaldu, sendotu ta indartuteko gogo bixiz.

Argal gatoz eta ez baritxu. Baña itxaropenez ganezka.

Agur ta erdi, euzkaldunak!

Emen gara!!

2.1.7. Euskal prentsa erbestean

Euskararen eta euskal kulturaren egoera ezin larriagoa zen 1939an, Espainiako Gerra Zibila amaitu zenean. Gerrak ez zien inolako onurarik ekarri euskal kulturari eta Francoren diktaduraren aurka zegoen edozein manifestazio kulturali, ordura arteko lorpen gehienak suntsituta geratu baitziren. Frankistak ziren guztiaren jabe eta agintari nagusiak, baita kaleratzen zen prentsa gehienaren ugazaba ere. Horrez gain, euskaltzale kopurua jaitsiz joan zen: hilda asko, fusilatuta beste hainbat —*Lauaxeta* kasu— eta 150.000 euskaldunek, Eusko Jaurlaritzak egin zuen bezalaxe, erbesterako bidea hartu behar izan zuten. Sasoi hartan euskara bera ere debekatu zuten Hego Euskal Herrian.

Gauzak horrela, ihes egin zuten euskaldunek erbestean eraiki behar izan zuten euren bizitza. Orobat, euskal kultura eta hizkuntza gal ez zedin eutsi behar izan zioten, eta erbestean zein etxean egindako lanari esker, bizirik iraun zuen euskal kulturak eta kazetaritzak. Hortaz, egoerak behartuta hasi zen erbesteko kazetaritza.

2.1.7.1. Aldizkari politikoak

Espainiako Gerra Zibila bukatu eta hasierako urteetan ez zen gauza handirik kaleratu. Urte zailak ziren; Francoren diktadurapean euskara eta euskal kulturaren aurkako errepresioa bortitza zen oso. Gerra bukatu eta 1976ra bitartean, makina bat aldizkari politiko argitaratu zen, batik bat klandestinitatean edo erbestean, Ipar Euskal Herrian eta Ameriketan gehienak eta gutxi batzuk Hego Euskal Herrian. Egia esan, agerkari horietako askotan euskararen presentzia hutsaren hurrengoa izan zen.

Eusko Jaurlaritzak 1936an *Euzko Deya* aldizkaria sortu zuen Parisen, atzerrian propaganda eta informazioa zabaltzeko asmoz. Maiztasun irregularra izan arren, gerra ondoren ere kaleratu zen, 1940ra arte, II. Mundu Gerra piztu zen arte. Orduan Eusko Jaurlaritzaren egoitzak itxi eta Ameriketarako bidea hartu zuten jeltzale askok. Hainbat *Euzko Deya* argitaratu ziren Mexikon, Parisen eta Londresen 40ko hamarkadan.

50eko hamarkadan hainbat alderdik kaleratu zituzten agerkariak erbestean: ANV-EAEk *Tierra Vasca-Euzko Lurra* (1956-1975) aldizkaria Buenos Airesen edota komunistek *Alkartu* (1942-1947) hilabetekaria Mexikon.

60ko eta 70eko hamarkadetakoak dira *Enbata, Igela, Zabal, Goazen, Iraultza, Berriak* edota *Lan Deya,* besteak beste.

2.1.7.2. Aldizkari kulturalak

Euskal politikak bezala, kulturak diktaduraren gogorkeria ezagutu zuen frankismoan. Gauzak horrela, euskarazko kulturaren zati bat klandestinitatean edota Euskal Herritik kanpo ekoitzi behar izan zuten.

Euzko Gogoa (1949-1959) da gerra osteko kultur argitalpen garrantzitsuenetakoa. Guatemalan argitaratu zuten Jokin Zaitegik eta Andima Ibinagabeitiak, Nikolas Ormaetxea *Orixe*ren laguntzarekin. Erbestean zeuden idazleak biltzea, euskara bultzatzea eta hizkuntza kultur tresna bihurtzea ziren *Euzko Gogoa*ren helburu nagusiak. 1956tik 1959ra Miarritzen argitaratu zen.

Gaur egun ezagutzen den *Jakin* kultur eta pentsamendu-aldizkaria Arantzazuko frantziskotarrek sortu zuten 1956an eta *Yakin* izenarekin kaleratu zen lehenengoz.

> *Jakin* da, agian gerraosteko lehen belaunaldi autonomoaren ibilbidea egokien islatzen duen organoa, 1969a bitartean. Pentsamendu aldizkaria da, ez literarioa, orduko gehientsuenen antzera; euskara modernizatzean *Orixe*rekin hautsi eta eredu berriak proposatu ditu; Europako korronteetara begira jartzen da (Torrealdai, 1997: 130).

Zentsura gertutik ezagutu zuen *Jakin*ek. Izan ere, 1962 eta 1963an debekatu egin zuen Francoren zentsurak. 1964an berrargitaratu zen Joan Mari Torrealdai zuzendari zela, baina 1969an frankistek berriz itxi zuten eta 1977ra arte ez zen berriz plazaratu.

Ordutik aurrera bere bidea egin du eta egiten dihardu, Joan Mari Torrealdai, Joseba Intxausti, Joxe Azurmendi eta Paulo Agirrebaltzategiren gidaritzapean. Gaur egun bi hiletik behin kaleratzen da eta giza eta gizarte-zientziei buruzko lanak argitaratzen dira batik bat.

2.1.7.3. Informazio aldizkariak

Bigarren Mundu Gerra bukatu ondoren, Iparraldean *Herria* aldizkaria sortu zen. Berebiziko garrantzia izan zuen Pierre Lafitte apaiz eta idazleak aldizkariaren sorreran. *Herria*k *Eskualduna*ren pausoei jarraitu zien hasieran, jarrera kontserbadorea mantenduz. Egun, *Herria* astekariak hurbileko informazio jorratzen du eta Ipar Euskal Herrian euskara hutsez kaleratzen den astekari garrantzitsuena da.

Hego Euskal Herrian euskal kazetaritzaren susperraldia hasi zen 50eko eta 60ko hamarkadetan. Mikel Atxaga kazetariaren hitzak aproposak dira, sasoi hartako kazetaritza nolakoa zen gogoan izateko:

> Borondatez, doanik, egiten zen kazetaritza zen: herrietako berriak bidaliz, iritzi-artikuluak onduz, kanpoko berriak hemengo egoerara egokituz egiten zen kazetaritza, norberak bere kabuz eta ahaleginez ikasi eta landutako euskara batuan. Baliabide gutxirekin eta zentsuraren begi zorrotzen eta adierazpen askatasunaren muga estuen mehatxupean egindako kazetaritza. Debekualdiak eta zigorrak ere noiznahi pairatzen baitzituzten (Atxaga, 2001: 18).

Arazoak arazo, idazle eta kazetari berriak sortu ziren orduan eta horietako asko euskal kazetaritzaren eta kulturaren erreferente dira egun: Txillardegi, Joxe Azurmendi, Rikardo Arregi, Ramon Saizarbitoria, Xabier Lete, Ibon Sarasola, Xabier Kintana, Arantza Urretabizkaia eta Lurdes Iriondo, besteak beste.

Arestian aipatu den *Zeruko Argia*rekin batera, *Anaitasuna* eta *Goiz Argi* aldizkariek oihartzun handia izan zuten aldizkari informatiboen artean 50eko hamarkadatik aurrera.

Anaitasuna 1953an kaleratu zen Imanol Berriatuaren ekimenez Bizkaian. Garai hartan Gipuzkoako frantziskotarrek Gipuzkoako *Anaitasuna* euskarazko aldizkaria kaleratzen zuten. Argitaratzeko baimenak lortzea zaila edo ia ezinezkoa zenez, 1967ra arte Gipuzkoako *Anaitasuna*ren eranskin gisa kaleratu zen Bizkaiko *Anaitasuna*.

1967tik 1975era bitartean, itxura berritu eta euskara batuaren aldeko apustua egin zuen. «*Anaitasuna*ren marka bezala geldituko diren bi ezaugarri urte hauetan indartzen dira: euskara batuaren aldeko jarrera eta ezkertiar joera» (Torrealdai, 2010: 7). Astero kaleratu zen 1982an hil zen arte. Orduan Zozpala proiektua sortu zuen erredakzioan aritutako talde batek, *Anaitasuna*ren mantxeta errekuperatu eta egitasmoa berpizteko asmoz, baina bertan behera geratu zen saiakera. Lantaldea *Argia* aldizkarira joan zen.

Jose Antonio Garateren zuzendaritzapean sortu zen *Goiz Argi* (1958-1986) aldizkaria Arantzazun. Hasieran, *Aranzazu* aldizkariaren nekazaritza-gehigarri moduan argitaratzen zen. Erlijio-gaiak lantzeaz gain, nekazaritzari buruzko idatziak publikatzen ziren, erlijiosoak ez ziren idazleek idatzita. Agerkariaren orri kopurua eta maiztasuna aldakorrak izan ziren. 1975eko urriaren 29an Donostiako Informazio Delegazioak *Goiz Argi* bahitu egin zuen. Urte bereko azaroaren 20an astekaria itxuraz aldatu eta eraberrituta kaleratu zen. 1983tik 1986ra bitartean informazio orokorreko gaiak landuz hilero argitaratu zen.

2.2. EUSKAL KAZETARITZA MODERNOA

Euskal kazetaritzaren urrats historiko batzuk ikusi dira aurreko azpiatalean. Honetan, 1976. urtera egingo da aurrera; urte horretan, *Euskal Kazetaritzaren Urtea* izendatu baitzuten *Zeruko Argia* eta *Anaitasuna* aldizkariek. Euskarazko prentsa moderno homologagarriaren aroa inauguratu zuten aldarri horrekin.

Mende-hasieran jaiotako aldizkariak ziren biak, Eliza katolikoaren babespean sortu eta haziak. Baina, denboraren joan-etorriak lagunduta, sotanak utzi eta gizarte zibilari so jarrita zeuden jada *Zeruko Argia* eta *Anaitasuna: news paper* delako itxurari erreparatu eta goitik behera eraberritu zuten aldizkariok euren jarduna denbora gutxiren buruan.

1975. urteko azaroaren hogeian, Franco diktadorearen heriotzak iraungitze-data jarri zion Espainiako sistema politiko bertikalari: jenerala hilda, diktadurak ahal izan zuen moduan bilatu behar izan zuen aterabide politikoa. Heriotza horren eta Espainiako Konstituzio berria idatzi eta onartu arteko epeari deitu zitzaion *Trantsizioa*.

Aldaketen testuinguru horren lekukoa zen 76ko urtea. Eta prentsak asmatu zuen abagunea baliatzen: aldizkariak, irratiak, egunkariak… era guztietako hedabideak sortu ziren hor eta hemen. Baita Euskal Herrian ere.

2.2.1. Euskal kazetaritza modernoaren eklosioa

Arestian esan bezala, diktadorearen heriotzak abagune politiko eta sozial berria ireki zuen. Irekiera politiko eta militarrak aukera eman zuen, besteak beste, hedabide berri eta erregimenarekiko independenteak sortzeko; artean, gehienek zuten modu bateko eta besteko lotura frankismoarekin. Zentsurak, beldurrak… hedabide askotxo makurtu zuten *generalisimoa*ren politika monolitikoaren lerroetara.

Diktadorearen heriotzaren ostean, Hego Euskal Herrian *bestelako* hedabideak sortu eta *betiko* batzuk transformatu egin ziren. Bada, *Trantsizio* delako horretan, *Deia* eta *Egin* egunkariak jaio ziren, bai eta *Garaia, Punto y Hora de Euskal Herria, Berriak*... aldizkariak ere.

Hedabide berri ia denen hautu linguistikoa oso izan zen lerro berekoa: gaztelania. Eta, kasurik onenetan, bigarren mailako komunikazio-hizkuntza izan zen euskara hedabide ez-frankista horietan.

Gu gara euskal prentsa, titulu horixe jarri zioten *Zeruko Argia* eta *Anaitasuna*ko kazetariek eta eragileek abian jarritako erreflexio- eta analisi-kanpainari. Helburu argi batekin: euskal prentsa zer zen definitzea, euskara txertatzea kazetaritza modernoaren baitan, ulertuta ezen euskararen hauspoa izan behar zutela, beste batzuen artean, hedabideek eurek.

2.2.1.1. Gu gara euskal prentsa

1976. urtean, orduko *Zeruko Argia*k eta *Anaitasuna*k aldarria jo eta *Gu gara euskal prentsa* kanpaina abiatu zuten. Ziotenez, **euskaraz pentsatua eta euskaraz egina zen euskal prentsa.** Erredundantea irudituko zaio inori arestiko hori, agian. Baina urte haietako zurrunbilo politikoaren eta linguistikoaren baitan ulertu behar da hitz horien sakoneko esangura.



3a. irudia. *Anaitasuna*, 1976.

Bitarteko modukotzat jo zuten kanpaina hartan erdararen presentzia paper idatzian. Baina, beraien kezka argi eta garbi plazaratu zuten kanpainaren bultzatzaileek: erdaraz pentsatu eta erdaraz kaleratutako prentsa —abertzalea nahiz bestelakoa— arrisku bizia zen euskarazko prentsa ahularentzat:

> Erdararen beharrik ez dugu ukatzen. Euskal prentsak, orain oraingoz, eta gauzak asko aldatzen ez diren bitartean, eta gauza horik aldatzeko ere, erdararen premia onhartu (sic.) behar du. Erdara behar du hemengo erdaldunak euskalduntzeko, konzientziatzeko (sic.)… Baina gure artean erdaraz agertzen diren aldizkariek argi eta garbi esan beharko dute euskal prentsarekiko zer jokabide hartzen duten… (Altzibar, 1976: 24-25).

> Ez da batere segurua erdal errebistek ez ote dieten euskarazkoei irakurleak lapurtuko. Bai baitakigu euskaldunaren alfabetatze-maila nolakoa den. Beldur izateko modukoa da gerta daitekeena (Altzibar, 1976: 24-25).

Gu gara euskal prentsa kanpainaren bultzatzaileek ez zuten nahi diktaduraren akaberak ekarritako politikaren berpizkundeak aurretik eramatea urte luzeetan landutako bide linguistikoki beregaina:

> Euskal prentsa euskaraz dela aitortu, onhartu (sic.) eta laguntzen ez duen erdal prentsak diglosia finkarazten du. Aldizkarien euskal izenak eta tituluak ez daitezela inoren engainutarako izan (Altzibar, 1976: 24-25).

Espainiako trantsizioa abiaturik, Euskal Herriko espektatibek orok (nazio-, kultura- eta giza arlokoak) birloratzea dute amets.

Ametsez betetako testuinguru konplexu horretan, prentsa berria edo berritua abiatu zen: demokratikoa bai (*Mugimendua*ren monopolio zaharrari aurre eginda), baina diglosikoa gehienbat (erdaraz idatzita, euskara bonsai-loretzat harturik).

Abertzale izan, espainolista izan (garai hartako terminologia gogora ekarrita) zakurrak ortozik: *Deia*k, *Egin*ek, *El Correo*k, *El Diario Vasco*k… erdara nahiago.

Baina, hara hor non euskaldun batzuek dioten euskaraz bizi nahi dutela, euskaraz. Informazioa bera ere euskaraz nahi dutela, euskaraz.

Ez hori bakarrik, euskarazko gizarte-komunikazioari modernotasuna eskatzen diote: edukien aldetik nahiz formaren aldetik; eta euskaraz.

3b. irudia. *Zeruko Argia*, 1976.

Euskal kazetaritza irmo bat sortu behar dugu. Euskaldunon iritzi, lan, arazo, jokabide eta ametsen berri emango duen kazetaritza behar dugu.

Euskal leihatilatik munduari so egingo dion kazetaritza. Munduko berriez gure herria hezetuko (sic.) duen kazetaritza (Editoriala, *Zeruko Argia,* 1976ko lehen zenbakia, 3. or.).

2.2.1.2. 24 orduak euskaraz

Irratiak berak ere hartu zuen euskarazko kazetaritzaren aldeko konpromisoa. Urte garrantzitsua izan zen 1976koa irratientzat eta irratizale euskaldun nahiz euskaltzaleentzat.

3c. irudia. *Zeruko Argia*, 1976.

Urte horretako martxoaren 27an, irratia piztu eta edozein ordutan entzun ahal izan zen euskarazko jarduna.

Egun horretan, lehendabizikoz emititu zuen irratiak euskaraz 24 ordutan.

Errebindikazioa eta festa bildu ziren Donostiako Belodromoan, Donostiako eta Loiolako Herri Irratiek antolatutako irrati-maratoi euskaldunean.

2.2.1.3. Iragana barik, historia

Euskarazko prentsa goitik behera eraberritu zela aipatu dugu arestian. Eta ez prentsa bakarrik. Anoetako Belodromoan antolatutako *24 Orduak Euskaraz* saioarekin, Herri Irratiek erakutsi zuten balizko euskarazko irratien iparra non zegoen.

1976an, euskaldunak erabaki zuen bazela ***nor*** hedabideen munduan, bazela subjektu beregaina (*igorle* moduan nahiz *hartzaile* moduan).

Euskaldunak esan zuen kokatu nahi zuela hedabideen esparru zabalean bere burua, eta begitik begira so gura ziela gainerakoei.

Euskarazko kazetaritza sustatzeko ahalegin hura ez da iragan hutsa, egitasmo historikoa baizik. Duela lau hamarkada, *Zeruko Argia*k, *Anaitasuna*k eta *24 ordu* haiek formulatu zuten argi eta garbi euskarazko komunikazio-sistemaren norabidea. Eskukada bat kazetari euskaldun zegoen lanean orduan, gehienak euskaraz alfabetatu gabeak. Gaur zortziehun eragiletik gora ari dira esparru horretan lanean. Profesionaltasuna eta borondatezko lan handia dago oinarrietan eta bidean.

Txikia da euskararen komunikazio-esparrua, jakina. Hala ere, atzera begiratuta ikusten da bidean aurrera zenbat egin den.

Bide horretan, hainbat oztopo gainditu behar izan ditu euskarazko hedabideen sektoreak: ekonomikoak asko, ideologikoak ere ez gutxi; eta, nahi baino gehiagotan, administratibo-polizialak.

Krisi ekonomikoak ez dira egungo gizartearen asmakizuna. Laurogeiko urteetan bere ateak itxi zituen *Anaitasuna*k, ordaindu beharreko fakturek estututa. *Argia* indartzera pasatu ziren aldizkariko hainbat kolaboratzaile. *Argia*k berak ere une ekonomiko eta administratibo-polizial larriak bizi izan zituen, baina, oztopoen gainetik, beste askorekin batera, *Euskaldunon Egunkaria* (Gerra Zibilaren osteko lehen egunkaria, euskarazko lehen egunkaria) sortzeko bidea marraztu zuen…

2.2.2. Euskarazko hedabideen indartzea eta sendotzea

Pizkunde interesgarria bizi izan du euskarazko hedabideen sektoreak XX. mendearen azken urteetan. 76ko eklosioari jarraiki, hainbat eta hainbat izan dira argia ikusi duten proiektuak: paperean, irratian, telebistan eta Internet sarean. Beste proiektu batzuk, ostera, erori eta desagertu egin dira.

2.2.2.1. Euskara hedabide publikoetan

Ez ziren hedabide publikoak berehala lerrokatu euskararen bidean. Espainiako eta Frantziako irrati-telebista publikoek euskarazko programak aireratzen zituzten noizean behin, halere ez zuten hauturik egin euskara hutsezko katerik sortzeko.

Euskal Autonomia Erkidegorako Estatutuak ekarri zuen goitik beherako aldaketa. 1982. urtean, Eusko Jaurlaritzak EiTB sortu zuen. Eusko Legebiltzarraren agindupean jarri zuen irrati-telebista publikoa. Sorrera-legeak adierazten duenez, EiTBren zereginen artean dago euskararen normalizazioa.

Euskal Irrati Telebista (EiTB) Euskal Autonomia Erkidegoko telebista eta irrati publikoaren erakundea da, dena den Ipar Euskal Herrirako eta Nafarroako Foru Erkidegorako ere emititu ohi du, legeek eta garaian garaiko hautu politikoek ezarritako zailtasunak zailtasun.

Komunikazio-talde indartsua da EiTB, honela dago osaturik:

- **EiTB:** talde osoaren zerbitzu komunak barnean hartzen dituen enpresa-atala.
- **TELEBISTA (ETB),** Donostiako Miramonen eta Bilboko Garellanon dauzka bere egoitza nagusiak. 1982ko abenduaren 31n hasi zen emititzen, Carlos Garaikoetxea orduko lehendakariaren mezu batekin. Honako kate hauek kudeatzen ditu egun: ETB1 (kate orotarikoa, euskaraz), ETB2 (kate orotarikoa, gaztelaniaz), ETB3 (ume- eta kultura-programazioa, euskaraz), ETB-K-SAT (kirola eta beste kateetako programa nabarmenenak errepikatzekoa, euskaraz eta gaztelaniaz emititzen du, programaren arabera), CANAL VASCO (atzerrirako emisioak, programa batzuk euskaraz, gehienak gaztelaniaz.
- **IRRATIA (EI),** Donostiako Miramonen eta Bilboko Garellanon dauzka bere egoitza nagusiak, 1982. urtean hasi zen euskaraz emititzen. Honako kate hauek kudeatzen ditu: Euskadi Irratia (kate orotarikoa, euskaraz),

Radio Euskadi (kate orotarikoa, gaztelaniaz), Radio Vitoria (kate orotarikoa, Gasteizekin lotua, erdaraz), Gaztea Irratia (musika-kate tematikoa, esatarien jarduna euskaraz), EiTB-Irratia (automatizatutako musika-irratia, esatarien jarduna euskaraz eta gaztelaniaz, aldian-aldian).

- **EiTB.com,** talde publikoaren aurpegi digitala Interneten.

Espainiako nahiz Frantziako gainerako irrati-telebista publikoek ez dute sortu, oraindik, euskara hutsez emititzen duen komunikazio-talderik: ez irratian, ezta telebistan ere. Kasurik onenean, programaren bat edo programa-atalen bat emititzen dute euskaraz euren ohiko emanaldien barruan, izan horiek gaztelaniaz, edo frantsesez.

Prentsa idatziaren kasuan, ez dago ekimen publikoko informazio arrunteko agerkaririk.

2.2.2.2. Euskaldunon Egunkaria *eta* Berria

1990ean jaio zen *Euskaldunon Egunkaria,* agerkari pribatu gisa, herri-sustapenak bultzatuta, akzionariatu zabal batekin. Kostata bazen ere, euskarak lortua zuen, *Eguna* zaharrean bezala, eguneroko papera izatea.

Eragile askoren emaitza izan zen proiektua kaleratzea. *Egunkaria Sortzen* taldeak bideratu zuen enpresa berriaren sorkuntza, batez ere alor ekonomikoan eta enpresarialean. *Euskaldunon Egunkaria* sortzeko ahaleginetan, ezin ahaztekoa da *Argia* astekariak egindako lana: hasierako kazetarien artean, eta diseinu informatiboan, *Argiako* langileek euren lorratz argia utzi baitzuten. *Argiatik* heldua zen egunkari hartako lehen zuzendaria bera ere: Pello Zubiria.

Urte haietan bestalde, Eusko Jaurlaritzak bere proiektu propioa eduki zuen eskura, euskara hutsezko egunkari bat sortzeko, beste bat. Baina ez zuen aurrera egin proiektu hark, eta *Euskaldunon Egunkariak* bete zituen irakurle euskaldunaren espektatibak hamarkada luze batean.

2003. urteko otsailaren 20an, *Egunkaria* itxi zuen Guardia Zibilak. Egunkaria itxi, eta hainbat langile eta sustatzaile atxilotu zituen. Del Olmo epailearen aginduz jardun zuten guardia zibilek, ETArekin zerikusia izatea leporatuta euskarazko egunkariari. *Euskaldunon Egunkaria* itxi eta biharamunean *Egunero* kalean zen *Egunkaria*ko lantaldearen eskutik. Langileek argi zeukaten *Egunero* behin-behineko argitalpena izango zela. Lau hilabetez izan zen kalean, baina euskarazko eguneroko prentsaren katea ez zen eten.

2003ko ekainaren 21ean jaio zen euskara hutsezko hirugarren egunkaria (Franco hil ondorengo bigarrena): *Berria.* Kasu horretan ere, akzionariatu zabal batek bultzatu zuen euskara hutsezko egunkariaren proiektua.

EKT-SA enpresa sortu dute berripaperaren bultzatzaileek. Euskarazko komunikabideak sortu eta kudeatzeko. Bertara bildu dira, beste proiektu batzuen artean, hainbat herrialdetako *Hitza* egunkari lokalak. EKT-SA bera ere bada Hamaika Telebistaren sortzaileetakoa.

2.2.2.3. Goiena komunikazio-taldea

Euskaraz diharduen komunikazio-enpresa multimedia da Goiena Komunikazio Zerbitzuak izenekoa. Talde egituratu eta antolatu gisa, 2000. urtean ikusi du argia, nahiz eta historia luzea izan haren atzetik.

Debagoienean kokatuta dago, kooperatiba-ereduko enpresa da. Zeinek bere bidea egin eta bere historia idatzi duen lau hedabide dauzka Goienak bere eskura:

- Goiena Telebista: 55 orduko emisioa astero, barne-produkzioa da gehiena.
- Goiena Papera: 19.000 ale ohiko tiradan, bederatzi herritan banatzen da doan; eta astelehenetan, 5.000 ale, harpidedunen artean.
- Arrasate Irratia: astean 50 orduko emisioa.
- Goiena.net Interneteko atari euskalduna: 2003an ikusi zuen argia. Era berean, Eibarko CodeSyntax enpresarekin batera, sustatu.com Interneteko albistegia kudeatzen dute.

2.2.2.4. Topagunea taldea

1996. urtearen bukaeran sortu zen Topagunea Federazioa, euskara elkarteen bilgune gisa. Taldearen jardun askotarikoen artean, hedabideen saila da garrantzitsuenetako bat.

Herri nahiz eskualdeetako euskarazko hedabideak biltzen dira Topagunea Federazioaren baitan. 2010. urtean, bost irratik, telebista bik eta hogeita hamalau aldizkarik osatzen zuten euskarazko hedabideen bilgune hori.

2.2.2.5. Euskal Irratiak eta Arrosa Irrati Sarea

Iparraldeko euskarazko irratiek osatzen duten sarea da Euskal Irratiak taldea. Nafarroan, aipamen berezia merezi du euskararen espektroaren baitan Euskalerria Irratia iruindarrak, hogei urtez emititzen ari dena Erreinuaren hiriburutik, bertako erakunde politikoen onarpen ofizialik gabe.

Euskal Herriko hogeiren bat irratiren elkarlanaren emaitza da Arrosa Irrati-sarea, irrati txiki samarrak dira bertara bildutako gehienak: herri-, eskualde- edo herrialde-irratiak. Sarearen proiektu nagusia da Arrosa Irrati Ekoizpen Zentroa.

Ekoizpen Zentroaren helburua da irratiek beren eguneroko lanerako, komunean dituzten zenbait helburu eta jarduera indarberritzeko, azpiegiturak sortu eta sustatzea.

2002. urtean ikusi zuen Ekoizpen Zentroak argia, Andoainen.

2.2.2.6. Hamaika Telebista

Euskaraz emititzen duen telebista-sare pribatua da Hamaika. Honako enpresa hauek dira proiektuaren sustatzaileak: CMN TV (*Deia/Diario de Noticias/Diario de Noticias de Álava/Noticias de Gipuzkoa*), EKHE (*Gara/Le Journal*), EKT (*Berria/Hitza*), EUSKALTEL, ELKAR, eta BAINET TV.

Tokiko Telebista Digitalak garatzeko, Eusko Jaurlaritzak idatzitako legearen itzalean sortutako telebista-sarea da Hamaika. 2008. urtean hasi zen emititzen Bilbon; 2010.ean, Donostian. EAEko eskualde gehienetara hedatzea bilatzen du oinarrizko proiektuak.

2.2.2.7. Datu batzuk, sektorearen erradiografiarako

Dinamikoa da sektorea: hedabideak jaio bezala, hil ere egiten dira. Halere, badago multzo iraunkor bat urtero-urtero, azken hamar urteotan-edo, kalean dena, formatu batean ez bada, bai beste batean.

Ez da liburu honen helburua euskarazko hedabideen erregistro eguneratua eskaintzea. Halere, sektorearen tamaina eta nolakotasuna ulertzeko, ona izan liteke hiruzpalau datu ematea.

Hemen eskaintzen diren datuak dira Eusko Jaurlaritzak euskarazko kazetaritza indartzeko ematen dituen diru-laguntzei dagozkienak.

Ondoko koadro honetara bildu dira 2011. urtean diru-laguntza eskatu zuten hedabideen kopuruak. Dirua eskatu zuten batzuk osorik argitaratzen ziren euskaraz. Beste batzuek, aldiz, euren produkzioaren parte bat dute euskaraz.

Zein bere ezaugarri propioen jabe diren sei multzotan agertuko dira datuak.

Ez da erregistro osoa, bai ordea nahikoa zehatza den erradiografia, euskarazko kazetaritza zertan datzan ilustratzeko.

Multzoa	Egitasmo mota			Eskabide kopurua
A	Euskara hutsezko eguneroko prentsa inprimatua: euskararen esparru geografiko osoan eta udalerri edo eskualde jakinetan zabaltzen diren egunkariak.			8
B	Euskara hutsezko aldizkari inprimatuak.	B_1 azpimultzoa	Euskararen esparru geografiko osoan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak zein aldizkari espezializatuak (pentsamendua, zientzia, musika, natura, haur eta gazteei zuzendutakoak...).	24
		B_2 azpimultzoa	Udalerri, eskualde eta lurralde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak.	37
C	Nagusiki gaztelania darabilten egunkariek prestatu eta zabaldutako euskara hutsezko gehigarriak.			4
D	Emititu ahal izateko beharrezkoak diren gaikuntza-tituluen jabe izanik, zati batean edo osorik, euskaraz ari diren uhin bidezko irratiak.			4
E	Emititu ahal izateko beharrezkoak diren gaikuntza-tituluen jabe izanik, zati batean edo osorik, euskaraz emititzen duten telebistak.			8
F	Internet bidezko hedabideak eta berri-agentziak: – Euskara hutsezko egunkari eta aldizkariak. – Zati batean edo osorik, euskaraz ari diren irratiak. – Notiziak euskaraz ematen dituzten berri-agentziak.			45

4. irudia. Euskaraz argitaratzeagatik, Eusko Jaurlaritzak emaniko diru-laguntzetara aurkezturiko eskabideak (Iturria: Eusko Jaurlaritza, 2012).

2.2.3. Euskarazko Hedabideen Sektorea: autoantolaketa eta kontzientzia-hartzea

Urteetan borrokatu du sektoreak bere buruaren alde. Garatu diren iniziatiba guztiak biltzea ezinezkoa litzateke, eta, gainera, ez da hori eskuliburu honen helburu behinena. Halere, ona litzateke zerrendatzea zenbait urrats eta egitasmo, ikasleak kontzientzia har dezan sektorearen konplexutasunaz, dinamikaz eta egoeraz.

2.2.3.1. Kazetari euskaldunen lehen kongresua, Bilbon

2000. urtetik aurrera, sektorea osatzen zuten hedabideen arteko harremanak sendotzeko egindako zenbait saio egin ondoren, 2004. urteko azaroan, 9tik 12ra bitartean, Bilboko Euskalduna Jauregian egin zen Euskarazko Kazetaritzaren Lehen Kongresua. Kongresu haren antolatzaile izan ziren: Euskal Herriko Unibertsitatea, Udako Euskal Unibertsitatea, Euskal Idazleen Elkartea, Topagunea Federazioa eta *Berria* egunkaria.

Antolatzaileek esan zutenez, Euskarazko Kazetaritzak azken hamarkadetan izandako hazkundeak errealitate berri bat sortua zuen Euskal Herrian. Euskarazko Kazetaritzaren presentzia Euskal Herri osoko errealitate argia zen, eta sektorearen datuek argi hitz egiten zuten indartzen eta sendotzen ari zen fenomenoari buruz.

Konstatazio argi batekin hasi zen Kongresuaren ondorioen laburpen-agiria: «Euskal komunikazio-esparrua euskaraz garatzen dena da». Hartara, 76ko espiritu hura berreskuratu zuen jardunak.

Hamaika puntutara bildu zuten antolatzaileek bertan eztabaidatutakoa. Hona horiek laburrean kontatuta:

> 1.- Gertatutakoak gertatuta, euskarazko berri-emaileak apur batzuk izatetik zazpiehun izatera igaro dira, azken hamarkadetan egindako lanari esker.
>
> 2.- Indartsua eta kementsua da sektorea, halere, ahulezia nabarmenak ditu: egoera soziolinguistiko orokorra, merkatu txikia osatzea, eta gehiegizko sakabanaketa.
>
> 3.- Milioi lagunetara heltzen ez den erkidegoa osatzen du euskarak. Itxuraz txikia bada ere, gizarte-erantzukizunezkoa da komunitate horri zerbitzu komunikatibo osoa eskaintzea.
>
> 4.- Euskarazko kazetaritzak aurrera egingo badu, kalitatezko gutxieneko estandarrak bermatzen dituelako izango da.
>
> 5.- Zenbait kasu eredugarri alde batera utzita, kazetari euskaldunek lan-baldintza ez duinak pairatzen dituzte oro har. Funtsezkoa da egoera horrekin amaitzea.
>
> 6.- Euskaratik eta euskaraz sortu eta landutako publizitatearen sareak sustatu behar dira.
>
> 7.- Kazetari euskaldunak ordu dezente ematen du egunero informazio-iturri erdaldunen idazlanak itzultzen. Albiste-iturrien euskalduntzea eskatzen du euskararen komunikazio-esparruaren garapenak.
>
> 8.- Elkar elikatzen duten munduak dira Euskal Herrian kazetaritza eta literatura. Sistema propio baten aldeko apustua da harreman emankor horretan sakontzea.
>
> 9.- Espezializazioaren fenomenoak ez du etenik izan azken hogeita hamar urteotan. Aberastu egin du horrek sektorea.
>
> 10.- Euskarazko kazetaritzak jomuga garrantzitsuak dauzka geroari begira. Horien artean, Internet eta teknologia berriak. Estrategikoa da multimedia egitasmoak garatzea.
>
> 11.- Euskarazko komunikazioaren erkidegoak bere burua ezagutu behar du, bere burua egokitu behar du abagune berrietara, bere esku hartu behar du etorkizuna marrazteko ahala. Plangintza estrategiko baten beharra du.

Arestian aipaturiko plangintza hori egiteko eta euskarazko kazetaritzaren potentzialtasun osoa garatzeko, foro edo erakunde ireki eta iraunkor bat sortzeko konpromisoa hartu zuten antolatzaileek. Ahaleginak ahalegin, ez da oraindik sortu.

2.2.3.2. HEDA, Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleen ekarpena

2005-2006 bitartean, EHUko Errektoretzak hala eskatuta, Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko zenbait irakaslek abian jarri zuten lantalde bat, euskarazko hedabideen ikerketa-zentro unibertsitarioa sortzeko.

2005.eko lehen hiruhilabetekoan, orduko Euskara Errektoreordeak deituta, Kazetaritza, Kazetaritza II, Ikus-entzunezkoen komunikazioa eta Publizitatea, Soziologia eta Euskal Filologia sailetako hamar irakaslek sortu zuten «Euskarazko komunikazioaren eta hedabideen ikerketarako unibertsitate-institutu mistoaren sorrera-memoria idazteko azpibatzordea». Udan bukatu zuen lantaldeak institutuaren diseinua.

Ez zen abian jarri. Hurrengo urtean, institutua fundazio bihurtzeko eskaria jaso zuen lantalde berak. Errektoretzaren enkargu berria eskutan hartu, eta 2006ko uztailean, «Euskarazko komunikazioaren eta hedabideen ikerketarako eta garapenerako HEDA fundazioaren estatutuak» izeneko proiektu berregina entregatu zuen lantaldeak.

EHUko Errektoretzak ez zuen aktibatu ez institutua ezta fundazioa ere.

2.2.3.3. Euskarazko hedabideen topaketa-mintegia, UEUn

UEUren Eibarko egoitzan, Markeskoan, bildu zen 2006ko martxoaren 25ean *Euskarazko hedabideen topaketa-mintegia* deitutakoa. Bertara hurbildu ziren berrogeita bost lagun hogeita hiru hedabideren izenean. Lau helburu nagusi izan zituen mintegiak: euskarazko hedabideen arteko ezagutza areagotzea, egoeraren diagnostikoa egitea, aurrera egiteko denen arteko giroa sortzea, eta administrazioan eragitea etorkizunari begirako urratsak egiteko.

Bilkura hartan esandakoen laburpen gisa, antolatzaileek lau puntutara ekarri zuten bertan eztabaidatua: sektorearen aukerak, haren indarguneak, mehatxuak eta ahuleziak.

Aukera moduan, honako hauek zerrendatu zituen mintegiak: euskaldungoaren hedapena, horrek sor lezakeen merkatu gero eta irekiagoa, eta teknologia berrien konkurrentzia.

Indargune moduan, mintegiak modu baikorrean baloratu zituen honakoak: sektorearen kapital humano handia, Interneteko produktuetan abangoardian egon izana kasu batzuetan, eta euskaldunentzat elementu identifikagarri eta bateragarria izatea euskara.

Mehatxuen zerrenda ematean, honakoak azpimarratu ziren bilkura hartan: oso nabarmena izatea administrazio publikoen diru-laguntzen egonkortasunik eza, gazteak ez identifikatzea euskarazko produktuekin, teknologia berriek euskara urtu izana bestelako hizkuntzen itsaso neurgaitzean, eta dohaineko prentsa erdaldunaren agerpena Euskal Herriko kaleetan.

Sektorearen ahuleziak marrazteko, irizpide hauek hartu ziren kontuan: paperetik etortzea sektoreko gehienak, medio gisa ez ongi menderatzea Internet, sektorea oso atomizatua izatea, ez ongi jakitea produktua saltzen, sektorean ez antzematea enpresa-egitura sendorik, ez egotea distribuzio-kanal komun normalizaturik, eta langileen lan-baldintzak txarrak izatea oro har sektorean.

2.2.3.4. EHEPH, Eusko Jaurlaritzaren zerbitzua

Euskararen Aholku Batzordea jarri zuen abian Eusko Jaurlaritzak 1982. urtean, euskararen arazoetan EAEko exekutiboari erabakiak hartzen laguntzeko. Kultura Sailaren menpe, Hizkuntza Politikaren Sailburuordetzaren esku jarri zuen Jaurlaritzak Euskararen Aholku Batzordea (EAB).

Bada, EABk azpibatzorde bat sortu zuen: EHEPH (Euskarazko Hedabideak eta Euskararen Presentzia Hedabideetan) izenekoa, sektorearen azterketa egiteko. Hamazazpi txosten jaso zituen Jaurlaritzak sektoreari buruz, eta azterketa horren emaitzek liburu batean ikusi zuten argia, 2007. urtean. Hona horko lerro nagusiak[4]:

- Zantzu guztien arabera, kontsumitzaile potentzial eta egiazkoen arteko aldea handituz doa. Hartara, hobeto ezagutu behar da euskarazko bezero potentziala.
- Plataforma iraunkorra eta malgua behar du sektoreak, barne-hausnarketarako eta kanpo-harremanetarako.
- Ikus-entzunezkoen azpisektorea lehenetsi behar da, hori baita gazteriak gehien kontsumitzen duena. Eta Interneteko euskarriak baloratzen asmatu behar da.
- Euskarazko eguneroko prentsa lerrokaturik dago ideologikoki eta politikoki. Agian hori ere bada oztopo bat kontsumitzeko garaian.
- Sektorea oso atomizaturik dago, eskualde-mailako akordioak sustatu beharko lirateke fragmentazioa gainditzeko eta sektorea indartzeko.
- Sektorea lagundu behar du Administrazioak, eta gastu-kontzeptuetan oinarritutako politika batetik inbertsio-politika batera igaro behar du sustapenezko jardun publikoak.
- Euskarazko publizitatea indartu behar da.
- Sektore barruko hedabideen arteko sinergiak baliatuta, elkarlana sustatu behar da.

2.2.3.5. 2011ko editorial bateratua

2011. urteko lehen hilabeteetan argitaratu zuten euskarazko hirurogei hedabide ez-publikok editorial bateratu bat, administrazio publikoari konpromiso handiagoa

4. Ikus testu osoa hemen: www.**euskara**.euskadi.net/r59-738/eu/.../Maketa_Hedabideak_Df.pdf

eskatzeko sektorearekin. Gizarte moderno batean, euskararen eta euskal kulturaren garapenean, hedabideen zeregina estrategikoa zela aldarrikatu eta, ondorioz, erakunde publikoetatik sostengu handiagoa eskatu zuten. Euskarazko hedabide ez-publikoen lehen editorial bateratua izan zen hori, historian lehena.

Editorial bateratu horren aurretik, hedabide ez-publikoek bederatzi hilabeteko komunikazio-kanpaina bat abiarazi zuten, hiru helburu nagusirekin: sektorearen estrategikotasuna aldarrikatzeko, erakunde publikoei konpromiso handiagoa eskatzeko, eta sektorearen egoerari buruzko analisi sakona eskatzeko.

Euskarazko komunikazio-sektorea antolatzeko, eztabaida-foro interesgarri bilaka daiteke 2011ko mugimendua.

2.3. EUSKAL PRENTSA XXI. MENDEAN. ZER DATOR?

2012ko otsailaren 12an «eskuineko Woodward eta Bernstein» bilatzeko deia egin zuten Ameriketako Estatu Batuetako Alderdi Errepublikanoko kideek Washingtonen, urtero egiten duten ekintza politikorako bileran. 1974. urtean *Watergate auzia* aireratu eta ondorioz, Richard Nixon presidentearen dimisioa eragin zuten bi kazetariak gogoan izan zituzten hizlariek, eta kazetaritzan engaiatzeko deia egin zieten gazte kontserbadoreei. Haiek esan zutenez, teknologia berriek aukera ezin hobea eskaintzen dute prentsa nazionalak Barack Obama presidentearen politiken aldeko mezuari kontra egiteko, errealitatearen beste interpretazio bat osatzeko. Jim Geraghty, *National Review* aldizkariko blogaria, baikor mintzatu zitzaien hiriburuan bildutakoei. «Urrezko garaiak dira kazetaritza kontserbadorearentzat».

Urrezko garaiak aipatu zituen Geraghty eskuindarrak. Beste horrenbeste esaten dute errealitatea beste ikuspuntu ideologikotik aztertzen dutenek. Urrezko garaiak dira kazetaritzaren eta informazioaren eremuan. Garai zaharrak joan, garai berriak etorri. Kazetaritzaren mundua aldatu egin da urteen poderioz. Aldaketa horiek gero eta nabarmenagoak dira XXI. mendean, bai ekoizpen aldetik, bai kontsumo-ohituren aldetik. Lekutan dira lehen garaietako paperezko egunkari haiek, edizioa iluntzeko lehen orduetan ixten zutenak. Lekutan dira, halaber, lehenagoko herritar irakurleen joerak eta jokaerak informazioa kontsumitzeko garaian. Informazio motak ere aldatu egin dira, baita irakurleen adina, gustuak eta interesak ere. Eta garrantzitsuena: euskarrien eremua izugarri zabaltzen ari da. Egun, aukera dago nork bere mezua zabaltzeko, teorian behintzat. Praktikan, beste kontu bat da: garai berriak dira, bai, baina ez da ahaztu behar euskarrien jabetza noren eskuetan dagoen. Horrek handitu edo mugatu egiten du norberaren mezua hedatzeko aukera.

Teknologia berriak etengabe aldatzen ari dira komunikazioaren eta informazioaren esparrua, gizakiak elkarrekin harremanetan jarri eta elkarren berri emateko dugun modua. Ziztu bizian. Gaur goizean berria dena zahartzen hasia izango da gauean, eta zaharkitua, ezdeusa bihar. Nora ezean gabiltzala esatea ez dago errealitatetik oso urrun. «Etorkizunari buruz mintzatzen garenean, bi gauza izan

behar ditugu kontuan: lehena, etorkizun hori inoiz ez dela izango guk irudikatzen genuen bezalakoa; bigarrena, uste baino arinago helduko dela» (Randall, 1999: 242).

Mende berrian zer etorriko den asmatzea ez da erraza, baina argi dago informazioaren munduak eta kazetaritzak erronka itzela dutela aurrean. Horiei modu eraginkorrean erantzuteko jokaera eta pentsamoldea aldatu behar ditu profesionalak. Lehenik eta behin, kazetariek ohiko mesfidantza gainditu behar dute teknologia berriekiko. Aldaketaren aurrean uzkurra izateak ez du laguntzen etengabeko berrikuntzak gureganatzen eta horietan lehenbailehen trebatzen. Kazetari-lanbidean ematen ari den garapen mota hori onartu beharra dago, zentzu kritikotik, noski, beste edozein arlotan bezalaxe. Teknologia eta kazetaritza elkarren ondoan joan dira beti, inprentatik oraingo blog guneetaraino. Ekarpenak berritu egin dira, baina jarioa ez da eten. Orain beste tresna batzuk ditugu. Horietaz jabetu behar dugu geure eguneroko jardunean erabiltzeko.

Zentzu kritikoa aipatu dugu lehen. Kritikotasuna beharrezkoa da informazioaren eta hedabideen munduan, ezinbestean. Gero eta baliabide eta tresna gehiago izateak ez gaitu liluratu edo itsutu behar. Hainbat euskarri eta gailu ditugu teorian, baina ez dezagun pentsa horrek, eta soilik horrek, ekarri eta bermatuko duela informazioaren jario egokia gizartean.

Komunikazioaren eta informazioaren guru batzuek paradisua saldu nahi digute, dena denon eskura dagoela sinetsarazteko. Haiek plazaratzen duten informazioaren arabera, edozein gizakik inoiz baino aukera gehiago du orain informazioaren mundura hurbiltzeko eta bere burua janzteko. Erdizkako egia da. Egun, duela 20 edo 30 urte baino modu eta bide gehiago ditugu informazioa lortzeko; 30 edo 50 urte barru izango diren berrikuntzek antzinatean utziko dituzte orain punta-puntan daudenak. Paisaia koloretsua dugu geure komunikazio- eta informazio-gizartean, baina bada gune ilunik. Aurrerakuntza horiek berez dakartzaten abantailak ez daude guztien eskura. *Macbride txostenak* 1980. urtean azaldutako gomendioak inoiz baino biziago ditugu egun. Eskakizun horietako batzuek orduan bezain garrantzitsuak izaten segitzen dute. Ez dute indarrik galdu. Are gehiago, haiek salatzen zituzten desberdintasunak eta bidegabekeriak, zenbait kasutan, areagotu egin dira. Horregatik, bizirik daude txostenean emandako gomendioak: independentzia eta menpekotasunik gabeko garapena bultzatzeko izatea komunikazioa, gizartea garatzen eta hobetzen laguntzea hedabideek, eta komunikazioaren demokratizazioa.

Gabeziak ez dira zuzendu, eta ez dirudi epe motzean hala izango denik, arlo horretan nagusitzen ari diren joerak ikusita. Gainera, hedabideak gero eta esku gutxiagotan daude. Handiak gero eta indartsuagoak dira; txikiak gero eta ahulagoak, ia-ia itolarrian kasu batzuetan. Horrek komunikazioaren demokratizazioa galarazten du, menpekotasunik gabeko garapena.

Hedabideak eta informazioaren mundua krisi sakonean daude, baina haien eraginak bere horretan dirau. Kontraesana dago hor: egunkarien salmentek behera

egin dute, eta beraiei eskaintzen zaien arreta ere duela hamarkada batzuk baino txikiagoa da. Hedabideen itzala, ordea, lehen bezain handia eta boteretsua dugu. Haien funtzio soziala aldatzen ari da. Lehen, informatzea zen helburu nagusia. Orain, aisialdia leku handia hartzen ari da; informazioa modu azalekoagoan eskaintzen zaio irakurleari. Hala eta guztiz ere, ezin uka informazio-oldea hor dagoenik: edonork edonondik jakinarazten digu edozer. Informazio, albiste hori nola hedatu, hartu eta kudeatu da gakoa.

Kazetariek munduaren berri ematen dute, baina haien funtzioa ez da zeregin horretan bukatzen. Kazetariek errealitatearen interpretazioa ere eskaini behar diote herritarrari. Ez dugu esan nahi prentsak entretenimendurako produktu edo atalak bildu behar ez dituenik. Alta, horrek ez du lehendabiziko betebeharra baztertzeko erabili behar. Baztertzeko eta herritarren jakin-mina bideratu eta benetako interesak kontuan ez hartzeko.

Geroari begira, euskal kazetaritzaren arloan —hau da, euskarazko kazetaritzan— igarle-lana egitea nekagarria izan daiteke, zaila. Gizartean normaldu gabe dagoen hizkuntza da gurea, eta horrek ez du aurreranzko bidean laguntzen. Herri diglosikoan bizi gara. Gure gizartea ez da guztiz elebiduna eta egoera horretan erdarak euskarak baino abantaila sozial eta politiko gehiago ditu. Prestigio sozial handiagoa eta pribilegio gehiago. Ondorioz, euskaraz kaleratu eta hedatzen den informazioak herritarren zati bat baino ez du hartzen. Horrela zaila da hizkuntza erreferentzia bihurtzea informazioaren arloan. Lehentasuna erdarari ematen zaio komunikazioaren izenean, eta euskarara jotzea boluntarismo ekintza da askotan.

Euskal prentsak arazoak ditu; haren egoera ez da samurra. Arazo horiek, gainera, estrukturalak dira, ez dira behin-behinekoak. Horretaz gain, herri eta hizkuntza normaldu bateko hedabideek baino bizikiago pairatzen ditu egoera politikoaren gorabeherak —diru-laguntza publikoak ematea edo ez, esaterako— eta egoera sozioekonomikoarenak —publizitatea hizkuntza *minorizatu* batean egitearen errentagarritasun eskasa, krisiaren astinduak eta haien eragina salmenta eta harpidetzan—.

Aurrera egiteko, euskal prentsak ezinbestekoak ditu baldintza batzuk, erreferentzia izateko. Nola lortu euskaraz bizi den jendeak euskaraz informatzeko beharra sentitzea? Erdaldunek erdarazko prentsa kontsumitzen dute: espainieraz, frantsesez, ingelesez, alemanez... Euskaldun askok erdaraz jasotzen dute informazioa, erdarazko hedabideak kontsumitzen dituzte. Hori arazo estrukturala da, diglosiari, zapalkuntza politiko, sozial eta kulturalaren ondorioei lotua. Kontsumo-azturei erreparatuta, ez da askok nahiko luketen bezain atxikia euskalduna euskal produktuetara.

Egoera ez da gozoa, baina denborak aldatu egin dira. Aurrera egin behar da, urteetako inertzia apurtuz. Hogei urte baino gehiago badira *Euskaldunon Egunkaria* euskarazko egunkaria jaio zenetik. Hura sortu zenean, aro berri bat hasi zen. Geroko

belaunaldi gazteak eguneroko euskarazko produktuetara ohituago egongo zirela uste zen orduan. Irakurle, erosle gehiago egongo ziren. Urte hartan jaiotako ume euskaldunen begien aurrean guztiz normala izango zen euskarazko egunkaria ikustea eta ume horiek, helduak izatean, euskarazko egunkaria erosiko zuten. Orduko haurrak handitu egin dira, eta espero zen irakurle-oldea ez da iritsi euskarazko prentsaren eremura, ez desio zen neurrian behintzat. Ume euskaldun horietako asko ez dira egunkari-irakurleak; eta egunkaria irakurtzen duten guztiek ez dute euskarazko hedabideetara jotzen.

Euskarazko prentsaren etorkizuna bi eremu nagusitan jokatzen ari da, eta biak elkarri lotuta daude: batetik, kazeta-eredua eta garapen teknologikoa dugu; bestetik, negozio-ereduaren krisia. Euskal prentsak irakurle kopuruari eutsi behar dio: eutsi eta aukeran, handitu. Denboran iraupena bermatuko dion produktua osatu behar du. Bestetik, dirua lortu behar du proiektua ito ez dadin. Baliabide ekonomikorik gabe ez dago jarduterik.

Prentsaren salmentak nabarmen egin du behera azken urteotan, batez ere Mendebaldean. Gazteek gero eta egunkari gutxiago erosten dute. Paperezko edizioek iraganeko kontua dirudite haientzat. Teknologia berriekin jaio eta hazi dira. Hedabideak errealitate horretara egokitu behar dira, tresna horiek hartu eta erabili, irakurle posible multzo horretara heltzeko.

Beste arazo bat ere badago. Esparru informatiboaren edukietan aldaketak izan dira. Beste era bateko albisteak ugaldu egin dira azken garaietan. Herritar irakurleen interesak beste informazio mota batera bideratzen dira, nahita edo nahi gabe. Espektakuluaren informazioa lehenesten ari da, albiste ikusgarriak, baina sarri funtsik gabekoak. Halakoak tarteka sartzea ez dago txarto, ohikoa izan da prentsa tradizionalean, baina neurriz. Antzinako egunkarietan beti egoten zen orri bat edo ataltxo bat, notizia bitxiak jasotzen zituena. Azaleko kontuak ziren, albiste serioen larritasunean ez itotzeko, arnasa apur bat hartzeko. Orain, berriz, joera hori handitu eta hedatu egin da. Orri horietatik irten eta beste sailetan sartu da. Adibide bat emateko: zenbait egunkaritan, gobernuburu berriaren programari bezainbesteko garrantzia ematen diete, lekuz eta zabaleraz, kargu hartzean agintariaren bikotekideak jantzi dituen arropari eta apaingarriei.

Azaleko informazioa eskaintzeko joera ikus-entzunezko hedabideetan nagusitu da lehenik. Albiste koloretsuak, entretenigarriak, bizitzaren karruselean doazen zalditxoen antzera, gora eta behera, inoiz gelditu eta inon errotu gabeak. Sakontasunik ez. *Low cost* informazioa, Ignacio Ramonetek, *Le Monde Diplomatique* aldizkariko zuzendariak, definitu duen bezala.

Azken urteotan munduan barrena areagotu den fenomenoa da. Euskal Herria ez dago mundutik at, eta horren eragina gurera iritsi da. Gaur, egunkariek bi aukera dituzte: fribolitatean eta azalkerian errotutako albisteak hedatu edo gizartearen

ongizatearen interesen araberako informazioa eskaini eta bide horretan sakondu. Horrek ez du esan nahi egunkariek albiste arinak sartu behar ez dituztenik irakurleak arnasa hartzeko. Komeni da, ordea, hori neurriz egitea, oreka ez galtzeko.

Telebistak eta irratiak nekez zabal dezaketen edukia eskaintzeko aukera du prentsak. Albistea testuinguruan eman, aurrekariak azaldu. Balorazioak, etxean eta kanpoan gertatzen ari dena ulertzen laguntzeko. Informazioa merkantzia, negozio hutsa bihurtzen badugu, prentsak utzi egiten dio gizarteak boterearen aurrean duen fiskal nagusietako bat izateari.

Gizartearekin eta garaiarekin konprometitutako kazetaritzak beharrezkoa izaten segitu behar du. Kazetaritza gero eta gehiago hurbiltzen da bost W ingelesei erantzutera (zer, nor, non, noiz eta zergatik) eta piramide irauliaren egiturara. Ildo horretan zenbat eta gehiago urrundu, gero eta gehiago hurbiltzen da idatzizko prentsa-amildegira, inoiz garaitu ezingo duen arerioaren antza hartzen duelako: Interneten eta telebistaren antza. Badirudi ez dutela ulertzen jendeak ez dituela egunkariak erosten informatzeko. Ulertzeko, aztertzeko, analizatzeko erosten ditu jendeak egunkariak. Emozioak eta pasioak aurkitzeko eta bizitzeko, intelektualki baliosoak direnak (azaleko pasio friboloak sentitzeko, badu telebista).

Euskal prentsak, aurrera egin nahi badu, bide horretara jo beharko du. Bi arlotan garatu beharko du: kazeta-ereduan eta negozio-ereduan. Lehen eremuan produktu erakargarria sortu beharko du, eta etengabe garatu eta berritu. Teknologia berriak hartu, moldatu, erabili. Horrek gazte jendea gureganatzeko balioko du, odol-berritzeko. Ikus-entzunezko belaunaldiak informazioaren munduan barneratu behar dira modu erakargarrian.

Aldaketa ez da kolpetik etorriko. Komenigarria izango litzateke hezkuntza-prozesuan ume eta gazteei hedabideak eta informazioa ulertu eta deskodifikatzeko eskolak ematea, zentzu kritikoa barneraraztea. Baliabide eta euskarri teknologikoetan trebatzearen beharra nabarmentzen da behin eta berriro. Horren garrantzia ukaezina da. Galdera ezinbestekoa da, baina: hori nahikoa al da? Albisteen garrantzia eta proiekzioa bereizten jakiteko gaitasuna lortzea komunikazioaren eta informazioaren garaian ez al da, hori ere, funtsezkoa, herritar kritikoak hezteko? Baina botereak benetan nahi du hori? Interesatzen zaio?

Euskarazko prentsak kanpokoaren erronka berdinak ditu oro har. Hala ere, gertutik ikusita, beste eginkizun batzuk ere badituela atzematen dugu. Ildo horretan, erronka nagusia herritar euskalduna euskal irakurle bihurtzea da, euskarazko produktuetara hurbilarazteko. Garai txarrak dira, baina dena ez da negatiboa. *Macbride txostena*k aipatzen duen ezaugarri garrantzitsu bat dugu geure alde: nortasun kulturala indartzea giza duintasuna sendotzeko.

Gure nortasun espezifikoa indartzea, horretan sakontzea, aldi berean gure eta munduko beste herri eta gizakien duintasuna sendotzeko. Munduari geure begiekin

begiratzeko, menpekotasun informatibotik kanpo. Euskal Herrian zer gertatu den Euskal Herriko euskarazko hedabideek azaldu beharko diote euskaldunari. Horiek egiten ez badute, edo irakurleak lan hori aintzakotzat hartzen ez badu, seinale txarra: menpekotasun kultural eta nazionalak bere horretan segituko du. Hori barrura begira. Kanpoko informazioa ere geure begiekin aztertu beharko dugu. Munduan zer gertatzen den hemengo medioek kontatu behar diote hemengo jendeari, lotsa eta konplexurik gabe. Euskaldun batek kosmopolita, internazionala sentitzeko ez luke Parisen edo Madrilen sortutako hedabiderik beharko. Hori lagungarria da, noski, eta osagarria, baina ez litzateke oinarrizko iturria izan behar. Munduaren ikuspegia ez dugu osatu behar besteen begi eta garunen galbahetik pasatuz. Ingelesek, frantsesek, espainiarrek, alemaniarrek euren hizkuntzan eta euren herrian ekoitzitako prentsaren bidez jakiten dute munduaren berri. Euskaldunak ere halako aukera izan beharko luke. Gaztelu plazatik edo San Andres plazatik Bastilla edo Sol plazetatik bezain ondo uler dezakegu mundua. Edo hobeto, gure begiek, gure espezifikotasunetik, Parisko eta Madrilgo begientzat ikusezin diren ñabardurak atzemango baitituzte.

Edukiak landuz eta horiek Euskal Herriko ikuspegitik eskainiz egingo du aurrera euskal prentsa jeneralistak. Kalitatezko prentsa tradizionalaren sakontasuna eta teknologia berrien bidez garatutako euskarri eta baliabideen arintasuna eta erabilgarritasuna txertatuz egin daiteke. Prentsa idatzian argitaratutako analisi sakona webgunean sartuz, gertakari horri buruzko irudi interesgarrienekin edo elkarrizketarekin batera. Egunkarietan webgunean agertzen diren *link* edo loturak agertuz, albistea bera modu bisualago batez osatzeko. Edo gertakarien berri denbora errealean emateko aukera aprobetxatuz.

Adibide bat: Espainiako Auzitegi Nazionalean *Euskaldunon Egunkaria*ren *auziko* epaiketa izan zenean *Berria* izan zen epai-aretotik bertatik, zuzenean, prozesu judizialaren berri eman zuen Euskal Herriko hedabide bakarra. Lehen aldiz gertatu zen hori euskal kazetaritzaren historian. Espainian oraindik ez zuten halakorik egin, eta Madrilgo kazetariek barre egin zioten ekimenari. *Gürtel auzia* eta *Garzon auzia* heldu ziren gero, eta orduan bai hasi ziren izen handiko egunkari espainiarrak *Twitter*ren bidez epaiketen berri ematen. Euskarazko egunkari bat Europako lehenetakoa izan zen epaiketa bat zuzenean eskaintzen. Saioak segimendu handia izan zuen webgunean. Bidea erakutsi eta ireki zien besteei. Besteen parean gaudela frogatu zuen horrek. Ez gara haiek baino gehiago; gutxiago ere ez.

Euskarri berriak eta komunikazio-sistema aurreratuak ditugu eskura kazetajarduna errazteko eta hobeto komunikatzeko: Internet, webguneak, twitterrak, iPadak … Informazioa momentuan, gertatu ahala hedatzen dugu. Hori bizi-arnasa ematen ari zaio kazetaritzari, freskotasuna. Alta, ez da nahikoa bizirik irauteko. Izan ere, horiek guztiak kazetaritza ereduari lotutako garapenak dira. Zer eskaini, zer baliabide eta euskarri erabili? Horretan zalantzak daude, baina bidea zehaztuta dago; landu egin behar da, besterik ez. Bigarren arloak sortzen ditu arazoak; negozio-ereduak, alegia.

Euskarri, teknologien iraultza bizitzen ari gara eta ohiko euskarrietatik puntako tresneria erabiltzera salto egin dugu. Trantsizioa izan da, eta bidea egiten ari gara. Negozio-ereduan, ordea, ez da trantsiziorik izan. Trantsizio teknologikoak ez du negozio-ereduaren trantsizioa ekarri. Egunkarien diru-iturri nagusia paperezko ediziotik dator; Interneten bidezkoak ez du bizirik irauteko beste ematen. Osagarriak dira finantza bide biak, baina egunkari inprimatuak lehen diru-iturria izaten segitzen du. Oraindik ez da asmatu, ez gurean, ez kanpoan, negozio-eredu berririk, euskarri-aldaketaren ereduarekin batera joango denik. Trantsizioa lehen arloan gertatu da; bigarrenean, ez. Zenbait ideia eta proposamen izan badira. Batzuk garatu egin dira, baina ez dute irtenbide argirik ekarri. Saioak ez dira oparoak izan. Badakigu zer eskaini behar den, baina ez dakigu garai berri hauetan informazioa nola kudeatu eta merkaturatu; zer egin euskarazko kazetaritzak, ekonomia aldetik normalean kinka larrian dagoenak, behea jo ez dezan. Nola plazaratu produktua galera ekonomikorik gabe, porrot egin gabe.

Egunkari tradizionalen pisuak berebiziko garrantzia du oraindik. Hedabide horiek euren webguneak dituzte, 24 orduko edizio jarraituak, gero eta eskaintza gehiago. Baina oinarri sendoena edizio inprimatuan errotutako negozio-eredu zaharkitua da. Gertakari garrantzitsuei buruz informatzeko asmoz, munduko edozein bazterretara doazen kazetari gehien-gehienak betiko egunkarietako profesionalak dira. Izan ere, negozio-eredu tradizional horrek ematen du bidaia informatibo horiek egiteko dirua. Soilik Interneten bidezko etekin ekonomikoekin ez litzateke inora joaterik izango.

Negozio-eredu zaharrak bizirik segitzen du, gero eta emaitza eskasagoekin bada ere. Egunkarien diru-iturri nagusiak salmenta, publizitatea eta harpidetza dira, baina eredua agortua da. Jendea, batez ere gazte jendea, ez doa lehen bezala kioskora, egunkaria erostera. Errito hori itzaltzen ari da, iraganeko erlikia bihurtzen ari da. Herritarrak, balizko irakurleak, ohitu egin dira Interneten jasotzera informazio hori. Musu-truk, gainera. Edozein informazio lortzeko —batez ere kalitatezkoa— ordaindu beharra dagoela barneratzea ez da erraza izango, hori berriro inoiz lortuko bada. Salbuespenak badaude, esaterako: Frantzian, 2008an sortu zen Mediapart egunkari digitala (ordaindu egiten baita).

Egunkariek beste negozio-eredu eta finantzazio-bide batzuk bilatu behar dituzte proiektuei eutsi eta aurrera egiteko. Euskal kazetaritzak ere erronka hori du aurrean. Erakunde publikoek ez dute lehen adina dirurik ematen laguntzetan; publizitatearen bidez lortzen diren diru-sarrerak ere behera doaz; jendeak gero eta egunkari gutxiago erosten du. Sistema tradizionala amaitzen ari da, eta irudimena beharko da horren ordezko eredu ekonomikoa asmatzeko. Soilik horrela izango dugu etorkizunean euskal prentsa indartsua. Soilik horrela sortuko dira euskal Woodward eta Berstein munduari Euskal Herritik begiratzeko, eta mundua Euskal Herritik informatzeko. Soilik horrela izango dira garai berriak urrezko garaiak euskal kazetaritzarentzat.

3. Kazeta-estiloa: zehaztasunaren argietan

2011. urtean, *The New York Times* egunkariak galdetegi bat proposatu zien bere zazpi kazetariri, AEBn urriaren 20an ospatzen den Idazteari buruzko Egun Nazionalaren harira. Herritarrak idaztearen garrantziaz hausnartzea nahi du egun horrek. «*Zergatik idazten dut?*» zuen titulua kazetariei emandako galdetegiak. Bertan egiten zizkien sei galderen artean bi ziren aipagarrienak. Hirugarrenak hauxe zioen: «Nola deskribatuko zenuke idazteko segitzen duzun prozesua?». Seigarrenak, aldiz, honakoa: «Zergatik idazten duzu?».

Simone S. Olivier kazetaria izan zen inkesta jaso zuten profesionaletako bat. Halaxe erantzun zion hirugarren galderari: «Lehenik eta behin, informazioa lortzen dut. Gero, eseri eta lehen zirriborroa egiten dut. Lehen zirriborro hori idazteak denbora luzea hartzen dit. Askotan, nekatu egiten naiz hainbeste informazio jaso dudala ikusita. Askotan, amets egiten dut esaldi xume bakoitza perfektua idatziko dudala. Artikulua paperean dagoenean, paperetik funtsezkoa ez den informazioa kentzen hasten naiz eta idazkera txukuntzen, gozatzen, irakurtzeko interesgarria izan dadin (…) Idazten eta berridazten segitzen dut tente esertzen naizen arte, idatzi dudan paragrafo bakoitzaz harro» (Randall, 1999: 242).

Idaztea. Idaztea eta idazteak beti eskatzen duen grina eta sarri ekartzen duen sufrikarioa. Idaztea eta testua bukatzean sentitzen den poza. Idaztea eta haren arau eta ezaugarri bereziak. Estiloa. Estiloak, idazkera-estiloak baitaude bizitzako eremu guztietan; bakoitzak berea du, berezkoa. Enpresa baten egoera eta jarduera ekonomikoei buruzko txostenak helburu eta estilo bere-bereak ditu: jarduera horren oinarriak aipatzen ditu, haren diru-mugimenduak, irabazi eta gastuekin, etorkizunerako aurreikuspenak… Epaiketa baten hautuak arlo judizialean ezaguna den lengoaiaren ezaugarriak eta errekurtso estilistikoak islatzen ditu. Argudiatzeko ariketa da, azken epaiaren berri emateko arrazoibideak pausoz pauso harilkatzen dituena. Horretarako, arlo horretako terminologiaz eta esapideez baliatzen da. Amodiozko gutun batek, aldiz, sentimenduen bidezidorretan murgiltzen gaitu. Sentipenak eta bizipenak nagusitzen dira —hau da, arlo emozionala—, eta hori guztia idazkerari eta mamiari atzematen zaie: haren estiloak izaera intimistagoa du, askeagoa da. Oso urrun dago aurreko bi adibideetatik.

Kazeta-estiloak ere berezko oinarri eta arauak ditu, berari baino ez dagozkionak. Haiek gabe nekez idatziko du kazetariak artikulu zuzena. Estiloa definitzeko garaian kazeta-jardueraren helburua zein den argitu beharko da. Hori zehaztu gabe, ez da erraza izango hura lortzeko bidea marraztea. Egunkariek, hedabideek oro har, funtzio sozial bat dute: informatzea. Zeregin hori oraingo egunkarien aurrekariak sortzearekin bat nabarmendu zen. Egunkarien helburu nagusia informatzea izan da beti, gizartearentzat interesgarria den gertakari edo egitate berri bat azaltzea. Antzina ere informatzea zen xedea, zerbaiten berri ematea. Entretenimenduak ere bazuen lekurik. Egun, gero eta leku handiagoa hartu du hedabide garaikideetan, baina informatzeak lehen helburua izaten segitzen du. Kontua da zertaz informatu. Eta nola.

Helburua informatzea izanik, komeni da hori egiteko bideak argitzea, bizitzako hainbat eremutan bezala. Gure helburua etxe bat eraikitzea bada, zer etxe mota nahi dugun zehaztu beharko dugu lehenik, eta gero nola eraikiko dugun erabaki. Etxearen oinarriak eta ezaugarriak finkatu, hain zuzen. Kazetaritzan behar bezala informatu nahi badugu, hori lortzeko zein modu erabiliko dugun argitu beharko dugu. Erantzukizun handia du kazetariak, baina lana atsegin-iturri bihur daiteke. «Zerbait atzeman eta hitzetan, zure hitzetan, iltzatzearen plazerak izugarriak dira. Antzekoa da testu bat idazten hasteak ematen dizun emozioa, hainbat informazio dituzunean barreiaturik eta bertan abiapuntu bat bilatu behar duzunean, hari buruzko ideia berriak idazten ari zaren bitartean» (Randall 1999: 164).

Gertakari bati buruzko informazioa eta testua modu egokian ordenatu, egituratu eta aurkeztu behar zaizkio irakurleari helburu nagusia betetzeko: informatzea. Horretarako, kazeta-estiloan oinarritu behar da kazetaria, hura ondo ezagutu eta menperatu, hitzaren, bere lanabesaren bitartez.

Kazeta-estiloak kazeta-lengoaia du oinarri. Martínez Albertosek azaltzen duenez, kazeta-lengoaia da «kazeta-mezuak ekoizteko erabiltzen dena» (1989: 45). Mezu horiek hedatzeko bidea edo euskarria egunkaria, irratia edo telebista dira, komunikazio-adituaren arabera. Emil Dovifat teorikoak estilo horren ezaugarri batzuk aipatzen ditu: «Egunkari batean idatzi nahi duenak zaindu egin behar du testua, irakurketa interesgarria eta erakargarria egiteko» (1964: 124).

Testua idazten hasi baino lehen, kazetariak ondo jakin behar du zer eta nola esango duen. Jorratuko duen gaiaren inguruan zer informazio duen eta informazio horretatik zer hartuko duen artikulua testua osatzeko. Idaztea aukeraketa-prozesua da, hautu bat. Erretorika tradizionalak lagundu egiten du prozesu horretan. Idatzizko eta ahozko konposaketaren artea da erretorika. Idatzizko edo ahozko lengoaia eraginkor bihurtzeko bidea, estilo bikainaren bidez irakurlea edo entzulea konbentzitzeko, erakartzeko. Grezia klasikoan du erretorikak jatorria. Bertatik Erromara pasatu zen. Hasieran ahozkotasunari lotuta egon arren, idatzizko arlora pasatu zen gero. Haren oinarriak gaur egun ere dira baliagarriak idatzizko diskurtsoetan eta testuetan.

Erretorika klasikoa hiru zatitan banatuta dago: *inventio*a, *dispositio*a *eta elocutio*a. Bakoitzak bere ezaugarriak ditu:

Inventioa: erretorikaren lehen zatia da, hasierako fasea. *Inventio*aren prozesuan kontatu edo idatzi behar duen gaiari buruzko informazio eta datuak bilatzen ditu hizlariak —kazetariak, kasu honetan—. Datu eta xehetasun horiek ondo aztertuko ditu eta hedatu nahi duen albisteari ondoen egokitzen zaizkionak aukeratu. Interesgarrienak izango dira datuak: garrantzi handikoak; beste datu guztiak alboan utziko ditu.

Dispositioa: bigarren fase honetan *inventio*an bildutako datuak ordenatu beharko ditu kazetariak. Informazio eta datu zehatz bakoitzari hierarkia jakin bat emango dio. Zer jarriko du lehenik? Zer datu edo informazio idatziko du sarreran? Zer nabarmentzeko? Zertan oinarrituko da gero, testua garatzen segitzeko? Horrek ez du esan nahi idazten hasi aurretik kazetariak den-dena zehaztuta izan behar duenik, azkenaurreko paragrafoko azken lerroan zer ideia, datu edo informazio sartuko duen. Lan-metodologia hau ez da guztiz itxia. Hori ere ez da gomendagarria, bestela testuak bizitasuna galduko luke. Eta testuak espiritua izan behar du, espiritu bizia; bestela, hezurrik gabeko haragi hutsa izango litzateke. Edo are okerrago: haragi ustel eta hila. Hala ere, idazten hasi aurretik beharrezkoa da buruan ideia bat izatea. Horren ondoren gomendagarria da ideia edo kontzeptu hori garatzeko datuak, ñabardurak eta errekurtso guztiak ordena logiko eta hierarkiko batean jartzea.

Elocutioa: erretorikaren azken zatia da hau, aurreko bien ondorioa. Diskurtsoa edo testua osatzea dakar. *Inventio*an bildu eta *dispositio*an ordenatu eta gero, narrazioa sortuko da. Ideiak argi izanda, teorian erraza izan beharko litzateke. Kazetaritzan informazio-testua osatzeko datuak aukeratu eta ordenatu egin behar ditu profesionalak. Zertaz eta nola informatuko duen jakin. Orain, azken zeregina du aurrean: lanari heldu behar dio. Testua idatziko du esku artean duen materialean oinarrituz. Azken fase honek berebiziko garrantzia du. Hedabideetako profesionala orduantxe hasiko da testuari bizia ematen. Arau estilistikoak ondo ezagutu, menperatu eta erabili beharko ditu, kazeta-estiloaren oinarrizko tresna baita lengoaia.

Kazeta-estiloak berezko ezaugarri batzuk ditu, beste lengoaia motetatik bereizten dutenak. Kazeta-estiloak **argia** izan behar du, **zehatza, xumea** eta **erakargarria.**

3.1. ARGIA

Behin eta berriz errepikatu behar da: idazteari ekin baino lehen kazetariak ondo jakin behar du zer eta nola esango duen. Testuaren ideiak eta egitura argi izan behar ditu. Hala baino ez du lortuko testu argia idaztea, informazioa helaraztea eragotziko duen elementu ilunik gabe. Kazeta-testua ez da inspirazioaren menpe utzi behar. Inspirazioa bai, badago, baina oinarrizko lana egin gabe ez da normalean azaltzen. Pablo Picasso pintoreak halaxe azaldu omen zuen: inspirazioa egon badago, baina lanean aurkitu behar zaitu.

Ikuspegi praktiko batetik begiratuta, kazeta-testua argia izateak hauxe esan nahi du: testua modu zuzenean idatzita dagoela, logika batean oinarrituta. Testua ondo garatuta dago, inolako anabasarik gabe. Testua benetan argi idatzita dagoen jakiteko froga bat badago, egin beharrekoa: kazeta-testua irakurri, eta lehen irakurraldi horretan edukia zeharo ulertzen ez bada, testua ez da egokia.

Kazetariak horixe egin beharko luke idazten ari den bitartean: titulua, azpititulua edo albistearen corpuseko testua irakurri tarteka. Testua zalantzarik gabe ulertzeko gai ez bada, ondo idatzita ez dagoen seinale. Kazetariak argi ulertzen ez badu, nola ulertuko du gero irakurleak? Testua ulertzea erraztu behar zaio irakurleari, ez zaildu. Bere denbora, arreta eta dirua eskaintzen ari zaio kazetariari prentsa irakurtzean, eta errespetua merezi du. Hori gogoan, kazetariak berriro ekin beharko dio idazteari: okerrak zuzenduko ditu, testuari benetako zentzua emateko, inolako anbiguotasunik gabe. Izan ere, kazeta-testua ez da literatura-testua. Literaturak anbiguotasuna, esanahi anitz onartzen ditu. Idazlearen eta irakurlearen subjektibotasuna eta sentsibilitatea jostailu bihurtzen dira arau estetikoen esparruan. Testu literarioak nahi adina interpretazio izan dezake; horixe da, hain zuzen, haren edertasun-iturrietako bat. Kazeta-testuak, aldiz, interpretazio bat eta bakarra baino ez du behar. Oscar Wildek ironia erabili zuen kazetaritza kritikatzeko: kazetaritzaren eta literaturaren arteko diferentzia hauxe da: kazetaritza ez da irakurgarria; literatura ez da irakurtzen. Horrekin hauxe esan nahi zuen idazle irlandarrak: kazetaritza-testuak irakurtzea ez du merezi, ondo idatzita ez daudelako.

Burbuila baten barruan bizi dira kazetariak, sarri. Informazio-burbuilan. Erredakzioan daudenean, kazetarien artean egoten dira. Prentsaurreko, aurkezpen eta antzeko ekitaldietara doazenean ere, lankidez inguraturik daude. Ghettoan bizi direla esan liteke. Horregatik, batzuetan arriskua dago errealitateaz informatu nahi duena errealitatetik deskonektatuta egoteko. Hau da, bere burbuilatik kanpo dauden gainontzeko herritarrak ere, bera bezain ondo informaturik daudela pentsatzea. Eta premisa faltsu horretatik abiatuta idaztea, irakurleari modu guztiz argi eta zehatzean eman gabe errealitatearen berri. Ikusi adibide hau:

> Nafarratek Aresen dimisioa eskatu du, «gezurra dioelako»
>
> Xuban Nafarrateren aitaren ustez, «oso larria» da sailburu batek legebiltzarra erabiltzea «gezurrak esateko» (*Berria*).

Kasu horretan, azpitituluak ez du kontu handirik azaltzen, titulua errepikatzea ez bada: Ares «gezurretan» ibili dela berriro salatzea.

Baina bada besterik. Nafarrate aipatzen du kazetariak, bai tituluan bai azpitituluan. Baina nor da Nafarrate? Kazetariak badaki gaztea nor den eta zergatik bihurtu den albiste. Azken egunotan gai horren inguruan idazten jardun du. Herritarrak, ordea, ez du zertan jakin. Baliteke jakitea, baina hori suposizio hutsa da. Beraz, azaldu beharko zaio, ahal dela albisteko goiburutik bertatik. Hori dela-eta, lehen azpitituluaren ordez, egokiagoa izango da beste bat jartzea:

A) *Xuban Nafarrateren aitaren ustez, «oso larria» da sailburu batek legebiltzarra erabiltzea «gezurrak» esateko* (EZ).

B) *Greban zauritutako gaztearen aitaren ustez, «oso larria» da sailburuak legebiltzarra erabiltzea «gezurrak» esateko* (BAI).

Bigarren azpitituluak lehenak baino informazio gehiago ematen du. Irakurleak badaki gazteari zer gertatu zaion albistearen corpusera heldu baino lehen.

Kazeta-testuak argia izan behar du, zalantzarako tarterik utzi barik. Irakurle guztiek ulertu beharreko testua izango da. Ez da anbiguotasunik egongo. Titulu honetan ez da hori gertatzen, baina:

BEZa igoko dute 2013an, defizitaren helburua bete behar dutela argudiatuta (*Berria*).

Euskal Herri osorako egunkari batean idatziz gero, Euskal Herri osoko irakurleak izan behar ditugu gogoan, zazpi herrialdeetakoak. Lapurdiko edo Zuberoako irakurle batek goizean goiz titulu hori irakurriz gero, ezustekoa izango luke, ez bereziki atsegina. Tituluak ez du betetzen kazeta-estiloaren ezaugarri bat: argitasuna. Espainiako egunkari bateko titulu egokia da. Euskal Herri osoko egunkari batean, aldiz, ez da oso fina. Hobe honelako titulu bat:

2013an BEZa igoko dute Hegoaldean, defizitaren helburua bete behar dutela argudiatuta.

Hurrengo titulua, ordea, ondo dago; oso egokia da. Lapurdi edo Zuberoako irakurleak badaki, hasiera-hasieratik, osasun-zerbitzu publikoetara joateko eskubidea Hego Euskal Herriko etorkinei baizik ez dietela murriztuko:

21.500 etorkin geratuko dira Hego Euskal Herrian osasun zerbitzurik gabe (*Berria*).

3.2. ZEHATZA

Kazeta-testua zehatza izan behar da. Irakurleari eskaintzen dizkion informazioa, datuak eta xehetasunak mugatu behar ditu kazetariak. Ezaugarri hori edukiari eta idazkerari dagokie.

Edukiaren arloan funtsezkoa da zehaztasuna. Behar-beharrezkoak diren datuak baino ez zaizkio emango irakurleari. «Zeintzuk dira datu beharrezkoak, baina?», galdetuko du batek baino gehiagok. Ezinbestekoak direnak gertakari, egitate edo informazioaren berri emateko eta haren zergatiak ulertzeko. Kazetariaren hautuaren ondorioz, albiste hedagarri bihurtu denaz jabetzeko oinarrizko informazioa jasoko du irakurleak, egitate haren jatorria, arrazoia eta ondorioak zein diren jakiteko. Besterik ez.

Adibidez:

> Ehunka lagunek parte hartu zuten atzo eguerdian, Iruñean, Eleak-ek antolatutako txupinazoan eta ikurrinaren omenaldian. Protesta modura antolatu zuten, 2010eko txupinazo eguneko istiluak direla-eta Iruñerriko 13 gazteren kontra hemendik gutxira egingo den epaiketa salatzeko (*Berria*).

Sarrera horretan argi esaten zaigu atzo zer, non eta noiz gertatu zen: Iruñean protesta egin zuten ehunka lagunek. Horrekin batera, mobilizazioaren zergatia azaltzen zaio irakurleari: 2010eko Sanferminetako txupinazoan izandako istiluen ondorioz epaituko dituzten 13 gazteei elkartasuna adieraztea.

Jarraian, sarreraren ondoren lehen paragrafoan, albistea testuinguruan kokatu du kazetariak, irakurleek 2010eko egun hartan zer gertatu zen zehatz-mehatz jakin dezaten. Informazio horren *background*a zein den azaldu du:

> Egun hartan, gazte batzuek ikurrin handi bat atera nahi izan zuten Udaletxe plazan, baina udaltzainak oldartu zitzaizkien. Orduko gertakarietan, Madrilgo gazte batek zauri larriak izan zituen, buruan botila batek jo zuelako.

Kazeta-testua ez da lausoa izango. Datu zehatzak ematen saiatuko da kazetaria. Horrexek frogatuko du, hain zuzen, informazioaren benetakotasuna, albistearen garrantzia. Ahal dela, bazter utzi *zenbait, batzuk, hainbat, inguru* eta halakorik. Ez dute deus konkreturik esaten. Kazetari batzuen iritziz, *zenbait* dena *hainbat* izan daiteke beste batzuen ustez. Non dago muga? Hobe, beraz, datuak zehaztea, informazioa argitze aldera.

> Alkateak, parlamentua eta presidentea aukeratuko dituzte gaur Serbiako 6,8 milioi herritar inguruk (*Berria*).

Inguru horrek ez dio testuari indarrik ematen; alderantziz: zehaztasuna kentzen dio, moteldu egiten du. Hobe horrela:

> Alkateak, parlamentua eta presidentea aukeratzeko eguna izango dute gaur Serbiako 6,8 milioi herritarrek.

Horrekin ez da esan nahi 6,8 milioi lagunek emango dutenik botoa, baizik eta 6,8 milioi lagunek izango dutela bozkatzeko eskubidea. Kasu horretan, sobera dago *inguru.* Eta bigarren bertsioko testua lehenengo bertsiokoa baino zorrotzagoa da.

Ondoko testu honetan, berriz, datu zehatz eta garbiak ematen ditu kazetariak, Nafarroako egoera ekonomikoa azaltzeko. Datuak, datuak, datuak:

> Krisi ekonomikoaren okertzeak bere aurrekontuak aldatzera behartuko du Nafarroako Gobernua. Urrian, kontuak egin zituenean, Iruñeko agintariek uste zuten ekonomia % 1,9 haziko zela eta horren harira zergen bidez 3.407 milioi jasoko zituztela iragarri zuten. Orain, ordea, Alvaro Mirandak uste du ekonomiak % 1,2 egingo duela atzera, eta horrek 75,5 milioi gutxiago biltzea ekarriko duela. Horietatik 53,9 milioi lortu beharko ditu, gastuak gutxituta edo diru sarrerak handituta (*Berria*).

Irakurleari funtsezkoena eskaintzeko egiazko datuen bidez, mugak izango ditu albiste arrunt bateko testuak, eduki eta luzera aldetik. Kontrastatu egingo ditu kazetariak datu horiek. Hala ere, zenbait kasutan —ikerkuntza-erreportajean, esate baterako— zilegi da —eta sarri askotan, beharrezkoa— muga horietatik haratago joatea, hedabidea osatzen ari den informazio espezifiko hori ahalik eta sendotasun handienaz kaleratzeko.

Edukiaren aldetiko aholkuak dira horiek. Kazeta-idazkeraren arloan ere nahitaezkoa dugu zehaztasuna. Idazten duen hitz bakoitza ondo aukeratu behar du kazetariak, hura egokiena izan dadin. Teorian erraza da hori lortzea. Praktikan, ordea, bestelakoa da kontua. Kazetariaren jardunak idazketa-prozesua baldintzatzen badu ere —hara eta hona korrika eta presaka joatea, denbora-tarte labur batean idatzi beharra …— horrek ez du aitzakia izan behar kazeta-estiloari berez dagokion zehaztasuna ez emateko. Kazetaria zalantzan badago testuaren barruan berba jakin bat jartzea ezinbestekoa ote den, hauxe egin dezake bidea argitzeko: hitza testutik kendu, ezabatu. Gero, ikusi berba hori barik testua herren dagoen edo ez. Testuak zentzu, esanahi edo baliorik galdu ez duela ohartuz gero, argi dago hitz horrek ez zuela berebiziko garrantzia idatzizko informazio horren egituran. Kendu egin daiteke. Izan ere, hura gabe bizirik dago testua. Hitza ezabatuta, testuari zerbaiten falta nabari bazaio, aldiz, begi bistakoa da hitz hori —edo haren sinonimoa— beharrezkoa dela testuan.

Hori guztia bereziki garrantzitsua da adjektiboak erabiltzean. Kazeta-testu batean, adjektiboak ez ditugu erruz erabili behar, batez ere albistea idazteko garaian. Erreportajeetan, kronika, elkarrizketetan eta abarretan, ordea, kazetariak ez du hain zurrun jokatuko. Areago, batzuetan egokiagoa izango da adjektiboak eta horiekin batera errekurtso estilistiko ugari erabiltzea kazeta-testuari jantzia eta kolorea emateko. Bizitza, azken batean.

3.3. XUMEA

Xumeak izango dira kazeta-testuak, arinkerian erori gabe. Beste arloetan bezala, eremu honetan ere garrantzitsua da oreka bilatzea. Testua xumea izateak ez du esan gura oinarri sendorik gabekoa izango denik. Oinarri sendoak izango ditu, eraikin informatiboa —kazeta-testua— bertan tinko garatu ahal izateko, baina kazetariak sortze-prozesu horretan erabiliko duen materiala ez da astuna izango. Funtsezko osagai guztiek finkatuko dute eraikina. Beharrezkoak izango diren guztiak izango dira, ez bat gehiago, ez bat gutxiago. Horrexek emango dio kazeta-testuari xumetasuna, arintasuna eta, aldi berean, sendotasuna. Hiru ezaugarriak joan daitezke batera, dudarik ez.

Kazetaritzak informatzea du helburu. Ondorioz, kazeta-estiloa xumea eta bizia izango da, eta ulerterraza irakurlearentzat. Kazetariak ez ditu hitzak barra-barra erabiliko, ez ditu higatuko, kontrakoa baizik. Kazetariak hitzak aurreztuko ditu,

gutxi erabiliko ditu eta, hala ere, hitz gutxi horiekin inork baino hobeto emango du gertatuaren berri. Errealitatea ahalik eta modurik fidelenean islatuko du ahalik eta hitz egoki gutxienekin. Eta hori guztia ahalik eta denborarik laburrenean.

Kazetariak ondo erabiliko ditu hitzak, esaldiak, errekurtsoak. Taxuz idatziko du testua, gehiegikeriarik eta nabarmenkeriarik gabe. Osagai guztiak modu egokian txertatuko ditu.

Esaldi luzeak eta laburrak konbinatuko ditu, estilo bizia lortzeko, erritmo bizkorra. Hona hemen, adibide gisa *Berrian* argitaratutako kirol-kronika baten hasierako lehen bi paragrafoak:

> Hotz handia egiten du neguan Chicagon. Michigan lakuaren bestaldean Kanada dago, eta handik datozen iparreko haize hotzak desatsegin egiten dute eguraldia Windy City-n (hiri haizetsua). Antzera, hotz geratu ziren United Center pabiloi ezagunera larunbatean joan ziren zale sutsuak. 70 segundo eskas geratzen ziren Chicagoren eta Filadelfiaren arteko azken-laurdenetako lehen norgehiagoka bukatzeko. Eskura zeukan garaipena Illinoisko taldeak, baina kantxan jarraitzen zuen Derrick Rosek. Barneraldi bat egiten saiatu zen, bere jauzi bikaina baliatuz, baina hankak jartzean belaunak kale egin zion, eta oinazeak jota geratu zen Rose kantxa gainean etzanda. Mutu geratu zen pabiloia.
>
> Mutu zaleak. Mutu Tim Thibodeau entrenatzailea eta taldekideak. Mutu esatariak. Traza txarra zeukalako belauneko bihurrituak. Igande goizean eman zuten diagnosia: belauneko aurreko lotailu gurutzatua txikitu zuen NBAko jokalari onenetakoak. Ondorioa, noski, agur denboraldiari, eta sei eta bederatzi hilabete arteko osatze prozesu larria. Eta lesioaren ostean, noski, iritziak, hausnarketak eta kritikak. Zorrotzak batzuk. Lock-out-ak 66 partidara mugatu duen denboraldia oso gogorra izan delako Derrick Roserentzat. Berrogei neurketa bakarrik jokatu ditu, sei aldiz min hartu baititu, hilabetean behin ia-ia: bizkarra, aldaka, belauna, orkatila…

3.4. ERAKARGARRIA

Kazeta-testua irakurterraza izan behar da, hau da, aise ulertzeko modukoa. Soilik horrela izango da irakurgarria. Hori nahitaezkoa da hizkuntza guztietan, eta are garrantzitsuagoa da euskaraz idatzitako testuetan. Euskara ez dago guztiz normaldua. Berezko hizkuntzarekin batera, proiekzio sozial eta botere politiko eta ekonomiko handiko bi hizkuntza ditugu Euskal Herrian: espainiera eta frantsesa. Bi erdara horiei hirugarren erdara gehitu behar zaie, erdara unibertsala, munduko hainbat lekutan *lingua franca* dena: ingelesa. Salbuespenak salbuespen, oraintsu arte euskaldunok ez gara ohituta egon euskaraz irakurtzera, geure eskuetan euskarazko prentsa izatera. Beste hizkuntzetan *irakurri* dugu mundua. Orain, mundua geure hizkuntzan *irakurtzen* hasi garen honetan, lana erraztu egin behar zaio euskaldunari. Kazetariak ez dezala lan hori are zailago eta nekagarriago egin.

Kazeta-testuak argiak izaten dira hizkuntza guztietan. Euskaraz ere bai, zer esanik ez. Euskaldun batek ulertuko duen testua idatzi behar da. Ez da batere alfabetatu gabekoentzat idatzi behar. Gutxieneko maila behar da euskaraz irakurri ahal izateko, testuak ulertzeko. Hala ere, horrek ez luke euskal kazetaria beste muturreraino eraman behar. Euskal kazetariak ez dihardu soilik euskaltzain, hizkuntzalari, idazle, edo elite kulturalarentzat. Horretan autokritika egin behar dugu euskal kazetariok. Euskaldun alfabetatuentzat idazten ari gara, bai, baina ohartu behar dugu euskaldun alfabetatu horiek herritar xumeak direla. Pedantekeriarik ez. Zergatik idatzi *«daugin astean», «datorren astean»* idatzi beharrean? Zertarako *«idoro dugu»* eta ez *«aurkitu dugu»;* hitz horiek erabiltzen diren eskualdeko prentsan ez bada? Euskarazko testuak ez ditu irakurleak uxatu behar. Horregatik, argitasunaren eta irakurgarritasunaren izenean, komeniko da kazetariak lengoaia ondo aukeratzea, irakurle guztiek uler dezaten. Horregatik, komeniko da hitzak, testua eta erritmoa egokiak eta biziak izatea, jario gozoan kateatuta. Testua, ulergarria ez ezik, erakargarria ere izango da horrela. *Berria*n argitaratutako erreportaje honen zatia dugu horren eredua:

> Iltzatuta daukate irudia: euria goian behean, etenik gabe, eta ura kaleetan eta etxeetan, dendetan eta tabernetan, sartu eta sartu. «Oraintsu euria egin du egunetan segidan, eta denok izan dugu bihotza eztarrian. Beldurra beti izan dugu, eta orain, gehiago». Asteburu honetan da urte erdi aspaldiko uholderik handienak izan zirela Gipuzkoan. Martutene aldeak jasan zuen okerrena, eta oraindik etxera bueltatzeko dago egoera azaldu duen andrea, Maite Fernandez. «Obrak ez dira hasi ere egin». Haren bizilagunak ere etxetik at daude: hamabi sendi. «Hiru hilabete egin genituen udalaren larrialdiko pisu batean, baina epea bukatu zen, eta geure kabuz topatu genuen etxe bat. Auzoan bertan gaude, alokairu batean». Euren dirutik ari dira guztia pagatzen. «Ez dugu ezer sinatu, eta ez dugu dirurik ikusi».

Kazeta-estiloak argia, zehatza eta xumea izateaz gain, erakargarria izan beharko du: testuak hitz eta errekurtso egokiak izango ditu, estilo bizia, irakurtzen segitzeko grina pizteko. Testuaren gorputz harmoniko eta proportzionatua sortuko du kazetariak, osagai guztiekin. Horixe izango da edukia, mamia. Azala ere ederra egingo du. Testuaren gorputza jantzi dotoreenez bilduko du, ikusgarri —irakurgarri— eta erakargarri bihurtzeko, handikerian erori gabe. Hori errazago gauzatzen da kazeta-genero jakin batzuetan beste batzuetan baino. Kazetariaren esku dago kasu guztietan lortzen ahalegintzea, esperientzia eta trebezia lagun.

3.5. AHOLKU PRAKTIKOAK

Horretaz guztiaz gain, kazetariak beste faktore batzuk izan beharko ditu gogoan, idazteko garaian. Kontu praktikoak dira, eguneroko jardunean lagunduko diotenak. Haren idazkera etiko eta sinesgarri bihurtuko dute; haren jokaera, argi eta fidagarri. Hedabide eta informazio-agentzien estilo-liburuetan biltzen dira, baita kazetari-elkarteen arautegietan ere. Hona hemen kazeta-estiloari buruzko aholku horietako

batzuk, *Berria* egunkariaren estilo-liburutik hartuak. Bertan, testuak nola idatzi esaten zaio kazetariari:

Labur

Kazetariak labur idatzi behar du, baina labur ez da motz: elementuak neurrira ekartzea da, bai paragrafoak eta esaldiak, bai hitzak. Kaltegarria da luzamendutan ibiltzea, testuak aurrera egitea eragozten duelako. Esaldietan, neurrian erabili behar dira hala menpeko perpausak, batez ere erlatiboak, nola tartekiak: elementu horiek luzeak izanez gero, irakurleak haria galduko du.

Horregatik, hobe da puntuz bereiziriko bi esaldi ulerterraz egitea bat luze ulergaitza baino:

NBEko idazkari nagusi Koffi Annanek Mendebaldeko Saharararako gatazkan bere erakundeak bitartekaritza lana baztertu eta konponbidea aldeen eskuetan uztea azaldu eta biharamunera*, bere kartzeletan dituen preso politiko saharar guztiak (35 bat) eta beste zenbait preso arrunt ere, 48 guztira, indultatuko dituela iragarri du Marokoko errege Mohammed VI.ak.*

Aditz estiloa, biziagoa

Aditz estiloa egokiagoa da kazetaritzako testuetarako, kontaketari dagokiolako bete-betean: dinamikoagoa eta adierazkorragoa da; laburrago idazteko modua ematen du; konkretuagoa da, ez izen estiloa bezain abstraktua; eta agentea edo egilea esplizitatu egiten du. Aditz estiloa naturalagoa da, izen estiloa baino:

Onuragarria izan da ***lanaren antolakuntzaren egitura-aldaketa.*** (EZ)
Onuragarria izan da ***lana antolatzeko egitura aldatzea.*** (BAI)

Bakterioaren ***azterketa burutzen*** ari dira
Bakterioa ***aztertzen*** *ari dira*

Aditz estiloan errazago josten dira esaldiak, eta nekez uzten dira osagaiak ondo lotu gabe:

Estrategikotzat jo du ***euskararen erabilpena astialdian.*** (EZ)
Estrategikotzat jo du ***aisialdian euskara erabiltzea.*** (BAI)

Aktiboa, pasiboa baino hobea

Ekintzak, gertaerak eta esanak izaten dira —kazetaritzan— berrien oinarriak: azken batean, norbaitek eginak. Berriak kontatzean, esaldiek argi utzi behar dute nork zer egin duen, eta, horretarako, egitura aktiboak lagungarriak zaizkio kazetariari, adierazkorragoak eta biziagoak baitira. Aktiboak erabiliz gero albisteak indar aktiboagoa izango du.

Hamar lagun ***atxilotuak izan*** *ziren Elgoibarren.* (EZ)
Guardia Zibilak hamar lagun ***atxilotu*** *zituen Elgoibarren*. (BAI)

Orainaldia, lehenaldia baino hurbilagoa

Lehenaldiaz abusatuz gero, badirudi kontu zaharrak berritzen ari dela, baina, egiaz, berriak zahartzen ari da kazetaria. Orainaldia hobea da kazetaritzarako, biziagoa baita, hurbilagoa.

Testu barrenean baino are garrantzitsuagoa da titulu elementuetan modua aurkitzea orainaldia erabiltzeko, eta ez da batere zaila izaten gehienetan: erabili nahi izate hutsa nahikoa da, non eta ez garen aspaldiko kontu batez ari, eta, bai, ohi den bezala, bezperako batez.

Titulua: *Europa krisi sakonean erori dela* ***esan du*** *Junckerrek*

Azpititulua: *Bruselako goi bileraren porrota "iraganean bizi diren herrialdeei"* ***egotzi die*** *Strawk*

Inpertsonaltasuna

Esaldi inpertsonalek indarra kentzen diote testuari, eta ezkutatu egiten dute agentea edo egilea. Azken buruan, berriari ere indarra kentzen diote, albistea nork edo zerk eragin duen lausotzen baitute.

Atzo ***aurkeztu zen*** *emaitzak biltzen dituen txostena. Bertan, sektorearen diagnostikotik abiatuta, hainbat aholku eta proposamen* ***egin dira*** *aurrera begira.* (EZ)

Gizarte eragileek *atzo* ***aurkeztu zuten*** *emaitzak biltzen dituen txostena. Bertan, sektorearen diagnostikotik abiatuta, hainbat aholku eta proposamen* ***egin dituzte*** *aurrera begira.* (BAI)

Kazetaria ez da protagonista

Kazetariak ez du agertu behar albistean. *Berriako* kazetariek, beraz, ez dute lehen pertsona erabiliko —ez singularrekoa (ni), ez pluralekoa (gu)—.

Halakoak esan ***digu.*** (EZ)

*Berria*ren estilo-liburuan, badira beste aholku batzuk, testua behar bezala idazteko: eufemismorik edo arrunkeriarik ez erabiltzea, inoren esanetan ez bada; klixeak eta hizkera espezializatua kazeta-testutik baztertzea; erredundantziarik ez egitea eta siglak neurriz erabiltzea, besteak beste.

Bestalde, *Reuters* informazio-agentzia estatubatuarrak ere kazeta-testuak idazteko aholkuak ematen dizkie kazetariei bere estilo-liburuan (**http://handbook.reuters.com/index.php/Main_Page**). Oso aholku praktikoak dira. Hauexek batzuk:

Albistea ondo idazteko aholkuak

«Kontaidazu nik ez dakidan zerbait». Informazio-agentziaren arabera, bezeroek —hau da, irakurleek— horixe nahi dute. Hori dela-eta, kazetariak egitate, ikuspuntu edo interpretazio berri bat bilatuko du, *plus* bat, jorratzen ari den informazioari lotuta

dagoena. «Albisteak ez dira hutsetik sortzen. Testuinguruak egiten du albistea», dio *Reuters*ek.

Ondo idatzi lehenengo bi paragrafoak

Artikulu batean lehen bi paragrafoak dira garrantzitsuenak. Kazetariak lehenbailehen esango dio irakurleari zer gertatu den eta zergatik den garrantzitsua. *Zer* eta *zergatik*. Lehen bi paragrafoetan albistea azaldu ez badu, berandu dabil. *Reuters*en arabera, irakurle batek lehen paragrafoa baino ez du irakurriko sarri askotan. *Leadak*, sarrerak, garrantzi handiena du. Lehen paragrafoa da gakoa. Ondo idatziz gero, gainontzeko testua erraz sortuko da.

Titulu sendoak egin

Bezeroek eta irakurleek titulu sendoak dituzten artikuluak aukeratzen dituzte idatzizko edizioetan edo Interneteko edizioan. Kazetaria titulua idazteko gai bada, sarrera ere idatziko du. Sarrera idatzi eta gero, albiste osoa idatz dezake. Eman tituluei merezi duten arreta. Titulu asko aspergarriak dira, eta ez dute haien helburua betetzen: irakurlearen arreta piztu eta testua irakurtzera bultzatzea.

Hamar hitzen teknika

Reuters agentziak teknika xume hau erabiltzea aholkatzen die kazetariei, albistea hasieratik modu argi eta zehatzean idazten ari diren edo ez jakiteko: idazten hasi aurretik kazetariak hamar hitz aurkitu beharko ditu informazio horri lotuta. Hamar hitz horiek gabe ezin liteke albistea idatzi. Hitz horiek ez dute derrigorrez izan behar testuan idatziko dituen hitz konkretuak. Egitate edo kontzeptuak izan daitezke. Behin hamar hitzeko zerrenda osatuta, albistearen mamia zehaztuta dago. Hitz horietako gehienek —edo denek— lehen perpausetan agertu beharko lukete.

Non dago hitz gakoa?

Arestiko hamar hitzen teknikaren bariantea da hau. Kazetariak sarrera irakurriko du eta hitzak zenbatuko ditu ohartzeko non dagoen albistearen mamia ulertzeko ezinbestekoa den hitza, testutik ezabatu ezin dena. Hitz gako horren aurretik hiru edo lau hitz baino gehiago badaude, gelditu eta berriz idazteari ekitea da onena. Ariketa honetan hitz gako eta sendoak lehen esaldia irakurtzen hasi eta berehala aurkitu beharko lituzke kazetariak.

Ezaugarri, arau eta aholku horiek guztiak kazeta-idazkeran trebatzeko abiapuntua baizik ez dira. Kazeta-estiloaren ezinbesteko oinarriak. Horiekin batera, hamaika kontu ere izango ditu kazetariak gogoan testua idazten hasi aurretik. Garrantzitsuenetako bat, objektibotasunera hurbiltzen saiatzea, zaila izan arren, erabateko objektibotasunik ez baitago, ezinezkoa baita. Kazetariak zer gertatu den ikusi eta aztertu beharko du, bere gustu ideologikoetatik haratago. Datuak eman

beharko ditu, aipuak, xehetasunak eta abar, gustatu zein ez, gertakaria ahalik eta ondoen ulertarazteko.

Erantzukizun pertsonal eta soziala dakar informatzeak. Horregatik, arduraz jokatzen jakin behar da, eta informazioa eta iritzia bereizi. Egitateak egiazkoak dira eta frogatuta daude. Iritzia hauxe da: egitate horri buruz norberak pentsatzen duena, bere ikuspegi pertsonala, subjektiboa. Informazioa eta iritzia ez dira nahasi behar. Charles Prestwich Scottek, *The Guardian* egunkari britainiarraren jabeak, bi kontzeptuen arteko mugak zedarritu zituen 1921. urtean, hedabide horretako editore postuan 50. urteurrena betetzean idatzitako entseguan: *«Comment is free, but facts are sacred».* Iritzia libre da, baina egitateak sakratuak dira.

Horren harira, Carlos Marin kazetari eta irakasle mexikarrak hauxe azaltzen du *Manual de Periodismo* liburuan. «Erreportaria egitateetatik abiatu behar da beti, bere lehentasun ideologikoak edozein direla ere» (2003: 26-27). Marinen iritziz, kazetaritza «subjektiboa» da, baina kazetaritzarik onena «kazetariek errealitatea adjektibatzeko nahita erabiltzen duten zama subjektiboa erabili gabe» egiten da.

Marinek aipatzen duen «zama subjektiboa» ez erabiltzeak lagundu egiten du testu orekatuak idazten. Subjektiboa da gizakia: pentsamendu eta emozioak ditu, eta horiek haren egitate eta jardunetan atzematen dira, era batera edo bestera. Kazetaria pertsona da lehen-lehenik; ez dago subjektibotasunetik libre. Horrexegatik du hain funtsezkoa estilo eta arau batzuei segitzea, helburua zein den jakitea: argi idatzi. Eta garbi. Jakin bere jardueraren ondorioak zeintzuk izan daitezkeen; jakin hitzak ematen duen boterea kudeatzen. Hitzak luma leunak izan daitezke, lurrean beste barik pausatzen direnak; edo gezi zorrotzak, haragi bizian sartzen direnak. Noren zerbitzura dauden eta zertarako eta nola erabiltzen diren. Kazetariari dagokio hori askatasunean erabakitzea, gizartearen aurrean duen erantzukizunari men eginez. Kazetariak argituko du hori.

Anaiak argitu zion Michael Luori zein den kazetari-jardueraren azken helburua. *The New York Times*eko kazetariak halaxe erantzun zion egunkariak erredakzioko kazetariei egindako galdetegiko seigarren galderari: «Anaia bizkiak esan zidan behin nire artikuluekin duintasuna ematen niela jendearen bizitzei. Gustatu egin zitzaidan hori, eta horretan saiatzen naiz gaur. Kazetariok horixe egiten dugu askotan: jendearen bizitzak hartu eta duintasuna ematen diegu. Berdin dio pertsona horiek urruneko herrialde batean bizi diren edo hementxe bertan dauden. Horrexegatik idazten dut nik».

4. Albistea, informazioaren oinarri

Aurreko ataletan kazetaritza-estiloaren ezaugarriak eta idazketa-prozesuan testuak sortzeko jarraibideak ikusi dituzu. Era berean, aurreratu zaizkizu albistea ondo idazteko aholku batzuk. Albistearen definizioa, albiste motak, albistearen egitura eta haren atalik garrantzitsuenak azaltzen zaizkizu hurrengo lerroetan, zenbait adibidez lagunduta.

Lehenengo eta behin, albistea definituko da. Erraza dirudien arren, ez baita egiteko samurra. Batetik, kontzeptua bera aldatu egin delako denborarekin; hots, albistea ulertzeko modua ez da berbera gaur egun edo duela 20 urte, eta ez da berbera izango hemendik 20 urtera ere. Bestetik, albistea definitzeko ezaugarri ezberdinak kontuan hartuta, albistea zer den xedatzen saiatu diren autore mordoa dagoelako. Beraz, definizioan zenbat buru, hainbat aburu aurki daitezke. Hala ere, interesgarria da horietako batzuk orriotara ekartzea, hemen proposatzen den definizioaren hurrenkera ahalik eta zehatzen egiteko asmoz.

4.1. DEFINIZIOA

Informazio-genero garrantzitsuena eta nagusia albistea dela baieztatzeko orduan bat datoz autore gehienak.

«Albistea lehen informazio-generoa dugu, garrantzitsuena, erabiliena eta funtsezkoena. Informazio-estiloaren paradigma dela esan dezakegu, eta informazio-genero guztien oinarri» (Díaz Noci, 2000: 121). Kazetaritzaren oinarrizko generoa dela azpimarratzen du Carlos Marinek, «gainontzeko generoak elikatzen dituena, eta interes kolektiboa edo orokorra duten gertaerak ezagutzera ematea xede nagusi duena» (Marin, 2003: 63). Martín Vivaldik gaurkotasuna gehitzen dio definizioari: idazkuntzaren ikuspuntutik eta berau kazetaritza-genero nagusiena izanda, modu laburrean baina osoan gaurkotasunarekin zerikusia duen eta ezagutzera ematea merezi duen gertaera bati buruz informatzen duena da albistea (Martín Vivaldi, 1981: 143). Kontuan izan behar da, gertakizun hori ezagutaraztea merezi duen ala ez, kazetariek edo komunikabideek erabakiko dutela hartzaileari igorri aurretik. Hots, «egitate batzuk albiste bilakatzea eta beste batzuk, ostera, ahaztea edota informazio-kategoriarik ez irabaztea, komunikazioaren profesionalek erabakitako

gauza da eta ez egitateei berei dagokien ezaugarria» (Basterretxea, 1997: 33). Beraz, komunikabideetan ari diren profesionalen aldetik interpretazio-ariketa dago eta interpretazio-prozesu horretan gizartean aldakorrak diren irizpideak aplikatzen ditu profesionalak (Armentia eta Caminos, 2009: 118).

Aburuak aburu, eta oinarriak jarrita, *Berria* egunkariak bere estilo-liburuan jasotzen duena, eta orain arte aipatutakoa ondo laburtzen duena, izango da abiapuntua euskarazko prentsa idatzian:

> Gaurkotasunari estu-estu loturiko informazio generoa. Gertaera bati lotutako berria da albistea, zer gertatu den ulertzeko oinarrizko testua, nondik norakoak azaltzen dituena. Kazetaritza klasikoan, honako galdera hauei erantzun ohi die albisteak: *nor(k), zer, non, noiz* eta *zergatik*. Batzuetan, baita *nola* galderari ere. Gaur egun, ordea, ez da ezinbestekoa beti-beti galdera horiei erantzutea. Kazetariak jakin behar du bakoitzaren garrantzia neurtzen eta horren arabera jokatzen. Esaterako, gerta liteke beste galdera batzuei ere erantzun behar izatea, mamia emateko: *noren arabera, zertarako, zenbat*... (Aranguren *et al.,* 2006: 19).

Aipatu definizioaren oinarrian, hiru ardatz nagusi agertzen dira:

- ***Gaurkotasuna:*** gaurkotasuna ez da kontzeptu itxia, hedabideak duen aldizkakotasunaren arabera ulertzen baita. Alegia, sarean, egunkarian, astekarian edo hilabetekarian ez da gaurkotasuna modu berean antzematen. Sarean momentuko gertaera izan daiteke gaurkotasuna, egunkarian bezperako gertaera, eta astekarian, aldiz, duela lauzpabost egun gertatutakoa.
- ***Interes orokorra:*** zaila da kontzeptu hau definitzea. Izan ere, nola eta noiz kuantifika daiteke? Bada, normalean publikatu ostean jakingo dugu gertaera horrek sorrarazi duen interesa. Halaber, interes orokorra hedabidearen irakurleei lotuta dagoen kontzeptua da, eta jakin badakigu albiste guztiak ez direla modu berean interesgarriak irakurle guztientzat.
- ***Gertaera edo egitatea:*** gertaera batean du kazetaritza-albisteak oinarria (Foncuberta, 1993: 26), eta gertaera edo egitatea da albistearen abiapuntua. Beti, ordea, ez da horrela gertatzen; egun, komunikabideek argitara ematen dituzten gertaera asko eta asko sasigertaera gisa har daitezkeelako. Aurreikusitako, sortutako edo eragindako egitate bat da sasigertaera bat: argia ikustea helburu duena, eta lortzen duen hedapenean duena arrakasta (Armentia eta Caminos 2009: 119).

4.1.2. Albiste motak

Armentia eta Caminos irakasleen sailkapena hartuko da gogoan atal honetan. Sailkapen zorrotz eta zehatz bat egiteko, zailtasunak onartzen dituzte autoreek: erabilitako ikuspegiaren arabera, albiste bera kategoria ezberdinetan sartzeko aukera dagoelako (Armentia eta Caminos, 2009: 126-138).

4.1.2.1. Gertakaria jazotako moduaren araberakoak

a) **Bat-bateko albistea:** ustekabean gertatzen diren jazoera edo egitateak lantzen dituena. Egunerokotasuna hausteko duen gaitasunak markatzen du informazio horren izaera (ikus 5. irudia).

Azal horretan bi adibide ditugu:

1. Bermeoko atunontzi bat bahitu dute Somalian, eta tartean zazpi euskal arrantzale daude.
2. Langile bat hil da, zerabilen orga altxatzailea ibaira erorita

b) **Aurreikusitako albistea:** ezustean gertatu izanaren itxura badu ere, gertakaria etorri datorrela susmatzen da, jazo aurretik. Izan ere, badira zantzu batzuk aurreikuspen hori egitera garamatzatenak. Hortaz, sintoma horien guztien ondorioa litzateke aurreikusitako egitatea. Edonola ere, kasu horietan kazetariak eta hedabideak dokumentazio-lana egin behar dute, azkenean gertatuko dena ganoraz lantzeko (ikus 6. irudia).

Tituluaren ostean azaltzen da 1985ean gaixotasun larri bat antzeman ziotela Xabier Leteri eta azken 25 urteetan borroka latzean aritu dela gaixotasunari aurrera eginez. Bezperan erietxean ingresatu zuten bere egoerak okerrera egin baitzuen.

c) **Programatutako albistea:** albistearen garapena aldez aurretik da ezaguna. Horien baitan sar daitezke besteak beste, estatu-agintari baten bisita, hauteskundeak, partida baten finala… Aurreikusitakoetan bezalaxe, kazetariek eta hedabideek aurretiaz plangintza egin behar dute egitatea gertatzen denean haren betedura behar bezalakoa izan dadin (ikus 7. irudia).

Lehenengo azpitituluan azaltzen da Patxi lopez lehendakariak Espainiako gobernuburua hartu duela Ajuria Enean, ETAk armak utzi ondoren sortu den egoera aztertzeko. Beraz, bilera hori aurreikusita zegoen: ez da inprobisatu eta bat-bateko gertaera izan.

4.1.2.2. Kontatzen den edukiaren araberakoak

a) **Giza intereseko albistea:** irakurlea hunkitzea bilatzen dute informazio horiek, sentimenduen bitartez. Izan ere, pertsonen giza alderdia eta alderdi psikologikoa lantzen dituzte (ikus 8. irudia).

Goitituluak argitzen du zein den argazkian agertzen den Marta Uriarte getxotarraren egoera. Hipotekari aurre egin ezinda, etxea galtzeko zorian egon dela, baina haren abokatuak egindako lanari esker, erabakia hilabete atzeratzea lortu du.

b) **Interes publikoa duen albistea:** gizarte osoari eragiten dioten gaiak lantzen dituzten informazioak dira. Informazio ekonomikoak, politikoak, gizarte-gaietakoak… sartu ohi dira atal honetan. Horrelako informazioek garrantzi handia

dute kalitatezko prentsan. Gizartearen analisia eta haren arazoak aztertu eta interpretatzen baititu kalitatezko prentsak (ikus 9. irudia).

4.1.2.3. Erabilitako iturrien nortasunaren araberakoak

a) **Albiste ofiziala:** ordezkaritza publikoa duten pertsonak dira informazio horien iturri. Erabilitako iturriaren inguruan ez dago zalantzarik, argi eta garbi eta modu zehatzean agertzen baita nork zer esan duen. Informazioa emateko baimendua dagoen pertsona izan ohi da informazio-iturri.

b) **Albiste ofiziosoa:** aurrekoetan bezala, iturri ofizialak dira informazio horien iturri, baina kasu honetan iturrien aipamena ez da modu argi eta zehatzean egiten. Alegia, iturriaren nortasuna anonimatuan babesten da.

c) **Albiste estraofizialak:** instituzio-sistemaren informazio-igorpenari lotuta ez dauden iturrietatik datozen albisteak dira. Atribuzio esplizitua edo ezkutuko atribuzioa erabil dezakete. Behin-behinekoak izan ohi dira iturri estraofizialak.

Iturrien izaerari buruz luze eta zabal arituko gara informazio-iturriei eskainitako atalean. Orain arte aipatutakoa aurrerapen bat baino ez da, albiste motak sailkatzeko ezinbestekoa dena.

4.1.2.4. Erabilitako iturriaren gertutasunaren araberakoak

a) **Lehen eskukoa:** kazetariak berak zuzenean lortu du informazioa iturriarengandik. Dela pertsona bat, dela dokumentu bat, edo dela egitate bat (ikus 10. irudia).

b) **Besteren bidezkoa:** kazetariak berak ez du lortu informazioa lehen eskutik; zuzena ez den beste kanal batetik heldu zaio informazioa kazetariari edo hedabideari. Alegia, beste komunikabide baten bitartez (egunkari, aldizkari, irrati, telebista, edizio digital), informazio-agentzia edo kabinete baten bitartez edota lehen mailako lekukoak izan ez diren pertsonen bitartez (ikus 11. irudia).

Albistearen sarreran argi geratzen da informazioa norberarena ez den iturri batetik jaso dela:

> *Zelatatze sistema iraunkor bat topatu dute Gasteizko Alde Zaharreko etxebizitza batean, **Gara egunkariak** atzo argitaratu zuenez. Besteak beste, soinua grabatzeko gailuak, bideo kamerak eta zinta mordoa topatu dituzte Aiztogile kaleko 92. zenbakiko 3. pisuan. Hutsik dagoen etxebizitza batean aurkitu dituzte ustez espioitza egiteko balio duten tramankuluak.*

4.1.2.5. Egituraren araberakoak

a) Hau da, gai jakin bati buruzko informazioa eskaintzen du. Informazioaren oinarrizko gaiarekiko duten garrantziaren arabera ordenatzen dira egitateak albiste sinpleetan (ikus 12. irudia).

b) **Albiste anizkuna:** oinarrizko elementu edo ideia bat baino gehiago duen albistea da. Era berean, elkarren artean lotura duten hainbat egitate eskaintzen dituen informazioa da. Ideia bakarra edo ideia bat baino gehiago aurkez daiteke sarreran. Ideia bakarra garatzen den kasuetan hurrengo paragrafoetan azalduko dira gainerako gaiak (ikus 13. irudia).

4.1.2.6. Informazio-funtzioaren araberakoak

a) **Zuzena:** datuak modu aseptikoz, funtzionalez eta ikuspegi inpertsonalez ematen duten informazioak sar daitezke kategoria honen baitan. Hots, albiste horien helburu nagusia da gertatu denari buruzko informazioa publikoari helaraztea. Berriki gertatu denaz informatzeko xedea dute, irakurlearen interesa erakartzeko. Agentzietatik eratorritako albisteak izaten dira maiz (ikus 14. irudia).

Sarreran argi ikus daiteke informazioa modu aseptikoz biltzen dela:

Pakistanen 59 pertsona hil eta 116 zauritu zituzten atzo atentatu suizida batean. Kuetta hirian egin zuten erasoa, Balutxistan probintzian, hego-mendebaldean. Han Palestinaren aldeko manifestazio bat egiten ari ziren hiriko xiitak. Pakistango hedabideen arabera, zaurituen artean hainbat kazetari daude. Pakistango biztanleen % 20 xiitak dira; gehien-gehienak, berriz, sunitak. Suniten artean muturreko taldeak daude.

b) **Interpretatiboa:** gertakariei buruzko informazioa emateaz gain, jazoeren inguruko datuak interpretatzen ditu berriemaileak: egitateak analizatu, aurrekariekin lotu, testuinguruan jarri eta, bukatzeko, balorazio bat eskaintzen dio irakurleari. Egun, gero eta gehiago dira egitura horri jarraitzen dioten albisteak. Izan ere, garrantzia handia hartu du interpretazio-kazetaritza molde horrek. Albiste horietako tituluetan interpretazioa sumatzen da eta lehenengo paragrafoan tituluan esandakoa biribildu egiten da aurrekariekin, datuen analisiarekin eta balorazioekin (ikus 15. irudia).

Kristina Berasainek Kairotik bidalitako testu horren sarreran oso ondo ikus daiteke jazoeren inguruko datuen interpretazioa, egitateen analisia eta aurrekariekiko lotura. Hona hemen albistearen sarrera:

Egipton demokrazia ezartzeko dena egiteko baldin badago ere, trantsizioaren bidean urratsak egiten ari dira egunetik egunera. Hosni Mubaraken ondare politikoak ezabatzeari ekin dio armadak, eta, trantsizioko gobernua desegin ez badu ere, egiteko sinbolikoa baino ez da betetzen ari azken orduetan. Mohamed Tantaui jeneralak bi pauso irmo eman ditu oraindik erabat ziurgabea den bide horretan. Faraoiak bezala betiko agintean egon ahal izateko diktadoreak aldatutako ituna bertan behera utzi dute militarrek. Konstituzioa erreformatzea da orain erronka, eta hamar egunetan egingo dutela hitz eman dute argitara emandako bosgarren komunikatuan. Erreferendum bidez babestu beharrekoa izango da, eta ondoren ezarriko da hauteskunde orokorretarako eguna, betiere, sei hilabeteko epean. Orduan erakunde zibilen eskuetan utziko du agintea Armadaren Kontseilu Gorenak.

c) **Sormenezkoa:** jatorrizko xedea informazioa ematea bada ere, sormenezko albistearen helburua da irakurlea entretenitzea, albiste zuzen baten informazioa osatzea, eta hizkuntzaz baliatuz narrazio modu berriak sortzea. Sormenezko albistearen egiturak ez du zerikusirik zuzeneko albistearen egiturarekin. Albiste zuzenak azaltzen duen egitateak berez du garrantzia eta interesa. Aitzitik, sormenezko albistean, garrantzi handiagoa du berriaren aurkezpenak eta idatzita dagoen moduak, gertaerak berak baino (ikus 16. irudia).

d) **Egoera-albistea:** gizartearen unean uneko arazoen berri ematen dute. Esaterako, emakumeenganako indarkeria matxistaz, xenofobiaz, langabeziaz, kutsaduraz, epidemiez ohartarazten dute irakurlea. Salaketa- eta prebentzio-ikuspegia erabili ohi du kazetariak gaiak lantzeko orduan (ikus 17. irudia).

Kasu honetan interpretazio eta balorazioa agertzen da sarreran:

> *Odolusteak ez du etenik. Indarkeria matxistak bost emakume hil ditu aurten Euskal Herrian, eta, gainera, egunero-egunero 16,6 salaketa bildu dituzte Hego Euskal Herriko erakundeek tratu txarrengatik. Oraindik ere urteko bilketa osatzen ari badira ere, iaz baino tratu txar salaketa gehiago bildu dituzte Eusko Jaurlaritzan eta Nafarroako Gobernuan.*

e) **Osagarria:** albiste nagusia osatu, aberastu edo laguntzeko xedea dute albiste osagarriek. *Zatidura* izena ere hartzen dute. Testu luzeak arintzeko erabili ohi dira eta albiste nagusiaren orrialdean bertan kokatzen dira. Molde askotakoak dira: soslaiak, analisiak, pasadizoen bildumak… (ikus 18. irudia).

4.1.2.7. Idazteko eskemaren araberakoak

a) **Laburpen-albistea:** iturri bakar batek aldi berean eta gaurkotasunari buruz emandako hainbat informazio biltzen dituen albistea da. Erakunde bakar batek (legebiltzarrak, unibertsitateko klaustroak, udalbatzak…) hartutako erabakien berri emateko erabili ohi dira (ikus 19. irudia).

Albiste honetan, Arartekoaren txostenean jasotako hainbat gai jorratzen dira: etorkinak, etxebizitza, berdintasuna, hezkuntza, hizkuntza eskubideak, ingurumena…

b) **Kronologikoa:** albisteek ez diote ia inoiz kontakizun kronologikoari jarraitzen, baina badira salbuespenak, eta kasu horietan komeni da gertaerak ordena kronologikoa errespetatuz egituratzea. Normalean albiste kronologikoek osagarri-funtzioa izaten dute. Horrek ez du esan nahi, ordea, albiste osagarriekin nahastu behar direnik, batzuen eta besteen helburuak ez baitira berberak. Hots, albiste nagusia osatzea, aberastea edo laguntzea da albiste osagarriaren xedea. Betiere, gai nagusiarentzat garrantzia handia duten alderdiak gehituz, nahiz eta noizean behin albiste osagarriek egitura kronologikoa har dezaketen (ikus 20. irudia).

Kronologikoki jasotzen du albisteak Bateragune auzia. Egun bakoitzean gertatu zena laburbilduz.

c) **Albiste diskurtsiboa:** norbaitek egindako adierazpenak edo dokumentuen testuak biltzen dituen albistea. Besteak beste, hitzaldi, solasaldi, mahai-inguru, legebiltzarreko batzarraldi edota dokumentu idatzien edukien berri emateko erabiltzen da albiste-eredu hau. Albiste osoan zehar, tartekatu egiten dira adierazpen zuzenak, zeharkako adierazpenak eta bitarikoak (ikus 21. irudia).

Adierazpenak egiteko moduari eta teknikari atal oso bat eskainiko zaie liburuan. Hemen aipatu baino ez dira egingo eta aurrerago ikusiko duzu, irakurle, zeintzuk diren adierazpenak lantzeko moduak eta teknikak.

Lokarrik egindako adierazpenetan dago albiste honen muina, eta horixe biltzen du informazioak. Tituluan eta sarreran, aipuak dira nagusi.

> *Lokarri akordioaren eta kontsultaren aldeko herritarren sareak uste du abertzaleak direnen eta ez direnen artean «ahalik eta akordio zabalena» lortu behar dela baketzerako. Paul Rios koordinatzailearen esanetan, indar subiranisten estrategietatik harago, euskal gizartearen gehiengoarekin bat egingo lukeen akordioa landu beharko litzateke sentsibilitate guztien artean. Indar abertzaleen arteko batuketa «zilegi» izanda ere, ezinbestekotzat jo du Euskal Herrian dauden askotariko sentsibilitateak behin betiko ados jartzea.*

d) **Espaziala:** aldi berean zenbait leku geografikotan gertatzen diren egintzei buruzko informazioa eskaintzen duten albisteak dira. Egintzek euren artean nolabaiteko lotura edo antzekotasuna dute. Esaterako, Joko Olinpikoen kasuan, hainbat proba daude zein bere tokian eta bere espazioan, baina guztiek dute lotura estua. Era berean, albiste espazial gisa har daitezke hainbat tokitan egitate beraren berri ematen dutenak. Adibidez, egun berean zenbait hiriburutan egon diren manifestazioak jasotzen dituen albistea (ikus 22. irudia).

Iruñea, Baiona, Hendaia, Bilbo, Gasteiz eta Donostiako emakumeen martxen berri ematen du albisteak.

e) **Jarraipena duen albistea:** garrantzia eta ondorio esanguratsuak izan dituzten gaiei buruz, egunez egun osatzen du albisteak informazioa, egunez egun datu berriren bat argitaratuta (ikus 23. irudia).

2012ko maiatzaren 5ean (bezperan), Nazioarteko Egiaztatze Batzordeak esandakoaren harira sortutako erreakzioak dira adibidean biltzen direnak. Izan ere, Nazioarteko Egiaztatze Batzordeak aditzera eman zuen ETAk jakinarazi ziola batzordeari gobernuekin hitz egin nahi zuela, behin betiko irtenbiderako. Eguneko albisteak jarraipena ematen dio gaiari (maiatzaren 6an).

berria

Larunbata
Urriaren 3a
2009. VII. urtea
1.953. zenbakia
1,25 €
www.berria.info

Kirolarien babesa
'Egunkaria' ez epaitzeko eskatu dute euskal kirolariek ○ 12

Mantangorri
Negua lo igaroko du trikuak, udaberria iritsi arte ○ GEHIGARRIA

Bermeoko atunontzi bat bahitu dute Somalian, eta tartean zazpi euskal arrantzale daude

'Alakrana' ontziko 36 arrantzaleak «ondo» daudela jakinarazi du Jaurlaritzak, eta egoera konpontzea «korapilatsua» izango dela uste du

Arrantzaleek berriro ere eskatu dute ontzietara militarrak bidaltzeko; ingurutik alde egin dute ontziek, badaezpada ere ○ 2-3

Anzari buruzko edozein datu ikertzeko prest daudela dio prokuradoreak

Jon Anza Espainiako Poliziak hil eta lurperatu zuela ezin dutela baieztatu adierazi du Marieek ○ 10

Langile bat hil da, zerabilen orga altxatzailea ibaira erorita

Arrasaten izan da istripua, saihesbide bateko tuneleko obretan ari zela. ELAk dio 55 langile hil direla aurten ○ 22

Irailean 3.042 langabe gehiago izan dira Hegoaldean

160.747 langabe zenbatu ditu INEMek, iaz baino %48,9 gehiago ○ 20

Iaz baino %38 gehiagok hartu dute griperako txertoa ○ 16

ANTONIO LACERDA / EFE

→ **Festa olinpikoa Brasilen.** Nazioarteko Olinpiar Batzordeak dantzan jarri zuen atzo Brasil osoa, 2016ko Olinpiar Jokoak antolatzeko Rio de Janeiro aukeratu zutela esan orduko. Copacabanako hondartzan festak eztanda egin zuen. Chicago eta Tokio lehiatik kanpo geratu ostean, finalera Rio de Janeiro eta Madril iritsi ziren. Lehiarik ez zen izan, ordea, erraz nagusitu baitzen Rio de Janeiro: 66-32. Lehen aldiz jokatuko dira Jokoak Hego Amerikan. ○ 7

RAUL BOGAJO / ARGAZKI PRESS

Jose Antonio Pastor
PSE-EEren Bizkaiko idazkari nagusia

«PPrekin dugun ituna ez da egungo egoerari begirakoa; asmoa egonkortzea da»

Asteburu honetan egingo dute kongresua, alderdiaren unerik «gozoenean»

Elkarrizketa ○ 8-9

ITSAS MENDI karabanak
Kontzesionario Ofiziala
Autokarabanak: HYMER, KNAUS, PILOTE, RIMOR, BENIMAR.
Karabanak: KNAUS, ERIBA, ROLLER.
Salmenta ondoko zerbitzu bermatua
www.itsasmendi.com
20140 ANDOAIN (Gipuzkoa) (saihesbidearen ondoan)
☎ (943) 59 32 90

bihar NORA EUSKAL HERRIA
21. zenbakia berriarekin
berria

■ GAUR 56 ORRIALDE ○ HARIAN 2 IRITZIA 4 GAURKOA 7 EUSKAL HERRIA 8 EKONOMIA 20 MUNDUA 24 ○ KIROLA 28 ○ AGENDA 35 ○ PLAZA 44

5. irudia. Bat-bateko albistea (*Berria*, 2009/10/03).

berria

Igandea
Abenduaren 5a
2010. VII. urtea
2.315. zenbakia
2,60 €
www.berria.info

Kultúraren azoka
Durangok zabaldu ditu ateak, jende pilaketarik gabe baina egoki ○ 32-35

Igandea

Europaren erronka
Gastatu adina energia ekoitziko duten eraikinak ○ GEHIGARRIA

Itsasontzia astiro kaiatik ari da urruntzen

Xabier Lete, duela zortzi urte ateratako argazki batean.

Madrilek alarma egoera ezarrita, aireportuetara normaltasuna itzuli da ○ 2-3

Ostiralean sortuko dute eskubide zibilen aldeko mugimendua

Ekainean batzarra egingo du mugimendu herritarrak, eta Askatasun Martxara deitzeko asmoa dute udazkenean ○ 8

Etxekoen bolada ona nagusitasun handiz hautsi du liderrak ○ 19

Osasuna	0
Bartzelona	3

Xabier Lete hil da

Xabier Lete (Oiartzun 1944, Donostia 2010) euskal idazle, poeta eta kantari handia atzo gauean hil zen. Bezperatik Donostiako erietxean zeukaten, lasaigarriak emanda, haren osasunak okerrera egin zuelako. 1986an gaixotasun larri bat antzeman zioten, eta borroka latzean bizi izan da azken 25 urteotan. Ez Dok Amairu taldearen sortzaileetako bat izan zen, baina kantaria baino gehiago idazlea izan da, eta poesian eman ditu alerik ederrenak. Azken liburua duela bi urte argitaratu zuen: *Egunsentiaren esku ikusiezinak*. ○ 30-31

Mystikal
ABENDUAK 3
ZINEMA-TIBIBENETAN
TRAILERRA IKUSGAI
www.berria.info

gaur NORA EUSKAL HERRIA
35. zenbakia berriarekin
berria

Personalmente me parece importante.
Pertsonalki Niri garrantzitsua iruditzen zait.
Itzulpen eta zuzenketa zerbitzu profesionala
CASTELLANO | EUSKARA | INGLES | FRANTSES | ALEMAN
Itzulpen
www.itzulpen.com

● GAUR 40 ORRIALDE ○ HARIAN 2 ERITZIA 4 EUSKAL HERRIA 8 MUNDUA 16 ○ KIROLA 19 ○ AGENDA 25 ○ PLAZA 30

6. irudia. Aurreikusitako albistea (*Berria*, 2010/12/05).

Harian›

Espainiako Gorteetarako hauteskundeak → Zapatero-Lopez bilera

20

«Euskal demokratei esker lortu da hau, askatasunaren alde borrokatu direlako eta eutsi egin diotelako»

JOSE LUIS RODRIGUEZ ZAPATERO
Espainiako Gobernuko presidentea

«Euskadik asko zor dio Zapaterori. Askatasuna lortzen eta terrorismoa garaitzen lagundu digu»

PATXI LOPEZ
Eusko Jaurlaritzako lehendakaria

Espainiako gobernuburu Jose Luis Rodriguez Zapatero eta Eusko Jaurlaritzako lehendakari Patxi Lopez, atzo, Ajuria Enean. PAUL BOSAID / ARGAZKIPRESS

Lopezek eta Zapaterok diote politikak lagundu behar duela aro berria sendotzen

Lehendakariak Espainiako gobernuburua hartu du Ajuria Enean, ETAk armak utzi ondoren sortu den egoera aztertzeko

ETAren jardunaren amaiera «euskal herritar guztien garaipena» dela esan du Zapaterok

Edurne Begiristain Gasteiz

Patxi Lopez lehendakaria eta Jose Luis Rodriguez Zapatero Espainiako gobernuburua bat datoz Euskal Herrian hasi den aro politikoaren inguruko diagnostikoan. Ados daude bakea finkatzeko egin beharreko urratsetan. Ajuria Enean elkartu dira Lopez eta Zapatero, ordubetez, ETAk jarduera armatua behin betiko eten osteko egoera aztertzeko. Lehendakariak mezu nagusi bat eman du batzarraren osteko agerraldian: «Biok uste dugu politikak lagundu egin behar duela aro berria sendotzen».

Bileratik pozik atera dira bi agintariak. Itxaropentsu. Pozik dago lehendakaria, batetik 1980tik ez zelako Espainiako Gobernuko presidenterik Ajuria Enean, eta, bestetik, «askatasunaren eta demokraziaren garaipena» lortu denean etorri delako Zapatero bisitan. Espainiako gobernuburua ere pozik azaldu da ETAren jarduera armatua amaituta hau «une historikoa» delako.

Urriaren 20ko eguna behin baino gehiagotan izan du hizpide Zapaterok bere hitzaldi laburrean. Egun horretan ETAk iragarri zuen jarduera armatua behin betiko utziko zuela, eta Zapaterok esan du ordutik egin duen «gogoeta sakonaren» ostean ondorioztatu duela egoera honetara iristearen «meritua» euskal herritarrena dela. «Euskal Herriko demokratei esker lortu da hau, askatasunaren alde borrokatu direlako eta eutsi egin diotelako. Indar hori gabe ez genuen ETAren bukaera lortuko». Aitortu du presidente karguan egon den la zortzi urteetan denbora asko pasatu duela ETAren indarkeriari amaiera eman nahian, bere «lehentasun nagusia» hori izan dela eta «ahalegin politikoak» egin dituela horretarako, eta horregatik orain «lotura berezia» sentitzen duela Euskal Herriarekin.

Indarkeriaren amaiera zuzenbide estatuaren eta gizartearen garaipena ez ezik, Eusko Jaurlaritzaren eta Espainiako Gobernuaren elkarlanaren emaitza ere izan dela adierazi du, bestalde, Lopezek. «Armak isilduta, agerian geratu da ETA zela Euskal Herriko gatazkaren jatorria», erantsi du.

«Bakearen alde arriskatzeagatik» eskerrak eman dizkio lehendakariak Espainiako gobernuburuari. «Euskadik asko zor dio Zapaterori. Askatasuna lortzen eta terrorismoa garaitzen lagundu digu», esan du Lopezek. Espainiako gobernuburuaren bisitarekin «indarkeriaren zikloa itxi» egin dela gaineratu du.

Bakea sendotu dadin zer pauso eman behar diren ados daudela esan dute biek ala biek. Lehendakariak azaldu du Espainiako hurrengo gobernuaren zeregina neurriak hartzea izango dela, betiere Jaurlaritzarekin eta euskal alderdiekin «bat eginda». Lehendakariak ez du zehaztu zeintzuek izan behar duten neurri horiek, baina «asmatzen segitu» nahi bada pauso guztiak «zuhurtziaz» eman beharko direla esan du.

Zapaterok, berriz, «konfiantza» agertu dio lehendakariari garai berri honetan. Gainera, Lopezek joan den irailean Legebiltzarrean batasunerako eta bizikidetzarako aurkeztutako dekalogoari «erabateko babesa» eman dio, «elkarrizketan eta etorkizunean oinarritzen» dela iritzita. Zapatero «harro» agertu da lehendakaria bakea sendotzeko egiten ari den lanarekin, uste du «oso egoki» ari dela gidatzen aro berria, eta «lidergo hori estimatzeko» eskatu die gizarteari eta indar politiko guztiei. «Lehendakaria asmatzen ari da, soseguz eta zuhur ari delako. Hau luzea izango da, eta elkar ulertzeko ahalegin handia eskatuko du».

Indarkeriaren bukaerak «aro politiko eta zibiko berria» hasiko duela esan du Zapaterok. Bidea, baina, «samurragoa» izango da «norabide egokia» hartzen bada eta «batuta» jokatzen bada, haren ustez. Hala ere, ziur da aro berrian «gauzak ongi» egingo direla. «Konfiantza osoa daukat lehendakariaren gidaritzapean ongi kudeatuko dela aro berri hau».

7. irudia. Programatutako albistea (*Berria*, 2011/11/08).

2011ko azaroaren 25a, ostirala | berria | 13
Euskal Herria | Harian

Laguntza osagarriak eskatu dituzte, euritearen harira

Eusko Legebiltzarrak aho batez ebazpen bat onartu du, uholdeek berriki eragindako ondorioekin arduratuta

Erredakzioa

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eta Espainiako Gobernuari laguntza gehiago eskatu die uholdeek berriki eragindako kalteengatik. Ebazpena aho batez atzo onartu zuten alderdi guztiek. Legebiltzarraren ustez, 2005eko Hondamendi Egoeretarako Errege Dekretua ez da nahikoa Bizkaiko eta Gipuzkoako zenbait herritan izan diren arazoei aurre egiteko. Dekretuak heriotza edo elbarritasun batengatik, gehienez, 17.000 euro ematea onartzen du, eta etxebizitza hondatu zaionari, 12.000 euro.

Hori dela eta, 2005eko dekretua osatzeko, Jaurlaritzari eta foru aldundiei dei egin diete Espainiako Gobernuarekin negoziatzeko. Euskal Herrian, gainera, badaude aurrekariak. 2010ean, adibidez, Bizkaian eta Gasteizen ziklogenesi lehergarriak eragin zituen kalteak ordaintzeko diru laguntzak era horretan eskatu zituzten. Erabaki horren atariko, lehengo astean, Espainiako Gobernuaren ordezkaritza bat Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta uholdeak izandako herrietako udaletako ordezkariekin elkartu zen. Bertan, diru laguntzak nola eskatu behar dituzten azaldu zieten aldundiari eta udalei.

Eusko Legebiltzarrak instituzio horiei guztie eskatu die uholdeen ondorioz hasi diren lanak ahalik eta azkarren amaitzeko. Eta uste du Bizkaian, Araban eta Gipuzkoan uholde eremu gisara identifikatuta dauden lekuetan ere beharrezkoa dela neurriak hartzea. Bada kezkarako aski motibo. Hil honen hasierako euriteek ondorio latzak utzi dituzte, bi hildako tartean, Derion (Bizkaia) eta Irunen (Gipuzkoa). Eusko Legebiltzarrak elkartasuna agertu die hildakoen familiei.

Ugarteren agerraldia

Bestalde, atzo Gipuzkoako Batzar Nagusietan Larraitz Ugarte Gipuzkoako Foru Aldundiko bozeramaileak agertu behar izan zuen. EAJk eta PSE-EEk azalpenak eskatu zizkioten eta, azaroaren 8an egin zituen adierazpen batzuen harira. EAJk eta PSE-EEk uholdeak zirela-eta Bilduri egindako kritikak «mespretxagarriak» zirela esan zuen orduan. Atzo berretsi egin zituen hitz horiek. Ugarteren arabera, aldundiak behar bezalako erantzuna eman zien uholdeei, eta «lehen momentutik» irtenbide bila aritu ziren herritarren arazoak ahalik eta ondoen konpontzeko. Ugartek barkamena eskatu zien, hala ere, hilaren 8ko adierazpenak «errespetu falta» moduan hartu dituztenei. «Asmo txarrik gabe hitz egin nuen». Ugarteren ustez, gaizki ulertua «hizkuntz gorabeherengatik» sortua izan liteke.

PSEko batzarkide Eneko Anduezaren iritzian, Larraitz Ugartek, aldundiko bozeramaile den aldetik, iritzi pertsonalak «alde batera» utzi behar ditu eta hitz egiteko moduak zaindu: «Ez gaude kalean. Eredugarri izan behar dugu, eta errespetua sustatu».

Marta Uriarte Getxoko bizilaguna, hipotekari aurre egin ezinda, etxea galtzeko zorian egon da. Hala ere, haren abokatuak egindako lanari esker, erabakia hilabete atzeratzea lortu du.

Kezkatuta bai, baina etxearen jabe

Marta Uriarte, etxeak hustearen kontrako elastikoa soinean, atzo, Getxoko epaitegiko atarian. MARISOL RAMIREZ / ARP

Maite Azkuenaga Getxo

Goizeko freskuraren ondorioak nabarmenak ziren atzo Getxoko (Bizkaia) epaitegien aurrean elkartutakoen artean. Sarrera pareko jarlekuetan ere gau hotzaren aztarnak agerikoak ziren, ibintzez bustita baitzeuden. 09:35 inguruan iritsi zen Marta Uriarte epaitegiko atarira. Mahuka luzeko kamiseta zuri bat zeraman soinean, eta letra gorriz *Stop desahucios* irakur zitekeen. «Egunon, zelako behe lainoa dagoen, ezta?». Adeitsu agurtu zituen bertara joandako kazetariak. Kezka nabari zitekeen Uriarteren keinuetan, baina baita itxaropena ere. Izan ere, 10:00etan bere etxea enkantean jartzera zihoazen. Itxaropena, berriz, joan den ostiralean bere abokatu Miren Mentxakaren laguntzaz aurkeztutako idazkiak ematen zion. 10:00ak puntuan zirenean sartu ziren epaitegi barrura; hamar minuturen buruan kanpoan zeuden biak, irribarrea aboan zutela.

«Enkantea garaiz gelditzea lortu dugu», adierazi zuen Mentxakak, erabat hunkituta. Izan ere, «forma hutsegite» bat izan zela salatu zuten joan den ostiraleko dokumentuan. Uriarteren etxeak 160 metro koadro zituela jartzen zuen agiri batean; hor zegoen okerra. «Hori gezur hutsa da. Nire bizilekua herritarren gehiengoaren antzekoa da [txikiagoa], eta horregatik aurkeztu genuen kexa. Gainera, nire aurreko abokatuak defendatzeari uko egin zion» azaldu zuen Uriartek. Hori dela eta, «babesgabetasuna» gertatu zela erantsi zuen Mentxakak. Epaileak atzera egin duenez, etxea «berreskuratzeko» hilabete inguru dauka Uriartek. Horretarako ezinbestekoa da BBKrekin akordio bat lortzea.

Arazoaren muinean 2008ko uholdeak daude. Euriteen eraginez Gobela ibaiak (Getxo) gainezka egin zuen, eta inguruko etxe guztietan sartu zen ura, baita Uriarteren etxebizitzan ere. Ondorioz, altzari eta arropa guztiak galdu zituen. Gainera, hipoteka handitu egin zen, udaletxeak eta aseguru etxeak emandako dirua ez zelako nahikoa izan kalteak konpontzeko. Horiek hala, BBKra jo zuen, eta 200.000 euroko hipoteka eskatu. Orduan etorri zen egoera erabat zaildu zuen gertaera: Uriarteren gizonaren enpresak porrot egin baitzuen. Horrek ondorio makurrak izan ditu. «Orain dela sei hilabete inguru zenbait faktura ordaintzeari utzi genion. Eta horrek ekarri nau egoera honetara».

Etxea ez galtzeko, bi aukera eman zizkion BBK-k: epe jakin batean 20.000 euro ordaintzea edo beste ondasun higiezin batzuk berme modura jartzea. «Martaren soldatarekin bakarrik ezinezkoa zen horrelako baldintzei aurre egitea», argitu zuen Mentxakak. Egun, Uriarteren senarrak Derioko (Bizkaia) enpresa batean lan egiten du, eta bien aurrezkiekin hileroko hipotekaren zatia ordaintzeko gai dira. «Baina BBK-k ez du hori nahi», esan zuen.

Zazpi kaleratze egunero

Pozik zegoen atzo Uriarte, oraindik ere etxearen jabe delako, baina ez ditu ahazten etxea galtzen duten euskal herritarrak: «Krisi garai honetan gero eta kaleratze gehiago egiten dituzte aurrezki kutxek. Euskal Autonomia Erkidegoan, batez beste, zazpi etxe husten dituzte egunero. Nik egoera hau gelditzea lortu dut, baina beste batek etxea galdu du». oroitu zuen. «Gainera, aurrezki kutxek jendearen sufrimendua baliatzen dute irabaziak lortzeko», erantsi zuen abokatuak. «Merezi izan du gaur hotza pasatzeak» esanez kazetariak agurtu eta etxera joan zen Uriarte.

Arizmendi Koop.

ARIZMENDI, KOOP. E.AREN BATZAR NAGUSIRAKO DEIALDIA

Arizmendi Koop.E-ko Estatutu Sozialetako 30.artikulua dioenari jarraituz, Kontseilu Zuzendaritzak, 2011ko urtarren 27an egoitza sozialean egindako bileran adostu du Arizmendi Koop.E-ko bazkideak Ohiko Batzar Nagusi honetara deitzea, koopezifikaren interesetzako onuragarria delakoan.

DEIALDIA

Eguna: 2011ko abenduaren 15a.
Lekua: Arizmendi guneko aretoa.
Ordua: Lehen deialdia: 18:00.
Bigarren deialdia: 18:30.

GAI-ZERRENDA

Lehena.- Aurreko Batzar Nagusiaren aktaren onespen-bozketaren iskurtzea. Aktaren onespenerako bi bazkideren izendapena.
Bigarrena.- 2010-2011 ekitaldiko sozietate-kudeaketa aztertzea eta, hala balegokio, Urteko Kontuak (Balantzea, Galera eta Irabazien Kontua eta Txostena), baita kudeaketa-bozketa ere, onartzea.
Hirugarrena.- 2010-11 ekitaldiko emaitzen banaketa.
Laugarrena.- 2011-2012 ekitaldirako aurrekontuaren aurkezpena.
Bosgarrena.- Kontseilu Sozialaren berritzatzea.
Seigarrena.- Kontseilu Errektorea ahalduntzea.
Zazpigarrena.- Galde-erantzunak.

Andoni Mujika Ulazia - Lehendakaria Arrasate, 2011/10/27

8. irudia. Giza intereseko albistea (*Berria*, 2011/11/25).

16 | berria | 2012ko maiatzaren 12a, larunbata

Harian › Ekonomia

Atzeraldian sartu da Hego Euskal Herri osoa

Aurtengo lehen hiruhilekoan %0,3ko jaitsiera izan du Araba, Bizkai eta Gipuzkoako ekonomiak

Erredakzioa

Espero zena baieztatu dute Eustaten datuek: Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa atzeraldian sartudira, krisia hasiz geroztik, bigarren aldiz. Barne produktu gordinak bi hiruhilekotan jarraian behera egiten duenean esaten da ekonomia bat atzeraldian dela. Hori gertatu zaie Araba, Bizkai eta Gipuzkoari: iazko azken hiruhilekoan, %0,2 egin zuen behera BPGak, eta urtarriletik martxora bitartean, %0,3. Datorren astean emango ditu xehetasunak Eustatek, besteak beste, herrialde bakoitzeko bilakaerari buruzkoak. Dagoeneko Hego Euskal Herri osoa dago atzeraldian, Nafarroako ekonomiak ere %0,7ko jaitsiera izan baitzuen aurtengo lehen hiruhilekoan eta %0,3koa aurrekoan.

Zehazki, hiru urte pasatu dira Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa estreinakoz atzeraldian sartu zirenetik. 2009ko maiatzean baieztatu zuen lehen aldiz Carlos Agirre Ekonomia sailburuak, kargua hartu berritan. Alde positiboari begiratuz gero, esan behar da beherakada ez dela orduan bezain gogorra. Txanponak, ordea, badu beste aldea ere. Ekonomialarientzat, oro har, kezkagarria da *double dip* atzeraldi bat gertatzea, hau da, atzeraldi handia igaro ondoren hasitako suspertzaldi ahula blokeatzea eta ekonomiak berriro ere behera egitea.

Eustatek datuaren berri eman aurretik, ziurtzat jotzen zen ez zela ona izango. Azkenaldiko emaitzei begiratu besterik ez dago. Eustaten arabera, urtarriletik martxora bitartean 16.400 enplegu galdu dira hiru herrialdeetan. Industria da ekonomiaren motorra, eta aurrerantzean ere hala izango dela dirudi. Ez dago, ordea, bere onenean. Martxo bukaerako datuen arabera, industria ekoizpenak %7,6ko beherakada izan du urtebetean, eta %2,4koa hiruhileko batetik bestera. Familiek ere ez dute lehen adina kontsumitzen. Txikizkako sektorearen salmentek, esaterako, %0,9ko beherakada izan dute urtebetean.

Herritarren poltsikoei eragiten dien beste datu bat ere eman du INE Espainiako Estatistika Erakundeak. Kontsumo prezioen indizeak (KPI) %1,3ko gorakada izan du apirilean, azken urteetan hilabete bakar batean izandako igoerarik handiena. Faktore batek eragin du gehienbat gorakada: argindarraren garestitzeak. Dendetan udaberri eta udako arropa eta oinetakoak jarri izanak, Aste Santuko oporraldiak eta erregalen garestitzeak ere izan dute zerikusia. Urte arteko inflazioa %2an mantendu da, otsailean eta martxoan bezala. Urte hasieratik apiril bukaerara arte, berriz, %0,9 garestitu dira salneurriak.

Euskadiko CCOOren eta UGTren arabera, kezkagarria da datua, langileen erostekoahalmenaren galera dakarrelako. Espainiako Gobernuak energiaren eta uraren gainean hartutako neurriak salatu ditu CCOOk.

Zenbakia

%1,3

Kontsumo prezioen indizea. Espainiako Gobernuaren erabakiz, apirilaren hetik %7 garestiagoa da argindarra Hego Euskal Herrian. Gorakadak eragin nabarmena izan du KPIan, %1,3 igo delako hilabete bakarrean.

Europako Batzordearen aurrekuspenak

	BPG (urteko bilakaera, %tan)		Defizit publikoa (BPGaren %)		Zor publikoa (BPGaren %)		Langabezia tasa (%tan)	
	2012	2013	2012	2013	2012	2013	2012	2013
Alemania	0,7	1,7	-0,9	-0,7	82,2	80,7	5,5	5,3
Erresuma Batua	0,5	1,7	-6,7	-6,5	91,2	94,6	8,5	8,4
Espainia	-1,8	-0,3	-6,4	-6,3	80,9	87,0	24,4	25,1
Frantzia	0,5	1,3	-4,5	-4,2	90,5	92,5	10,2	10,3
Grezia	-4,7	0,0	-7,3	-8,4	160,6	168,0	19,7	19,6
Irlanda	0,5	1,9	-8,3	-7,5	116,1	120,2	14,3	13,6
Italia	-1,4	0,4	-2,0	-1,1	123,5	121,8	9,5	9,7
Portugal	-3,1	0,3	-4,7	-3,1	113,9	117,1	15,5	15,1
Eurogunea	-0,3	1,0	-3,2	-2,9	91,8	92,6	11,0	11,0
Europako Batasuna	0,0	1,3	-3,6	-3,3	86,2	87,2	10,3	10,3

ITURRIA: EUROPAKO BATZORDEA

Bruselak hilaren bukaeran erabakiko du Espainiari denbora gehiago eman ala ez

Europako Batzordeak %6,4ko defizita iragarri arren, %5,3ko helburuan tematuta jarraitzen du Madrilek

Aitziber Arzallus

Defizit publikoari jarritako muga errespetatzeko Espainiaren ahalegin guztiak horretantxe geratuko direla uste du Bruselak, ahalegin hutsean. Ez baitiote helburua betetzeko baliioko. Espainiako Gobernuak agindutako %5,3tik urrun, urtea %6,4an bukatuko duela iragarri du Olli Rehn Europako Batzordeko presidenteordeak. Eta datorren urtean bikoiztu baino gehiago egingo duela %3ko muga, %6,3ra iritsita. Horra arte berririk ez, jakina zelako aurreikuspenak txarrak izango zirela. Baina hortik aurrera ere ez, ez duelako argitu Espainiari defizitaren helburua betetzeko epea luzatuko dion ala ez. Hilaren 30era arte atzeratu du erabakia.

Bruselak Espainiarengan konfiantza baduela adierazi du Rehnek, baina oraindik kontu batzuk argitzeke dituela. Autonomia erkidegoek zer murrizketa egingo dituzten eta Gizarte Segurantzako kontuetan sortzen ari den desoreka nola konponduko duen, besteak beste. Puntu horiek lehenbailehen argitzeko eskatu dio Espainiari. Orduan erabakiko du murritzketa gehiago eskatuko dizkion edo defizita %3ra jaisteko epea 2014ra arte luzatuko dion, edo biak batera.

Gainontzeko adierazleetan ere aurreikuspen txarrak plazaratu ditu Espainiarentzat. Aurten ekonomia %1,8 uzkurtuko dela uste du, eta datorren urtean beste %0,3; hazkunderik ez, beraz, 2014ra arte. Langabeziak hazten segituko du: aurten, %24,4ra iritsiko da tasa, eta %25,1era datorren urtean. Zor publikoa, berriz, BPGaren %87ra ailegatuko da 2013an, Europako Batasuneko batez bestekoaren parera. Datorren urteko aurreikuspenak egiteko, ordea, Bruselak ez ditu kontuan hartu Madrilek azken asteetan iragarri dituen murrizketak eta zerga igoerak.

Esanak esan, Mariano Raxoiren gobernuak berean jarraitzen du: hazkundeari eta defizitari dagokionez jarritako helburuak beteko dituela ziurtatu du Luis de Guindos Ekonomia ministroak.

Bi handiak, indartsu

Bigarren motelaldiak berrialde guztiei eragin dien arren, oraingoan ere bi indartsuenek gaindituko dituzte oztopoak errazen. Bruselaren ustietan, sendo jarraituko dute Alemaniak eta Frantziak, aurten %0,5etik gora hazkundearekin eta datorren urtean %1etik gorakoarekin. Martxa bera iragarri du Erresuma Batuarentzat ere.

Zailtasun handiagoak izango ditu Italiak, urtea atzeraldian bukatuko baitu (-%1,4). Datorren urtean, baina, hazkundearen bidera itzuliko dela uste du Europako Batzordeak. Gauza bera Herbehereetan ere.

Finantza erreskatea jaso behar izan duten hiru herrialdeetatik bik, ostera, oso motel jarraituko dute. Aurten Greziako ekonomia %4,7 uzkurtuko dela uste du Bruselak, eta datorren urteangeldialdian sartu. Langabezia izango da haren arazorik handienetakoa, %20ko mugatik hurbil ibiliko delako gutxienez bi urteotan.

Portugalek ere atzerantz egingo du aurten, %3,3, Bruselaren arabera. Hala ere, datorren urterako hobekuntza espero du, %0,3ko hazkunde apalarekin. Langabezia tasak %15ean segituko du.

Dudartik gabe, Irlanda da erreskatea jaso dutenen artean ondoen dagoena, alde handiarekin, gainera. Aurten, %0,5 haziko da hango ekonomia eta, datorren urtean ia, %2.

Laburrak

Michelinen espedientea onartu dute sindikatuek

DONOSTIA › Zentro arteko batzordeak —CCOOk eta UGTk dute gehiengoa— onartu egin du Michelinek joan den astean aurkeztutako erregulazio espedientea, inbertsioa eta enplegua bermatuko dituelako. 2.300 langileri eragingo die Euskal Herrian. Gehienez ere 36 egunean langabezian egon dira, eta soldataren %80 jasoko dute. ELAk, LABk, ESK-k eta CGTk aurka bozkatu dute.

Asientos Estebanek %10 jaitsi nahi ditu soldatak

IRUÑEA › Lan baldintzak aldatzeko erregulazio espedientea aurkeztu du Asientos Estebanek: %10 murriztu nahi ditu soldata gordinak nahiz soldataren parte diren bestelako faktoreak. Horrez gain, erretiro partziala hartzeko aukera kentzea proposatu du. Langile batzordeak asteazkenean erabakiko du mobilizazioei ekin edo ez. «Negoziatzea eta inor ez kaleratzea da gure helburua», dio.

Oinarrik Katalunian sendotu nahi du

DONOSTIA › Oinarri elkarren bermerako sozietateak bost milioi euroren bermeak gauzatu nahi ditu aurten Kataluniak. Kopuru hori iaz halako bederatzi da. Hain zuzen, orain bi urte hasi zen Oinarri Katalunian lanean, Seira fundazioarekin egindako akordioari esker. Enpresa txiki eta ertainen nahiz ekonomia sozialeko enpresen finantzaketaz arduratzen da.

9. irudia. Interes publikoa duen albistea (*Berria*, 2012/05/12).

Euskalgintza «intelektualen jardunerako agertoki gisa» aztertu du Ane Larrinagak

Oro har intelektualen eta bereziki euskal kulturgileen zereginaz gogoeta egiten duen liburua argitaratu du

JUAN LUIS ZABALA
Donostia

Intelektualek egungo gizartean duten zeregina aztertu du lehenik Ane Larrinaga Renteria soziologoak *Kulturgileak eta kulturaren esparrua* liburuan (Utriusque Vasconiae), eta ondoren euskalgintzako kulturgileen lanari eta bilakabideari erreparatu die. Bi liburuki marduelta banatua dago obra: *Tradizio intelektualak beranduko modernitatean* du azpi-izenburu lehenak; *Euskal kulturgileak euskalgintza mugimenduaren eraikuntzan* bigarrenak. 620 orrialde osatzen ditute bien artean.

«Kulturgileei buruzko —edo, nahiago bada, intelektualei buruzko— azterketa soziologikoa» da Larrinagaren liburua, Larrinagak azaldu duenez, eta izaera horri lotutako galderak ditu abiapuntu. «Gaur egun autore askok intelektualen krisiaz hitz egiten dute, eta liburuan horren inguruko galderak egiten dira. Adibidez: zer eginkizun mota dute intelektualek beranduko modernitateko edo postmodernitateko gizartean? Edo: zein agertokitan berreraiki ditzakete beren rolak eta beren nortasunak?».

«Kulturgilea edo intelektuala testuinguru sozial batean eta testuinguru historiko batean txertatu behar da beti», Larrinagaren ustez. «Testuinguru sozial eta historiko hori aldakorra izaten denez, kulturgilearen definizioa ere aldatu egiten da. Tradizio intelektual asko egon dira historian, eta tradizio bakoitzak modu askotara definitu du intelektualaren eredu egokia». Horregatik, intelektualari buruzko definizio eta «eredu normatibo» asko egon dira historian.

Ane Larrinaga, *Diapsalmata* liburuaren egilea. CARK ANALDE / ARCADI PRESS

MUGIMENDU SOZIALAK «AGERTOKI». Kulturgileek aro bakoitzean «agertoki eta instituzio publiko batzuk» behar dituzte «beren eginkizun intelektualak betetzeko eta nortasunak garatzeko». Larrinagaren liburuak erakusten du gaur egungo mugimendu sozialak izan daitezkeela «agertoki horietako bat».

«Gurera etorrita, Euskal Herrira etorrita», euskalgintza ere «mugimendu sozial gisa» aztertu du liburuan, «intelektualen jardunerako agertoki gisa». Ez, ordea, beste mugimendu sozialak aztertzen diren gisan, «gune kognitibo gisa» baizik, «arreta berezia eskainiz euskal kulturgileek hizkuntzari buruz —hauda, euskarari buruz— sortu dituzten irudikapenei eta irudikapen horiek hizkuntz komunitatean zabaltzeko egin dituzten ahaleginei».

«Euskal kulturgileek hizkuntzaren corpusa eta estatusa aldatzeko hainbat interbentzio proiektu landu dituzte», Larrinagaren ustez, «garaian garaiko baliabide kognitiboak erabilita eta garaian garaiko baldintza soziopolitikoetara egokituta. Euskalgintza deitzen dugun gune kognitibo hori osatuz joan dira, eta gaur egun ezagutzen dugun euskalgintza kapital kultural eta sinboliko baten metaketa historikoaren emaitza izango litzateke; beste hitz batzuekin esanda: euskal kulturgileek denboran, XIX. mendetik aurrera batez ere, sortu eta garatu duten ideia, irudikapen eta ezagutza multzo bat».

Kultura eta ezagutza metaketa prozesu horretan hiru une nagusi bereizi ditu Larrinagak: Eusko Pizkundearen garaia, XIX. mendean; 60ko hamarkadan abiatutako kultur pizkundea, eta 80ko hamarkadan hasitako instituzionalizazio autonomikoaren garaia.

Hiru aro horien azterketak erakutsi du euskal kulturaren espa-rruan gertatu diren aldaketak «gizarteko aldaketei loturik» egon direla beti. Larrinagaren liburuak hirugarren aroari erreparatu dio bereziki. Zenbait kultugileri egindako elkarrizketek erakusten dute euskalgintzaren instituzionalizazio autonomikoak askotariko ondorioak izan dituela: batetik, euskalgintzaren desmobilizazioa eta ahultzea ekarri du, eta baita mugimenduaren barne zatiketa ere; baina baita, bestetik, euskal kulturgileen profesionalizazioa eta dibertsifikazioa ere.

«Euskalgintzaren barruan dauden gatazkak eta estrategien arteko desberdintasunak» aztertzen ere saiatu da Larrinaga liburuan, «euskalgintzako kulturgileek hizkuntzari buruz sortu dituzten diskurtsoak» abiapuntutzat hartuta.

Horrek guztiak «euskalgintzan egin den lan intelektualari buruzko berrazterketa» egiteko aukera eman dio, «eta baita aitzakia bat intelektualek egun mugimendu sozialetan bete dezaketen eginkizunari buruz gogoeta egiteko ere».

Zelaiaren inbasioa

KRITIKA
MUSIKA
NADA SURF

JOSEBA MARTIN

Nolako entzuleak, halako ekitaldia. Neska gazteak eta irritsuak zeuden aurreko lerroan; horrek pop-rock zoriontsua entzungo genuela esan nahi zuen eta horrela gertatu zen: *Lucky* disko berria aurkeztera etorriak ziren Brooklyngo lagunak, hirugarren aldiz Kafe Antzokian («sentitzen dut, baina ez dut euskaraz egiten», esan zuen Matthew Caws kantariak gaztelaniaz), eta pop-rock jai izerditsua antolatu zuten, entzuleen laguntzaz. Beharbada, fabore baten truke ari ziren: sarreran Nada Surfek azken diskoaren ale bana oparitu zien entzuleei.

Azken bolada honetan hirukotearen kontzertu ugari era akustikoan egiten dute; Bilbora artilleria elektriko osoa ekarri zuten (kantaria bi Gibson eder baliatu zituen), laugarren taldekidearen laguntzaz: Joe McGinty laguna teklatuetan. Matthew izan zen orkestraren zuzendaria, eta Daniel Lorca baxu jotzailea eta Ira Elliot bateria oso lagungarriak gertatu ziren. Danielek hamaika zigarro erre zuen jotzeari utzi gabe, eta ahozko harmoniak bete zituen behin eta berriro. Kantu berri ugari gozatu genituen: *Whose authority*, *Beatiful beat*, *I like what you say*, *Ice on the wing*, *Weightless* balada zoragarria, agurreko *See these bones*... baina entzuleek kantu zaharrak eskatzen zituzten; gogor hasi ziren newyorktarrak, eta *Hi speed soul*-ekin, *Happy kid* eta *What is your secret* leloekin jarraitu zuten.

GERO ETA EMANALDI HOBEA. Nahikoak ziren hasierako akordeak kantuak berehala ezagutzeko: *80 windows*, *Inside love*, *Paper boats* (entzuleak kantari), *Do it again* (berriro kantuketan)... Bisetan jaia gorantz joan zen: *Blizzard of '77*-en bertsio laburra egin zuten Mathewek eta Danielek, eta *Slate mate*-rekin jarraitu, non Joy Division taldearen *Love will tear us apart* tartekatu zuten. Ondoren *Blonde on blonde* eta *Always love*, entzuleak saltoka eta kantuka. Une horretan Mathewek jendearen laguntza eskatu zuen hurrengo kantua emateko: 20ren bat lagun agertokira joan ziren *Blankest year* laukotearekin batera nola edo hala girotzera. Putbolean, zelaiaren inbasioa deitzen zaio honi; musikan, berriz, estasia.

Lekua: Bilboko Kafe Antzokia
Eguna: Otsailaren 16a
Jende kopurua: 650 lagun

Katalunian hainbat kontzertu emango ditu Jabier Muguruzak

MUSIKA • Jabier Muguruza kantariak bira egingo du Herrialde Katalanetan. Lau kontzertutan *Konplizeak* lan berria aurkeztuko du. Berarekin batera Angel Unzu gitarra jotzailea eta Mireia Otzerinjauregi arituko dira, koruak egiten azken hori. Otsailaren 21etik 24ra egingo ditu emanaldiak.

'Erlojuen mekanika' liburuarekin lotutako poesia errezitaldia

LITERATURA • *Erlojuen Mekanika* liburuaren harira elkarrizketa-errezitaldia egingo dute gaur Donostian. Beñat Sarasola poetak Jose Luis Otamendi liburuaren egilea elkarrizketatuko du. Elkarrizketan poemak errezitatuko ditu Otamendik, eta horien inguruko azalpenak emango ditu. Galderak egiteka ere emango dute. Ekitaldia 19:30ean izango da, Liburutegi Nagusiko Ekitaldi Aretoan.

Novalis Alemaniako musika laukotea ariko da Gasteizen gaur

MUSIKA • Novalis Quartet Alemaniako musika laukotea Gasteizko astearte musikaletan izango da gaur. Riccardo Sciammarella biolontxelisten taldearekin batera arituko da, Caja Vital fundazioaren egoitzan. Alemaniako obra klasikoak eta erromantikoak interpretatzen ditu bereziki taldeak.

Irungo eta Hondarribiko ikasleentzat, kontzertu pedagogikoak

MUSIKA • Irun eta Hondarribiko (Gipuzkoa) 3.000 ikaslerentzat baino gehiagorentzat kontzertu pedagogikoak emango dituzte hainbat taldek. Kontzertu pedagogikoen hamargarren urtea da, eta datozen lau hilabeteetan emango dituzte. Guztira 13 kontzertu izango dira, estilo eta garai anitzetakoak.

Oscarretako irabazleak zeintzuk diren gaur erabakiko dute

ZINEMA • 5.829 lagunek dute boto eskubidea Hollywoodeko Akademian. Gaur dute Oscar sarietako irabazleak nor diren erabakitzeko bozketa. Pricewaterhouse-Coopers ikuskaritza enpresak jaso eta kontatuko ditu botoak. Irabazleen izenak zigilatutako gutun-azaletan jasoko dituzte, hilaren 24ra arte.

10. irudia. Lehen eskukoa (*Berria*, 2008/02/19).

Parisera eraman dituzte Bordelen atxilotutako ustezko lau etakideak

Gaur deklaratuko dute epailearen aurrean, eta Joxean Barandiaranek astelehenean egingo du

ERREDAKZIOA
Donostia

Frantziako Poliziak Parisera eraman ditu astearte gauean Bordelen (Frantzia) atxilotutako Xabier Lopez Peña, Ainhoa Ozaeta, Jon Salaberria eta Igor Suberbiola usteko ETAko kideak. Bidarten (Lapurdi) atxilotu zuten Fred Fort ere eraman dute Parisera Baionako polizia etxetik. Berri agentziek ikerketa iturriak aipatuz jakinarazi dutenez, gaur eramango dituzte epaile baten aurrera deklaratzera. Deklarazio hartu ostean epaileak erabakiko du bost euskal herritarrak auziperatzen dituen edo ez.

Andoaingo (Gipuzkoa) alkate izandako Joxean Barandiaranek, berriz, astelehen goizean deklaratuko du Espainiako Auzitegi Nazionalean. Bitartean Guardia Zibilaren eskuetan egongo da, inkomunikatuta. Askatasunak kezka agertu du Barandiaran inkomunikazio aldian jasan dezakeen tratuagatik. Ikerka iturriek berri agentziei esan dietenez, Peñarekin eta Ozaetarekin bildu zen Andoaingo alkate ohia joan zen igandean, eta horregatik atxilotu dute.

Terrorismoaren Kontrako Zuzendaritzaordearen egoitzara eraman zituzten atzo ustezko bost etakideak, autobusez. Lekukoek azaldu dute handiak zirela segurtasun neurriak, baina Ozaeta ikusi zutela autobusaren leihotik, eskuburdinak jarrita eta ukabila altzata.

Ustezko lau etakideak Bordeletik Parisera eraman zituen autobusa. KOAN VALANT / EFE

Espainiako Auzitegi Nazionalak Ozaeta, Suberbiola eta Salaberria berehala Espainiaratzeko eskatu dio Frantziari. Peñari buruz ez du eskaera hori egin, hark Frantzian ere irekita dituelako bere kontrako auzibideak. Horregatik, Peña aldi baterako entregatzeko eskatu dio. Nolanahi ere, Parisko Fiskaltzak ikerketa ireki du Bordelen atxilotutakoen inguruan, «helburu terroristadun erakunde armatuko kide» izatea egotzita. Fordi, berriz, lau lagunak zeuden Bordeleko etxea alokairuan hartzea egozten diote.

EAJren EBBko lehendakari izandako Xabier Arzalluzek kritikak egin dizkio Frantziako Poliziak eta Guardia Zibilak elkarlanean aurrera daramaten polizia operazioa. Peñak ETAren eta Espainiako Gobernuaren arteko negoziaketetan parte hartu zuela ikusita, hura atxilotzea «oso larria» dela esan du TV3n egindako adierazpenetan. «ETAko nork nahiko du negoziatu egiten duten aurrena mezulariari lepoa moztea den jendearekin?».

Xabier Arzalluzi «oso larria» iruditzen zaio negoziaketetan aritutako pertsona atxilotzea

Atxiloketak «ikuskizun» bihurtu izana egotzi dio Rubalcabari EAJren EBBko buru ohiak

Haren irudiko, Espainiako Gobernuak «ikuskizun» bihurtu ditu azken atxiloketak, eta, horretarako, bazuen helburu bat: azken atentatuen ostean egoera ez duela kontrolatzen uste duten herritarrei iritzia aldaraztea. Orain, egoera kontrolpean duela erakutsi nahian ari da Espainiako Barne Ministro Alfredo Perez Rubalcaba, Arzalluzen ustez, eta, horretarako, «kolpeak antzeztu» ditu. Era berean, Peñari negoziazioetatik jarraipena egin, eta komeni zitzaienean atxilotu izana egotzi dio Rubalcabari.

Piñeirok erabakiko du 'Ibarretxe auzia' epaituko duen epaimahaia

AGENTZIAK
Bilbo

EAEko Justizia Auzitegi Nagusiko gobernuko salak Fernando Ruiz Piñeiro Auzitegiko presidentearen esku utzi du *Ibarretxe auziaz* erabakiko duen epaimahaia nortzuk osatuko duten erabakitzea. Izan ere, pasa den asteazkenean *Ibarretxe auzian* instrukzio lanetan aritu diren hiru epaileak —Nekane Bolado, Antonio Garcia eta Ruiz Piñeiro bera— ez direla epaiketa egiteko gai ebatzi zuen EAEko Auzitegi Nagusiko 77. Sala bereziak, Ermuko Foroak zein defentsako abokatuek haien aurka aurkeztutako errefusatzeak onartuz.

Fernando Ruiz Piñeiro, Antonio Garcia eta Nekane Bolado epaileek beharrezkoa den inpartzialtasuna ez dutela erabaki zuen sala horrek, instrukzio fasean hainbat erabaki hartu dituztelako eta ebazpen horiek epaiketan erabakigarriak diren gaiei buruzkoak izan direlako. Ibarretxeren defentsak Garcia eta Bolado errefusatzeko eskatua zuen, eta beraz, partzialki onartu zuen helegitea 77. salak.

Hori horrela, EAEko Auzitegi Nagusiko presidenteari egokituko zaio orain auzia eramango duen epaimahaikideak zeintzuk izango diren erabakitzea. Zehaztutako txanda errespetatuta hartu beharko du Ruiz Piñeirok erabakia.

Ibarretxe auzian, Eusko Jaurlaritzako lehendakariaz gain, Arnaldo Otegi, Pernando Barrena eta Rufi Etxeberria Batasuneko mahaikideak eta PSE-EEko idazkari nagusi Patxi Lopez eta idazkari nagusiorde Rodolfo Ares daude auzipetuta.

Espioitza sistema bat topatu dute Gasteizko Alde Zaharreko pisu batean

Soinua grabatzeko gailuak eta bideo kamera ugari aurkitu dituzte hutsik dagoen etxe batean

ERREDAKZIOA
Gasteiz

Zelatatze sistema iraunkor bat topatu dute Gasteizko Alde Zaharreko etxebizitza batean, *Gara* egunkariak atzo argitaratu zuenez. Besteak beste, soinua grabatzeko gailuak, bideo kamerak eta zinta mordoa topatu dituzte Aiztogile kaleko 92. zenbakiko 3. pisuan. Hutsik dagoen etxebizitza batean aurkitu dituzte ustez espioitza egiteko balio duten tramankuluak.

Gara egunkariak dioenez, kale horretako bizilagun askok aspaldik sumatzen zuten etxebizitza horretan zerbait gertatzen zela; berez eraikina hutsik egon arren, handik hainbat lagun sartu eta irten egiten zirelako egunero. Hori dela eta, lagun talde batek etxebizitza horretara sartzea erabaki zuen duela gutxi, barruan zer zegoen ikusteko. Orduan aurkitu zuten ustez kale horretan ibiltzen den jendea zelatatzeko prestatutako sistema oso bat.

Gara egunkariak lekukoen iturriak aipatuz dio metalezko ateekin banandutako logelak dituela etxebizitza horrek, eta gela horietan espioitza egiteko material ugar topatu dela.

Entzuteko gailuak etxeko begiratokian zeudela, eta handik ganbararekin kable bidez lotuta zeudela dio informazio horrek. Ganbarako gela batean, audio eta bideo kutxak zeuden. Horrekin batera, teilatuaren azpialdean kable ugari topatu dituztela dio informazio horrek.

Gainera, egunkari horren arabera, azken hilabeteotan Alde Zaharrean bizi diren lagun askok salatu egin dute euren kotxeetan eta etxebizitzetan segimendua egiteko gailuak topatu dituztela.



Hutsik dagoen etxean topatutako gailuak. BERRIA

CESID-EN ESPIOITZA. Ez da aurreneko aldia Gasteizen legez kanpoko entzuketak egiteko sistemak topatu dituztela. 1998an espioitza egiteko CESIDek, Espainiako zerbitzu sekretuak, erabiltzen zuen etxebizitza bat topatu zuten Gasteizko Ramiro Maeztu kalean, hain justu, Herri Batasunaren egoitzaren ondoan. Alderdi abertzaleari legez kanpoko entzuketak egiteko erabili zuen etxebizitza hori CESIDek, hamar urtez.

11. irudia. Besteren bidezkoa (*Berria*, 2008/05/24).

Autoen salmenta ia %5 handitu da Hegoaldean, laguntza publikoei esker

Ibilgailu txikiagoak, merkeagoak eta gutxiago kutsatzen dutenak hobetsi dituzte erosleek

I. Santamaria

Autoen salmentak 2008an hasi zuen jaitsierari buelta eman zaio diru laguntza publikoei esker. Faconauto kontzesionario elkarteak atzo emandako datuen arabera, 2009. urtean autoen salmenta %4,7 handitu zen Hego Euskal Herrian. Maiatza arte egondako jaitsiera sakonaren ondotik, Espainiako Gobernuak, Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak onartu zituzten pizgarriek merkatua suspertzea lortu zuten. Guztira, 58.365 auto saldu ziren Hegoaldeko lau herrialdeetan.

Nafarroak aurrea hartu zuen esku-hartze publikoari dagokionez, eta martxoan autoak erostearen truke laguntzak emateko ekimena iragarri zuen Miguel Sanzen gobernuak. Iragarpenak ia berehala izan zuen efektua. Urtearen amaierarako %14 baino gehiago izan da hazkundea herrialde horretan.

Maiatzean Espainiako Gobernuak 2000E plana indarrean jartzea erabaki zuen. Eusko Jaurlaritzak ekimenarekin bat egin zuen, eta harrezkero, ibilgailua berritzeko 2.000 euroko beherapena izan dute Araba, Bizkai eta Gipuzkoako erosleek. Alta, auto salmentak soilik Bizkaian egin du nabarmen hobera, %8, iazko datuarekin alderatuz gero. Gipuzkoan igoera oso apala egon da (%1), eta Araban %10 baino gehiago jaitsi da. Kontuan hartu behar da 2008an Araban jaitsi zela gutxien autoen salmenta.

Erosle partikularrek baliatu dute eskaintza, batez ere, eta horiek erositako autoak %27 gehiago izan dira. Aldiz, enpresek erositako ibilgailuak edo alokatzeko zirenak jaitsi dira berriro ere, nabarmen.

Laguntza ofizialen baldintzak erosi diren ibilgailuen ezaugarriekin bat datoz. Hala, auto txikiagoak, merkeagoak, eta gutxiago kutsatzen dutenak nagusitu dira urteko bigarren erdian, azpimarratu du Faconautok. Kilometro bakoitzeko 120 gramo CO2 baino gutxiago isurtzen duten ibilgailuek aurrerapauso itzela eman dute herrialde guztietan. Bizkaian eta Nafarroan %90 baino gehiago handitu da horien salmenta, Gipuzkoan %60, eta Araban ia %30.

Oraingoz, 2000E planak indarrean jarraitzea erabaki du Espainiako Industria Ministerioak. Hatik, aurrekontua amaitzen denean — 100 milioi euro — ez dela luzatuko ohartarazi du. Auto-saltzaileen elkartea, Ganvam, kezkaturik dago horrekin, eta merkatua «osorik suspertu arte» laguntzei eusteko galdegin zuen atzo, ohar baten bidez. Saldu den auto bakoitzak ogasunen kutxetan 566 euro utzi dituela adierazi zuen elkarteak, gainera.

Renault, salduena

Ganvamek emandako datuen arabera, markarik salduena Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan Renault izan zen, Citroen eta Ford ekoizleen aurretik.

Bestalde, Frantzian laguntza publikoek ere arrakasta izan dute, eta iaz ibilgailu salmentak %10 handitzea lortu zuen.

Nafarroan %14 igo dira salmentak; Araban, aldiz, %10 gutxiago saldu dira

Renault da markarik salduena EAEn, Citroen eta Ford ekoizleen aurretik

↓ Matrikulazioen bilakaera

	2008	2009	Aldea
Araba	9.893	8.880	-1.013 (-%10,24)
Bizkaia	20.881	22.592	1.711 (%8,19)
Gipuzkoa	12.513	12.631	118 (%0,94)
Nafarroa	12.458	14.262	1.804 (%14,48)
Hego Euskal Herria	55.745	58.365	2.620 (%4,69)

ITURRIA: FACONAUTO

Tubacexen bigarren espedientea onartu du Eusko Jaurlaritzak

Amurrio eta Laudioko lantegietako 878 langileri eragingo die, eta sei hilabetean egongo da indarrean

Erredakzio Gasteiz

Bat bukatu bezain pronto bestea. Maiatzaren 4an hasi eta ostegunean amaitu zen enplegua erregulatzeko lehen espedientea Tubacexen. Atzotik, indarrean da bigarrena, Eusko Jaurlaritzak baimena eman baitio. Sei hilabete iraungo du, eta Amurrio eta Laudioko lantegietako langile guztiei eragingo die, 878ri hain zuzen. Horietako 294 TTI lantegikoak dira, 167 TTI Amurriokoak eta 158 Aceralavakoak. Gainerakoak bulegoetan eta mantentze lanetan aritzen dira.

Amurrioko lantegiko 150 langilerentzat 80 eguneko espedientea aurkeztu du enpresak, eta gainerako langileentzat 60 egunekoa. Laudioko dosierrak 40 eguneko iraupena izango du. Posible da 58 urtetik gorako langileei lanaldi osoa erregulatzea espedienteak iraun bitartean. Soldaten %90 osatzeko prest dagoela esan du enpresak.

Tubacexeko zuzendaritzak, TTIkoak eta Aceralavakoak aurkeztu zuten espedientea, eta UGT, CCOO eta STAT sindikatuek ere sinatu zuten. LABek eta ELAk ez zioten oniritzirik eman. Azken horrek gaitzetsi egin du Jaurlaritzak baimena eman izana. «Ez du bermatzen langileek etorkizunean lana izango dutenik», esan du. Sindikatuak jakinarazi duenez, sinatu ez zutenak espedientearen jarraipen batzordetik bidali nahi zituzten. Lan Sailak ez du onartu, legearekin bat ez datorrelako.

Burtsa — J.B. ANDUEZA

Bilbao 2000 indizea



Beste indizeak

Ibex 35 (Madril)	12.145,10	(+%1,72)
Ftse 100 (Londres)	5.500,34	(+%1,62)
CAC 40 (Paris)	4.013,97	(+%1,97)
Dax (Frankfurt)	6.048,30	(+%1,53)
Dow Jones* (New York)	10.595,37	(+%1,60)

* Itxi aurretik

Dibisak

Euro bat: 1,4389 $ — Euro bat: 133,62 ¥

Karonte gogoan

Tokiotik Bilborantz jotzen du burtsaren arretak Wall Streetera bidean eta, atzo, gureak Txilerantz ere egin zuen hein batean Asel Luzarraga gogoan. Argi izpiek gidatzen dute txerritxo ehiztarien jomuga, Karontek itzalak nola eta 2.207 milioiren saleroskete-rekin ekin zitzaion aurtengoari. 12.000 puntuen langatik gora egingo du Ibex-35 (+%1,72) indizeak, ispilu ganbil nagusiek (Europak eta Wall Streetek) erakutsiari jarraiki. Txinako hazkunde sendoa, batetik, eta AEBetako manufaktura datu baikorrak, bestetik, lagungarri izan ziren. %5na igo ziren Abengoa eta Arcelorrez gain, %1,8na pasa irabazi zuten bi banku handienek, eta %1,54 Edurnezurik. Zientzia fikziotik asko duen akzio azokan, %4na pasa igo ziren Bankinter nahiz Tecnicas Reunidas, %3na pasa Ferrovial eta Gamesa. Atzo tropelean lehen eguna zuen Ebro Puleva (-%0,96) beldurrak bahitu zuen. Baikorkeria itxura du urtearen hasiera sendoak, Bernanke interes tasak igotzeaz hasi den honetan.

Autogintza. Aegon, Alstom eta ING izan ziren Eurostoxx-50 (+%1,74) indizean %5 pasako irabaziak izan zituztenak. Indizean, Telecom Italia (-%0,18) ez beste telekomunikazio enpresek ere igoera politak izan zituzten. Nokia %3,92 igo zen, eta Deutsche Telecom, %3,01. Galeretan Nafarroako industriaren ardatz den Volkswagen (-%4,22) autogilea izan zen protagonista nagusi. Espainiako auto salmentak, gobernuen laguntza eta guzti, %19 gutxitu dira; baina, Frantziakoak aldiz, %5 handitu dira, eta Brasil moduko merkatuak ere indartsu ageri dira.

→ Laburrak

Fed-ek dio interes tasek behean jarraituko dutela

NEW YORK › Jarduera ekonomikoa eta enplegua bere onera etorri artean diru politika aldatzeko asmorik ez du AEBetako Erreserba Federalak. Hala, interes tasak luzaroan egongo direla ezohiko maila baxuan adierazi du.

Novartisek Alconen %52 erosi dio Nestleri

BERNA › Begietako osasun arloan aritzen den munduko enpresarik handiena da Alcon. Suitzako Novartis farmazia enpresak haren %52 erosi dio Nestleri. 28.100 milioi dolar ordaindu dizkio (19.490 milioi euro), akzioko 108 dolar. Dagoeneko Alconen %77 bere esku du Novartisek, eta geratzen zaion %23a eskuratzea izango da hurrengo urratsa.

Turismo sektorean lana galdu dela dio CCOOk

DONOSTIA › Aurreko urtean baino %4,55 bisitari gehiago izan dira 2009an Araba, Bizkai eta Gipuzkoan. Eta horiek pasatako gau kopuruak ere gorantz egin du. CCOOren arabera, ordea, halakorik ez da islatzen enpleguan. 2008ko azaroan, 4.218 langile aritzen ziren hiru probintzietan turismo sektorean. 2009ko azaroan, berriz, 4.054 langile. Hau da, %3,47 gutxiago.

600.000 euro garapen proiektuetarako

BILBO › Bizkaiko hainbat erakunde eta fundaziori 600.000 euro eman dizkie BBK-k diru laguntzetan garapen proiektuetarako. Guztira 21 proiekturi lagundu die. Horien artean garrantzitsuena Antioquia-Medellin izenekoa da. Kolombiako departamentu bat da Antioquia eta hango biztanleen bizi-baldintzak hobetzea du helburu.

12. irudia. Albiste sinplea (*Berria*, 2010/01/05).

Patxi Lopez Eusko Jaurlaritzako lehendakaria, Urtezaharreko mezua ematen, Ajuria Enean. JON BERNARDEZ

Gehiengoari bizkarra ematea egotzi diote lehendakariari

Eskerrak eman ditu lehendakariak urte zaharreko mezuan, Gobernua «Euskadi osoak normaltasunez» hartu duelako

PSE-EE ez beste guztiek kritikatu dute Patxi Lopezen Gabonetako mezua

Erredakzioa Donostia

Bereak baino ez ditu asebete lehendakariak. Alderdi sozialistak baino ez du txalotu Patxi Lopezek Urtezahar gauean emandako mezua. Gobernu aldaketa normaltasun osoz hartu dela esan zuen Lopezek, lehendakari moduan, ETBn emandako Urtezahar gaueko lehen hitzaldian. EAJk errealitatea ezkutatzea egotzi dio. EAk uste du gizarteak ez duela sinesten Jaurlaritzaren mezua. Gehiengoari bizkarra ematea egotzi dio Aralarrek. «Autismo politikotzat» izenpetu du Hamaikabatek Patxi Lopezek duen ikusmoldea. Errealitatetik urrun dagoela uste du EBk. Eta PP'k berak ere, bere burua gehiegi goratzea eta erabakirik ez hartzea egotzi dio Patxi Lopez Eusko Jaurlaritzako lehendakariari.

Eskerrak emanez hasi zuen mintzaldia Lopezek. Pertsona, elkarte, erakunde eta alderdi politikoei eman zizkien eskerrak «Euskadi osoak normaltasunez hartu baitu aldaketa», haren ustez. Berrikuntza bi arlotan eskaini nahi dutela gogorarazi zuen. «Hiritar guztientzat askatasun osoa lortuz», lehenik. Alde horretatik, «ETAren aurkako borrokan aurrerapausoak eman direla» esan zuen.

Bigarrenik, «politika frontistak amaitzea» jarri zuen helburutzat. Inoren kontrako politikarik ez dutela egin nahi esan zuen. «Askatasuna zabaldu nahi dugu, bakoitzak bere izaera garatu eta defenditu ahal izateko. Desberdinen arteko akordioa lortzeko tolerantzia beharrezkoa da».

Akordioak lortzea du helburu. Hor sartu zituen PPrekin lortutako akordioa, EAJrekin erakundeen egonkortasuna bermatze aldera lortutako akordioa, eta baita Eudelekin «leku publikoetan askatasuna bermatzeko» izenpetutako akordioa ere. Euskal presoen irudiak kentzeko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailak eta Eudelek lortutako akordioa da azkena.

Krisia ere izan zuen hizpide. «Krisia larria izan da, eta datorren urtean ere arazoak izango ditugu. Euskal ekonomiaren indarrean konfiantza daukat», esan zuen. Eta Eusko Jaurlaritza krisiari erantzuna emateko autogobernuaz baliatuko dela esan zuen lehendakariak.

Euskarazko hitzaldian ez, baina gaztelaniazkoan ETAren biktimak izan zituen gogoan. Eta aurten ETAk hildako hiru guardia zibilen aipamena egin zuen.

EAJrentzat, kezkagarria

«Etsigarria, frontista eta kezkagarria» izan zen Lopezek esandakoa Iñigo Urkullu EAJko EBBko presidentearentzat. Errealitatea ezkutatzeko ihes egitea egotzi zion. «Ekimenik gabeko hitzaldia izan zen, krisitik ateratzeko proposamen bat bera ere egin gabe». Harrokeriaz aritzea ere leporatu zion gobernu aldaketa normaltasunez hartu dela esan zuenean. «Euskal gizarteak babestu ez duen normaltasun hori goraipatu beharrak konplexu bat ezkutatzen du».

Bestalde, Lopezek PPren babesa beretzat hartzea salatu zuen Urkulluk, «PPk eskuak eta hankak lotuak dizkionean». Eta EAJrekin lortutako akordioa lehendakariaren proposamena balitz bezala saldu izana ere salatu zuen.

Urkulluk gaineratu zuen Lopezek ez zuela eskatu alderdien batasuna «terrorismoaren aurka», eta gehitu zuen «errealitatea desitxuratu nahi dutenekin batasun hori lortzea zaila dela».

Asmo onak eta konpromiso gutxi ikusi ditu Jon Abril Aralarreko koordinatzaileordeak Lopezen hitzaldian. «Gizartea esaten ari zaio ez doala bide onetik; hala ere, nahiago du PPrekin, eskuin zaharkituarekin bat egin eta herri honetako gehiengo sozial eta politikoari bizkarra eman».

Lopezek herri proiekturik ez duela uste du Abrilek, ezta gidaritza gaitasunik eta kudeaketa gaitasunik ere.

Bestela pentsatzen dutenekin konpromiso gutxi agertu izana ere egotzi zion. «Horren adibide da bere hitzaldian ahaztu egin dituela arrazoi politikoa duten beste biktimak eta presoak».

«Legezko tranpa»

Pello Urizar Eusko Alkartasuneko idazkari nagusiak gogora ekarri zuen Patxi Lopez zer dela eta den lehendakari. Ezker abertzalea legez kanporatuta dagoelako, eta PPren babesari esker, hain zuzen. «Legezko tranparen oinordekoa da Lopezen gobernua». Euskal Herrian benetako berdintasunik ez da izango proiektu politiko guztiak egingarriak ez diren artean, Urizarren ustez.

Inkestek adierazten duten moduan, gizarteak Eusko Jaurlaritzako arduradunen hitzaldiak ez dituela sinesten esan zuen Urizarrek. «Ez dute onartu nahi euren Gobernua legezko tranpa baten ondorena denik, eta ahaztu egiten da ez dutela gizartearen gehiengoa ordezkatzen».

Dituen babesak harrotzen baditu ere, gobernua ahula eta oin lokaztuak dituena dela esan zuen Urizarrek, «alderdien interesetan oinarritua delako».

Hamaikabateko presidenteorde Eneko Oregik uste du Eusko Jaurlaritza herritarren gehiengoak arbuiatu egiten duela, hargatik, Patxi Lopezi «autismo politikoa» izatea egotzi zion. «Lopez lehendakari da PPren babesari esker, identitatearekin obsesionatuak daude eta euskal idiosinkraziaren aurkako neurriak hartzen dituzte».

> «Eskerrak eman nahi ditut lehenik, Euskadi osoak normaltasunez hartu baitu aldaketa»
> **PATXI LOPEZ**
> Eusko Jaurlaritzako lehendakaria

> «Gizarteak babestu ez duen normaltasun hori goraipatzeak konplexu bat ezkutatzen du»
> **IÑIGO URKULLU**
> EAJko EBBko presidentea

> «Lopezek nahiago du PPrekin bat egin, eta herri honen gehiengoari bizkarra eman»
> **JON ABRIL**
> Aralarreko koordinatzaileordea

> «Lopez ahaztu egiten da euren gobernua legezko tranpa baten ondorena dela»
> **PELLO URIZAR**
> EAko idazkari nagusia

PP'k harrokeriaz aritzea egotzi zion Lopezi. Leopoldo Barreda PPko eledunak bere burua gehiegi loratzea eta erabaki eraginkorrak ez hartzea egotzi zion. Aldarriak alboratu, eta erabakiak hartzen hasteko eskatu zion.

EBko Isabel Saludek ere salatu egin zuen hitzaldia. Errealitatetik urrun egotea egotzi zion Lopezi. Eta krisiari eta langabeziari aurre egiteko neurri eraginkorrak hartzeko eskatu zion.

PSE-EErentzat, berriz, «euskal gizarteak behar zuen ukendua izan da» Patxi Lopezen gobernua. «Akordioaren kultura hedatu du». Txarli Prieto Arabako PSE-EEko idazkari nagusiaren esanetan, «azken zazpi hilabeteotan herri hau gai izan da alternantzia politikoa normaltasun osoz egiteko».

Atzera geratu da, Prietoren esanetan, «gatazkarengatik, erakundeen arteko harreman txarrengatik eta herritarren bizikidetzarako zailtasunagatik ezagutzen zen Euskadi». «Euskadi egokitu egin da gobernu sozialista batera, eta gobernu hori gai izan da euskal gizarteak behar zuen ukendua emateko».

13. irudia. Albiste anizkuna (*Berria*, 2010/01/02).

Harian › Mundua

Pakistanen 59 lagun hil dituzte eta 116 zauritu atentatu batean

Kuetta hirian Palestinaren aldeko manifestazio bat egiten ari zirela, lehergailu bat leherrarazi dute

Amaia Garcia

Pakistanen 59 pertsona hil eta 116 zauritu zituzten atzo atentatu suizida batean. Kuetta hirian egin zuten erasoa, Balutxistan probintzian, hego-mendebaldean. Han Palestinaren aldeko manifestazio bat egiten ari ziren hiriko xiitak. Pakistango hedabideen arabera, zaurituen artean hainbat kazetari daude. Pakistango biztanleen %20 xiitak dira; gehien-gehienak, berriz, sunitak. Suniten artean muturreko taldeak daude.

Balutxistango Poliziaren buru Malik Mohamad Iqbalek adierazi du saiatu zela manifestazioko kideak Meezan auzo gatazkatsura inguratu ez zitezen, segurtasun arazorik ez izateko. Baina manifestariek ez zieten kasurik egin Poliziak emandako aholkuei eta inguru horretara joan ziren. Han gertatu zen atentatu suizida.

Kuettan gertatutakoa ez da eguneko atentatu bakarra. Egun berean hiru atentatu egon dira. Beste biak iparraldean izan dira. Ipar-mendebaldean, Mardan hirian, ekintzaile suizida batek soinean zeraman karga lehertu zuen, Poliziak mezkita batean atzeman zuelarik. Leherketaren ondorioz polizia bat hil zen eta hiru fededun zauritu ziren.

Beste erasoa iparraldeko Peshauar hirian gertatu zen. Urrutiko kontrola zuen lehengailu batek Poliziaren ibilgailu bat leherrarazi zuen. Leherketan polizia bat hil zen eta beste hiru zauritu ziren.

Gorpuak lurrean, Kuetta hirian egindako atentatuaren ondoren, atzo. WAHEED KHAN / EFE

Talibanak Lahoren

Asteazkenean Lahore hirian (Indiako mugan) gertatu zen atentatua bere gain hartu dute talibanek. Erasoan 35 pertsona hil ziren eta 243 zauritu. Xiiten aurkako erasoa izan zen, eta Ramadanaren barau amaieraren ondoren gertatu zen. Hiru leherketa izan ziren, granada batek eragindakoa lehena, eta beste biak leherketa suizidak izan ziren.

Eraso suizida egin zuten ekintzaileen buruzagi Qari Hussain Mehsuden arabera, erasoa «sunita errugabeen heriotzen mendekua» izan da. AEBetako Inteligentzia Agentzia Zentraleko kideek Pakistango talibanen buruzagia harrapatu zuten duela gutxi. Ondorioz, agintariak beldur dira mendekuzko atentatu gehiago egingo ote diren. Lahoreko atentatuaren ostean, uste da talibanek Pakistango Gobernuari presio egin nahi diotela uholdeen ondorioz gaur egun duten egoeraz baliatuz.

Pakistango uholdeen ondorioz, herritar asko etxetik kanpo daude eta ez dute zer jan, ezta zer edan ere. Laguntza pixkanaka iristen ari da bertara, eta nazioarteko erakundeek dirua eman diote Pakistango Gobernuari. Adibidez, Nazioarteko Diru Funtsak (NDF) 450 milioiko diru laguntza eman dio.

Abbasen eta Netanyahuren arteko bilera ez da izan denen gustukoa

Hamahiru talde armatuk ohartarazi dute erasoak egingo dituztela bake prozesua geldiarazteko

A. G.

Mahmud Abbas PAN Palestinako Aginte Nazionaleko presidentearen eta Benjamin Netanyahu Israelgo lehen ministroaren arteko elkarrizketek kritikak sortu dituzte. Bi aldeetako adituek elkarrizketen nondik norakoak aztertu dituzte eta bakea lortzeko gaitasunik ez dutela ohartarazi dute.

Nahum Barnea Israelgo kazetaria da eta *Yediot Ahronot* egunkarian idazten du. Barneak dio askok ez dutela ulertzen Netanyahuren portaera. «Antzezlanetan badabil, Netanyahu oso aktore ona da, baina agian ez da antzerki bat soilik. Ez orain», adierazi du kazetari israeldarrak.

Gilad Erdan Israelgo lehen ministroaren alderdikidea da, Likud alderdikoa. Erdanen arabera, Netanyahuk Zisjordaniako lurralde-ak defendatuko ditu palestinarrekin elkarbizitza bat lortu arte. «Lehen ministroak, beste ministroek ez bezala, ez du akordio faltsurik sinatuko bakea lortzeko. Are gutxiago biolentziak jarraitzen duen bitartean eta suziriekin erasotzen diguten bitartean».

Palestinako politikari bat da Mustafa Barguti. Haren ustez, kolonia gehiago eraikitzeak bake prozesua okertuko du. «Alde guztiak bi herrialdeen irtenbidearen azken aukera galtzen ari direla sentitzen dugu», adierazi du Bargutik. Washingtonen entzun duenak bere pentsaera ez duela aldatu esan du. «Gure susmoak argitu ditu, hau da, elkarrizketa hauetatik ez dela ezer berririk aterako», iragarri du Bargutik.

Alon Pinkas Israelgo diplomazialari bat da. Haren ustez, bakerako bidea argi inoiz egon ez denez, orain arteko buruzagiek ez dute beharrezko konpromisorik hartu bake elkarrizketetan. «Obamak ulertu behar du prozesua martxan dagoela. Israeldarrak eta palestinarrak ez dira gaiberen ikuspuntua aldatzeko. Agian, AEBak dira hori egin dezaketen bakarrak», adierazi du Pinkasek.

Eraso gehiago

Abbas eta Netanyahu Washingtonen zeuden bitartean, hamahiru palestindar brigada elkartu dira idazki bat aurkezteko. Bakerako prozesu hau geldituko dutela ohartarazi dute Gazan eman zuten prentsaurreko batean.

Abu Obeidak, Hamaseko Al Kassam Brigadetako buruak, komunikatua irakurri zuen. «Ez dugu negoziazioak aurrera eramaten utziko, koloniak legeztatzea ekarriko duelako. Horregatik negoziazioei erantzungo diegu, palestinarren eskubideak ahaztu egiten dituztelako», adierazi zuen Obeidak. Netanyahuren eta Abbasen arteko hamabost eguneroko elkarrizketen inguruan «zentzugabeak eta alferrikakoak» direla esan du.

→ Laburrak

Mexikoko armadak 32 ustezko sikario hil ditu

MEXIKO HIRIA › 32 ustezko sikario hil ditu Mexikoko armadak aurrez aurreko batean. Leon Nueva eta Tamaulipas estatuen muga artean gertatu da. Soldaduek ustezko sikarioak zeuden eraikina aurkitu dute eta han zeuden guztiak hil dituzte. Bestalde, armadak ustezko sikarioek bahituak zituzten hiru pertsona askatu dituzte.

Bost lagun hil eta 532 etxe erre dira Errusian

MOSKU › Bost pertsona hil dira eta 532 etxe erre dira Volga ibairen inguruan piztutako suteen ondorioz. 40 gradu inguruko tenperaturek eta haize bolada bortitzek sutea itzaltzeko lanak zailtzen dituzte. Adituen ustez, tentsio handiko kable bat hautsi da eta horrek eragin ditu Volga inguruko suteak. Sutea hasi zenean neurri egokiak hartu ziren ikertzen ari dira.

Sudango armadak 74 lagun hil ditu

KHARTUM › Darfurko talde errebelde batek salatu du Sudango armadak 74 lagun hil dituela airez egindako eraso batean. Hildako gehienak zibilak direla eta erasoan 152 pertsona zauritu direla adierazi du taldeak. Sudango armadako bozeramaileak ukatu egin ditu talde errebeldeak egindako adierazpenak.

Venezuelan gose greba hasi dute 4.000 presok

CARACAS › Venezuelako 4.000 presok baino gehiagok gose greba hasi dute espetxeetan jasaten dituzten tratu txarrak, auzien atzerapena eta pilatzeak salatzeko. Protestak Carabobo-ko Minima espetxean hasi zituzten. Han presoek tratu txar fisiko eta psikologikoak eragitea leporatu diete kartzelako zaindariei. Horien arabera, aste honetan preso batek ihes egin ostean hasi ziren erasoak.

Jendaurrean agerraldia egin du Fidel Castrok

HABANA › Lau urtean lehen aldiz jendetzaren aurrean agertu da Fidel Castro. Agerraldia ikasleen aurrean egin du 84 urteko buruzagiak, eta arma nuklearren arriskuak izan ditu hizpide. Hitzaldiak 45 minutu iraun zuen, eta zutik egon zen une oro. Castrok duela lau urte utzi zuen agintea.

14. irudia. Albiste zuzena (*Berria*, 2010/09/04).

Protestak herrialde arabiarretan →

Ehunka funtzionario, tartean poliziak, soldata igoera eskatzera atera ziren atzo, Kairon. MOHAMED OMAR / EFE, TARTEAN POLIZIAK.

Trantsiziorako urratsak

Konstituzioa hamar egunen buruan prest egongo dela hitz eman du armadak; Legebiltzarra ere desegin dute

Tahrir plazatik alde egin du oposizioak; poliziak ari dira orain protestak egiten

Kristina Berasain Kairo
© Berriemaile berezia

Egipton demokrazia ezartzeko dena egiteko baldin badago ere, trantsizioaren bidean urratsak egiten ari dira egunetik egunera. Hosni Mubaraken ondare politikoak ezabatzeari ekin dio armadak, eta, trantsizioko gobernua desegin ez badu ere, egiteko sinbolikoa baino ez da betetzen ari azken orduetan. Mohamed Tantaui jeneralak bi pauso irmo eman ditu oraindik erabat ziurgabea den bide horretan. Faraoiak bezala betiko agintean egon ahal izateko diktadoreak aldatutako ifuna bertan behera utzi dute militarrek. Konstituzioa erreformatzea da orain erronka, eta hamar egunetan egingo dutela hitz eman dute argitara emandako bosgarren komunikatuan. Erreferendum bidez babestu beharrekoa izango da, eta ondoren ezarriko da hauteskunde orokorretarako eguna, betiere, sei hilabeteko epean. Orduan erakunde zibilen eskuetan utziko du agintea Armadaren Kontseilu Gorenak.

Parlamentuko bi ganberak ere desegin ditu Tantauik. Diktadoreak agintea hartu eta urte berean ezarritako salbuespen egoerak, baina, indarrean segitzen du «segurtasuna bermatzeko egoera ezarri artean».

Herritarrek eta oposizioak begi onez ikusi dituzte hartutako neurriak. Neurri batean paradoxikoa da aintzat hartuta koronela erregimenaren gizona dela, baina orain arte emandako hitza betetzen ari dela ohartuta, konfiantza agertu diote; Anaia Musulmanek barne.

Lanera itzultzeko deia

Tahrir plaza, bien bitartean, itxuraz aldatzen ari da, eta lasalago dagoen arren herritarrei lanera itzultzeko eskatu die armadak iraultzak utzitako kalte ekonomikoak gehiagora joan ez daitezen. Kanpalekua ere deseginda dago. Igande eguerdian altxatu zuten azken denda, erresistentziaren azken gotorlekua amaituta. Atzo goizean lagun batzuk baino ez ziren geldituen plazan, ezen armadak alde egin ezean atxilotu egingo zituela ohartarazi zien. Saadaui Mosek (30) protestari eutsi nahi zion: «Gure indarraren dimentsioa deskubritu dugu, eta orain ez gara etxera joango, plaza hau gurea da, eta bemen jarraituko dugu».

Erresistentziaren arrastoak pixkanaka ezabatzen ari dira. Emakumeak erratzekin aritu dira zikinkeria jasotzen, eta gizonezkoak, berriz, dena margotzeari ekin diote, plaza inoiz egon ez den baino txukunago uzteko. Errepideko marrak zuriz margotu dituzte, kale kantoien ertzak zuriz eta beltzez, eta hesiak berdez. Pintura potoak nondik atera dituzten galdetuta, denek erantzun bera dute: «Eman egin dituzte». Boluntarioak ehunka dira, eta, nolabait antolatze aldera, zerrenda bat osatzen aritu da Baker Garieb (22). «Egipto osoa garbituko dugu orain artean izena eman duten lagunen kopurua ikusita». Ekintza metaforiko eta utopikoa da, boterea une honetan herriaren eskuetan dagoela agerian uzten duena.

Komunikabideek Mubarakek depresioa duela zabaldu dute

→ Iragan ostiralean botere a armadaren esku utzi zuenetik ez dago argi non dagoen Hosni Mubarak presidente ohia. Ezta nola dagoen ere. Komunikabideetan haren egoeraren inguruko zurrumurruak bolo-bolo dabiltza.

Herrialdean jarraitzen duela diote batzuek, Sharm el Sheikheko egoitzan, eta koman dagoela. Egunkari ofizialaren arabera, berriz, presidente ohiak osasun psikologikoa dauka larri; depresioa dauka. Heregun, Alemaniako hospitale batean zela zioten gehienek.

Denak, Mubaraken kontra

Iraultza burututa, baina, fenomeno bitxi bat ari da pizten orain; denak hasi dira aldarrikapenak egin eta erregimena salatzen, baita harekin harreman estua zutenak ere, tartean telebista eta egunkari publikoetako kazetariak, erregimenaz eta iraultzaz hitz egiteari ekin baitiote bat-batean.

Poliziak ere batu dira protestara. Tahrir plazara gerturatu dira bi egunez jarraian, baina herritarrek ez diote harrera onik egin. Film honetako gaiztoak direla salatzen dute, argudiatuta zibilekin aurrez aurre borrokatu badira nagusien aginduetara zeudelako izan dela. Herriaren babesa bereganatzeko eurek ere lan baldintza kaskarrak dituztela salatu dute; hilean mila libera —ehun euro— jasotzen dituztela. Izenik ez dute eman nahi, orain haiek direlako errepresalien beldur. Beste paradoxa bat. Protestetan, 35 polizia hil zirela jakinarazi zuten atzo.

Tahrir plazatik

Testigantza
Kristina Berasain

Kairo hiri handia da, kaotikoa bezain xarmangarria, eta kutsadura handikoa. Milaka auto dabiltza kalean; bakar batek ibili beharko lukeen errepidean, hiru, eta denak norabide berean eta klaxonari joka. Zebra biderik ez dago, eta abentura bat da erregidea albo batetik bestera zeharkatzea. Pilaketak etengabeak dira. Minutu bat azkarrago eta hamar minutu ez aurrera ez atzera. Egun batean eta bestean. Auto denek dituzte kolpeen arrastoak. Espaloietan ibiltzea ere ia ezinezkoa da. Denak daude zulatuta. Eta, tarteka, zaldiak, astoak eta gameluak. Mezkitetatik uneoro egiten dituzte errezorako deiak, baita dendariek laranjak eta platanoak saltzeko ere. Ikusmina aparta da. Etengabea.

Tahrir plaza bera zoragarria da. Nilo ibaia zeharkatu behar da bertaratzeko. Kasr al Nil zubiaren sarreran dauden bi lehoiak dira lehen erreferentzia. Zubia bera blokeatuta egon da egunotan. Behin plazan, eraikin bitxiak daude bata bestearen parean. Mugamma grisa albo batean, eta parean, Kairoko Museoa. Eraikin arrosa da, eta diktadoresaren alderdiaren egoitza zena dauka aldamenean. Mubaraken Alderdi Nazional Demokratikoaren etxea zena beltza da orain. Suak kiskali du, eta denak gerturatzen dira argazkia ateratzera.

Horixe da beste ikuskizun bat, bertakoek turistak bihurtu dira, eta argazkilariek argazkiak nola ateratzen dituzten ikusteko egiten dute klik kameran. Erromerian gerturatzen dira familiak garaipenaren sinbolo bilakatu den plazan irudiak ateratzera, une historiko honen lekuko izan direla historian irudikatuta uzteko. Haurrak tankeetara igotzen dira, eta neskato gazteak soldaduekin aritzen dira sakelakoaren zenbakia trukatzen.

Makilak eta harriak eskutan hiru astez erresistentzian aritu diren gazteek, baina, ez dute ikuskizun hau gustuko. Lehenago gerturatu ez izana leporatzen diote voyeurrei. Eta feria amaitzeko eskatzen dute martirieikiko errespetuz.

15. irudia. Albiste interpretatiboa (*Berria*, 2011/02/15).

| berria ostirala, 2007ko otsailaren 23a

Eskua bete **ilusio**

Rene Lavand mago argentinarra Elgetako Espaloia kafe antzokian izan zen larunbatean. Bere 78 urteekin, esku bakarrarekin eta hizjario dotorearekin, magia saio ederra egin zuen.

Rene Lavand, Elgetako Espaloia kafe antzokian, aurreko larunbatean. ARCAZMAK. JUANAN RUIZ / ARCAZKI PRESS.

IDOIA ETXEBERRIA
Elgeta

Aretoa beteta zegoen. Lepo. Gortina beltza noiz irekiko zain, ikusleak. Aulki urdin, hori eta beltzetan eserita. Pianoan jotako melodia bozgorailuetatik. 22:30ean, puntu-puntuan, altxatu zen teloia. Eta ikus-entzunezko batek aurkeztu zuen Rene Lavand magoa (Buenos Aires, 1928), pantaila handian: «Ez dago ezer egia baino aspergarriagorik!», zioen ahotsak. Eta magia mirarien gertuko zerbait dela ere bai, «ilusiora, harridurara itzultzea; haurtzarora itzultzea». Eta gero eta polikiago egin magia, efektua handiagoa dela, handiagoa zirrara; «gero eta gertuago gaude haur izatetik». Eta halako batean, Lavand agertu zen. Dotore eta irribarretsu.

«Artistok ez dugu lanik egiten. Lan egiten dutenak entretenitzea da gure egitekoa». Horixe esan zuen magoak. Eta ez hori bakarrik, mingaina ederki dantzatu baitzuen, bere doinu argentinarrarekin. Mingaina esku bakarra bezain azkarra baitu. Istorioak, hitz jokoak eta poesia batu zizkion kartekin egindako magiari. Umoreari tartea eginez, istorio triste baina ederrak kontatuz eta isiltasuna elementu dramatiko gisa erabiliz borobildu zuen ikuskizuna. Elgeta magiaren munduan erreferentzia bihurtzen ari da. Maiatzeko Magia Mostraren aurrerapena izan zen larunbatekoa: «Lavand Madrilera zihoan emanaldi bat egitera, eta ezin genuen hona ekartzeko aukera galdu!», azaldu zuen antolatzaile batek, Iban Arantzabalek. «Gainera, Euskal Herrira etortzeko gogo biziarekin zegoen».

«Arte guztiek gezurra diote, Picassok esana da; hura ere inguru-koei bere gezurraren egia sinetsarazten saiatu zen». Eta lehen magia trukua egin zuen, Pikazko Damarekin. Eta ondoren bat, bi, hiru, lau As atera zituen elkarren segidan, kartak ondo nahastuta zeudela erakutsi ondoren. Eta bigarren aldiz egin zuen jolas bera.

Maiatzeko Magia Mostraren aurrerapena izan zen Elgetako larunbateko ikuskizuna

Rene Lavand magoak txalo ugari jaso zituen. Kartajokoekin eta istorioekin liluratu zituen ikusleak



Eta hirugarren aldiz ere bai, polikiago. Baina azkar, hala ere. «Zein ondo egiten dudan, ezta?», eta txalo mordoa jaso zuen. «Ez dut berriro egingo, bestela arrebarekin dantza egitea baino aspergarriagoa izango da eta!». Eta zutitu egin zen, ardoz betetako edalontzia ahora eramanez.

Eta gero, eserita, Lope de Vegaren soneto bateko 14 esaldiak ahozkatuz, 14 bihotzen karta jolasa egin zuen. Eta baita ikusleak berriro harritzea lortu ere! Eta berriro jaiki zen, soldadu baten istorioa kontatzeko: «Lagunaren bila joan nahi zuen, eta Kapitainak ez zion uzten. 'Hilda dago'. Baina hala ere joan egin zen, eta baita laguna besoetan ekarri ere. Hilda. 'Esan dizut alferrik izango zela', esan zion Kapitainak. Eta berak erantzun: «Ez, Kapitaina, ez da alferrik izan. Iritsi naizenean bizirik zegoen, eta esan dit: Banekien etorriko zinela». Eta irribarre batekin urratu zuen isiltasuna: «Drama ere edertasuna da».

«Zertarako jakin nola egiten dudan? Zertarako ilusioak hil?», zioen, Hiruko Pikarekin magia eginez. «Nahi dutenekin joaten dira

(Hurrengo orrialdean jarraitzen du)

16. irudia. Sormenezko albistea (*Berria*, 2007/02/23).

2 | berria | 2011ko abenduaren 27a, asteartea

Harian ›

Emakumeen aurkako indarkeria → Urteko balantzea

106 urteko zigorra Yamiled Giraldoren hiltzaileei

Azken urteotan izan diren hainbat hilketa sonaturen inguruko ebazpenak eman dituzte aurten auzitegiek. Besteak beste, 106 urteko zigorra ezarri zien Nafarroako Auzitegiak bost laguni Yamiled Giraldo hiltzeagatik. Giraldo 2009ko apirilaren 25ean hil zuten, Cordovillan (Nafarroa), tiroz, kalean zihoala. Giraldo sexu esplotazioaren biktima izan zen, eta sare bateko kideak salatzeagatik mendekua hartu ziotela ebatzi zuen epaileak. Bestetik, Maria Puy Perez hil zuen gizonari hamasei urteko zigorra ezarri zioten. 2008ko urrian desagertu zen Puy Perez, eta 2009ko ekainean aurkitu zuten gorpua, Sesmako urtegi batean. Bikotekide ohiak behin baino gehiagotan ukatu bazuen ere emakumea hil izana, azkenean aitortu egin zuen hura hil izana, eta gorpua non zegoen jakinarazi zion Nafarroako Foruzaingoari. Bestalde, Tafallan (Nafarroa), Maria Pilar Marcos genero indarkeriaren biktima absolbitu egin zuen zinpeko epaimahaiak senarraren heriotzaz. Alabaina, Auzitegi Gorenak atzera bota zuen absoluzioa, eta epaiketa berriro egiteko agindu du.

Giraldoren auziko epaiketa. VILLAFLOREZ / EFE

Bost andre hil dituzte, eta egunean 17 tratu txar salaketa jaso

Urri amaiera arte 5.067 salaketa jaso dituzte tratu txarrengatik eta sexu erasoengatik Hegoaldean, iaz baino %11 gehiago

Bost heriotza kasuetan bikotekideak edo bikotekide ohiak kartzelatzeko agindu dute

Iñaki Petxarroman Donostia

Odolusteak ez du etenik. Indarkeria matxistak bost emakume hil ditu aurten Euskal Herrian, eta, gainera, egunero-egunero 16,6 salaketa bildu dituzte Hego Euskal Herriko erakundeek tratu txarrengatik. Oraindik ere urteko bilketa osatzen ari badira ere, iaz baino tratu txar salaketa gehiago bildu dituzte Eusko Jaurlaritzan eta Nafarroako Gobernuan.

Eusko Jaurlaritzako Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak urriaren 31ra arte bildutako datuen arabera, 4.017 salaketa jaso zituzten Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, 2010ean baino %13,15 gehiago. Nafarroako Berdintasunerako Institutuak 1.050 salaketa jaso zituen tarte berean, iaz baino lau gehiago. Guztira, 5.067 salaketa izan dira lehen hamar hilabeetan Hego Euskal Herrian, iaz baino 508 gehiago; alegia, %11,14 handitu ziren indarkeria matxistari lotuta jasotako salaketak. Aurten kasu gehiago jaso dituzte la aitortu arren, Eusko Jaurlaritzako Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko zuzendari Mariola Serranok ukatu du datuek joera bat erakusten dutela. «Oraingoz ez daukagu daturik esateko goranzko joera dagoela». Horretarako denbora gehiagoan egin behar da jarraipena, haren esanetan.

2011, azken urteak bezala, beltza izan da heriotzei dagokienez ere. Genero indarkeriak bost emakume hil ditu aurten. 2010ean, zazpi hil ziren. Apirilaren 3an, urteko lehenengo heriotzaren berri eman zuten Nafarroako agintariek: Yanela Zaruma 22 urteko emakumea. Haren mutillagun ohiak —24 urteko mutil gazte batek— aitortu zuen gertatutakoa epailearen aurrean: apirilaren 3ko gauean hil zuela Zaruma. Hurrengo egunean aurkitu zuten gorpua, Beriaingo Morea aintziran (Nafarroa). Indarkeria zantzu nabarmenak zituela jakinarazi zuen Nafarroako Gobernuak. Hilabete batzuk lehenago banandu ziren Zaruma eta ustezko hiltzailea. Mutil-lagunarekin bizitzeari utzi zion orduan emakumeak, eta gurasoen etxera joan. Hain zuzen ere, gurasoek abisatu zuten Foruzaingoa: alabak mutil-lagun ohiarekin eztabaida bat izan zuela telefonoz, eta etxetik irten ostean ez zela itzuli. 3 urteko haur bat zuten elkarrekin. Deklarazioa hartuta, espetxera bidali zuen epaileak ustezko hiltzailea.

Sexu erasoengatik ere iaz baino %8,16 salaketa gehiago jaso ditu Jaurlaritzak

Ekainaren 16an gertatu zen bigarren heriotza, Durangon (Bizkaia). Hasiera batean kasuaren inguruko informazioak nahasi samarrak izan ziren. Ertzaintzak jakinarazi zuen emakume gazte batek —31 urteko June izenekoak— etxeko leihotik salto egindu hil zela. Hasiera batean, bere buruaz beste egin zuela adierazi zuen Ertzaintzak. Ikerketak sakondu ahala, ordea, beste bide batzuk aztertzeari ekin zioten, eta, handik gutxira, emakumearen bikotekidea atxilotu zuten. Epaileak deklarazioa hartu zion gizonari, eta espetxeratu egin zuen, «badaezpadako neurri» gisa.

Eusko Jaurlaritzako Genero Indarkeriaren Biktimen Laguntzarako Zuzendaritzak, gertaera galtzetsi, eta babes osoa agertu zion hildakoaren familiari. Emakumeen aurkako indarkeria kasuak «oinarrizko eskubideen aurkako atentatuak» direla gaineratu zuen, indarkeria hori «gertatzen den moduan gertatzen dela ere». Deklarazio horiek egin zituen arren, Jaurlaritzak ondoren ez du jaso heriotza hori aurtengo hildakoen zerrendan.

Uztailaren 3ko goizaldean iritsi zen Hernanitik hirugarren hildakoaren berri. Kale gorrian, labankadaka hil zuen Rosario Roman 55 urteko herritarra bikotekide ohiak. Ondoan zuen alaba Romanek erasoa jasan zuenean, eta hura ere zauritu egin zuen erasotzaileak. Romanen ahizpa Paquik jakinarazi zuen ez zela ahizpak jasandako lehenengo erasoa: «Salaketa asko jarri zituen, baina beldurragatik kendu egiten zituen azkenean». Erasotzailea Poliziari ihesi ibili zen igande goizean, baina, azkenean, ertzain batek konbentzituta utzi zuen atxilotu zezatela. Ondoren, deklarazio luze baten ostean, epaileak espetxeratzea deliberatu zuen. Hainbat lekukoren testigantza funtsezkoa izan zen horretarako. Izan ere, Roman hil eta haren alaba zauritzeaz gain, haiek babesteraz joan zen herritar bat ere beso batean zauritu zuen ustezko hiltzaileak.

Rosario Roman uztailean Hernanin hil zuten emakumearen aldeko

Urruntzeko agindua hautsita

Abuztuaren 22ko arratsaldean hil zuen ustez bikotekide ohiak Deisy Mendoza, Bilbon. 38 urteko gizonezkoa, Mendozarengana hurbiltzeko epaileak jarritako debekua hautsi, eta andrearen etxera joan zen. Lekukoek Ertzaintzari jakinarazi ziotenez, eztabaida gogorra entzun zuten emakumearen etxean, eta, eztabaida horren erdian, gizonak labana bat sartu zion andreari. Larri zaurituta zegoela heldu ziren osasun zerbitzuetako kideak, baina ezin izan zuten ezer egin emakumearen bizitzari eusteko. Bertan hil zen. Gizona atxilotu egin zuen Ertzaintzak, eta epaileak, deklarazio luze baten ostean, espetxeratzeko agindu zuen. Mendozak 36 urte zituen, eta hiru seme-alaba ustezko hiltzailearekin. Mendozaren heriotzak eztabaida handia piztu zuen babes neurrien eraginkortasunaren inguruan. Izan ere, emakumearen senide eta lagunek jakinarazi zuten gizonak sarri puskatzen zituela urruntzeko aginduak, hil zen egunean bezalaxe.

Handik egun gutxira hil zuen

17. irudia. Egoera-albistea (*Berria*, 2011/12/27).

8 || berria || 2010eko martxoaren 21a, igandea

Eskualdeetako bozak → Bigarren itzulia

Ipar Euskal Herriko hautesleek bozen bigarren itzulia dute gaur

PS-Europa Ekologia-Ezkerreko Frontea aliantza, Forces Aquitaine zentrista eta UMP eskuinaren artean da hautua

Lehen itzulian %37,63 lorturik eta aliantzak osaturik, sozialistak atera daitezke lehen

Jenofa Berhokoirigoin Baiona

Goiz honetan 08:00etan irekiko dituzte Ipar Euskal Herriko bozkalekuak, eskualde hauteskundeetarako bigarren itzulirako. Akitaniakoen gisara, euskal hautesleek hiru zerrendaren artean dute hautua: PS sozialistekin batera Ezkerreko Frontea eta Europa Ekologia hautagaitzek osaturiko ezkerreko aliantza, UMP eskuina eta Forces Aquitaine zentrista.

Lehen itzulian PS atera zen garaile, bozen %37,63 lortuta, eta UMP bigarren izan zen sozialistetarik hamabost puntutara. Gaur, ezkerreko beste bi indarrak bereganatuz —Europe Ekologiak %9,75 eta Ezkerreko Fronteak %5,95 lortu zuten lehen itzulian—, segurki garaile aterako da. Hain zuzen, Ifopek martxoaren 16an eta 17an Sud-Ouest eta TV7entzat egindako zundaketari fidatuz, ezkerrak %59 egin lezake, UMPk %29 eta Forces Aquitainek %12. Hala balitz, 1998tik geroz presidentetza daukan PSk berriro beste mandatu bat eramanen luke.

Haatik, lehen itzulian Akitaniako hautesleen %49,5 eta Ipar Euskal Herriko %47,89 bakarrik agertu ziren bozkalekuetara; abstentzio handia izan zen. Abstenitu zirenak gaur bozkatzera joanez gero, horien hitzak erabat alda ditzake emaitzak. Hautagaitzek hori argi dute, eta bakoitzak bereganatu nahi ditu aitzineko igandean adierazi ez ziren hautesleak.

Usaiako ezkerrarekin eta eskuinarekin batera, Forces Aquitaine zentrista dago igande honetako hautagaitzetan. Frantzia mailan Modem alderdi zentristak %4 lortu du, baina Akitanian %10,43 eta Ipar Euskal Herrian %16,81 egin du. «Zerrenda biziki irekia» egin dutelako dutela emaitza hori lortu dio Pirinio Atlantikoetako departamenduko zerrendaburu Jean-Jacques Lasserrek.

Aliantza ezkerrean

Lehen itzulian %10 lortu zutenak zuzenean bigarren itzulira joan dira. %5 lortu zuten zerrendek, berriz, gutxienez %10 lortu duten hirurekin aliantza egiteko posibilitatea izanki, Ezkerreko Frontea (%5,95), Europe Ekologiak (%9,75) eta Fronte Nazional eskuin muturrak (%8,27) zuten aukera. Emaitzak jakin bezain laster hasi ziren negoziazioak. Ezkerrekoak PSrekin elkartu ziren, akordiora iritsita. Fronte Nazionala, bestalde, bakarrik geratu zen, eta Pirinio Atlantiko mailan, UMP zerrendaren buru Alain Lamassourrek «eskua luzatu» zion Forces Aquitaineri, aliantza osatzeko. Baina zentristek errefusatu egin zioten: «Garena izanez bakarrik aurkeztuko gara».

Negoziazio luze eta zailen ondotik, astelehen gauean zuen aliantza osatzera lortu ezkerrak. Akitaniako Kontseilu berrian Ezkerreko Fronteak sei aulki eta Europa Ekologiak berriz hamar segurtatuz, elkarrekin aurkeztea erabaki zuten. Berdeen inguruko hautagaitzari dagokionez, AHTari buruzko adostasun bat lortu behar izan zuten. Arrazoi bakarra ez bazen ere, egitasmoari buruzko desadostasunarengatik lehen itzulirako ezin bateratuak zirelako.

David Grosclaude Pirinio Atlantikoetako Europa Ekologia zerrendaburuak honela azaldu zuen: «Negoziazioetan egitasmoa geldiarazteko ez dugu aski pisu». Baina engaiamendu batzuk segurtatu zituzten: hurbileko trenak garatuko ditu Kontseiluak; AHT egitasmoari buruz ikerketa independente bat eginen dute, elkarteekin batera idatziriko baldintza orria segituz. Eta Ekonomia eta Gizarte Kontseiluak eta Akitaniko Kontseiluak AHTari buruzko eztabaida bat antolatuko dute. Halere, AHTaren aurka segituko duela dio Grosclaudek.

Lau urterako

Sei urteren ordez, lau urterako izendatuko dituzte kontseilariak. Hain zuzen, lurralde berrantolaketaren erreformak 2014rako eskualde kontseilarien eta kontseilari orokorren karguen desagerpena dakar. Bi kontseiluetan liratekeen Lurralde kontseilari batek ordezka lezake.

Joan zen igandean egin zuten aurreneko itzulia. Irudian, Angeluko une bat. GAIZKA IROZ

Batera-ren kontsulta bederatzi herritan

Aurreko igandean 117 herritan egin zen gisara, gaur ere «euskal lurralde elkargo baten alde zira?» galdetuko da

J. B. Baiona

Basusarrin, Ahetzen, Arbonan, Ziburun, Azkainen, Senperen, Urruñan, Biriatun eta Bidarten da aldi honetan eginen Batera plataformaren kontsulta. Joan den igandean Ipar Euskal Herriko 117 herritan egin zen gisara, «euskal lurralde elkargo baten alde zira?» galderari erantzuteko parada izanen dute bederatzi herri horietako hautesleek. Bidarten izan ezik, beste zortzi herrietan eskualdeko hauteskundeen kari AHTari buruzko kontsulta zuten joan zen astean, eta gaurko finkatu zuten.

Beste 20.000 hauteslek dute, beraz, Ipar Euskal Herriaren ezagupen instituzionalari buruz adierazteko parada, gaur. Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako lau herrietarik hirutan antolatuz, guztira hautesleen %91,54k daukate adierazteko aukera.

Orain arte, 20.000 boz alde

Gaur adieraziko diren herritarren iritzia eskas bada ere, Batera-ren bozeramaile Jakes Bortairu «poziko» da. Hain zuzen, aurreko igandean, 28.000 hauteslek iritzia eman zuten euskal lurralde elkargoaz; hau da, hautesleen %16,5ek. Horien artean aldekoak %78,34 izan dira. Erran nahi baita 22.000 bozkatzaile euskal lurralde elkargo baten alde direla. Ezetz bozkatu dutenak, aldiz, %18,94 dira.

Ipar Euskal Herriaren ezagupen instituzionalaz galdetzea aldarrikatzen du plataformak. Frantziako Estatuaren erantzunik ez zela ikusirik, 2009ko uztailean, Batera-k kontsultaren antolatzea erabaki zuen.

18. irudia. Albiste osagarria (*Berria*, 2010/03/21).

2 | berria | 2011ko martxoaren 30a, asteazkena

Harian

Arartekoa → Urteko txostena

Legebiltzarraren esku utzi du Arartekoak urteko txostena

Iragan urtean egindako jardunari buruzko txostena Eusko Legebiltzarraren esku utzi zuten atzo EAEko arartekoIñigo Lamarcak eta haren ondoko Julia Hernandezek. Parlamentuko presidente Arantza Kirogak egin zien harrera. Urtero egin behar du jardunaren txostena Arartekoak, eta legebiltzarrari eman.

Lamarca, Kiroga eta Hernandez, atzo. A BASTIDA

6.446

■ Arartekoak laz egindako jardunak. Aurreko urtean baino %3,75 jardun gehiago egin zituen laz Arartekoak. Herritarren kexak 1.859 izan ziren. Udalen aurka jarri dituzte gehienak (%42); atzetik dira Jaurlaritza (%35) eta Araba, Bizkai eta Gipuzkoako aldundiak (%16).

Arartekoak egoki egiten du lan, hamarretik zortzirentzat

EAEko Arartekoak egindako lana zer moduzkoa iruditu zaion galdetuta, egokitzat jotzen dute hamar herritarretik zortzik. %47ren ustez, oso egoki egiten du lan; %33ren iritzian, nahiko ondo. Hamarretik batek, ostera, uste du oso desegoki jarduten duela Arartekoak, eta %4k, ez dela behar bezain ongi aritzen.

Etorkinei buruz uste okerrak hedatu direla dio Arartekoak

Atzerritarrak delinkuentziarekin eta gizarte laguntzen gehiegikeriarekin lotzen ari direla ohartarazi du Lamarcak, urteko txostenean

Diskriminazioaren kontra egiteko baliabide eraginkorrak galdegin dizkie erakundeei

Garikoitz Goikoetxea

Krisi ekonomikoak sortutako egoerek baldintzatutako txostena aurkeztu du EAEko arartekoIñigo Lamarcak, 2010eko jarduna hizpide hartuta. Etorkinei eta gizarte laguntzei buruz dauden uste okerrak salatzeari eman dio garrantzia, iritzi ezkorra hedatzen ari dela ohartarazita. «Alarmagarria» hitza erabili du. Krisi garaian gogortu egin da ezinikusia. Dirurik eza etxebizitzarako eskubidea urratzen ari dela ere nabarmendu du Lamarcak. Eta urtero aipatu behar izaten dituen arazoak ere hizpide ditu: berdintasunari lotutakoak, hizkuntz eskubideen ingurukoak eta atxilotuek inkomunikazioan jasotzen duten tratuari buruzkoak, kasu.

1. Etorkinak

Herritarrek atzerritarrekiko gero eta ezinikusi handiagoa dutela salatu du urteko txostenean EAEko Arartekoak: «Ikerketa zorrotzetan oinarrituta ez dagoen diskurtso sozial bat zabaldu da herritarren artean; alegia, immigrazioa delinkuentziarekin lotzen da, eta zerbitzu publikoak eta laguntzak gehiegikeriaz eta iruzur gisa erabiltzen dituztela esan ohi da». Ez da kontu berria hori, herritarrek uste izatea immigranteek aprobetxakeriaz jokatzen dutela gizarte laguntzekiko eta. Datua: Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako herritarren %68,8k uste dute etorkinek onura handiegiak lortzen dituztela gizarte babesetik. Ikuspegik azaleratu zuen hori, iazko barometroan. 2007an baino zortzi handiagoa da ehunekoa.

Herritarrek iritzen diote laguntza gehiegi jasotzen dituztela etorkinek, eta horiek kentzera jo dute erakundeek. Lamarcak jakinarazi du aurrekoetan baino kexa gehiago jaso dituztela gizarte laguntzei buruz. Jasotzaileen salaketak izan dira, tramitazio garaia behar baino gehiago luzatu delako edo laguntzak kendu egin dizkietelako. Kontu hartzeko eskatu die arartekoak erakundeei: egiteko «agudo» laguntzak emateko paperak eta behar bezala zuritzeko laguntzak kentzeko arrazoia.

Diskurtso arrazistarekin kezka du Arartekoak, eta hori nondik sortzen den aztertzeko eskatu du. Kasua jarri du, laguntzen iruzurrei buruzkoa. Herritarrek jotzen dute pentsatzera etorkinek tranpa egiten dutela eskarietan. «Iruzurrei buruzko informazioek ekidin behar dute bizi duinerako eskubidearen jabe diren herritarrak estigmatizatzea»; dio Arartekoak. Aurre egiteko eskatu du: «Atzerritarren garapena eta integrazioa zailtzen dituen elementu bat da baliabide eraginkorrik ez egotea diskriminazioaren kontra borrokatzeko». Immigrazioaren EAEko III. Plana onartzeko dagoela salatu du, eta Heldu zerbitzua kendu egin dutela gogorarazi.

2. Etxebizitza

Baliabide urrieneko herritarren aukerak gutxitu egin dira krisiaren ondorioz, eta horrek isla izan du etxebizitza izateko eskubideari erreparatuta, Arartekoaren esanetan. Erakundeek hartutako neurriak ez dira aski, haren ustez: «Alokairu babestuari zuzenduta ko baliabide publikoak handitu behar dira, baita errenta arrazoizkoagoak eta egonkortasuna bermatuko dutenak izatea ere». Bi batean egitea proposatu du Lamarcak: gizarte politikak uztartzea etxebizitzari buruzkoekin. Bidenabar, gogorarazi du gizarte bazterkeriak arrastoa baduela etxebizitzari dagokionez ere, ijitoen zailtasunak aintzat hartuta. «Krisia aukera gisa hartu behar da, etxebizitza programak eta politikak berritzeko».

3. Berdintasuna

«Etengabe eta ia bata bestearen atzetik» ari da jasotzen Arartekoa gizonen eta emakumeen parekotasuna urratzen duten egoerei buruzko salaketak. Jaiei erreparatu die aurten, ospakizunetan andrek leku gutxiago dutela nabarmentzeko. Tradizioa, hori dute aitzakia emakumeak baztertzeko, eta hori irauli nahi du Lamarcak: «Nahitaezkoa da tradizioak egokitzea eraikitzen ari garen berdintasunezko errealitatera». Andrek bazterzten dituzten jaiei zergatik ematen dieten babesa, kontu hartu die Arartekoak erakundeei: «Beharrezkoa da babesik ez ematea. Erakunde publiko guztiek aktiboki eta modu erabakigarrian esku hartu behar dute berdintasunezkoak diren jaiak sustatzen». Egitekoa jarri die, hartara: «Ez ahalbidetzea berdintasunezkoak ez diren jaiak antolatzea, eta horiek antolatzen ez laguntzea».

Gizonez eta andreez ari delarik, zaintza partekatuaren alde azaldu da Arartekoa, eta «pentsaera aldaketa bat» egiteko eskatu du, umeak zaintzea bikoteko bi kideen zeregina dela gogorarazita. Legeari dagokionez, pausoak ematera egin du dei, banandutako gurasoen artean «erantzukizun partekatua» egikaritzeko.

Haurren eta beste senideen zaintza lanarekin uztartzeko modua ere galdegin du Arartekoak. Erakundeek atzera bota izan dituzte lana eta familia batzeko egindako eskariak. Kasuak aztertzera egin du dei Lamarcak, eta, gutxienez, bateratze maila handiagoa lortzen saiatzera. Langile autonomoek lana eta sendia uztartu ahal izatea ere eskatu du.

Eta berdintasuna eskatu du familia ereduen artean ere, haien desberdintasunak gorabehera. Bikote homosexualek paperak egiteko zailtasunak dituztela salatu du Arartekoak, egokitu gabe daudelako homosexualen familia ereduetara. Lesbiana bikoteen kasuan, berriz, ugalketaren bidez jaiotako umeekin dute ezintasuna, amatasuna nori egotzi ez dakitelako maiz. «Egoera anbiguoa da», ziurtatu du Lamarcak.

4. Hezkuntza

Arartekoak kezka azaldu du 2 urte baino gutxiagoko umeentzako leku kopuruagatik: «Behar bestekoa hezkuntza eskaintza ziurtatu behar da», esan du. Ezintasunak dituzten ikasleen beharrak ere eskolan aurreikusi behar direla adierazi du, eta umé horiek integratzen ahalegindu behar dutela ikastetxeek. Aztertzeko proposamen bat ere agin du, gurasoek lana eta familia uztartzeko: eskola egutegia luzatzea. Gai hori kontuan hartzera egin du dei.

5. Hizkuntz eskubideak

Erakundeetan euskaraz ezin izan dutela aritu eta, kexak jaso ditu aurten ere Arartekoak. Teknologia berriak ezarri izanak ez du egoera konpondu, gainera: «Paradoxa ematen badu ere, administrazio zerbitzuak informatizatzeak arazoak sortzen ditu administrazioarekiko harremana euskaraz izan nahi duten pertsonentzat». Egoera konpontzeko betebeharra duela gogorarazi die Lamarcak erakundeei: «Ez da zilegi tresna hori, herritarrei zerbitzu hobea bermatu beharrean, herritarren eskubideak gauzatzeraloan eragozpen izatea». Justizia administrazioak, Herrizaingo Sailak eta osasun alorrak jaso dute salaketa gehien. Herritarrek euskaraz edo gaztelaniaz aritzeko modua behar dutela dio Arartekoak. Erakundeek erantzun, «modu mailakatuan» lortu behar dela hori. «Planteamendua izan liteke zentruzkoa, baldin eta 'modu mailakatuan' aplikatzea ez bada gauzak denboran berez aldatuko direla pentsatzea. Gauzak aldatzeko, esku hartu behar da», adierazi du Lamarcak.

6. Ingurumena

Ingurumen gaiei buruzko informazioak gardenagoa izan behar

Xenofobiaren aurka, manifestazioa

19. irudia. Laburpen-albistea (*Berria*, 2011/03/30).

'Bateraguna auzia' →

→ Kronologia

Atzera bueltarik gabe

Duela ia bi urte atxilotu zituzten *Bateragune auziko* auzipetuak. Bi urteotan, ordea, haiek hasitako bideak aurrera egin du ezker abertzalean.

▪**2009-10-13.** Arnaldo Otegi, Rafa Diez, Rufi Etxeberria, Sonia Jacinto, Arkaitz Rodriguez, Miren Zabaleta, Txelui Moreno Amaia Esnal eta Mañel Serra atxilotu zituen Espainiako Poliziak. LABen egoitzan atxilotu zituzten haietako batzuk. Espainiako Auzitegi Nazionaleko Baltasar Garzonek agindu zuen polizia operazioa, Batasunaren Mahai Nacional berria osatzea egotzita. *Bateragune* izena jarri zion Garzonek eratu nahi zuten egitura berriari. Ordu batzuk lehenago zabaldu zuten eztabaidarako txostena atxilotuek.

▪**2009-10-16.** Arnaldo Otegi, Rafa Diez, Sonia Jacinto, Arkaitz Rodriguez eta Miren Zabaleta kartzelatzeko agindu zuen Espainiako Auzitegi Nazionaleko epaile Baltasar Garzonek. Rufi Etxeberria eta Ainara Oiz aske utzi zituen, badaezpadako neurririk ezarri gabe. Mañel Serra, Amaia Esnal eta Txelui Moreno-ri, berriz, hamarna mila euroko bermea ezarri zien aske geratu ahal izateko.

▪**2009-10-17.** Manifestazio erraldoia izan zen Donostian, atxiloketak salatzeko.

▪**2009-10-20.** *Fase politikoaren eta estrategiaren argipena* izenburuko txostena banatzeari ekin zion ezker abertzaleak. *Gara*-k laburpena kaleratu zuen.

▪**2009-11-08.** Rafa Diez, Arnaldo Otegi, Miren Zabaleta, Arkaitz Rodriguez eta Sonia Jacinto presoek gutun bat idatzi zuten eztabaidarako txostenaren alde egiteko.

▪**2009-11-14.** Ezker abertzaleak ageraldi jendetsua egin zuen Altsasun, prozesuaren oinarriak laburbildu eta borondateak adierazten zituen agiria aurkezteko. Prozesua garatzeko, «solik bide politiko eta demokratikoak» erabiltzearen alde agertu zen. Elkarrizketari begira, *Mitchell printzipioak* bere egin zituen.

▪**2010-01-09.** *Bateragune* osatzea egotzita bederatzi lagun auzipetzeko eskatu zuen Fiskaltzak: Arnaldo Otegi, Rafa Diez, Arkaitz Rodriguez, Miren Zabaleta, Sonia Jacinto, Rufi Etxeberria, Amaia Esnal, Txelui Moreno eta Mañel Serra. «Estrategia subiranista aurrera eramateko bloke bat» sortu nahi izatea eta «talde terroristako kide» izatea leporatu zien.

Barne eztabaidaren oinarriak aurkeztu zituen ezker abertzaleak, Altsasun, 2009ko azaroan. J.MARTINEZ / ARGAZKI PRESS.

▪**2010-01-25.** Otegi, Diez, Moreno, Jacinto, Zabaleta, Rodriguez, Serra eta Esnal auzipetuz autoa kaleratu zuen Garzonek. Auzitik aparte utzi zuen Etxeberria. Batasuna ordezkatzeko Bateragune talde politikoa osatzen ari zirela eta prozesu hori guztia ETAk zuzentzen zuela egotzi zien epaileak.

▪**2010-02-11.** Zortzi auzipetuak Auzitegi Nazionalean izan ziren, Garzonen bulegoan, auzipetze autoa jasotzen. Ezker abertzaleak salatu zuen auzi hori ordurako abiatuta zegon barne eztabaida «ahalik eta gehien baldintzatzeko» zela, baina halakorik ez zela gertatuko ohartarazi zuen.

▪**2010-02-14.** Barne eztabaida amaitutzat eman zuen ezker abertzaleak, eta *Zutik Euskal Herria* agiria kaleratu zuen. Altsasuko Adierazpenaren ildoak barneratu, eta indar biliketa independentistaren aldeko deia egin zuen.

▪**2010-04-26.** Rafa Diez aske utzi zuten baldintzapean, «egoera pertsonal-familiarengatik». 30.000 euroko bermea ordaindu zuen, eta, besteak beste, politikan aritzeko baldintzak ipini zizkion Garzon epaileak: «ETAk zuzendutako konplexu terroristarekin lotura duten ekimenetan» ezin zuela parte hartu.

▪**2010-06-25.** Espainiako Auzitegi Nazionalak atzera bota zituen Arnaldo Otegi, Rafa Diez, Miren Zabaleta, Arkaitz Rodriguez, Sonia Jacinto eta Txelui Moreno ezker abertzaleko kideek beren auzipetzearen aurka jarritako helegiteak.

Bateragunekoei babesa emateko manifestazioa Donostian. A. CARELLADA / ARP

▪**2010-09-14.** Pablo Ruz Espainiako Auzitegi Nazionaleko epaileak bukatutzat eman zuen *Bateragune sumarioa*. Kasua auzitegiko laugarren zigor salara igorri zuen, eta epaiketara bidean jarri.

▪**2010-09-25.** *Bake bidean. Aterabide demokratikoen akordioa* izeneko agiria sinatu zuten politika, gizarte eta sindikatuetako 28 eragilek. Besteak beste, ezker abertzaleak, EAk, Aralarrek, Alternatibak, Abertzaleen Batasunak eta LABek. Bai ETAri bai Espainiako Gobernuari pausoak emateko eskatu zieten. ETAri gaidegin zioten nazioarteko komunitateak egiaztatzeko moduko su-eten iraunkorra eta aldebakarrekoa ematea, jarduera armatua behin betiko uzteko borondatearen erakuste gisa. Giza eskubide guztien aitorpena egin zuten, eta Alderdi Politikoen Legea indargabetzeko eskatu zuten.

▪**2010-10-17.** Arnaldo Otegiri John Carlin kazetariak eginiko elkarrizketa argitaratu zuen *El País*-ek. Hona erantzun batzuk: «Armek, arma guztiek, behin betiko desagertu behar dute ekuazio politikotik»; «independentziara daraman bide bakarra dago: bide baketsu eta demokratikoetatik doana. Indarkeria armatua ez dugu ikusten estrategia independentistarekin bateragarria»; «Ustez kale borroka ekintzak izan direnen aurrean ezker abertzaleak erakutsi duen desmarkeak garbi uzten du bide politiko eta demokratikoekiko konpromisoa». Atentaturen bat balego ezker abertzalea horren aurka jarriko litzatekeela ere argitu zuen.

▪**2010-11-27.** Ezker abertzaleko 300dik gora lagun bildu ziren Iruñean, alderdi politiko berriaren eta haren barne antolamenduaren oinarriak ezagutarazteko. Alderdien Legearen eskaerak beteko zituela iragarri zuen ezker abertzaleak, eta indarkeriarentzat «inongo tarterik» ez dagoela argi utzi zuen.

▪**2010-12-28.** ETA indarkeria uzteko prest dagoela esan zuen Arnaldo Otegik Ameriketako Estatu Batuetako *Wall Street Journal* egunkariak argitaratutako elkarrizketa batean. Otegik idatziz erantzun zien galderei, Logroñoko kartzelatik. Ezker abertzalearen jokabidea irmoa eta atzeraezina dela nabarmendu zuen. Haren iritziz, «laster» izango diren «gertakarien» ondorioz, Espainiako Gobernuak «presio handiagoa» izango du elkarrizketa hasteko.

▪**2011-01-04.** Fiskaltzak hamarna urteko espetxe zigorra eskatu zuen *Bateragune auziko* zortzi auzipetuentzat.

▪**2011-04-26.** Angela Murillo auzitik aparte utzeko eskaera atzera bota zuen Auzitegi Nazionalak. Partziala izatea egotzita eskatu zuen defentsak magistratua apartatzeko, Gatzaren omenaldian hitz egin zuenean terrorismoa goratzea egotzita zigortu zuen auzian ez zela inpartziala izan ebatzi zuelako Auzitegi Gorenak.

▪**2011-05-17.** Auzitegi Nazionalak atzera bota zuen Otegi, Rodriguez eta Jacinto auzitik ateratzeko eskaera. Hirurei leporatzen zaiena beste auzi batzuetan epaitu dutela edota akusazio bera eginda beste auzi batzuetan auzipetuta daudela argudiatu zuen Jone Goirizelaia defentsa abokatuak. Auzitegi Nazionaleko 5. Instrukzio Auzitegiko magistratuentzat, baina, auzi horiek eta *Bateragune auziak* «ez dute zerikusirik».

▪**2011-06-27.** *Bateragune auziko* epaiketa hasi zen Auzitegi Nazionalean, zortzi epaiturekin: Arnaldo Otegi, Rafa Diez, Sonia Jacinto, Arkaitz Rodriguez, Miren Zabaleta, Txelui Moreno, Mañel Serra eta Amaia Esnal.

▪**2011-07-02.** Milaka lagunen manifestazioa Donostian eskubide zibil eta politikoen alde, eta *Bateragune auzian* absoluzioa emateko eskatuz.

▪**2011-07-07.** Epaiketa amaitu zen, eta auzia epaiaren zain geldi tu zen.

▪**2011-09-16.** Otegi, Diez, Jacinto, Rodriguez eta Zabaleta kartzelara zigortu zituen Auzitegi Nazionalaren epaiak.

20. irudia. Albiste kronologikoa (*Berria*, 2011/09/17).

10 || berria || 2010eko urtarrilaren 5a, asteartea
Harian › Euskal Herria

Lokarrik dio sentsibilitate guztien arteko «akordio zabala» behar dela

«Bizikidetza egonkorra» lortzeko, herritarrei galdetzea beste biderik ez dagoela uste du Paul Riosek

Edume Begiristain



Paul Rios Lokarriko koordinatzailea. JON HERNAEZ / ARGAZKI PRESS

Lokarri akordioaren eta kontsultaren aldeko herritarren sareak uste du abertzaleak direnen eta ez direnen artean «ahalik eta akordio zabalena» lortu behar dela baketzerako. Paul Rios koordinatzailearen esanetan, indar subiranisten estrategietatik harago, euskal gizartearen gehiengoarekin bat egingo lukeen akordioa landu beharko litzateke sentsibilitate guztien artean. Indar abertzaleen arteko batuketa «zilegi» izanda ere, ezinbestekotzat jo du Euskal Herrian dauden askotariko sentsibilitateak behin betiko ados jartzea.

Riosek Radio Euskadin adierazi duenez, iragan larunbatean euskal presoen eskubideen defentsan Bilbon egindako manifestazioa «plurala» izan zen, eta horrek agerian utzi du askotariko erakundeek bidea egin dezaketela elkarrekin. Haren aburuz, gisa horretako manifestazioek alderdien arteko konfiantza giroa sortzen dute, eta bide horrek etorkizunean «fruituak» eman ditzake.

Haatik, Eusko Jaurlaritzaren politika ez doa norabide berean, Lokarriko buruaren irudiko. Haren esanetan, «etsipenaren» gobernua da Patxi Lopezena, uste duelako giza eskubideak murriztuta eta euskal gizartearen zati bat baztertuta lor daitezkeela bakea eta bizikidetza. Riosen arabera, euskal gizartea hiru taldetan zatitu nahi du Gobernuak: indarkeria deslegitimatzen dutenak, hura babesten dutenak eta Jaurlaritzarekin kritikoak izateagatik indarkeria justifikatzea leporatzen diotenak. Azken talde horretan sartu du Jaurlaritzak Lokarri, eta, hori dela eta, bien arteko harremanak ez dira onak une honetan, haren hitzetan.

> ETAk pausoa eman baino lehenago eman beharko du ezker abertzaleak berea»
> PAUL RIOS
> Lokarriko koordinatzaile nagusia

Nolanahi ere, Lokarriko koordinatzaileak argi dauka bakea eta bizikidetza herritarren erabakia errespetatuz etorriko dela. Etorkizunean «bizikidetza egonkorra eta eraikitzailea» lortu nahi bada, herritarrei galdetzea beste biderik ez dagoela nabarmendu du Riosek. Haren ustez, euskal herritarrek erabakitzeko eskubidea dute, eta ziur da Euskal Herrian nahikoa «masa kritikoa» dagoela herri kontsulta batek parte-hartze handia eta arrakasta izan dezan. Gainera, Lokarriko koordinatzaileak uste du kontsulta egiteak «logika demokratikoa» duela: «Gizarteak une honetan duen erronka da bakea eta bizikidetza lortzea».

ETAren indarkeria

Ezker abertzalearen barne hausnarketaz ere mintzatu da Lokarriko burua: «Ezker abertzalea aro berri bat ireki nahian dabil, baina badaki horretarako ezinbestekoa dela indarkeriaren amaieraz adierazpenen bat egitea». Indarkeria egonda estrategia berri bat abiatzea ez dela bideragarria esan du Riosek, Brian Currin bitartekariaren hitzak gogoan hartuta. Hala, ezker abertzaleari eskatu dio estrategia berri baten aldeko apustua egiteko. «ETAk pausoa eman baino lehenago eman beharko du ezker abertzaleak berea».

Lokarriko koordinatzailearen iritziz, bake prozesu berriak arrakasta lortu nahi badu, ezinbestekoa da herritarrek oinarriak jartzea, prozesuari buruzko iritzia «demokratikoki» adierazita. Hori horrela, urtebeteko epean bake prozesu berri hori martxan jartzeko itxaropena agertu du.

ETA desagertuta ere, abertzaleen batuketa ez du ontzat jotzen Iñaki Galdosek

Nazionalismo instituzionalari «bultzada» eman nahi diotela dio H1eko presidenteak

Erredakzioa

Iñaki Galdos H1 Hamaikabat alderdiko presidenteak erabat alboratu du alderdi abertzaleen arteko indar metaketa. *La tristorra digital* blogean argitaratutako elkarrizketan, Galdosek berretsi du H1ek ez duela bat egiten polo subiranistarekin, eta hainbat arrazoi eman ditu aurkako jarrera azaltzeko. Besteak beste, adierazi du ETAren indarkeria desagertuta ere, abertzaleen arteko elkarlana ez lukeela begi onez ikusiko, «bitartekoekin» ez ezik, «helburuekin» ere ez duelako bat egiten. Horrez gain, Galdosek kritikatu du polo subiranistaren helburu nagusiak ezker abertzalea berriro osatzea eta nazionalismo historiko eta instituzionala «ahultzea eta baztertzea» direla.

Galdosek nabarmendu du H1en zeregin nagusia dela gidaritza soziala eta politikoa galdu duen abertzaletasun instituzionalari «bultzada» ematea. Nafarroan NaBai alderdiak egiten duen lanaren adibidea jarraitu nahi du H1ek Araba, Bizkai eta Gipuzkoan, eta gehiengo sozialarekin batera politikaren «erdibidea» izan nahi du, Galdosen esanetan. Gainera, pozik dago alderdi berriaren bilakaerarekin: alderdi «berritzailea» dela dio, eta datozen hilabeteetarako ekimen berriak iragarri ditu.

libre!
munduan libre bizi ahal izateko Egunkaria libre munduan bizi ahal izateko
Arte plastikoen alorrekoen elkartasuna
Egunkariako auzipetuei
deialdi irekia
ELKARRETARATZEA
Urtarrilak 8, ostirala, 12:00etan, Donostiako bulebarrean
Egunkaria libre!
www.egunkaria.info

21. irudia. Albiste diskurtsiboa (*Berria*, 2010/01/05).

Harian ›

Martxoak 8 →

2

▪ **Emakume eta gizonek etxeko lanetan ematen duten orduen aldea.** Eustatek plazaratu berri dituen datuen arabera, emakumeek egunero, batez beste, gizonekin alderatuz, bi ordu gehiago ematen dituzte etxeko lanetan. Aldea, hala ere, apurka-apurka behera ari da.

25 urte bete ditu IPESen emakumeen liburutegiak

Mende laurdena igaro da dagoeneko, Iruñeko IPES Gizarte Ikerketarako Talde Eragileak emakume gaietan espezializatutako liburutegia ireki zuenetik, eta atzo ospatu egin zuten. Egun, 11.000 bibliografia erreferentzia baino gehiago dituzte katalogatuta, eta urtean mailegu gisa 1.300 liburu inguru ematen dituzte.

Agerraldia, atzo, IPESen. JAGOBA MANTEROLA / ARP

Emakume transexualen egoeraz ohartarazi dute

Gay, lesbiana eta transexualen elkarte Gehituk emakume transexualen egoera larriaz ohartarazi nahi izan du. Diskriminazio bikoitza jasaten dutela azaldu dute, eta, era berean, gizarte bazterkeria jasateko arrisku bikoitza izaten dutela. Emakumeoi enplegurako sarbidea errazteko eskatu du.

Hasi da emakumeen martxa

Manifestazioa jendetsua izan zen, atzo, Iruñean Emakumeen Mundu Martxa hasteko. JAGOBA MANTEROLA / ARGAZKI PRESS

Emakumeen Mundu Martxak Iruñean hasi du Euskal Herrian egingo duen bidea; aste osoko planaren lehen urratsa izan da

Ekimen ugarik gogorarazi dituzte emakumeen oinarrizko eskubideak

Emakumeen eskubideak aldarrikatu zituzten atzo, Euskal Herriko hiri eta herrietan, eta Emakumeen Mundu Martxarekin bat egin zuten milaka lagunek. Nazioarte osoko egitasmo hori atzo hasi zen, eta martxoaren 18a bitartean ekimen ugari egingo ditu mundu osoan. Euskal Herrian ere izango du bere ibilbidea datorren larunbata bitartean, eta, atzo, hasiera ofiziala, Iruñean izan zuen. Gazteluko plazan akelarre gisako bat egin zuten, ekimena hasteko. Ezberdintasunak aldatzeko «borrokatzera» deitu zituzten emakumeak: «Zuek izan behar duzue justizia eta berdintasuna gidatuko duzuenak». *Martxan jarraitzeko 2010 arrazoi* dituztela zioen pankartaren atzean ibili zituzten Iruñeko karrikak. Mundu Martxa presente egon zen atzo ilunabarrean Euskal Herrian egin ziren gainerako manifestazioetan ere. Hiriburu bakoitzean, Emakumeen Mundu Martxarako aurten zehazturiko lau ildoetako batekin egin zuten bat manifestariek.

Baionan, esaterako, elikadura burujabetza izan zuten aldarri nagusi, horren faltak milaka emakumeren bizitza nekeagoa bihurtzen duela ohartaraziz. Herriko Etxearen aitzinean, hamarnaka emazte elkarretaratu ziren *Zutik emazteak* zioen banderolarekin. Lapurdin bertze hainbat ekimen ere egin ziren martxoaren 8aren karietara, Hendaian eta Hazparnen, esaterako.

Bilboko manifestazioaren amaiera, bengala moreekin. L.JAUREGIALTZO / ARP

Baionan elkarturiko emazte talde bat. GAIZKA IROZ

↓ **Egitaraua**

MUNDU MARTXA, GAUR

▪ **Nafarroa.** Gazteluko plazatik abiatuko da 10:00etan, Iruñetik. Altsasu eta Lizarratik ere igaroko da.
▪ **Araba.** Aguraindik pasatu ostean, 19:00etan iritsiko da Gasteizera, eta Arantzabela ikastolan harrera egingo diote, bizikletan. Ondoren, Andre Mari Zuriaren plazan egingo diote harrera.

Bilbon, berriz, lan prekarietateak, batez ere emakumeak erasaten dituela nabarmendu zuten. *Prekarietateari aurre egiteko emakumeak martxan* izan zen manifestazioko pankarta nagusiaren leloa. Feminismoa guztiz «beharrezkoa» dela nabarmendu zuten, oraindik ere eskubide asko lortzeko bidean daudela nabarmenduz. Moiua plazan, emakume torturatuen egoera irudikatu eta gaitzetsi zuten. Bengala moreei su emanez amaitu zuten mobilizazioa.

Gasteizko protestan, emakumeen sexu eta ugalketa eskubideak ez daudela bermatuta salatu zuten. *Nora non zaude?* eta *Patriarkatuaren aurka* zioten lelo artean egin zuten bidea, *Gure gorputza gure erabakia* zioen pankartaren atzean. Mobilizazioa Andra Mari Zuriaren plazan bukatu zuten, antzerki bat eginez, festa giroan.

19:30ean abiatu zen Donostiako manifestazioa, Bulebarretik. Emakumeen aurkako indarkeria egungo gizartean dagoen giza eskubideen urraketa larrienetakoa dela salatu zuten. Mobilizazioetan, oro har, ugariak izan ziren genero indarkeriaren ondorioz hildako emakumeak gogoratzeko oihuak.

Testua Naiara Elola, Aitor Renteria, Jon Rejado eta Maite Asensioren artean idatzi dute.

22. irudia. Albiste espaziala (*Berria*, 2010/03/09).



Satish Nambiar, Ram Manikkalingam eta Fleur Ravensbergen, Nazioarteko Egiaztatze Batzordekoak. LUIS TEJIDO / EFE

Ezezkoan arrokatuta

Espainiako Barne ministroak esan du ez duela ETArekin «negoziatuko» haren desarmatzea

Koldo Aldabe

Espainiako Gobernuak entzungor egin dio NEB Nazioarteko Egiaztatze Batzordeak alde guztiei egindako eskariari. Jarrerak malgutzea eta harremanak hastea galdegin zuen NEBk herenegun, Bilbon, Euskal Herriko alderdi politiko eta eragileekin egindako bi eguneko bilera errondaren amaieran. Espainiako Gobernua, aldiz, Barne ministroa buru dela, ezezkoan arrokatu da. NEBko kide eta egiaztatzaileen bozeramaile gisa diharduen Ram Manikkalingamek aipatutako bertutea erabili beharko da Espainiako Gobernuak urratsa egiten ez duen bitartean: pazientzia.

NEBren lana gutxiesteko herenegun Espainiako Gobernuak eta Barne Ministerioak esandakoek NEBk zabaldutako mezuaren aurretik idatzitako gidoiak ziruditen. Atzo, Barne ministro Jorge Fernandez Diazek bazekien NEBk esan zuela ETAk gobernuekin hitz egin nahi duela presoez, desarmatzeaz, egitura militarrak desegiteaz eta Euskal Herria desmilitarizatzeaz. Herenegun bezala erantzun zuen, ordea; ezezkoa ahoan: «Ez dugu desarmatzea negoziatuko terroristekin».

Eta hor egon liteke Espainiako Gobernuaren hutsa, NEBk ez baitu aipatu negoziatzerik, hitz egitea baizik; izan ere, negoziaziorik ez badago ere, beste aldearekin hitz egin beharko du talde armatu bat desarmatuko bada eta egiturak desegingo baditu, bi gauzak modu ordenatuan eta zentzuzkoan egiteko.

Espainiako Barne Ministerioak atzo bertan esan zuen ETAk arma eta lehergailu ugari dituela oraindik, eta Frantziako eta Espainiako poliziek «kontrolatuta» zeukaten ETAren ustezko «armategi handi batera» joan zirela duela gutxi, baina ordurako ETAk armak «kendu» zituela handik. Barne estatu idazkari Ignacio Ulloak esan zion hori berri agentzia bati. Gehiago ere esan zuen: ETAko «hamar edo hamabi» kide «operatibo» daudela eta «hamabostean behin» autoz aldatzen dutela: «Badakigu logistika mugimendu garrantzitsu bat dagoela, hainbat kidek atentatuak egiteko gaitasun nabarmena dutela eta mugimendu handia dabilela», esan zuen. «Ez dira une batez ere denbora galtzen ibili, eta armak eta lehergailuak dituzte atentatuak egiteko». Jendea oraindik «ETAn sartzen» ari dela ere esan zuen.

Batetik, ETA «garaituta» dagoela esaten ari da Madril; bestetik, ETAren jardun armatua behin betiko amaitu den ustea erakusten du, adibidez, ehunka laguni orain arte zeukaten bizkartzainen babesa kenduta; eta, azkenik, esaten ari da ETAk gaitasun operatiboa, armak eta taldean sartzeko prest dagoen jendea dauzkala eta, nahiz eta zelatatzen dituzten, huts egiten ari direla armak atzemateko orduan; hain zuzen ere, ETAk desarmatzeaz eta egiturak desegiteaz eskaintza egin eta Espainiako Gobernuak ezezkoa eman duenean.

Manikkalingami hala galdetu zioten herenegun: ea ohikoa den gobernu bat talde armatu batekin harremanetan ez hastea, talde horrek hemezortzi hilabete daramatzanean su-eten egiaztagarri batekin eta sei hilabete igaro direnean esan zuenetik jardun armatua behin betiko utzi duela; eta Manikkalingamen erantzuna motza eta zehatza izan zen: «Uste dut garaia iritsi dela harremanetan jar daitezen».

→ Laburrak

Ezker Anitzak Sanchez izendatu du Bizkaiko buru

BILBO › Xabier Sanchez da Ezker Anitzaren Bizkaiko koordinatzaile berria. Atzo batzarra egin zuten militanteek Santurtzin, eta Sanchez hautatu zuten koordinatzaile. Ezker Anitzeko Bizkaiko Kontseilu Politikoa ere aukeratu zuten.

PSE-EE: «Uda aurretik onartuko da Udal Legea»

BILBO › PSE-EEk uda honetarako onartua ikusi nahi du Udal Lege berria, eta uste du lortuko dutela hori, atzo Jose Antonio Pastor eledunak adierazi zuenez. Jaurlaritza bultzatzen ari den lege berriak «argi eta garbi» zehaztuko ditu udalen eskumenak, eta udalek «finantzaketa nahikoa» izango dute eskumen horiek garatzeko, PSE-EEko ordezkariak azaldu zuenez.

Ortuzar: «Hiru urte alferrik galdu ditu Jaurlaritzak»

BILBO › EAJko Bizkai Buru Batzarreko lehendakari Andoni Ortuzarrek uste du Patxi Lopezek agintean daramatzan hiru urte hauek «alferrik» galdu direla «euskal autogobernuarentzat». Gainera, Radio Euskadiri emandako elkarrizketan, Ortuzarrek esan du sozialistek «Euskadiko kapitalaren zati handi bat alferrik xahutu» dutela, eta zorpetuta utzi dutela Eusko Jaurlaritza.

23. irudia. Jarraipena duen albistea (*Berria*, 2012/05/06).

4.2. SARRERA EDO LEHENENGO PARAGRAFOA

Tituluaren ostean, sarrera edo albistearen lehenengo paragrafoa da elementurik garrantzitsuena, albistearen egituraren baitan. Informazioaren elementu nagusiak biltzen ditu sarrerak. Elementu beregaina da, bai gramatikaren ikuspuntutik baita informazioaren ikuspuntutik begiratuta ere. Sarrera ez da tituluaren edo azpitituluaren jarraipena, eta ez du tituluaren beharrik ulertu ahal izateko. Sarrera ez da albistearen laburpena, ez nahastu goiburuko elementu den *sarreratxo*arekin. Sarreran jarriko da tituluan aurreratutakoa. Hots, sarrerak eta tituluak bat egingo dute beti.

Testuaren oinarrizko elementuak eskainiko ditu kazetariak sarreran, eta albistearen gorputzean garatuko ditu elementu horiek ondoren. Sarrerak eskaintzen dio irakurleari gertaeraren berri izateko aukera, albiste osoa irakurri gabe.

Hortaz, sarrerak funtzio garrantzitsua betetzen du. Izan ere, albistearen lehenengo paragrafoak bi helburu nagusi bete behar ditu: batetik, albistearen elementu funtsezkoenak irakurleari modu erraz, azkar, argi eta ulergarrian eskaini eta, bestetik, irakurlea bereganatu testua irakurtzen jarrai dezan.

Gertaera edo diskurtso baten ideia nagusia jaso behar du lehenengo paragrafoak eta bertan esandakoa ez da gorputzean berriz errepikatuko. Hots, sarreran aurkeztu dugun ideia nagusiaren inguruko datuak garatuko ditugu albistearen gorputzean, baina sarreran esandakoa errepikatu gabe.

Generoaren arabera, sarrerak ez ditu ezaugarri berberak bete behar. Izan ere, albisteetan informazioa aurkezten da sarreran modu zuzenean. Erreportajeetan, kroniketan eta bestelako interpretazio-testuen sarreren helburu nagusia da irakurlearen arreta erakartzea. Ikus sarrera egiteko modu bi 24. eta 25. irudietan:

Albistea

Garraiolari bat hil zen atzo A-8 errepidean, Zarautz parean (Gipuzkoa), gidatzen zihoan kamioia errepidetik irten eta trenbidera erorita. Suhiltzaileak bertaratu ziren gizona kabinatik ateratzeko, oraindik haren egoera zein zen ez zekitela. Ateratzea lortu zutenean, ostera, hilik aurkitu zuten gidaria. Trailer motako ibilgailu astun bat zen, eta trenbidean geratu zenez, Euskotrenek Bilbo eta Donostia arteko zerbitzua gelditu behar izan zuen. Aurten 34 langile hil dira beharrean ari zirela, eta horietatik zortzi garraiolariak ziren.

Erreportajea

Eguzkia atera baino ordubete lehenago, egunsentiarekin, egiten dute eguneko lehen errezoa musulmanek. Ordurako, baina, lagun asko elkartu da plazan, bakar batzuk gau osoa eman baitute erresistentziaren epizentro horretan, eta beste asko goiz-goizetik bertaratu dira eguna noiz argituko zain, garaipenaren eguna noiz esnatuko zain. Zibilizazio zahar honen historian egun handia baita. Hemerzotzi

egunean hiru hamarkadaz iraun duen diktadura ankerra amaitu du herriak, eta aurreneko aldiz denbora luzaroan demokrazia dute atarian. Hosni Mubaraken erregimena baino ezagutu ez duten gazteak izan dira iraultzaren ardatz, eta orain herriak batera ospatu du garaipena, faraoia bota eta astebetera.

4.2.1. Kazetaritza klasikoaren 5 W-en formula

Sarreran zein datu agertu behar diren erabakitzea ez da beti eginkizun erraza kazetariarentzat. Hildakoak eta zaurituak egon diren gertaeretan, nahiko erraz identifika daitezke tituluak eta sarrerek jaso behar dituzten datuak. Aitzitik, eguneroko informazioetan sarreran aurkeztu behar diren datuen hautaketak zailtasun gehiago planteatzen dizkio kazetariari. Normalean ez baita elementu bakarra nabarmentzen gainerakoen artean. Edozelan ere, datuen hautaketan, kazetariak bere interpretazioa egingo du eta interpretazio horren arabera erabakiko du zeintzuk diren sarreran aurkeztuko dituen elementurik garrantzitsuenak. Behin datuak aukeratuta, hurrengo urratsa izango da datuok nola aurkeztuko dituen pentsatzea eta erabakitzea. Eginbehar horretan, oso lagungarria suertatzen da lehenengo paragrafo hori kazetaritza klasikoan albisteak erantzun ohi dituen 5 galderen (5 W-en) arabera antolatzea: nor(k), zer, non, noiz eta zergatik (**W**ho, **W**hat, **W**here, **W**hen eta **W**hy) galderei erantzuna emanez sarrera sortzea alegia.

Albistearen definizioa gogora ekarriz, gaur egun ez da derrigorrezkoa galdera horiei guztiei batera erantzutea; kazetariak interpretatu eta erabaki behar du zein den galderarik garrantzitsuena, eta horren arabera kontakizuna antolatu, garrantzia gutxien duten elementuak bukaeran jarriz.

Pertsonak eta haiei lotutako gauzak izaten dira albiste gehienen protagonistak. Hortaz, **nor** eta **zer** galderen erantzunek hartzen dute garrantzi berezia, sarreretan. **Zergatik** eta **nola** galderen erantzunek garrantzi berezia hartu ohi dute kazetaritza interpretatiboan. Hala ere, ezin dira ahaztu **zergatik** eta **nola** galderak informazio-kazetaritzan. Azkenik, **non** eta **noiz** galderak erantzun ohi dira —salbu gertakari larrien kasuetan, non lehen mailako bihurtzen diren—. Ordena hori ez da beti ezinbestean bete behar, baina informazio-sarrerak idazten ikasteko oso teknika baliagarria da 5 W-ei erantzunez sarrera moldatzea.

a) Zer:

Ohiko albisteetan, elementu nagusia izaten da, eta beste galdegileak baino maizago agertzen da. Sarrera egokia izan dadin, ezinbesteko elementua da. *Zer* galdegile garrantzitsuena denean, lehenengo paragrafoa galdera horri erantzunez hastea da egokiena (ikus 26. irudia).

Tituluan eta sarreran ZER elementua nabarmentzen da:

Autopsiak baieztatu egin du Ertzaintzaren lehen hipotesia: airera eginiko tiro baten kartutxo zatiak jota hil zen Hondarribiko alardean (Gipuzkoa) ezbeharra izan zuen andrea. Emaitzak esku artean, eta heriotzaren nondik norakoak argiturik, heriotza ondorio duen lesio delitu larria leporatu diote auziagatik inputatua zegoen gizonezkoari.

b) Nor(k):

Giza elementuari egiten dio erreferentzia. Protagonista ezaguna bada, *zer* galdegilea baino garrantzitsuagoa izan daiteke (ikus 27. irudia).

Adibide horretan ere, *nor* elementua nabarmentzen dute tituluak eta sarrerak:

Xalbador eta Xabier Lete goiburua izango du aurtengo ekitaldian Xalbador Egunak, eta, ohi bezala, Urepelen (Nafarroa Beherea) egingo da, urriko bigarren asteburuan, Fernando Aire Xalbador bertsolari zenarekin batera Xabier Lete poeta eta kantari zena ere oroituz eta omenduz. Letek maiz erakutsi zuen Xalbadorrenganako mirespen handia, eta oso ezaguna da haren omenez sortu zuen kantua, Xalbadorren heriotzean izenekoa.

c) Noiz:

Irrati eta telebistan prentsa idatzian baino garrantzi handiagoa izan ohi zuen, egunkari digitalak sortu arte. Gaur egun, edizio digitalak «orainkari» bilakatu dira eta *noiz* galdegilearen menpe daude sarean argia ikusi duten albiste gehienak. Nolanahi ere, prentsa idatzian izan daiteke galdegile garrantzitsuena *noiz* (ikus 28. irudia).

Tituluaren lehenengo hitzak *noiz* galderari erantzuten dio. Sarreran, ordea, hirugarren esaldian agertzen da *noiz* galderaren erantzuna.

Euria, elurra eta hotz handia. Horixe datozen egunetarako iragarpena. Gaur iluntzetik aurrera 500 metrotik behera elurra egin dezakeela iragarri dute meteorologia zerbitzuek. Hori dela eta, alerta horia ezarri du Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailak Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan. Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian ere hotza espero da, eta baita elurra ere Nafarroako zenbait lekutan. Dena dela, herrialdeotan ez dute inolako alertarik ezarri.

d) Non:

Gertakarietan garrantzi handiko datua da lekua. Are gehiago kontuan hartzen badugu hurbiltasuna dela, besteak beste, irakurleengan interesa sortzen duen elementu garrantzitsua. Salbuespenak salbu, *noiz* galdegilea bezala, ez da ohikoa sarrerako lehenengo pasartean *non* galdegilea agertzea (ikus 29. irudia).

Non galderari erantzuten diote tituluak eta sarrerak:

Hondarribiko udaltzaingoak eta Espainiako Poliziak Gipuzkoan ustez droga trafikoan zebilen sare bat desegin dute. Operazioak lau fase izan ditu, eta, guztira, 21 pertsona atxilotu dituzte. Orotara, 3,4 kilo kokaina, 26,2 kilo haxix, 16 gramo marihuana eta 30

mililitro metadona atzeman dizkiete atxilotuei. Horrez gain, narkotikoak garraiatu eta manipulatzeko hainbat material ere konfiskatu dizkiete.

e) Zergatik eta nola:

Kazetaritza klasikoaren 5 galderen eskemari jarraituz, *zergatik* eta *nola* galderen erantzunak albistearen lehenengo edo bigarren paragrafoan agertu ohi dira, ez ordea, lehenengo paragrafoaren hasieran. Aitzitik, egun gero eta ohikoagoa den interpretazio-kazetaritzan bi galdegile horiek garrantzitsuenak bilakatu dira sarreran. Areago, Euskal Herriko kazetari gehienek galdera horien erantzuna sarreran sartu ohi dute (ikus 30. irudia).

Sarrera honetan *nola* galderari erantzuten zaio hasiera-hasieratik:

Zur eta lur geratu ziren otsailaren 11n CADE erakunde ekologistako kideak, Marie-Line Meauxekin egin zuten bileran. Emakume hori Frantziako Gobernuak AHTaren egitasmo berrirako ezarri duen bitartekaria da, eta, CADEren aburuz, nabarmena da egitasmoaren inguruan duen «ezjakintasuna». Talde ekologistako ordezkariek azaldu zutenez, «zenbait informazio garrantzitsu» jakinarazi zizkioten bileran, aurretik antza ez zekizkienak. CADEko eledunen aburuz, esaterako, ez zuen tren zirkulazioari eta zama garraioari buruzko informaziorik.

4.2.2. Sarrera motak

Testuei hasiera emateko modu anitz dago. Sarrera modu batean edo bestean egitea kazeta-generoak agintzen du. Informazio-testuetan erabiltzen diren hiru sarrera mota nagusiak ikusiko ditugu guk hemen:

4.2.2.1. Sarrera zuzena

Albisteetako ohiko sarrera da. Lehen lerrokadetan oinarrizko elementuen berri ematen du. Maiz lerrokada bakarrean kazetaritza klasikoaren bost galderei erantzuten saiatzen da kazetaria. Beste batzuetan, ordea, paragrafo bitan erantzuten die bost galderoi. Sarrera zuzena erabiltzen den testuetan berehalakotasuna duten egintzen berri ematen da. Hortaz, datuen interpretaziorik apenas izaten da.

Ikastaro honetan sarrera zuzena lehenetsiko dugu egiten ditugun ariketetan (ikus 31. irudia).

Tituluak eta sarrerak bat egiten dute.

Gizon bat hil zuen ertzain batek herenegun gauean, Basaurin (Bizkaia). Jaurlaritzako Herrizaingo Sailaren arabera, lapurra zen gizonezkoa, eta Poliziarengandik ihesi zihoala ertzain bat harrapatu zuen autoarekin, gutxienez beste hiru lagun ondoan zituela. Herrizaingo Sailaren datuen arabera, ertzaina autoaren gainera erori zen, eta, argitu gabeko arrazoiak tarteko, tiroak ihes egin zion.

4.2.2.2. Zeharkako sarrera

Erreportaje edo kroniketan sarri erabiltzen den sarrera da. Tituluan eta azpitituluan jasotako ideiarik ez da islatzen zeharkako sarreran. Alegia, kazetaritza klasikoaren 5 galderen erantzunik ez da agertzen. Horixe da sarrera mota honen ezaugarria: hasiera-hasieratik ez da oinarrizko informaziorik ematen. Gaur egun maiz erabiltzen dira zeharkako sarrerak kalitateko prentsan, interpretazio-kazetaritzaren ikur bihurtu baitira (ikus 32. irudia).

Tituluak eta sarrerak ez dute guztiz bat egiten. Tituluan jasotakoa sarreraren bukaeran jasotzen da.

> *«Zer iruditzen zaizue inozoaren roletik presidentetzarako hauteskundeetan epailetzara pasatzea?». FN Fronte Nazionala «Frantziako politikaren grabitate zentroa» bihurtu dela esan zuen atzo Marine Le Pen buruzagi ultraeskuindarrak Parisko Operaren aurrean bildutako milaka jarraitzaileren aurrean. FNk urtero maiatzaren 1ean Joana Arc-ekoaren omenez egiten duen ekitaldian argitu du zein izango den bere aukera maiatzaren 6an, Frantziako presidentetzarako hauteskundeen bigarren itzulian: «Datorren igandean boto zuria emango dut. Nik egin dut nire aukera. Zuek herritarrak zarete, eta zuen kontzientziaren arabera emango duzue botoa, askatasun osoz».*

4.2.2.3. Interpretazio-sarrera

Balorazio- eta interpretazio-elementuak —ez iritzi-elementuak— dira sarrera honen adierazle. Albisteak aztertu eta esplikatzeko erabiltzen dituzte kazetariek interpretazio-sarrerak eta hasieratik gogoetarako gonbitea egiten zaio irakurleari. Erreportaje, kronika eta analisietan erabili ohi da sarrera mota hau, ez horrenbeste informazio-testuetan (ikus 33. irudia).

Hona hemen adibidean agertzen den interpretazio-sarrera:

> *Zipreko presidentetzarako hauteskundeetan hiru hautagaien artean lehia estua izango zela iragarri zuten, eta, alde horretatik, fin ibili dira. Ioannis Kassoulides, Dimitris Christofias eta Tassos Papadopoulosen artean oso alde txikia izan da botoen zenbaketan. Ez zen espero, ordea, Papadopoulos orain arteko presidentea hauteskundeen lehen itzulian lehiatik kanpo gelditzea. Adituen arabera, hautesleen erabakiak susperraldi berria emango dio Zipre berriz batzeko ahaleginei, eta Iparraldeko Zipreko Errepublika Turkiarreko agintariek ere begi onez ikusi dute egungo presidentearen porrota.*

Kamioia, trenbide erdian erorita, eta garabia, bertatik kentzeko lanetan. GARO GARMENDIA / ARGAZKIPRESS

Garraiolari bat hil da Zarautzen, haren ibilgailua trenbidera erorita

Lau dira joan den bi asteetan beharrean ari zirela hildako langileak, eta 34 urte hasieratik orain artekoak

Maialen Goñi

Garraiolari bat hil zen atzo A-8 errepidean, Zarautz parean (Gipuzkoa), gidatzen zihoan kamioia errepidetik irten eta trenbidera erorita. Suhiltzaileak bertaratu ziren gizona kabinatik ateratzeko, oraindik haren egoera zein zen ez zekitela. Ateratzea lortu zutenean, ostera, hilik aurkitu zuten gidaria. Trailer motako ibilgailu astun bat zen, eta trenbidean geratu zenez, Euskotrenek Bilbo eta Donostia arteko zerbitzua gelditu behar izan zuen. Aurten 34 langile hil dira beharrean ari zirela, eta horietatik zortzi garraiolariak ziren.

Ezbeharra 13:40 aldera gertatu zen. Oraindik argitu ez diren arrazoiengatik, Irunerako norabidean zihoan kamioia aurkako noranzko errepidera igaro zen, tarteko hesia hautsita. Ondoren, bertatik irten eta trenbidera amildu zen Meagako tunel parean. Gidaria ibilgailu barruan harrapaturik geratu zen, eta suhiltzaileek ateratzeko lanak izan zituzten. Ateratzea lortu zutenean, gidaria artatu zuen sendagileak haren heriotza berretsi zuen. 17:30-18:00 aldera erretiratu zuten gorpua istripuaren lekutik.

Bilborako bideetako bat itxita egon zen arratsalde osoan, kamioia trenbidetik ateratzeko hiru garabi aritu baitziren lanean. Ertzaintzak jakinarazi duenez, auto ilara luzeak sortu ziren horregatik. Ertzaintzak martxan jarri du gertatutakoa argitzeko ikerketa.

Zortzi gidari

Azken heriotza honekin lau dira joan zen uztailaren 29tik beharrean ari zirela hildako langileak. Zumarragako Arcelor Mittal enpresan (Gipuzkoa) langile bat hil zen, eta hurrengo egunean, hilaren 30an, nekazari bat hil zen Iruritan (Nafarroa), lanean ari zela. Beste bat Donostiako La Salle ikastetxeko fatxada konpontzen ari zela zendu zen; bost metrotik behera erori, eta Donostiako ospitalean hil zen hartutako kolpearen ondorioz. Hasierako ikerketen arabera, gizonak 25 kiloko porlan zaku bat zeraman egur batzuen gainetik zihoala, baina egiturak ezin izan zuen pisua jasan, eta langilea beheko patiora erori zen. Ondorengo egunetan Eusko Jaurlaritzako Lan Ikuskaritzak istripuaren inguruko informea egin zuen. Bertan zehaztutakoaren arabera, obrak hasi aurretik ez zuten segurtasun planik egin, eta, gainera, ez zen lanen hasieraren berri eman.

Zumarragako eta Donostiako kasuetan, gainera, segurtasun neurri nahikorik hartu ez zela salatu dute ELA eta LAB sindikatuek. Nafarroako nekazariaren kasuan, ordea, ez dute xehetasunik eman.

Sindikatuek azpimarratu dutenez, azken kasuetan langileak «egoera prekarioan» ari ziren lanean, eta horren kontra erakundeek ez dutela ezer egin ohartarazi dute. LAB sindikatuak egindako zenbaketaren arabera, urte hasieratik hona 34 langile hil dira beharrean. Halaber, horietatik zortzi zirkulazio istripuen ondorioz izan dira; horietako bat Basauriko (Bizkaia) taxi gidari bat zen.

Azken bi asteetako hiru heriotzak salatzeko elkarretaratzeak antolatu zituzten atzo ELA eta LAB sindikatuek. Langileei «elkartasuna» erakutsi zieten eta istripuaren erantzuleei «ohartarazpen ohar bat» bidali; heriotzak «ezkutuko ekonomiaren» ondorioz gertatu zirela adierazi zuen LABek, eta horrek amaitu beharra daukala gaineratu.

Istripuak eragozpenak sortu ditu Euskotrenen zerbitzuetan

Zarautz parean eroritako kamioiak arazoak eragin zituen Euskotrenen zerbitzuetan. Hain zuzen ere, Zarautz eta Zumaia artean autobus zerbitzu bereziak jarri behar izan zituzten atzo arratsalde osoan. Arazoa gauriko konponduta egongo dela esan dute, eta berriro ere trenak ohiko moduan martxan izango direla.

Etenaldia arratsaldeko ordu biak baino lehenago gertatu zen, eta kamioia trenbidetik ateratzeko lanek arratsalde osoa iraun zuten. Bilbo eta Donostia artean bi noranzkoetan izan ziren arazoak.

→ Laburrak

Gehiago saldu dute saltoki handiek, gutxiago txikiek

GASTEIZ › Araba, Bizkai eta Gipuzkoako saltoki handiek iaz baino %1,4 gehiago saldu dute aurtengo bigarren hiruhilekoan. Txikiek, berriz, %0,4 gutxiago. Alderaketa lehen hiruhilekoarekin eginda, %2,5 jaitsi dira salmentak. Eustatek emandako datuen arabera, merkataritzako langile kopuruak ere behera egin du iaztik: %0,3 hain zuzen ere.

Bilboko portuan %7 igo da merkantzien garraioa

BILBO › Bilboko portuak 17,2 milioi tona merkantzia garraiatu zituen urtarriletik ekainera bitartean, iaz baino %7 gehiago. Bidaiarien kopurua %41 jaitsi zen, Porstmouthera arteko itsasontzia martxoan hasi zelako martxan. Pasaiako portuari dagokionez, 1,9 milioi tona garraiatu zituen lehen seihilekoan, iaz baino %5,9 gutxiago.

Ehun lagunek hartu dute parte oinordekoen eskolan

DONOSTIA › Apirilean jarri zuen martxan Gipuzkoako Merkataritza Ganberak oinordekoen eskola. Familia enpresen geroa bermatzea da horren helburua, eta, horretarako, belaunaldien arteko eskualdaketari buruzko ikastaroak ematen ditu. Orain artean, ehun lagunek hartu dute parte. Gipuzkoako enpresen %70 familia enpresak dira, baina hirutik bakarra iristen da bigarren belaunaldira.

Aireportuetako langileak grebara deitu dituzte

MADRIL › CCOO, UGT eta USOk grebara deitu dituzte Hego Euskal Herriko eta Espainiako aireportuetako lurreko langileak, Abuztuaren 18an eta 26an izango dira lanuzteak. 60.000 langileri eragiten die deialdiak, tartean fakturazioak egiten dituztenak eta hegazkinen laguntzaz arduratzen direnak. Sektoreko lan hitzarmena ez dela betetzen salatu nahi dute.

Adicaek dio %10 garestitu direla bankuen komisioak

MADRIL › Bankuen komisioen igoera «neurrigabekoa eta lotsagarria» dela salatu du Adicae bankako erabiltzaileen elkarteak. Maiatzetik tasa nagusiak %10etik gora garestitu direla azaldu du, besteak beste, kontu bat edukitzeagatik %11 gehiago ordaindu behar dela. Igoerak merkatuetako gorabeheren ondorio direla dio.

24. irudia. Albistearen sarrera (*Berria,* 2011/08/09).

20 | berria | 2011ko otsailaren 19a, larunbata
Harian › Mundua

Protestak herrialde arabiarretan →

Dozeneka milaka lagunek Kairoko Tharir plaza txiki utzi zuten atzo, Hosni Mubarakek boterea utzi eta astebetera. KHALED ELFIQI / EFE

Mundu bat iraultzaren plazan

Tahrir plazan ehunka mila lagun elkartu dira Mubarak erori eta astebetera; demokrazia bermatze aldera, ostiralero bilduko dira

Al Karadaui imamak musulmanen eta kristauen arteko batasunerako deia egin du

Kristina Berasain Kairo
@ Berriemaile berezia

Eguzkia atera baino ordubete lehenago, egunsentiarekin, egiten dute eguneko lehen errezoa musulmanek. Ordurako, baina, lagun asko elkartu da plazan, bakar batzuk gau osoa eman baitute erresistentziaren epizentro horretan, eta beste asko goiz-goizetik bertaratu dira eguna noiz argituko zain, garaipenaren eguna noiz esnatuko zain. Zibilizazio zahar honen historian egun handia baita. Hemerzotzi egunean hiru hamarkadaz iraun duen diktadura ankerra amaitu du herriak, eta aurreneko aldiz denbora luzaroan demokrazia dute atarian. Hosni Mubaraken erregimena baino ezagutu ez duten gazteak izan dira iraultzaren ardatz, eta orain herriak batera ospatu du garaipena, faraoia bota eta astebetera.

Tahrir plazara sartzeko dokumentazioa erakustea ezinbestekoa da; soldaduak daude sarrera-irteera guztietan, tankeak alboan dituztela. Egoera, hala ere, lasaia da, eta festa ederra lehertu da Kairon. Garaipenaren Egunean klaxonak ohi baino maizagoak eta ozenagoak dira, eta leloak eta oihuak etengabeak. Martirien irudiak eskuetan dituztela bertaratu dira lagun asko, eta inoiz baino ikur gehiago daude plazan. Beltz, zuri eta gorri koloreko xingolak ere erruz ikus daitezke bazter guztietan. Iraultzaren izenean negozioa egiten arituko da bakarren bat; kamisetak, itsasgarriak, glitzatakoak, txapelak, kartelak... Izenik eman nahi ez duen gaztetxoa goizaldetik ari da itsasgarriak saltzen; bost liberaren truke (euro bat baino gutxiago) hiru itsasgarri. Astebete darama sosa batzuk atera nahian, baina konpetentzia handia dela dio, izkina guztietan ari baitira zer edo zer saltzen.

Errezoaren ordua

Eguzkiak bete-betean jotzen du, eta gertuatzen ari da errezorako ordua. Tahrir hartuta dago dagoeneko. Alfonbra txikiak paratu dituzte batzuek lurrean, beste batzuek aurretik irakurtzen aritu diren egunkaria. Mubarak beraren eta erregimeneko beste aurpegien gainean eseri da bakarren bat. Bezperako albistea jaso dute egunkari gehienek; ustelkeria leporatuta erregimeneko hiru ministro atxilotzeko agindua eman duela Fiskaltzak; Habib al Adli Barne ministro izandakoa, Ahmad al Magrabi Etxebizitzakoa eta Zoher Garana Turismokoa. Al Abli aurreko astetako jazarpenaren erantzule nagusitzat jo izan dute —350 lagunetik gora hil dituzte protestetan—. Ahmad Ezz Alderdi Nazional Demokratikoko antolaketa idazkari eta parlamentaria izandakoaren etorkizuna ere ez da samurra izango. Erregimenaren izen inportantenetako bat da, eta, altzairuaren munduan dituen negozioei erreferentzia eginez, altzairuzko gizona esaten diote Egipton. Gerora zabaldu da laurak atxilotu egin dituztela.

Herriaren aldarrikapenak aintzat hartzeko prest dagoela erakutsi nahi izan du berriro armadak. Ezen emandako hitza beteko duela bermatze aldera adi ditu herritarrak. Trantsiziorako bideak etenik ez duela izango ziurtatzeko, ostiralero-ostiralero plazan elkartzea erabaki dute. Demokrazia ezartzeko bidean urrats gehiago egiteko eta diktadurako erantzuleak epaltzeko eskatu dute berriz ere herritarrek. Salbuespen Legea bertan behera uztea, preso politikoak askatzea eta teknokratez osatutako trantsiziozko gobernua eratzea dira egin dituzten eskaerak.

Jusuf al Karadaui imamak errezoa zuzentzeari ekin dio. Katarren egon da errefuxiatuta diktadura garaian, eta ongietorri beroa egin diote jaioterrian, aski estimatua baita arabiarren artean: Munduko Ulemen Kontseiluko presidentea izateaz gain, milioika jarraitzaile dituen telebista programa egiten du teologo horrek Al Jazeeran. Aurreneko hitzak gazteei egin dizkie. Iraultzaren protagonista izan direla-eta banan-banan eskuak musukatzea nahiko lukeela: «Nahi baduzue ahal duzue, eta zuen borondatea Jainkoaren borondatea da».

Abian dagoen prozesuarekiko konfiantza ere erakutsi du armadari erreferentzia eginez: «Armadarekin ez fidatzeko ohartarazi zidaten, dezepzionatu egingo nintzela bere jarrerarekin, baina herriaren beso bat dela erakutsi du». Sermoia egiteko plazaren albo batean ezarritako agertokitik mezu bat bidali dio, hala ere, armadari; oraina baino gehiago iragana ordezkatzen duen gobernu batek aska dezan herria, zibilez eratutako beste bat osatzeko.

> Armadarekin ez fidatzeko ohartarazi zidaten, baina herriaren besoa dela erakutsi du»

> «Iraultzaren garaipena egiptoar guztiena izan da, ez musulmanena soilik; batuta ari gara»
> **JUSUF AL KARADAUI**
> Imamo eta teologoa

Al Karadauiren hitzak isilean eta arretaz entzuten ari dira herritarrak, gehienak lurrean eserita, otoitzean, eta beste askok, zutik, batez ere plazaren alboetan eta inguruetan daudenak. Eta espero ziren hitzak etorri dira. Kristauen eta musulmanen arteko batasunerako deia egin du: «Iraultzaren garaipena egiptoar guztientzat da, ez soilik musulmanentzat. Iraultzan batu dira kristauak eta musulmanak, eta elkarrekin garaitu dute sektarismoa». Eliza kristauen kontra azken aldian izandako atentatuei erreferentzia egin die hitz horien bidez teogoloak, ezen herrialdeko %10ak dira kristau koptoak.

Plaza lepo

Sermoia amaituta, lurretik altxatu, eta festari ekin diote berriro herritarrek. Protestetako leloa aldatu dute doinu bera baliatuta: «Herrialdea garbitzea nahi du herriak». Duela astebetera arte «Erregimena amaitzea nahi du herriak?» oihukatzen zuten. Erregimenaren kontrako eta iraultzaren aldeko leloak eta testuak, martirien irudiak, turutak joka, herritarrak batetik bestera, haurrak eta helduak, gizon eta emakumeak, mundu bat iraultzaren plazan, eta gauera arte iraun du jaiak. Kairo osoa da festa, hurrengo egunera arte. Al Karadauiren hitzetan, ezin baita jada hurrengo egunsentia atzeratu, mundu arabiarra aldatu egin delako eta egin delako historiaren kontra borrokatu.

25. irudia. Erreportajearen sarrera (*Berria*, 2011/02/19).

Airera eginiko tiro baten kartutxo zatiak jota hil zen andrea alardean

Alarde tradizionaleko kide bat inputatu dute, emakumeari heriotza ondorio izan zuten lesio larriak eragitea egotzita

Irati Elizalde

Autopsiak baieztatu egin du Ertzaintzaren lehen hipotesia: airera eginiko tiro baten kartutxo zatiak jota hil zen Hondarribiko alardean (Gipuzkoa) ezbeharra izan zuen andrea. Emaitzak esku artean, eta heriotzaren nondik norakoak argiturik, heriotza ondorio duen lesio delitu larria leporatu diote auziagatik inputatua zegoen gizonezkoari.

Alarde tradizionaleko konpainia bateko kideek hainbat tiro egin zituzten airera, Bernart Etxepare kalean desfilatzen ari zirela. Tiro horietako kartutxoaren zati batek jo zuen zendu zen andrea, bere etxeko balkoitik desfilea ikusten ari zen bitartean. Lurrera erori eta buruan hartu zuen kolpearen eraginez galdu zuen konortea. Ospitaleratu egin zuten, eta larunbatean, bi egunen buruan, hil egin zen 65 urteko emakumea.

Hala, Ertzaintzak baztertu egin du aintzat hartzen zuen bigarren hipotesia: Bernart Etxepare kalean izan ziren tiroen zaratak ezustean harrapatu zuela andrea, eta tiro batek jota ez, izuturik erori zela hori lurrera.

Larunbatean bertan identifikatu eta inputatu zuten desfilean airera tiro egin zuen konpainiako kideetako bat, emakumeari lesio larriak eragin izana egotzita. Ikerketaren eta adituen frogen berri eman zioten orduan Instrukzioko Epaitegiari.

Zenbait daturen faltan

Hildako emakumearen arrasto biologikoak topatu zituzten kartutxoaren zatian, eta horri esker frogatu zuten Ertzaintzaren tesia. Ikerketak, baina, aurrera dirau, «zenbait daturen faltan» baitira auzitegi medikuak oraino. Gertaera berrikusteko aukera ere jarri du Ertzaintzak mahai gainean, baina ezin izango dute halakorik burutu epailearen agindurik ez dagoen artean. Hortaz, autopsiaren behin betiko emaitzak printzipioz hamar egunen buruan ezagutuko dituztela iragarri dute.

Heriotzari buruzko datuez gain, badira ikerketan argitu beharko diren beste hainbat ertz. Esaterako, inputatuta dagoen gizonezkoak erabili zituen jauntigairik gabeko kartutxoak araudia errespetatzen zutenetz. Izan ere, Hondarribiko alardean eskopeten kartutxoak manipulatu izan dira zenbait kasutan, tiroen zarata areagotze aldera. Halako ekintzak saihesteko lanean dihardu alardearen antolakuntzaz arduratzen den Alarde Fundazioak. Hartarako, dendetako eskaintzaz gain, desfilearen egunean bertan ere jartzen ditu jauntigairik gabeko kartutxoak parte hartzaileen eskura.

Hondarribiko alarde tradizionaleko kideak iazko desfilean. JACOBA MANTEROLA / ARGAZKIPRESS

Tiro egiteko tokietatik at

Edozein kasutan, antolatzaileek ezarritako araudia urratu egin zuen inputatuak, ibilbidean tiro egiteko ezarrita dauden tokietatik at egin baitzuen tiro. Armen Plaza, parrokia eta Sainduaren gisako tokietan baino ezin da airera tiro egin. Ez dago Bernart Etxepare kalean halakorik egiterik, segurtasun arrazoiak tarteko. Kontuak kontu, gertaera argitzeko barne ikerketa abiarazi du Alarde Fundazioak.

Ibilbidean tiro egiteko ezarrita dauden tokietatik at egin zuen tiro airera

Hondarribiko jaiak bete-betean harrapatu ditu gertaera honek, baina arin erantzun du ezbeharraren aurrean herriak. Hondarribiko Udaleko bozeramaileen batzordea andrearen senidekin bildu zen herenegun. Hauen eskaera aintzat hartuz, jaiek aurrera jarraituko zutela erabaki zuten. Edonola, ere zenbait elkartasun keinu egin dituzte: udaletxeko banderak kentzea, igandeko pilota partidaren hasieran isilunea egitea, eta larunbat gaueko su festa bertan behera uztea. Beste hainbeste egin den txosnen batzordeak ere. Hildakoaren omenezko gutun bat irakurri zuten larunbat gauean, Ken Zazpi eta Koma musika taldeen kontzertuen aurretik.

Bestalde, hileta egin zuten atzo, ilunabarreko zazpietan, Hondarribian, hildako emakumeari azken agurra emate aldera.

Andreak prostituitzera behartzea egotzita, lau lagun atxilotu dituzte

Atzerriko emakumeak 24 orduz derrigortzen zituen ustezko sareak, bidaiagatiko zorrak ordaintzeko aitzakiaz

Erredakzioa Iruñea

Familia bereko lau kide atxilotu dituzte Iruñean emakumeak prostituitzera behartzeagatik eta esklabo gisara tratatzeagatik. Espainiako Poliziak jakinarazi duenez, jarduera aurrera eramateko erabilitako egoitza Sevillako (Espainia) beste bi etxebizitzarekin harremanetan dago, eta sare bat osatzen dute. Taldeko buruari gizabanakoen trafikoa, legez kanpoko immigrazioa eta langileen eskubideen urraketa egotzi dizkiote, betiere sexu delituekin loturik.

Prostituitzera behartutako emakumeak atzerritarrak direla azaldu du Espainiako Barne Ministerioak. Batzuk egoera prekarioan bizi ziren beren herrialdeetan, eta lana aginduta ekartzen zituzten; beste batzuk, ordea, beren kabuz etorri ziren, baina legez kanpoko egoeran zeuden. Hala, bidaiaren gastuak ordaintzeko eta egoera legeztatzeko aitzakiaz esklabo moduan zituzten: egunean 24 orduz bezeroen eskaerei erantzuteko prest egonarazten zituzten, egoitza batetik bestera eramaten zituzten, beren gaineko erabateko kontrola zuten, eta irabazien erdia etxebizitzen arduradunei eman behar zieten.

Ikerketa 2010ean abiatu zuten, Sevillako etxe bateko prostituzio jarduera argitu nahian. Egoitzen arteko lotura ikusita, sarearen buruak atzeman zituzten. Nagusia, haren emaztea eta arreba neskak zaintzeaz arduratzen ziren, baita irabaziak kudeatu eta bezeroen beharrei erantzuteaz. Arrebaren semeak publizitatea jartzen zuen prentsan, emakumeen zerbitzuak eskainiz. 3.925 euro atzeman dizkiete etxebizitzetan; guztira, ostera, 200.000 eurotik gora zituzten bankuko hainbat kontu korrontetan.

Telefono mugikorrak, bitarteko informatikoak, bideo kamerak eta dokumentazio ugari ere atzeman dizkiete. Emakumeek osasuna arriskuan larrian jartzen zutela galeratu du Barne Ministerioak, eta ezin zutela inora mugitu, haien gaineko kontrola erabateko zelako.

Gizon bat atxilo Bilbon, eta beste bat Gasteizen, genero indarkeriagatik

Gasteizkoak emakumea ospitalera eraman zuen, egin zizkion zauriak osatzera; antsietate krisiagatik artatu zuten

Erredakzioa Gasteiz

Bi gizon atxilotu dituzte, bata Bilbon eta bestea Gasteizen, bikotekideei eraso egiteagatik. Gasteizko udaltzainen arabera, 58 urteko gizonezko batek emaztea Txagorritxuko ospitalera eraman zuen berak eragin zizkion zauri eta kolpeak sendatzeko. Ospitaleko beharginek deituta, patruila bat bertaratu eta gizona atxilotu zuten. Emakumea bertan geratu behar izan zen, antsietate krisi bat jasan baitzuen gertatutakoaren ostean.

Bilbon, halaber, gazte bat atzeman zuten atzo bikotekidearekin kalean liskarrean ari zela. Beste bikote batek ikusi zituen, eta biak banatzen saiatu ziren. Une hartan Emakumeak besoan zauriak zituen, hautsitako kristalezko botila batekin gizonak eragindakoak, eta Basurtuko ospitalean artatu zuten.

Bestetik, Berdinsareak, Eudelen berdintasunaren aldeko eta genero indarkeriaren aurkako sareak, Beldur barik lehiaketa abian jarri du bigarrengoz, gazteen kontzientzia pizteko asmoz. Lanek errespetua eta berdintasuna izan behar dute oinarri.

26. irudia. Sarrera ZER galderari erantzunez (*Berria*, 2011/09/13).

«Nekatuta nengoen nekatuta egoteaz eta tristurari buelta eman beharraz»

Heriotza du gai nagusi Martin Etxeberriaren 'Zakurraren poema eta beste hezurrak' poema liburuak

Juan Luis Zabala Donostia

«Eufemismo bat erabiltzearren, *ez hain ondo* egon naizen denboraldi bat sortu da, barruan hainbat korapilo eta hainbat ezinegon jirabiraka nituela konturatu naiz, eta horri erantzuten diote liburuko poemek». Hitz horiekin aurkeztu du Martin Etxeberriak *Zakurraren poema eta beste hezurrak* poema liburu berria (Elkar), bere poeta ibilbideko hirugarrena; *Katiluaren ipurdia* eta *Bizikleta bat egingo dut zure izenarekin* ditu aurrekoak, 1999an eta 2005ean argitaratuak, hurrenez hurren.

«Aurreko biekin alderatuz, poema liburu berrian aldaketa badagoela uste dut», adierazi du Etxeberriak (Zarautz, 1974). «Aldaketa handiena eta nabarmenena neure barruan gertatu da, baina poemetan ere bada aldaketarik, bai tonuaren aldetik eta bai estiloaren aldetik. Aurreko bi liburuetako poemak, neu inozoago nintzelako edo beste aldarte batean nengoelako, positiboagoak ziren; tonu naif bat zuten eta poesia gehiena nahiko narratiboa zen. Gustuko erregistroa nuen hori, nahiz eta bigarren liburuko poema batzuek neure baitan hasitako aldaketa erakusten zuten dagoeneko».

Liburu berrian, aldiz, heriotza «jirabiraka» dabil, aldez edo moldez, liburuko poema guztietan. «Heriotza, ez bakarrik iraungitze fisiko eta erabateko bukaera gisa ulertuta», ñabartu du poetak. «Bizitzen jarraitzeko, neure barruko gauza batzuk bukatu, itzali edo hil behar nituela sentitu nuen aspaldi, eta horixe sentitzen dut oraindik ere. Horri bueltaka egin da daude poema gehienak, eta estiloa ere, idazkera aldetik, ez da aurreko liburuetakoa bezain narratiboa, nahiz eta poema narratibo batzuk ere badauden». Liburu berriko estiloa «dentsoagoa» da. Erregistro horretan ere «gustuko ahots bat» topatu du.



Martin Etxeberriaren hirugarrena da poema liburu berria. JUAN CARLOS RUIZ / ARP

Ezinegonari erantzunez

Zakurraren poema-rekin hasten da liburua, poema horrek biltzen duelako egilearen barruko sentimendua: «Ezinegon handi bat sentitzen nuen, eta nekatuta nengoen nekatuta egoteaz eta tristurari buelta eman beharraz». Poema horretako lerroetatik ateraak dira poema liburuaren hiru atalen izenburuak: *Gaizki ebakitako euli-bizarra*, *Trimeleta zatarrak* eta *Hitzen ametsaren zain*.

> Bizitzen jarraitzeko, neure barruko gauza batzuk hil behar nituela sentitu nuen»
> MARTIN ETXEBERRIA
> Idazlea

Amaierako atalean, *Hitzen ametsaren zain* izenekoan, irteera bat bilatzen ahalegintzen da egilea. «Badago atal horretan *hala ere*-ko sentimendu moduko bat. Hau guztia honela da, eta gauza batzuek itzali egin behar dute, eta beste batzuk onartu egin behar dira. Horrekin geratu nahiko nuke, nahiz eta badakidan, neurri handi batean poema guztiak bezala, gezurra dela esaten dudan hori. Egunerokoa izan behar du *hala ere*-ko sentimendu horrek. Nahiko nuke horri buelta ematen hasi».

Osatu duen poema liburuarekin gustura geratu da Etxeberria. «Erregistro berriarekin gustura nago. Ez naiz erregistro baten bila joan. Aurrekoetan bezala, hemen ere neure aldetik dena jartzen saiatu naiz, eta uste dut irakurleak igarriko diola horri. Poemak oso pertsonalak izaki, nork bere identifikatzeko puntuak aurki ditzakeela uste dut». Horretaz gain, poema liburu berria, aurrekoak bezala, ez dela inondik ere kriptikoa edo ulertzeko zaila uste du.

DonostiaKluba jaialdiak estilo askotarikoak eskainiko ditu bost gauetan

Los Coronas, Arizona Baby, Clem Snide eta Nach rap kantaria ariko dira, besteak beste, Egiako Kultur Etxean

Erredakzioa Donostia

DonostiaKluba jaialdiak musikaz «modu desberdin batean gozatzeko aukera» ematen du, «giro lasaiago batean», antolatzaileen hitzetan. Bost gaueko egitarauan, hogei taldek emango dituzte kontzertuak Donostiako Egia auzoko kultur etxean, Gazteszena aretoan. Irailaren 30ean hasiko da jaialdia, eta hainbat estilo bilduko ditu. Lehen gauean rocka izango da protagonista, Espainiako Layabouts eta Los Coronas taldeen eta Arizona Baby hirukote akustikoaren eskutik.

Rocketik popera salto egingo du jaialdiak, indie erako doinuetara zehazki. Urriaren 1ean, Señor Chinarro, Alias, Basmatti & Vidaur eta Pin&Pon DJ's bikotea igoko dira oholtza gainera. Euskal taldeek ere izango dute tartea: hilaren 6an Donostiako Polaroid eta Fairlight taldeek joko dute. Haiekin batera, Bflecha eta John Talabot DJ Set ariko dira elektronika kutsuko gauean. Hurrengo egunean, New Yorkeko Clem Snide taldearen rock alternatiboaz gozatzeko aukera izango da. The 99 Call, Bigott eta PLV taldeak ere ariko dira. Azken egunean, urriaren 8an, Nachek rapero «beteranoak» kantatuko du; eta azken notak Nacho Vegas kantariaren eta My Fellini eta Love of Lesbian taldeen esku egongo dira.

Xabier Lete ere omenduko dute Xalbador Egunean, Urepelen

Benito Lertxundik kantaldia emango du urriaren 8an, eta hitzaldia, bertso saioa eta beste izango da 9an

Erredakzioa Donostia

Xalbador eta Xabier Lete goiburua izango du aurtengo ekitaldian Xalbador Egunak, eta, ohi bezala, Urepelen (Nafarroa Behera) egingo da, urriko bigarren asteburuan, Fernando Aire *Xalbador* bertsolari zenarekin batera Xabier Lete poeta eta kantari zena ere oroituz eta omenduz. Letek maiz erakutsi zuen Xalbadorrenganako mirespen handia, eta oso ezaguna da haren omenez sortu zuen kantua, *Xalbadorren heriotzean* izenekoa.

Aurreneko bi ekitaldiak urriaren 8an izango dira, larunbatarekin: batetik, Gipuzkoako gazte talde baten poesia errezitaldia, 19:00etan, Urepeleko eskolako gelan; bestetik, Benito Lertxundiren kantaldia, 21:00etan, Urepeleko frontoian.

Biharamunean, igandearekin, Xalbadorren etxolara mendi ibilaldia egingo da lehenik, 9:00etan, etxola eta Urepele ezagutzeko, eta gero meza nagusia. Xabier Leteren eta Ez Dok Amairu taldearen inguruko bideo emanaldia eta Joxe Mari Iriondoren hitzaldia izango dira ondoren, 11:00etan. Herri kirol saioaren, dantza emanaldiaren eta bazkariaren ostean, 15:30ean, bertso saioa hasiko da, Maialén Lujanbio, Amets Arzallus, Sebastian Lizaso eta Juan Jose Elzmendi *Loidisaletze* bertsolariekin, gai-jartzaile Joxe Mari Iriondo dutela. Xalbador Eguna trikitilariek alaitutako erromeriarekin amaituko da.

Ruper Ordorikak Heletan kantatuko du ostiralean, Poteo Atipikoan

Traboules abesbatzaren eta antzerki taldearen emanaldiak izango dira gaur, eta Ephemeres konpainiarena bihar

Erredakzioa Baiona

Eugen Durif idazkearekin izandako solasaldiarekin jarri zen abian atzo Traboules konpainiak antolatutako Poteo Atipikoaren bosgarren ekitaldia, eta Traboules abesbatzaren emanaldiarekin eta Traboules antzerki konpainiaren *Dégrafe-moi, je te prie* obraren emanaldiarekin jarraituko du gaur, Heletako Itsasoa kafe kulturalean. Ephemeres konpainiak *Variations Antigone, comme enfant on joue à mourir* emango du bihar, Heletako Erregelu gelan, eta ostiralean Ruper Ordorikak kantatuko du leku berean. Cecilia konpainiaren eta Balapapa taldearen emanaldiarekin itxiko da jaialdia, larunbat gauean, Donibane Garaziko Zitadelan.

27. irudia. Sarrera NORK galderari erantzunez (*Berria*, 2011/09/13).

Arantxa Tapia diputatua (erdian), atzo, zerbitzu berria aurkezten. | OTEGI / ARP

Txartel bakarra trenetara zabaltzea nahi du Gipuzkoako Foru Aldundiak

«Hitzetatik ekintzetara» igarotzea eta txartela Renfe eta Eusko Trenen aurten erabili ahal izatea espero du Tapiak

Erredakzioa Donostia

Aurten «hitzetatik ekintzetara igarotzea eta txartel bakarra Renfen eta Eusko Trenen erabili ahal izatea» espero du Arantxa Tapia Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasun diputatuak. Txartel bakarraren sistema kudeatzen duen Lurraldebus elkarteak iaz 18.130.000 bidaiari hartu zituelako poza azaldu du Mugikortasun diputatuak. Izan ere, 2008an baino ia milioi bat bidaiari gehiago izan ziren Gipuzkoako autobusetan iazko balantzearen arabera, hots, %5,5eko hazkundea izan zen iaz.

Bidaiari kopuruaren igoerarekin baikor agertu arren, Renferen eta Eusko Trenen auzia oraindik ere «zintzilik» dagoela gogorarazi du Tapiak, eta gehitu du «une honetan pilota haien teilatuan» dagoela. «Haien teilatuan nahiko denbora darama». Hala, txartel bakarra tren zerbitzuetara zabaltzearen alde egin du. «Guk hainbatetan egin dugu eskaintza; beti jaso izan ditugu hitz politak eta jarrera onak, baina jarreretatik ekintzetara pasatzea falta da».

Tapiak nabarmendu duenez, Gipuzkoa izan da garraio publikoan bidaiari kopurua handitzea lortu duen herrialde bakarreneta-koa. Horrek erakusten du, haren ustez, herritarrek ongi hartu dituztela martxan jarri diren politikak. Jakinarazi duenez, 158.000 lagunek dute txartela egun. Halaber, Foru Aldundiak Donostiako Udalarekin iaz sinatutako hitzarmenaren ondorioz, hiriburuko garraio publikoa txartel bakarrarekin hartzen dutenen kopuruak ere gora egin du. Iaz, modu horretan, 1.640.000 bidaia egin ziren.

Krisia gorabehera, autobusak eta geltokiak hobetzeko eta ibiltzeko errazago egiteko lanean jarraituko du Foru Aldundiak, Tapiaren esanetan. Erabiltzaileei zerbitzuen inguruko informazioa helarazten ere hobekuntzak iragarri ditu. Lurraldebusen webgunean informazio gehiago jasoko dela edo sakelako telefonoan mezu laburrak jasotzeko aukera aipatu ditu adibide gisara. Autobus aldaketak, berriz, «doakoak ez badira askoz ere merkeagoak» izango direla nabarmendu du Tapiak.

Ospitalera autobusez

G-3 autobus linea berria aurkezteko agerraldian eman zituen azalpenak Tapiak, atzo, Donostian. Linea berriak Andoain, Hernani, Urnieta eta Donostiako ospitaleen ingurua lotuko ditu, eta gutxienez hamahiru ibilaldi egingo ditu bi norabideetan. Andoaindik lehen irteera 07:20ean egingo du autobusak, eta azkena, 21:20ean. Donostiako ospitaletik lehen irteera, aldiz, 08:15ean egingo du, eta azkena 22:15ean. 280.000 euroko inbertsioa egin du Foru Aldundiak zerbitzu berria martxan jartzeko.

Bestalde, herritarrak Baionako erietxera doan eramango ditu autobus batek Baionako La Florida auzotegitik, Baionako erietxeak, Herriko Etxeak eta STAB konpainiak izenpetutako hitzarmenari esker. Autobus zerbitzua 12:30ean abiatuko da, eta 19:30ean bukatu. Ordu erdiro egingo du lotura. Erietxeko aparkalekua mukuru betea egoten da, eta neurri horren bidez eskuragarritasuna eskaini nahi diete bezeroei.

Gaurtik aurrera elurra egin dezake 500 metrotik behera, eta alerta horia ezarri dute

Ipar Euskal Herrian eta Nafarroan ez dute alerta egoera ezarri, baina hotz handia iragarri dute datozen egunotarako

Erredakzioa Donostia

Euria, elurra eta hotz handia. Horixe datozen egunetarako iragarpena. Gaur iluntzetik aurrera 500 metrotik behera elurra egin dezakeela iragarri dute meteorologia zerbitzuek. Hori dela eta, alerta horia ezarri du Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailak Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan. Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian ere hotza espero da, eta baita elurra ere Nafarroako zenbait lekutan. Dena dela, herrialdeotan ez dute inolako alertarik ezarri.

Herrizaingo Sailaren meteorologia abisuaren arabera, gaur eguerdian 1.000 metroan egongo da elur maila, baina egunaren bukaera aldera 500 metrora jaitsiko da. Prezipitazio ahulak izan litezke, indartsuagoak ipar isurian. Bihar gauean eta goizaldean, berriz, elur maila 300 metrora jaitsiko da, eta apur bat igoko da goizean. Prezipitazio arinak iragarri dituzte Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan asteazkenerako, eta ekaitz arriskua ipar isurian.

Nafarroako meteorologia zerbitzuaren arabera, berriz, laino ugarirekin esnatuko da gaur eguna, eta egunak aurrera egin ahala 200-300 metrora jaitsiko da elur maila. Tenperaturek ere behera egingo dute. Iruñean, esaterako, hiru gradukoa izango da minimoa, eta zazpikoa maximoa. Nafarroako Gobernuak elurra kentzeko 92 makina jarriko ditu martxan bihar. Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan euria egingo du egunotan, baita hotza ere. Tenperatura minimoak lau graduren bueltan ibiliko dira, eta seiren bueltan maximoak.

Lizarraga eta Sakana elurpean, iragan abenduaren 20an. | ROSOURIZ / ARP

Hotzaldia dela eta, ehiza debekatzeko eskatu du Ekologistak Martxan taldeak

Gipuzkoan hotzaldia eta elurte indartsua iragarri dela eta, Gipuzkoako Foru Aldundiari herrialde osoan ehiza debekatzeko eskatu diola jakinarazi zuen atzo Ekologistak Martxan taldeak, ohar baten bidez.

Taldeak jakinarazi duenez, elurra eta hotz handia egiten duen egunetan ehiza debekatzen duen foru agindua indarrean dago Gipuzkoan. Izan ere, halako egunetan espezie ugarik defentsarako euren ahalmenak gutxituta izaten dituzte. Taldeak salatu du iazko urtarrilean babesleku bila zebiltzan zenbait espezie —oilagorrak kasu— ehizatzeko baliatu zutela hotzaldia ehiztari askok, eta hori saihestu beharra dagoela ohartarazi du. Hala, debekuak hotzaldia amaitu arte iraun dezala eta bitarte horretan mendietan zaintza lanak indartu ditzala eskatu diote ekologistek Diputazioari.

28. irudia. Sarrera NOIZ galderari erantzunez (*Berria*, 2010/01/05).

Turistak, Donostia bizikleta gainean ezagutzeko egitasmo batean parte hartzen. IMANOL OTEGI / ARGAZKI PRESS

2008an baino %1,4 turista gutxiago izan zen iaz Araba, Bizkai eta Gipuzkoan

Turismoak, krisiak krisi, «eutsi» egin dio, Jaurlaritzaren ustez; laugarren urterik onena izan dela gogorarazi du

Jon Rejado Gasteiz

1.991.790 bidaiari heldu ziren Arabara, Bizkaira eta Gipuzkoara 2009. urtean, 2008an baino 28.932 bisitari gutxiago. Bisitari kopuruan egondako jaitsiera 2009ko lehen hiru hilabeteetan gertatu zen, batez ere. Iragan urteko lehen lauhilekoan bisitarien kopurua %15 jaitsi zen, batez beste. Hortik aurrera, datuek hobera egin zuten, eta bisitarien jaitsiera %1,4 izan da urte bukaeran, Eustatek jakinarazi berri dituen datuen arabera.

Jaitsiera Espainiako Estatutik kanpoko herrialdeetako bidaiarietan sumatu da, batez ere. 603.341 bisitari heldu ziren herrialde horietatik iragan urtean; 2008an, baino 43.332 gutxiago. Gainerakoan, bisitarien kopuruak gora egin du. Madrildik eta Kataluniatik heldu ziren iaz bisitari gehien, 278.131 eta 222.382, hurrenez hurren. EAEko bertoko 353.324 bidaiari egon dira; aurreko urteko kopuru bertsua, hain justu.

Datu horiek aztertuz, turismoaren sektoreak krisiari «eutsi» egin diola uste du Pilar Zorrilla Eusko Jaurlaritzako Turismo sailburuordeak. Are gehiago, 2009ko bisitarien datua EAEko historiako laugarren onena da, 2006koen, 2007koen eta 2008koen azpitik bakarrik. «Oso bidaiari kopuru ona da egungo krisi egoera kontuan hartuta; Espainian, atzerriko turisten kopurua %8,7 jaitsi da, besteak beste», gogorarazi du.

Datuak hobera egin izatearen arrazoia Turismo Sailburuordetzak hartutako neurriak direla adierazi du Zorrillak. Gasteizko, Bilboko eta Donostiako jaiak zirela eta, promozio bereziak egin zirela gogorarazi du. Horrez gain, urriaren erdialdetik aurrera, +Euskadi 09 programaren barruan eskaintza bereziak egin zirela nabarmendu du. Hotel, ostatu eta nekazaritza turismoko etxe batzuek %20ko deskontua eskaini zuten bi gaueko egonaldietan. Promozio hori apirilaren 11ra arte luzatu berri du Jaurlaritzak, edo helburu horretara bideratutako dirua bukatu arte.

2010. urteari begira, «edukietan, eta ez kokapenetan» lan egiteko asmoa erakutsi du Zorrillak. Hau da, Espainiako Estatuan EAEko turismoa sustatzen jarraituko da, eta atzerri urrunagoetako «hiri zehatzetan» ere lan egingo dela aurreratu du. Loiuko aireportuak hegaldiak ditu Londresera eta Parisera, eta, hiri horietan, turismoa lantzen jarraituko dute. Horrez gain, Amsterdamen lan horrekin hasiko direla aurreratu du Zorrillak, denbora gutxi barru Loiutik harainoko joango den hegaldi erregularra martxan jarriko baita.

Fiturren, irudi berria

EAEko turismoa sustatzekok irudia berrituko du Eusko Jaurlaritzak, eta gaur bertan aurkeztuko da Madrilen (Espainia) egiten den Fitur Turismoaren Nazioarteko Azokan. Patxi Lopez Eusko Jaurlaritzako lehendakariak aurkeztuko du marketin plana, irudi eta lelo berrituekin. «Modernoa, sinplea eta atseginagoa» izango dela aurreratu du Pilar Zorrillak. EAEko guneak 966 metro koadro hartuko ditu Fitur-en.

Datuak

3,5

Ostatu gauak (milioitan). EAEra heldutako bisitariek 3.509.299 ostatu gau ordaindu zituzten 2009an. %1 jaitsi da kopuru hori hoteletan zein nekazaritza turismoko etxeetan.

603.341

Espainiako Estatutik kanpoko bisitariak. 2008. urtearen aldean, Espainiatik kanpoko bisitarien kopurua %6,8 jaitsi zen 2009an. 603.341 bisitari izan ziren; herena, Frantziatik eta Erresuma Batutik etorriak.

800

Egonaldiak diruz laguntzeko aurrekontua (milatan). Apirilaren 11 arte, Araba, Bizkai eta Gipuzkoako hainbat hoteletako eta nekazaritza turismoko etxeetako egonaldiak sustatuko ditu Jaurlaritzak, bi gauetako egonaldietan %20ko beherapenaz.

Gipuzkoan 21 lagun atxilotu dituzte droga trafikoagatik

Polizia operazioa urritik urtarrilera egin da; bahitutako drogak kokaina eta haxixa izan dira, batez ere

Andoni Etxeberria Bilbo

Hondarribiko udaltzaingoak eta Espainiako Poliziak Gipuzkoan ustez droga trafikoan zebilen sare bat desegin dute. Operazioak lau fase izan ditu, eta, guztira, 21 pertsona atxilotu dituzte. Orotara, 3,4 kilo kokaina, 26,2 kilo haxix, 16 gramo marihuana eta 30 mililitro metadona atzeman dizkiete atxilotuei. Horrez gain, narkotikoak garraiatu eta manipulatzeko hainbat material ere konfiskatu dizkiete.

Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernu Ordezkaritzak jakinarazi duenez, ikerketa iragan uztailean hasi zen: Polizia ohartu zen hainbat lagun Donostiako, Irungo eta Hondarribiko (Gipuzkoa) gazteei droga saltzen zebiltzala. Susmoa izan zuten droga saltzaile haiek kide ugariko sare baten parte izan zitezkeela. Horregatik, operazioa zenbait fasetan egitea erabaki zuten, «sareko kide guztiak atzeman arte».

Aipatu ikerketen ondorioz, 2009ko irailean izan ziren lehen atxiloketak: Espainiako Poliziak lau pertsona atxilotu zituen, eta 47 gramo kokaina, 26 gramo marihuana eta 3.100 euro eskudirutan bahitu zizkien ustezko droga trafikatzaileei.

Hilabete beranduago, 2009ko urrian, operazioaren bigarren fasea egin zuten: Poliziak beste bost pertsona kartzelatu zituen, eta, oraingoan, atzemandako droga kopurua 12 kilo haxix eta 1,41 kilo kokaina izan ziren. Agenteek era berean, drogak ebaki eta banatzeko tresnak aurkitu zituzten. Hirugarren pausoa, azaroarekin etorri zen: Poliziak droga saltzeko sare bereko beste zazpi pertsona atxilotu zituen droga trafikoan aritzea egotzita, eta 14,4 kilo haxix eta 5.380 euro bereganatu zituen.

Bukatzeko, operazioko azken kapitulua urtarrilaren 11n jazo zen: Poliziak jakin zuen pertsona susmagarri batek drogak hartzeko bidaia egin behar zuela. Agenteek pertsona horren autoa jarraitu ostean, Irunen geldiarazi zuten, eta barnean droga bete pakete aurkitu zutela azaldu dute. Gidariaz gain, poliziek Irungo eta Hondarribiko beste lau lagun ere atxilotu zituzten droga trafikoa leporatuta, eta bi etxebizitza miatu zituzten.

Heroina saltzaileak Bilbon

Alabaina, ez da izan Gipuzkoakoa arestian Euskal Herrian desegindako droga trafikorako sare bakarra. Atzo bertan, Espainiako Poliziak, Bilbon ustez heroina banatzen zuen talde baten jarduna eten zuen lau kide atxilotzean. Operazio horretan, araztasun handiko 419 gramo heroinaz gain, poliziek auto bat, lau sakelako eta 7.580 euro eskudirutan konfiskatu dituzte.

Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernu Ordezkaritzak azaldu duenez, droga trafikoaren aurrako operazio horri ekin zitzaion Bilboko Epaile Poliziaren Probintzia Brigadak Ageneko (Frantzia) Jendarmeriatik abisua jaso zuenean: heroina kantitate nabarmena zeraman gizon bat atxilotu zuten Frantziako hirian, eta atxilotuak esan zuen Bilboko gizonezko bat erosi ziola droga.

Informazio horren harira, Espainiako Poliziak pertsona hori identifikatzeko lanari ekin zion. Azkenean, urtarrilaren 13an atxilotu zuten Mike deitzen dioten gizona. Horren bidez, Poliziak uste du lortu duela desegitea bertakoak ez ezik Frantziako herritar asko ere drogekin hornitzen zituen erakundea.

LEMOIZKO UDALA

IRAGARKIA

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2009ko abenduaren 28an eginiko bileran, erabaki zuen Andrakako UE 1.1 egikaritze-unitatea urbanizatzeko proiektuaren testu bategina behinbetiko onestea.

2010ko urtarrilaren 8ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (4. zenbakia) argitaratu da horri buruzko iragarkia. Espedientea, gainera, interesatuen eskuragarri egongo da udal bulegoetan.

Lemoizen, 2010ko urtarrilaren 18an.
ALKATEA, Pedro Jesús Botejara Unda.

29. irudia. Sarrera NON galderari erantzunez (*Berria,* 2010/01/20).

14 | berria | 2010eko otsailaren 19a, ostirala
Harian › Euskal Herria

Metroaren erronka berrien dema

PSE-EEk atzera bota ditu aurrekontuak, eta baliteke Basauri, Santurtzi eta Getxoko egitasmoak atzeratzea

Julen Nafarrate Bilbo

Bizkaiko Garraio Partzuergoan sortutako ika-mikak ezbaian jarri ditu Bilboko metroaren erronka berriak. PSE-EEk eta EAJk eragin dute zalaparta, eta biek ala biek sortutako egoeraren erantzukizuna elkarri leporatu diote. Carlos Agirre Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun sailburuak garrantzia kendu zion atzo auziari: «Proiektuak geldi ez daitezen irtenbideak dauzkagu». Ez zuen, baina, irtenbide horien zehaztasunik eman. Oposizioko gainontzeko alderdiek, berriz, EAJk eta PSE-EEk «alderdikeriaz» jokatu dutela salatu dute, eta herritarren ongizatea helburu izateko eskatu diete biei.

Bizkaiko Garraio Partzuergoaren aurrekontuek eragin dute EAJren eta PSE-EEren arteko azken liskarra. Partzuergoaren ordezkaritza Eusko Jaurlaritzak, Bizkaiko Foru Aldundiak eta metroa duten hainbat udalek eratzen dute. Asteazkenean, partzuergoak 127 milioiko zorra duen aurrekontua proposatu zion erakundearen Kontseilu Nagusiari, baina kontseiluak ezezkoa eman zuen, PSE-EEren botoekin. Jose Luis Bilbao Bizkaiko ahaldun nagusia da partzuergoaren presidentea, baina PSEk du boz gehien Kontseiluan.

Erabakiak hautsak harrotu ditu. «Metroak egin behar zituen obra gehienak geldiarazi dituzte», salatu du Jose Luis Bilbaok. «Jaurlaritzaren gaitasun faltagatik erabaki dute azken orduko aldaketa hau, partzuergoak hartuko zuen zorra aurreikusi ez zutelako». Izan ere, Bizkaiko ahaldun nagusiak esan duenez, kontuen alde agertu dira orain arte PSEko kideak: «Aurrekontua partzuergoaren talde teknikoak eratu zuen, eta Barakaldoko alkateak eta Jaurlaritzaren Garraio Sailaren ordezkariek aldeko botoa emana zioten».

Carlos Agirre sailburuak onartu du Jaurlaritzak ezin duela bere gain hartu partzuergoaren aurrekontua: «EAEk zorpetzeko duen gaitasun globala gainditu dute». Agirrek «harrituta» dagoela adierazi du, eta partzuergoko arduradunei «harrokeria» izatea egotzi die. PSE-EEko kideak azpimarratu duenez, partzuergoa jakinaren gainean zegoen: «Aurrekontuak berraztertu behar zituztela esan genien, baina jarrera itxia hartu zutenez, gelditu egin behar izan ditugu, Jaurlaritzak ezin duelako zorpetzearen muga igaro».

Bilboko metroaren geltokia, San Ignazion. LUIS JAUREGALTZO / ARGAZKI PRESS

Ikuskizun «lotsagarria»

Eusko Jaurlaritzaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren arteko konponezinak oposizioko alderdien kritikak ekarri ditu. Ezker Batuak «alderdikeriak» albo batera uzteko eskatu die EAJri eta PSE-EEri. Joseba Gezuraga EAko Bizkaiko Batzar Nagusietako bozeramaileak, berriz, sortutako egoera «ikuskizun lotsagarri» gisa izendatu du. Gezuragaren ustez,

Carlos Agirrek «harrokeria» egotzi die partzuergoko arduradunei

EAJk eta PSE-EEk protagonismo politikoa izan nahi dute. «Eta, azkenean, Bizkaiko herritarrek ordaindu beharko dute, ongizateako ezinbestekoak diren proiektuak arriskuan jartzen direlako».

Aurrekontuen ezeztatzeak atzerapenak sor ditzake Bilboko metroaren hiru egitasmotan. Kolokan daude metroaren ibilbidea Basauri eta Santurtziko Kabiezes auzora luzatzea eta Getxoko Maidagan kalean metroaren ibilbidea lurperatzea. Jose Luis Bilbaoren aburuz, hala ere, metroaren hirugarren linearen proiektua ez dago auzitan, egitasmo horrek finantzaketa berezia duelako.

Egitasmoa ez ezagutzea egotzi diote AHTrako Parisek ezarririko bitartekariari

Eskualdeko bozetan UMP, PS eta FN alderdiei boz bakar bat ere ez emateko eskatu du talde ekologistak

Erredakzioa Baiona

Zur eta lur geratu ziren otsailaren 11n CADE erakunde ekologistako kideak, Marie-Line Meauxekin egin zuten bileran. Emakume hori Frantziako Gobernuak AHTaren egitasmo berrirako ezarri duen bitartekaria da, eta, CADEren aburuz, nabarmena da egitasmoaren inguruan duen «ezjakintasuna». Talde ekologistako ordezkariek azaldu zutenez, «zenbait informazio garrantzitsu» jakinarazi zizkioten bileran, aurretik antza ez zekizkienak. CADEko eledunen aburuz, esaterako, ez zuen tren zirkulazioari eta zama garraioari buruzko informaziorik.

Bestalde, martxoaren 14ko eskualde bozetara begira, UMP, PS eta FN alderdiei boz bakar bat ez emateko eskatu du CADEk, egitasmoaren alde daudela argudiatuz.

Aralarren eskaria

Gipuzkoako Batzar Nagusietan, berriz, *Euskal Y*-aren egitasmoari lotuta, Aralarrek erakunde guztien «inplikazioa» eskatu du, AHTaren lanek desjabetu ez diren lurretan eragindako kalteak «gutxitu eta konpentsatzeko». Zenbait lekutan, obren ondorioz, arazo larriak nozitzen ari direla ohartarazi du: «Lurren okupazioa, bide mozketak, hondakinak edozein tokitan uztea...».

libre!
mundua libre bizi ahal izateko Egunkaria libre mundua bizi ahal izateko
Egunkaria libre!
www.egunkaria.info
Egunkariaren itxieraren VII. urteurreneko
EKITALDIA
Otsailak 19, ostirala
eguerdiko 12:00etan
Andoaingo Martin Ugalde kultur parkean
deialdi irekia

30. irudia. Sarrera NOLA galderari erantzunez (*Berria*, 2010/02/19).

Ustezko lapur bat hil du ertzain batek Basauriko industrialde batean, tiroz

Herrizaingo Sailak dio lapurrek harrapatu egin dutela ertzaina autoarekin eta une hartan tiroa irten zaiola pistolatik

Garikoitz Goikoetxea Bilbo

Gizon bat hil zuen ertzain batek herenegun gauean, Basaurin (Bizkaia). Jaurlaritzako Herrizaingo Sailaren arabera, lapurra zen gizonezkoa, eta Poliziarengandik ihesi zihoala ertzain bat harrapatu zuen autoarekin, gutxienez beste hiru lagun ondoan zituela. Herrizaingo Sailaren datuen arabera, ertzaina autoaren gainera erori zen, eta, argitu gabeko arrazoiak tarteko, tiroak ihes egin zion.

Igande gauean, 23:00etan, gertatu zen tiroketa, Basauriko Azbarren industrialdean. Herrizaingo Sailak jakinarazi duenez, azken egunetan lapurreta ugari egin dituzte inguru hartako lantegietan eta saltokietan. Iturri batzuek diote asteburuan bertan ere izan direla lapurretak Azbarrenindustrialdeko biltegi batzuetan. Horiek guztiak ikertzen ari da Ertzaintza, eta talde antolaturen batek egin dituela uste du. Ikerketen harira, industrialdearen inguruan zelatan ari ziren igande gauean ertzainak.

Zelatan zeudela, auto batean azaldu ziren ustezko lapurrak industrialdera. Baina lapurrak ohartu ziren inguruan Ertzaintzak zaintza berezia jarria zuela, eta ihes egiten ahalegindu ziren, autoan. Herrizaingo Sailaren arabera, bidean topatu zituzten ertzainak aurrean eramaten saiatu ziren ustezko lapurrak ibilgailuarekin. Haietako bat harrapatu egin zuten, eta autoaren kapotaren gainera erori zen. Une hartan, eta beti ere Herrizaingo Sailaren arabera, harrapatutako ertzainaren pistolatik tiro bat atera zen, eta ustezko lapurretako bati jo zion. Ertzainak eskuan zeraman pistola. Orain-

Basauriko Azbarren industrialdean izan zen tiroketa. ALFREDO ALDAY / EFE

Ertzaintza ikertzen ari da zergatik irten den «nahi gabeko» tiroa ertzainaren pistolatik

dik ere ez dute argitu zergatik irten zen tiroa ertzainaren arauzko armatik. «Nahi gabeko» tiroketaren arrazoiak ikertzen ari da orain Ertzaintza.

Tiroak harrapatutako ustezko lapurra zaurituta geratu zen, eta Ertzaintzak larrialdi zerbitzuei eman zien abisu. Gurutze Gorriaren eta Osakidetzaren bi anbulantzia joan ziren tiroketa lekura, haietako bat ZIU Zainketa Intentsiboetako Unitatea duena. Bihotz-biriketako suspertzea egin zioten lekura joandako larrialdi zerbitzuek, baina han bertan hil zen gizona. Bularrean jo zuen balak. Ustezko lapurrek autoarekin harrapatu zuten ertzaina ere artatu behar izan zuten larrialdi zerbitzuek. Nolanahi ere, Herrizaingo Sailak jakinarazi du ez duela zauri larririk.

Beste hirurak, korrika

Hildako gizonarekin batera, gutxienez, beste hiru lagun bazirela zabaldu du Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailak, guztiak ere ustezko lapurrak. Autoarekin ertzaina harrapatu eta kideetako bat zaurituta atzean utzita, korrika ekin zioten ihesari taldeko ustezko beste kideek, eta lortu zuten ertzainengandik alde egitea.

Ertzaintza haien bila dabil orain, batik bat lapurretak eta tiroketa izan ziren Azbarren industrialdearen inguruan. Polizia iturrien arabera, Europa ekialdeko herrialderen batekoak dira taldea osatzen duten lagunak, «nahi gabeko» tiroaren ondorioz hildakoa eta ihes egindakoak dauden beste hirurak. Ertzaintzak uste du azken egunetan Azbarren industrialdean izandako lapurreten egileak direla eta lapurretetara bideratutako talde bat osatzen zutela.

Amona hil zuela onartu du Etxebarriko gazteak, auziko lehen egunean

17 urteko espetxealdia eskatu du Fiskaltzak, uste baitu gazteak «maltzurkeriaz» hil zuela amona

Erredakzioa Bilbo

Epaiketako lehenengo egunean bertan onartu du Etxebarriko (Bizkaia) gazte batek amona hil zuela orain bi urte. Damututa azaldu zen atzo, Bizkaiko Lurralde Auzitegian egindako auzi saioan, eta psikiatriko batean sartzeko eskatu dio epaileari, «jendeari min egitea saihesteko».

Ustezko hilketa 2007ko abenduan gertatu zen, Etxebarrin bertan. Amona eta biloba batera bizi ziren aspaldiko urteetan. Eztabaida bat izan ondoren, labanaz eraso egin zion 21 urteko gazteak amonari, arropa zabaltzen ari zela. Unean bertan hil zen 84 urteko emakumea.

Fiskaltzak adierazi du «maltzurkeriaz» hil zuela bilobak amona. Hilketa egin eta berehala damutu zen gaztea, eta Ertzaintzari hots egin zion egindakoa kontatzeko. Fiskalak onartu du buruko nahasteak dituela gazteak, baina azpimarratu du hilketa egin zuen unean bazekiela zertan ari zen.

Defentsak buruko gaitzak argudiatu ditu, ustezko hiltzailea libre uzteko eskatzeko. Besteak beste, gogorarazi du hilketa egin baino lehenago Galdakaoko ospitalean (Bizkaia) egon zela akusatua, buruko gaitzengatik. Azkenekoz, hilketa egin aurreko astean. Hala ere, abokatuak dio bere helburua ez dela ustezko hiltzailea «ezer gertatu ez balitz bezala» libre geratzea; eskatu du zigorrak kontuan izateko haren egoera.

Barakaldon ustez bilobei sexu erasoak egin dizkien gizonaren aurka joko du Udalak

Emazteak jarri zuen gizonaren aurkako salaketa, eta Basauriko espetxean da larunbataz geroztik

Erredakzioa Bilbo

Barakaldoko Udala akusazio partikular gisa aurkeztuko da, 12 eta 15 urteko bilobei sexu abusuak egitea egotzita ostiralean atxilotu zuten gizonaren kasuan. Clara Campoamor elkarteak ere herenegun iragarri zuen auzian akusazio partikular gisa aurkeztuko dela.

Ostiralean jarri zuen atxilotuaren emazteak —bi neskatoen amonak— haren aurkako salaketa, Sestaoko (Bizkaia) polizia etxean, eta handik gutxira atxilotu zuten 60 urteko gizona. Larunbatean epailearen aurrean deklaratu, eta Basauriko kartzelan (Bizkaia) espetxeratu zuten, sexu abusu delitua egotzita.

Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailak berri eman duenez, 2007tik zeraman atxilotuak bilobei sexu abusuak egiten. Aitonamonek bi neskatoen zaintza zuten, eta, Ertzaintzak emandako datuen arabera, emaztea erosketak egitera joaten zenean aprobetxatzen zuen gizonak sexu abusuak egiteko. «Atxilotuak pistola bat zuen, eta zerbait kontatzen bazuten hil egingo zituela egiten zien mehatxu», jakinarazi du Ertzaintzak.

Barakaldoko Udaleko bozeramaileen batzordeak gertaera salatu du, eta bi neskatoen familiari «babes sozial eta profesionala» eskaini diela azaldu du. Clara Campoamor elkarteko presidente Blanca Katreilak, berriz, bi neskatoen amonak izandako jarrera azpimarratu du. «Zoritxarrez halako kasuak uste baino ohikoagoak dira, baina ez dira beti salatzen. Kasu honetan, ordea, ez da horrela izan, eta erasotzailea Justiziaren esku geratu da».

Atxilotu bat Bilbon

Bilbon, bestalde, Ertzaintzak 22 urteko gazte bat atzeman zuen atzo goizaldean, neska laguna jo zuelakoan. Herrizaingo Sailak berri eman duenez, Deustu auzoko zubitik igarotzen ari zirela, ertzainen patruila batek gazte bat bikotekidea jotzen ari zela ikusi zuen. Biktimak azaldu zienez, ez zen lehen aldia atxilotuak jotzen zuena. Ertzaintzaren arabera, gazteak aurrekariak zituen genero indarkeria delitugatik.

31. irudia. Sarrera zuzena (*Berria*, 2009/04/21).

16 | berria | 2012ko maiatzaren 2a, asteazkena

Le Penek boto zuria emango du Frantziako bozen bigarren itzulian

Igandean euren «kontzientziaren arabera» eta «askatasun osoz» bozkatzeko eskatu die Le Penek Fronte Nazionaleko jarraitzaileei

Eskuin muturrak ordezkaritza handia lortu nahi du legebiltzarrerako ekaineko bozetan

Jon Fernandez

«Zer iruditzen zaizue inozoaren roletik presidentetzarako hauteskundeetan epailetzara pasatzea?». FN Fronte Nazionala «Frantziako politikaren grabitate zentroa» bihurtu dela esan zuen atzo Marine Le Pen buruzagi ultraeskuindarrak Parisko Operaren aurrean bildutako milaka jarraitzaileren aurrean. FNk urtero maiatzaren 1ean Joana Arcekoaren omenez egiten duen ekitaldian argitu du zein izango den bere aukera maiatzaren 6an, Frantziako presidentetzarako hauteskundeen bigarren itzulian: «Datorren igandean boto zuria emango dut. Nik egin dut nire aukera. Zuek berritarrak zarete, eta zuen kontzientziaren arabera emango duzue botoa, askatasun osoz».

Presidentetzarako hauteskundeei garrantzia kendu die Le Penek. Nicolas Sarkozy kontserbadorea eta François Hollande sozialista «agortutako sistema beraren bi aurpegiak» direla nabarmendu du, eta lehen itzulirako kanpainan bere burua behin eta berriz hautagai antisistema modura aurkeztu: «Esperantza faltsua» irudikatzen du Hollandek eta «etsipen berria» Sarkozyk. Ekainean Frantziako Asanblea Nazionaleko diputatu berriak aukeratzeko egingo dituzten hauteskundeetan ordezkaritza handi bat eskuratzea da FNren erronka, bi itzuliko sistemaren ondorioz 2007ko bozetan ez baitzuen eserleku bakarra ere lortu. «Egia esanda, Asanblea Nazionala da askatasun espazio bakarra», adierazi du Le Penek, eta datorren igandean «boto zuria» emango duela esan ostean, ekainean «boto urdin iluna» emango duela gaineratu du —*vote blue marine* frantsesez, alderdiaren kolorearen eta bere izenaren arteko hitz jokoa eginez—.

Buruzagi ultraeskuindarrak gogor kritikatu ditu bi presidentegaiak, bereziki Sarkozy. «Frantziarrei kalte egiteaz gain, lotsarazi egin ditu». Gainera, bigarren itzulian garaipena lortzeko, bi hautagaiak FNko jarraitzaileei egiten ari zaizkien keinuez irri egin du Le Penek: «Eztabaida gure proposamenen ingurukoa da». Hain zuzen ere, immigrazioak, mugek eta Bruselatik aldentzeak pisu handia hartu dute kanpainan. Ekaineko hauteskundeak buruan —*hirugarren itzulia* ere esaten diote—, etorkizunari begira hitz egin du Le Penek: «Gure alderdiak botoen %30, %35 edo %40 lortzen dituenean, gure ideiak boterera iritsiko dira».

Eskuinaren gidaritza

Datorren igandeko bozketan, Frantziako eskuinaren gidaritza egon daiteke jokoan inkestek iragarri duten bezala Hollandek garaipena lortzen badu. Eskuin gaullista zatitzeko eta oposizioko buru bihurtzeko zain dago Le Pen. Sarkozyren porrotak UMP Herritarren Mugimenduaren Aldeko Batasunaren zatiketa ekar dezake, eta hilabeteko epe estuan —ekainaren 10ean da legebiltzarrerako bozen lehen itzulia— gidaritza berria aukeratzeko barne lehia konpondu beharko lukete. Testuinguru horretan, eskuineko korronte gehienak bil ditzake Le Penek bere inguruan, UMPko zenbait alderdi bereganatuta.

Le Penek ekaineko hauteskundeei begira ezarritako estrategia, dena den, ez da erraza, une honetan diputatu bakar bat ere ez baitauka legebiltzarrean. Nolanahi ere, erabat indartuta atera da FN joan den apirilaren 22ko lehen itzulitik. Botoen %17,9 eskuratu zituen eskuin muturreko alderdiak, 6,4 milioi herritarren babesa, FNren orain arteko marka guztiak hautsita: Jean-Marie Le Pen aitak 5,2 milioi lagunen babesa jaso zuen 2002an, eta 3,8 milioi lagunena 2007an.

Aita ondoan duela hitz egin du Le Pen alabak Parisen. Alderdiaren gidaritza hartu eta urtebetera, eskuin muturra inoiz baino indartsuago dago Frantzian, eta botereari eusteko bada ere, hautagai kontserbadorea bere diskurtsora hurbiltzea lortu du. «Herriarengandik sortuko da aldaketa», esan die jarraitzaileei Le Penek. «Aurrerantzean, ezer ez da izango berdin».

Marine Le Pen Fronte Nazionaleko presidentea, atzo, Parisen. IAN LANGSDON / EFE

Etorkinen semea, etorkinen kontra

Sarkozyren arabera Frantzian «etorkin gehiegi» daude, eta gizarteratze sistemak ez du funtzionatzen

J.F.

Aita Nagybocsai Sarkozy Pal hungariarraren eta ama Andree Mallah greziar judu jatorrikoaren semea guraso atzerritarrak dituen Frantziako lehenengo presidente bihurtu zen 2007an. Bi aldeetatik da etorkinen semea Nicolas Sarkozy kontserbadorea, baina, konbertituaren amorruz, etorkinen kontrako diskurtsoa gogortu du bigarren itzulirako azken txanpan, ultraeskuindarren botoaren arrantzan.

«Etorkin gehiegi daude Frantzian. Gure gizarteratze sistemak ez du funtzionatzen. Zergatik? Jada gure lurraldean zeuden etorkinen gizarteratzea lortu baino lehenago etorkin gehiago iristen zirelako». Immigrazioa erabat mugatzearen kontra dagoela argitu badu ere, zera nabarmendu du: «Jaso dezakegunbaino jende gehiago gonbidatzen badugu, integrazioak huts egiten du. Ez daukagu behar adina etxebizitza, behar adina eskola eta ezta behar adina lan ere».

Beste gizarte eredu bat

Parisko Eiffel dorrearen gerizpean bildutako milaka jarraitzaileren aurrean, abertzaletasunaren bandera astindu du Sarkozyk, Frantziako kultura, historia, frantses hizkuntza eta, besteak beste, Charles De Gaulle jenerala, Joana Arcekoa, Napoleon, Moliere eta Voltaire goraipatuz. Frantziaren «ondare kristauaren» defentsa sutsua ere egin du. «Inork ez gaitu gure sustrai kristauak ukatzera behartuko». Konbertituaren amorrua, beste behin.

Bere aldeko botoa eskatzeko, François Hollanderen kontra egin du, haren garaipenak Frantzia Espainiaren edo Greziaren egoerara eramango lukeela esanez. Sindikatuei ere, «bandera gorria» laga eta «hiru kolorekoari» —Frantziakoari— heltzeko eskatu die langileen egunean. «Ez dugu sozialismorik nahi».

«Beste gizarte eredu bat» ezarriko duela hitzeman du hautagai kontserbadoreak. Soldaten igoera eta lanaren kostuen murrizketa izango dira bestelako eredu horren oinarria, Sarkozyren arabera. «Horixe da datozen bost urteetarako erronka handia».

32. irudia. Zeharkako sarrera (*Berria*, 2012/05/02).

Tassos Papadopoulos Zipreko presidentea lehiatik at gelditu da bozen lehen itzulian

Kassoulides eta Christofias hautagaiak izan dira garaile, uhartearen batasunaren aldeko bi buruzagi nagusiak

EKAIN ROJO

Zipreko presidentetzarako hauteskundeetan hiru hautagaien artean lehia estua izango zela iragarri zuten, eta, alde horretatik, fin ibili dira. Ioannis Kassoulides, Dimitris Christofias eta Tassos Papadopoulosen artean oso alde txikia izan da botoen zenbaketan. Ez zen espero, ordea, Papadopoulos orain arteko presidentea hauteskundeen lehen itzulian lehiatik kanpo gelditzea. Adituen arabera, hautesleen erabakiak susperraldi berria emango dio Zipre berriz batzeko ahaleginei, eta Iparraldeko Zipreko Errepublika Turkiarreko agintariek ere begi onez ikusi dute egungo presidentearen porrota.

Zipreko Errepublikako herritarrak derrigortuta zeuden hauteskundeetan botoa ematera, eta, hortaz, bozkatzeko eskubidea zuten 516.000 zipretarretatik ia %90k parte hartu zuen igandeko bozetan. Hala, Ioaniss Kassoulides hautagai kontserbadoreak lortu zuen boto gehien, baina espero zen bezala ez zuen bigarren itzulia saihesteko moduko babesik jaso. DISY Zipreko Alderdi Demokratikoaren sostengua zuen buruzagiak botoen %33,51 jaso zuen, eta mila botoko aldeagatik irabazi zuen.

Bigarren postuan Dimitris Christofias hautagai komunista sailkatu zen —botoen %33,29rekin—, AKEL Zipreko Langileen Alderdi Progresistaren babesarekin. Lehen aldia da alderdi komunistak presidentetza bozetarako hautagaia aurkezten duena. 2003an Papadopoulos presidente izatea ahalbidetu zuen sostengua eskainita.

Orain arteko presidenteak botoen %31,79 eskuratu zuen, eta 7.000 gehiago beharko zituen bigarren itzulira igaro ahal izateko. Adituen esanetan, AKEL alderdiaren babesa galtzeak eragin du ustekabeko porrota. EDEK Alderdi Sozial Demokrataren babesa zuen, mugimendu ekologistarena, EVROKO alderdi demokratarena eta DIKO zentroko alderdiarena. Heldu den igandean erabakiko dute zipretarrek hurrengo bost urteetarako presidente berria zein den.

BI KOMUNITATEEN BAT EGITEA. Hauteskunde kanpainan Zipren dagoen banaketa gainditzeko urratsak izan dira mintzagai nagusi. 1974. urtean uharteko iparraldea mendean hartu zuen Turkiako armadak, eta orduz geroztik bitan banatuta dago uhartea, eta erdian Nazio Batuen Erakundeko bake misioa dago. Greziar jatorriko zipretar gehienak Zipreko Errepublikaren agintepean bizi dira, uhartearen hegoaldean. Turkiar jatorriko zipretarrak, bestalde, ia osotasunean uhartearen iparraldean bizi dira, 1983. urtetik Zipreko Iparraldeko Errepublika Turkiarra deritzon lurraldean. NBEren bitartekaritzarekin bi zatiak eta bi komunitateak elkartzeko negoziazio ugari egin badituzte ere, ez dute orain arte akordiorik lortu; eta 2004an ere banaketa gainditu gabe sartu zen Zipre Europako Batasunean. Turkiaren menpe den zatia Ankarako gobernuak bakarrik onartzen du.

2004. urtean Koffi Annanek bideratutako banaketa amaitzeko egitasmoa erreferendumean bozkatu zuten zipretar guztiek. Zipreko Errepublikan ezezkoa nagusi izan zen, Papadopoulos presidenteak bat egitearen kontrako botoa babestu ondoren. Proposamenak ez zuela herrialdearen batasuna ekarriko arrazoitu zuen Zipreko presidenteak. Turkiar jatorriko zipretarrek, berriz, baiezkoa eman zioten.

«Heldu da garaia azkeneko urteotan Zipreko auzian jendea banatu duen guztia atzean uzteko», esan zuen Kassoulidesek bozen garaipen estua ezagutu ondoren. Mehmet Ali Talat Zipreko Iparraldeko Errepublika Turkiarreko agintariaren arabera, itxaropen berria eman du presidentearen porrotak. «Papadopoulosek ez zuen Zipreko auzia konpondu nahi, bi hautagai irabazleek, ordea, borondate hori adierazi dute». 1974tik lehen aldiz, hegoaldean bizi diren 390 zipretar turkiarrek bozkatu ahal izan dute.

Ioaniss Kassoulides hautagai kontserbadoreak irabazi zuen herenegun hauteskundeen lehen itzulian. SYK / EFE

■ ZIPREKO ERREPUBLIKA

Presidentetzarako bozen lehen itzulia
Parte hartzea: %89,62



«Heldu da garaia azken urteotan Zipreko auzian jendea banatu duen guztia atzean uzteko»

IOANISS KASSOULIDES
BOZEN LEHEN ITZULIKO GARAILEA

«Papadopoulosek ez zuen Zipreko auzia konpondu nahi; bi irabazleek, ordea, borondate hori azaldu dute»

MEHMET ALI TALAT
ZIPREKO ERREPUBLIKA TURKIARREKO AGINTARIA

Armeniarrek presidente berria hautatuko dute gaur Karabakh Garaiko auziak baldintzatuta

Sarkissian lehen ministroa bozak irabazteko faborito nagusia da, Petrossian presidente ohiaren aurretik

ERREDAKZIOA

Serge Sarkissian lehen ministroaren eta Levon Ter Petrossian presidente ohiaren artean hautatuko dute gaur armeniarrek, presidentetzarako hauteskundeetan. Inkestek hala diote behintzat, eta bietatik Sarkissianek omen du irabazteko aukera gehien. Karabakh Garaiko auzia da, adituen arabera, hauteskundeen giltzarri nagusia.

1988-1994. urteetan, Armeniaren eta Azerbaijanen arteko gerraren ondorioz, Azerbaijan barruan Karabakh Garaiko Errepublika sortu zen, hau da, armeniarrek kudeatutako herrialde ia burujabea. Bozetako bi aurkari nagusiek jokabide ezberdina izan zuten, 30.000 hildako baino gehiago eta milioi bat desplazatu eragin zituen gatazkaren inguruan. Sarkissian Karabahk Garaikoa da, agintea utziko duen Robert Kotcharian presidentea bezala, eta Armeniak irabazi zuen gerrako heroia da.

Bestalde, Petrossian gerra ostean presidente karguan zen, eta dimisioa ematera behartu zuten 1998. urtean Azerbaijanen eskaeren aurrean amore ematen zuela leporatzen baitzioten. Karabakh Garaiaren independentziaren aldekoa da Armenia, baina Azerbaijanek ez du bere burujabetza onartzen. Errusia, AEB eta Frantziarekin bitartekaritzarekin egin dituzten negoziazioetan autonomia zabala ematea eskaini du, Armeniak herrialdean duen agintea uzten badu. Kosovoren independentzia eskaerak Karabakh Garaiaren auzian bien harremanak gaiztotuko dituen beldur dira adituak.

Sarkissian zurrunagoa da gatazkaren inguruan, eta lehen itzulian bertan irabaziko balu, kaleetan indarkeria piztu daitekeen beldur dira atzerriko begirale ak.

Gizarte Zibila Erakundeko presidente Artak Kirakosianen arabera, bi faboritoen hauteskunde programan ez dago ezberdintasunik, nortasunen arteko gatazka da. «Ez dago hitz bakarra ere, adibidez, NATOri edo Europako Batasunari buruzko harremanen inguruan».

Nahiz eta etengabeko hazkunde ekonomikoa duen, Armeniako herritarren laurdena pobrezian bizi da, herrialdean dagoen ustelkeria handiaren erruz. AEBetan Armeniako diaspora zabala dago, eta laguntza eskerga bidaltzen dio herrialdeak armeniarrei. Halaber, Errusia Armeniarentzat aliatu ezinbestekoa da, eta lotura areagotzea hobetsi du Sarkissianek.

■ ARMENIA

- **Biztanleak:** 3 milioi. Armeniarrak (%97,9), kurduak (%1,3), errusiarrak (%0,5) eta besteak (%0,3)
- **Hizkuntzak:** armeniera (ofiziala %97,7), kurduera (%1), errusiera (%0,9) eta beste (%0,4)
- **Erlijioak:** armeniar ortodoxoa (%94), bestelako kristauak (%4), animista (%2)
- **Bizi itxaropena:** 68 urte gizonezkoak eta 75 urte emakumezkoak.
- **Esportazio nagusiak:** diamanteak, makineria, metal produktuak eta jantziak.
- **Dirua:** dram
- ***Per capita* errenta:** 4,70 dolar.

33. irudia. Interpretazio-sarrera (*Berria*, 2008/02/19).

4.3. SARRERAK ONDO IDAZTEKO AHOLKUAK

«Lehenengo paragrafoan lepotik heldu behar zaio irakurleari, hatz lodia trakean sartu bigarren paragrafoan, eta estu hartu albistearen azken lerrora arte». Paul O`Neil idazle estatubatuarraren hitzak dira horiek (Randall, 1999: 165).

Argi dago sarrerak irakurlea kateatu behar duela eta irakurtzen jarraitzeko grina piztu behar diola. Horixe da sarreren funtzioa. Hori lortzeko hainbat iradokizun proposatzen zaizkizu:

1. Sarrerak izan behar du zuzena, argia, laburra eta erakargarria. Sarrera irakurtzean, irakurleak buruan pentsamendu bakarra izatea lortu behar da: «albistea irakurri nahi dut». Hori soilik lortuko da daturik garrantzitsuenak eta zehatzenak aurkeztuz. Sarrera zamatuko duten datuak testuaren korpusean erabiliko dira, ez sarreran.
2. Sarrerak bat egingo du tituluan azaldutakoarekin. Sarreraren lehenengo esaldiak eta tituluak oso antzekoak —ia perpaus berbera— izan behar dute.
3. Sarrerak izan behar du beregaina, bai gramatikaren ikuspegitik baita biltzen duen informazioaren aldetik ere. Ez du hurrengo paragrafoen beharrik, ulertua izateko.
4. Tituluetan bezala, esaldi osoek eta ondo ordenatuek osatuko dute sarrera: *subjektu* bat, *aditz* bat, eta *predikatua* duten esaldiek alegia. Lehenengo paragrafoak izan behar du ulergarria. Salbuespenak salbuespen, oro har, esaldi bakunek hobeto funtzionatzen dute. Horregatik ez da komeni menpeko esaldirik erabiltzea sarreran. Horrelakoek irakurketa zaildu egiten baitute. Era berean, ez da oso txukuna zenbakiekin edo erakunde ofizialen izenekin sarrerari hasiera ematea, xarma kentzen baitiote prosari.
5. Adierazpenekin hastea sarrera ez da komeni. Halere, erabiltzekotan, kontuz! Aukeratu adierazpen esanguratsua, laburra eta indartsua dena. Testua landu gabe dagoen itxura eman dezakete adierazpen luzeegiek eta aspergarri suerta daitezke irakurlearentzat.

4.4. ALBISTEAREN EGITURA

Albistearen egituraren baitan sarrera edo lehenengo paragrafoa elementu garrantzitsuena dela aipatu da arestian. Sarreraren ostean, eta erabiliko den generoaren arabera, testuan datuak ordenatu egin behar ditu kazetariak.

«Idaztea neurri handi batean, ideiak antolatzea da, eta antolamendu horri egitura egokia ematea. Osotasunaren barruan, testuaren zati eta azpizati bakoitza eduki unitatea da, forma aldetik ere markatua» (Aranguren *et al.,* 2006: 30).

Ideiak ordenatzeko eta testuari forma emateko, hainbat egitura izango ditu eskura kazetariak eta bere kontakizuna azaltzeko zein den egokiena erabakiko du. Izan ere, ez dago araurik eta legerik egitura bat edo bestea erabiltzera behartzen duenik. Alegia, kazetariak aukeratuko du zein den bere ustez egiturarik onena irakurleari eskaintzeko.

Gertaerak eta egitateak aurkezteko, ez da ohikoa ordena kronologikoari jarraitzea kazetaritza-testuetan. Izan ere, kazetaritza-interesaren arabera antolatu behar dira datuak eta ordena kronologikoak ez du hori berez bermatzen. Demagun sute batean izandako hildakoen berri eman behar dugula. Hasieratik azalduko ditugu ondorioak, hildakoak izan direla alegia. Ez dugu bukaerarako utziko hain garrantzitsua den datu hori. Beste horrenbeste txirrindularitza-lasterketa bati buruzko informazioa emateko orduan. Irabazlearen berri emango da hasieran, ez ordea bukaeran.

Prentsaurrekoetan kazetariak jasotzen duen informazioa ordena kronologikoan jasoko du, apunteen bidez, baina publikatzeko testua idazten duenean, datuen garrantziaren arabera antolatuko du prentsaurrekoan esandakoa. Hots, garrantzi gehien duten adierazpenak hasieran jarriz eta garrantzi gutxien dutenak bukaerarako utziz.

4.4.1. Piramide irauliaren egitura

*Alderantzizko piramidea*ren izenaz ere ezagutzen da egitura hau. Kontakizunak gainbeherako tentsioaren egiturari jarraitzen dio. Hau da, informazio garrantzitsuena lehenengo paragrafoan kokatzen da eta hurrengo paragrafoak ordenatzen dira garrantziaren arabera, gutxiago gailentzen diren datuak beherago kokatuz. Hortaz, egitura honek hautsi egiten du kontakizunaren ordena kronologikoa.



34. irudia. Piramide irauliaren egituraren grafikoa.

Egitura honek baditu abantailak bai kazetariarentzat baita irakurlearentzat ere. Irakurleak lehen kolpe batean eta hasierako paragrafoak irakurrita ezagutuko ditu gertaeraren daturik nabarmenenak. Beraz, irakurketa erraztu egiten du. Prentsa idatziak gero eta irakurle gutxiago dituen garaian —eta patxadak tokirik ez duen gizartean— jendea irakurtzera bultzatzeko amu izan daiteke. Egun, egunkarietako edizio elektronikoetan inoiz baino indar handiagoa du egitura honek.

Beste alde batetik, kazetariaren lana erraztu egiten du iraulitako piramidearen egiturak. Batetik, datuak sistematizatzen laguntzen duelako eta datu berriak agertu ahala, testuan modu errazean txertatzeko aukera eskaintzen duelako. Bestetik, testu informatiboak sortzeko mekanika azkar ikastea ahalbidetzen duelako.

Hala ere, kazetaritza modernoan alderantzizko piramidearen egitura alde batera uzteko joera gero eta nabarmenagoa da. Egitura itxia eta estereotipatua dela diote adituek eta ez duela irakurketa motibatzen. Izan ere, haren prosa ez da batere dotorea eta kazetariaren sormena oztopatu egiten du. Irrati, telebista eta agerkari digitalen konpetentziaren ondorioz, agerian geratu da prentsa idatzia ezin dela mugatu informazio hutsa eskaintzera. Hots, irakurleari zerbait gehiago eskaini behar dio prentsa idatziak: interpretazioa, analisia, balorazio-elementuak. Ez dauka zentzurik informazio hutsa eskaintzea gertaeraren datu garrantzitsuenak bezperan ezagutu baditu irakurleak.

Haatik, piramide irauliaren egitura landuko da klaseko ariketetan; albisteak idazten ikasteko egokia baita eta ikasleak informazioa antolatzen ikasteko aproposa delako.

4.4.2. Egitura kronologikoa

Izenak berak dioen moduan, egitura honek gertaeren ordena kronologikoa errespetatzen du. Ez da oso ohikoa albisteen erredakzioan; garrantziak gutxitan egiten duelako bat jazoeraren segidarekin.

Oso noizean behin erabil daiteke egitura kronologikoa albisteetan. Esaterako, ETAren behin betiko su-etenaren harira, su-etena lortzeko egin diren urratsen kronologia bildu daiteke zatikian edo albiste nagusiaren material osagarri gisa.



35. irudia. Egitura kronologikoaren grafikoa.

(Ikus 36. irudia).

Tituluak jasotzen duen ideia kronologikoki lantzen du albisteak. Hasi 2009-10-13an eta 2011-01-08an bukatu.

4.4.3. Egitura homerikoa edo harea-erlojuaren egitura

Egitura honen arabera, hasierako paragrafoetan datu garrantzitsuenetako batzuk emango ditu kazetariak eta informazioaren bukaerarako gordeko ditu garrantzitsuak diren beste datu batzuk. Hortaz, erdiko paragrafoak trantsizio-elementu bilakatuko dira, biziak izango diren sarrera eta bukaerarako. Albisteetarako baino, editorial, kronika eta erreportajeetarako egitura egokiagoa da.



37. irudia. Egitura homerikoaren grafikoa.

4.4.4. Nobelaren egitura

Oro har, eleberriek duten egitura bera proposatzen da gertaeren kontakizuna egiteko. Hots, bigarren mailako datuak dira abiaburu eta poliki-poliki tentsioak gora egiten du bukaera bizia eta datu garrantzitsuenekin osatu arte.

Ez da oso egitura egokia informazioa antolatzeko, irakurlea aspertzeko arriskua dagoelako eta datu garrantzitsuak ezagutu gabe, irakurtzeari uzteko arriskua areagotu egiten delako.



38. irudia. Nobelaren egituraren grafikoa.

4.4.5. Informazioaren lepoa eta zatidura

Titulu-elementuekin batera, badira albistearen gorputzean nabarmentzea merezi duten bi osagai: informazioaren lepoa eta zatidura. Biek ala biek osagarri-funtzioa betetzen dute albistearen baitan, nahiz eta bakoitzak berezko izaera beregaina duen.

a) Informazioaren lepoa edo tie-in

Sarreraren euskarri gisa edo albistearen corpusaren osagarri moduan erabiltzen da albistearen lepoa. Ez da albiste guztietan agertzen eta paragrafo batean edo bitan idazten da, beti, sarreraren segidan. Komenigarria da lepoa erabiltzea honako kasu hauetan:

– Albistearen protagonisten identifikazio asko daudenean eta lehenengo paragrafoan jartzeak sarrera oso luzea egiteaz gain, nahasmena sor dezakeenean erabiliko da lepoa. Bertan ezagutzera emango dira protagonistak beren karguekin.

– Jarraipena duten albisteetan, aurreko egunetako gertaerekin uztartzeko balio du lepoak. Ezin baita pentsa irakurleak aurreko egunetan derrigorrez egunkaria irakurri duenik, beraz, ezinbesteko elementua litzateke lepoa gertaera modu sakonean ezagutzeko.
– Testuinguruko datuak asko direnean, eta garrantzitsuak, sarrera eta azalpenaren artean kokatzen dira, irakurleari adierazteko egon badaudela datu asko kontuan hartzekoak eta ondoren etorriko direla (ikus 39. irudia).

b) Zatidura

Albiste mota ezberdinen atalean aipatu da zatidura. Azken urteetan, idatzizko prentsan asko erabili ohi da, batez ere informazio-testu konplexu eta luzeetan. Testu osagarria da zatidura, laburra eta albiste nagusiaren menpekoa. Hots, informazioaren gai nagusiarekin izango du zerikusia. Testu luzeak arintzeko, datuak gehitzeko edota gertaera testuinguruan jartzeko erabiltzen da. Zatidurak titulua du eta genero beregain gisa ager daiteke: analisia, elkarrizketa, albistea, soslaia…

ETAren su-etena → Kronologia

Barne eztabaidatik su-etenera arte

Ia hamabost hilabete igaro dira ezker abertzaleak barne eztabaida abiatu zuela. Indarkeriarik gabeko egoera demokratiko bat lortzeko baldintzak sortzea eta subiranisten indarrak metatzea helburu duen estrategia horrek eman ditu fruituak. Oztopoak ere ugariak izan dira.

Ezker abertzalearen barne eztabaidaren aurkezpena, Altsasun. I. R. / ARP

EAren eta ezker abertzalearen arteko akordio estrategikoa. L. JAUREGALTZO / ARP

ATXILOKETAK PROZESUAREN HASIERAN

■ **2009-10-13.** Barne eztabaida hastear zegoela, Arnaldo Otegi, Rafa Diez, Arkaitz Rodriguez, Miren Zabaleta, Sonia Jacinto eta ezker abertzaleko beste lau kide atxilotu zituen Espainiako Poliziak. Alpatutako bostak espetxeratu egin zituzten, eta ordutik preso daude. Rafa Diez (2010-04-26ean) baldintzapean aske utzi zuten.

■ **2009-10-17.** Manifestazio jendetsua izan zen Donostian, atxiloketak salatzeko.

EZKER ABERTZALEAREN BARNE EZTABAIDAREN HASIERA

■ **2009-10-20.** *Fase politikoaren eta estrategiaren argipena* izenburuko txostena banatzeari ekin zion ezker abertzaleak. *Gara*-k laburpena kaleratu zuen.

OTEGI, DIEZ ETA BESTEEN GUTUNA ESPETXETIK

■ **2009-11-08.** Rafa Diez, Arnaldo Otegi, Miren Zabaleta, Arkaitz Rodriguez eta Sonia Jacinto presoek gutun bat idatzi zuten txostenaren alde egiteko.

ALTSASUKO ADIERAZPENA

■ **2009-11-14.** Ezker abertzaleak agerraldi jendetsua egin zuen Altsasun, prozesuaren ondorioak laburbildu eta borondateak adierazten zituen agiria aurkezteko. Prozesua garatzeko, «soilik bide politiko eta demokratikoak» erabiltzearen alde agertu zen. Elkarrizketari begira, Mitchell senatariaren printzipioak bere egin zituen.

EA-REN PROPOSAMENA

■ **2009-11-21.** Euskal Herriaren independentziaren aldeko akordio subiranista sustatzeko proposamena plazaratu zuen EAk Donostiako Miramar jauregian.

ATXILOKETAK. GAZTE MUGIMENDUA

■ **2009-11-24.** Gazte independentisten aurkako polizia operazioa. 35 gazte atxilotu zituzten, Segiko kide izatea leporatuta.

ETA, PROZESU DEMOKRATIKOAREN ALDE

■ **2010-01-17.** Prozesu demokratikoaren aldeko jarrera agertu zuen ETAk *Gara* egunkariak kaleratutako agiri batean. Altsasuko irudia ere goraipatu zuen. Egun batzuk lehenago, EPPK presoen kolektiboa ere prozesu demokratikoaren alde agertu zen.

OTEGI, AUZITEGI NAZIONALEAN

■ **2010-01-27.** Altsasuko agiria eta eztabaidaren ondorioak bere egin zituen Arnaldo Otegik Espainiako Auzitegi Nazionalean, Jose Mari Sagardui *Gatza* presoaren aldeko ekimenean parte hartzeagatik eginiko epaiketan.

ADIERAZI EH EKIMENAREN AURKEZPENA

■ **2010-01-30.** Adierazi EH eskubide zibil eta politikoen aldeko herri ekimena aurkeztu zuten Bilbon, Euskalduna jauregian.

EZTABAIDAREN ONDORIOAK. 'ZUTIK EUSKAL HERRIA'

■ **2010-02-14.** Barne eztabaida amaitutzat eman zuen ezker abertzaleak, eta *Zutik Euskal Herria* agiria kaleratu zuen. Altsasuko Adierazpenaren lidoak barneratu, eta indar bilketa independentistaren aldeko deia egin zuen.

INDEPENDENTISTAK SAREA

■ **2010-02-27.** Euskal Herriko independentziaren aldeko herritar sarea aurkeztu zuten Donostian, Miramar jauregian.

JON ANZAREN GORPUA AGERTU ZEN

■ **2010-03-11.** Ofizialki jakin zen Jon Anza preso ohi eta iheslaria hilda zegoela eta haren gorpua Tolosako Purpan erletxean zegoela. 2009ko apirilaren 18an desagertu zen, ETAko kideekin bilera bat egitera zihoala.

GAZTEHERRIA EKIMENA

■ **2010-03-11.** Gazteherria aurkeztu zuten ezker abertzaleko, EAko, Aralarreko eta Alternatibako gazteek, bestek beste.

ETA-REN ETA FRANTZIAKO POLIZIEN ARTEKO TIROKETA

■ **2010-03-17.** ETAren eta Frantziako polizien artean tiroketa izan zen Paristik gertu. Serge Nerin agentea hil zen.

ETA-REN AURKAKO POLIZIA OPERAZIOA

■ **2010-03-20.** Bost pertsona atxilotu zituzten Ipar Euskal Herrian; tartean, Mikel Karrera, Espainiako Barne Ministerioaren arabera ETAren zuzendaritzako kidea zena.

ATXILOKETAK. GAZTE MUGIMENDUA

■ **2010-03-30.** Gazte mugimenduaren aurkako polizia operazioa Ipar Euskal Herrian. Zortzi gazte atxilotu zituzten.

BRUSELAKO ADIERAZPENA

■ **2010-03-29.** Nazioarteko izen handiko 21 begiralek bakestutako adierazpen bat aurkeztu zuen Brian Currin abokatu hegoafrikarrak Europako Parlamentuan. Besteak beste, sueten iraunkor eta eglaztagarria eskatu zioten ETAri, eta neurriko erantzun bat emateko, berriz, Espainiako Gobernuari.

ETA-REN AGIRIA ABERRI EGUNERAKO

■ **2010-04-04.** Konponbide elkarrizketatuaren alde dagoela, gatazka «konfrontazio demokratikoaren bidez» gainditu dadin nahi duela eta irtenbide iraunkorra ekarriko duen egoera demokratikorako «alde guztietako konpromisoak eta bermeak» beharko direla adierazi zuen ETAk *Gara* egunkarira igorritako agiri batean. Era berean, Parisko tiroketan polizia batek bizia galdu izana «ETAren gogoz kontrakoa» izan zela esan zuen.

ABERRI EGUNEKO EKITALDIAK

■ **2010-04-05.** Independentistak sareak deituta, ezker abertzaleak eta EAk bat egin zuten Aberri Egunerako Irun eta Hendaia artean eginiko ekitaldian. Aralarrek uko egin zion ekimenean parte hartzeari, eta bezperan ekitaldi politiko bat egin zuen Urruñan. EAJk Bilbon egin zuen ekitaldia; *Ados* proposamena aurkeztu zuen.

ABOKATUEN ATXILOKETAK

■ **2010-04-14.** Hamar herritar atxilotu zituzten; tartean, euskal presoen hiru abokatu: Arantza Zulueta, Jon Enparantza eta Iker Sarriegi. 2010-11-02ean baldintzapean aske utzi zituzten.

IRUÑEKO ADIERAZPENA

■ **2010-04-24.** Bruselako agiriari erantzuteko eskatu zien ezker abertzaleak ETAri zein Espainiako Gobernuari. Konponbide «justu eta iraunkor bat» lortzeko, Anoetako eredua hartu zuen erreferentzia gisa eta Mitchellen printzipioak berretsi zituen. «Bitarteko politikoak» soilik garatuko dituen estrategia baten beharra azaldu zuen.

EGIGURENEN PROPOSAMENA

■ **2010-06-18.** Ezker abertzaleak egindako urratsak aintzat

36. irudia. Egitura kronologikoa duen albistea (*Berria*, 2011/01/11).

10 || berria || 2010eko urtarrilaren 12a, asteartea

'Egunkaria auzia' → Epaiketa

libre!

Auzipetuak Madrilen dira berriro

Epaiketako saioaren zuzeneko testu kontakizuna egingo du 'Berria.info' atariak

Lierni Alkorta

Urte berriarekin, heldu da *Egunkaria auziaren* epaiketarekin jarraitzeko unea, eta Espainiako Auzitegi Nazionalean dira berriz ere auzipetuak: Txema Auzmendi, Joan Mari Torrealdai, Iñaki Uria, Xabier Oleaga eta Martxelo Otamendi. Gaur, 10:00etan hasiko da saioa, eta akusazioak eskaturiko lekukoek hitz egingo dute epaimahaiko kideen aurrean. Guardia zibilen deklarazioez gain, Carmen Gisasola, Jose Luis Alvarez Santacristina *Txelis* eta Jose Mari Dorronsoro euskal presoek gaur deklaratzea espero da. Ustez *Egunkaria*-ri buruzko dokumentuak atzeman zizkieten hiru euskal preso horiei atxilotu zituztenean.

Abenduaren 15ean hasi zen *Egunkaria*-ren aurkako epaiketa. Lehen egunean, bost auzipetuek deklaratu zuten, eta abenduaren 16an, akusazioak eskaturiko guardia zibilen txanda izan zen. *Berria.info*-k gaur ere *Egunkaria*-ren epaiketako saioaren zuzeneko testu kontakizuna egingo du, Espainiako Auzitegi Nazionaletik bertatik. 10:00etan hasiko da.

> Ez dut uste egunkari batean lanean ari direnak ETAko organigraman sartuta egoten direnik»
> **JESUS EGIGUREN**
> PSE-EEko presidentea

> «Kasu hauetan epaiketa azkarrago hasteko eta ixteko eskatu behar dela iruditzen zait»
> **PATXI LOPEZ**
> Eusko Jaurlaritzako lehendakaria

Egunkaria auziaz mintzatu ziren atzo Jesus Egiguren PSE-EEko presidentea eta Patxi Lopez Eusko Jaurlaritzako lehendakaria. *Egunkaria auziko* auzipetuak ETAkoak direla sinesten ote duen galdetuta, hau adierazi zuen Egigurenek Euskadi Irratian: «Nik ez dut uste egunkari batean lan egiten duenak edo kultura inguruan lan egiten duenak pistola poltsikoan eramaten duenik, ezta ETAko organigraman eta erakundeetan sartuta egoten direnik ere. Nik uste dut horrekin erantzun dizudala». Epaileek zein lotura ikusi duten ez dakiela adierazi zuen, ordea.

Auzipetuak, epaiketaren bigarren egunean, auzitegira sartzen. A. CANELLADA / ARP

Eusko Jaurlaritzako lehendakari Patxi Lopezek atzo Radio Euskadin adierazi zuen *Egunkaria auzian* «justizia egitea» espero duela: «Iruditzen zait kasu hauetan epaiketa azkarrago hasteko eta ixteko eskatu behar dela. Zazpi urte pasatzea gehiegizkoa da, Justiziaren eta sistema judizialaren ez oso aldeko iritziak sortzeko balio duelako».

Agenda

- **Gaur.** Martxelo Otamendiren hitzaldia, 20:00etan, Madrilgo Euskal Etxean.
- **Bihar.** Martxelo Otamendiren hitzaldia, 20:00etan, Lizarrako Musika Eskolan.
- **Ostiralean.** Martxelo Otamendi, Carmen Lamarca eta Ricardo Vazquez Pradaren hitzaldia, 19:00etan, Zaragozako Ekonomia Fakultateko aretoan.
- **Urtarrilaren 19an.** Otamendiren hitzaldia, 19:30ean, Valentziako Urriaren 1a Kultura Kontenporaneoko Zentroan.

@ Informazio gehiago bildu nahi izanez gero, bisitatu webgune hau:
www.egunkaria.info
www.berria.info

'Egunkaria'-ren aurkako epaiketa oihartzun handia izaten ari da Euskal Herriko mugetatik kanpo ere. Gertuko lurraldeetatik harago, AEBetan, Alemanian, Suitzan, Lituanian eta Laponian ere albiste da 'Egunkaria auzia'.

Mugez haragoko hedabideetan ere albiste

L. Alkorta

Albisteek ez dute mugarik ezagutzen. Eta albisteek bezalaxe, elkartasunak ere muga geografiko guztiak gainditu ohi ditu. Hala ari da izaten *Egunkaria auzian*. 2003an *Euskaldunon Egunkaria* itxi zutenean gertatu bezala, 2009. urtearen amaieran eta 2010aren hastapenetan ere, *Egunkaria*-ren epaiketaren hasiera medio, oihartzun handia izaten ari da gaia Europan nahiz mundu zabalean.

Euskal Herritik urrun, Norvegia iparraldean, samien artean *Egunkaria auziaren* berri izaten ari dira egunotan. Abenduaren 19an Bilbon *Egunkaria libre!* lelopean eginiko manifestazioaren berri irakur daiteke Nrk irrati samiaren webgunean. Norvegian indigenen eskubideen alde diharduen Galdu elkartearen webgunean ere *Egunkaria*-ri buruzko erreportajea irakurgai da.

Alemaniako hainbat hedabide ere ari dira *Egunkaria auziaren* berri ematen. Info-Baskenland, Euskal Herriaren Lagunak taldea, esaterako, *Euskaldunon Egunkaria*-ri buruzko jarraipena egiten ari da. *Neues Deutschland* egunkariaren webgunean, aldiz, Txema Auzmendi auzipetuari eginiko elkarrizketa irakurtzeko aukera du bisitariak.

Antzera dihardu Suitzako mendebaldeko Romandia eskualdeko Romandie News webguneak ere. Ez da Suitzan *Egunkaria auzia* jarraitzen ari den hedabide bakarra. Izan ere, *Le Courrier* eguneroko suitzarrak *Egunkaria* itxi zutenetik gaur egunera arteko bidearen berri eman du orain gutxi. Kazeta horrek dioenez, *Egunkaria*-ren itxiera «Espainiako gizartearen desbideratze antiterroristaren kasu enblematikoa da».

Frantzian, *Le Grand Soir* «informazio alternatiboaren kazeta militantea» ere *Egunkaria*-ren aurkako prozedura jarraitzen ari da. Hala, epaiketa hasi berritan Martxelo Otamendi *Egunkaria auziko* auzipetuari eginiko elkarrizketa argitaratu zuen.

Lituanian polonieraz argitaratzen den egunkari nagusia, *Kurier Wilénski*, eta Italiako Trentino eskualdean (Tirol hegoaldea) alemanez aritzen den *www.stol.it* webguneak ere eman dute *Egunkaria*-ren aurkako epaiketaren berri.

Eta Europako mugetatik kanpo zer? AEBetako Idaho estatura nahiz Mexikora joanez gero *Egunkaria*-ren berri izan dezake edonork. Esanguratsua da *IdahoStatesman* egunkarian —albiste moduan nahiz editorial gisara— *Euskaldunon Egunkaria*-ri buruz eta Martxelo Otamendiri buruz zer agertzen den. Bertan, Otamendik Idahorekin duen lotura nabarmentzen dute.

> Norvegiako samien artean 'Egunkaria auziaren' berri ari dira ematen

> Herrialde Katalanetako egunkari ugarik erakutsi dute auziarekiko interesa

Egunkaria-ko auzipetuek egindako tortura eta tratu txar salaketak ere hizpide izan ditu Mexikoko *La Jornada* egunkariak. Epaiketaren hasierarekin bat, epaiketa saioaren berri eman eta auzipetuek torturak salatu zituztela dio.

Hurbilean ere babesa nagusi

Euskal Herriko mugetatik hurbilago, Herrialde Katalanetako egunkari ugarik erakutsi dute *Egunkaria auziarekiko* interesa, baita elkartasuna ere. Adierazgarriak dira oso *El Punt*, *El Segre* eta *Vilaweb*-en plazaratutako editorialak. Honela dio, esaterako, *Vilaweb* atariko zuzendari Vicent Partalek idatziriko editorialak: «Nork konpentsatuko ditu torturak? Nork konpentsatuko du *Egunkaria*-ko langileek egin behar izan duten ahalegina?». Guztiek salatu dute ahobatez *Egunkaria auzia*. Are gehiago, *Vilaweb* Interneteko atariak *Egunkaria lliure!* bloga sortu du, auziaren inguruko gaiak jorratzeko. *Avui* egunkariak ere gaia ere landu du, besteak beste, Otamendiri elkarrizketa eginda.

Espainiako hedabideei dagokienez, esanguratsua da *Público* egunkariak *Euskaldunon Egunkaria*-ren inguruan idatzitakoa. Epaiketaren hasieraren bezperan, «*Egunkaria*, fiskalaren aurkakotasuna duen epaiketa» izenburupean zabal eman zuen kasuaren berri *Público*-k. Bertan euskal gizartean sorturiko egonezinaz gain, fiskalak auzia artxibatzeko egindako eskaera eta auzipetuek ezarritako tortura salaketen egoera aipatzen dira.

Egunkaria auzia-ren hasieran gertatu bezala, beraz, *Egunkaria*-rekiko elkartasuna munduko hainbat txokotatik ari da iristen. Salaketa eta babes hitz zehatzekin hainbatetan, zeharkako aipamen eta artikuluekin besteetan. Edonola ere, albiste da *Egunkaria*-ren aurkako epaiketa, eta oihartzunaren oihartzuna mundu osora ari da zabaltzen.

@ *Egunkaria auziari* buruz idatzitakoak irakurri nahi izanez gero:
www.berria.info/egunkaria/hemeroteka.php

39. irudia. Lepoa edo tie-in (*Berria*, 2011/01/12).

5. Goiburua: titulatzea, osagaiak eta ereduak

Kazetari-ofizioaren baitan, ardura bereziko aktibitatea da goiburuari dagokiona, eta, horren baitan, titulatzeari eskaintzen zaiona. Goiburuetako elementuak dira irakurlearen begiek aurkitzen dituzten lehen eduki narratiboak: orrialdearen goialdean joateak, albisteen hasieran jartzeak, eta tipografia-eredu deigarriak erabiltzeak bihurtzen dute goiburukoa den elementu oro saihetsezin.

Arreta merezi dute elementu horiek guztiek. Eta, horri eskainia da liburuaren atal hau: goiburuari eta tituluari.

Lehen hurbilketa akademiko batean, esan daiteke ezen elementu azpimarragarri eta nabarmen horien helburua bikoitza dela. Alde batetik, goiburuetako elementu horiek badute, eduki, balio pragmatiko bat: irakurlearen interesa piztea eta irakurlea animatzea, albistean barneratzera eta hura irakurtzera animatzea. Kazetaritzan, arrantzalearen amuan jarritako beita da goiburua, gozotegiko erakusleihoan ageri den txokolatezko bonboia da titulua.

Bestalde, esan ohi da goiburuak baduela balio semantiko bat: alegia, gerora etorriko den kontakizunaren aurrerapena izatea. Alde horretatik goiburuko elementu horiek —eta, batez ere, tituluek— hitz egin behar dute albisteek hitz egiten dutenaz.

Edukiak iragartzea eta irakurlea erakartzea, helburu horiek biak modu etikoan uztartu behar dira. Kazetariak ezin du azpijokotan aritu, eta goiburuko elementuen balio pragmatikoa hobetsi semantikoaren kaltean. Beste era batera esanda, arreta piztearren, kazetariak ezin du titulu bat egin albistearen edukiarekin bat ez datorrena. Ez litzateke zilegi izango, ofizioaren duintasunaren aurkakotzat hartu beharko litzateke kazetaritza-eredu hori: sarritan sentsazionalismoa bilatzen duena.

Korrekzioaren eta egokitasunaren baitan, gauzak modu askotara egin daitezke. Kazetaritzako goiburuak eurak ere modu askotara egin daitezke. Asko dira titulatzeko modu egokiak eurak ere. Ikastaro honetan, modu bat hobetsiko da tituluak egiteko, ustez horixe bera dela klasikoena eta eredu horixe dagoela beste denen oinarrietan. Hartara, titulazio informatzailea edo titulazio informatzaile-azaltzailea lehenetsiko da ikasturtean. Baina, esan bezala, ez da modu bakarra kazetaritzan aritzeko.

Goiburuak idazteko orduan, batzuetan, titulatzeari dagozkion ardurak erredaktoreburuaren esku uzten dira. Eta, lehen orrialdeko tituluari bagagozkio, inoiz zuzendariak berak hartu ohi ditu. Halere, hedabide askotan, ohitura zabaldua da

kazetariak berak idaztea titulua. Ez dago erregela orokorrik kontu horretan. Ikastaro honetan pentsatu, pentsatu dugu albistea landu duen kazetariak berak landu behar duela titulua.

Hedabideetan, beharbada autoreak idatzi bezala ikusiko du tituluak argia; baina, agian, transformatua izango da, edo erabat aldatua —hedabidearen behar eta interesen arabera—. Edozelan ere, argi eduki behar du kazetariak —zuzenean berak idatzi edo ez— garrantzitsuak direla goiburuetako elementu guztiak, tituluak barne: horiei erreparatuko baitie lehendabizi irakurleak.

Arestian iragarri bezala, titulua baino zerbait gehiago ere bada goiburua. Goiburuan, tituluaz gain, badira beste elementu esanguratsu batzuk ere. Kapitulu honetan, elementu multzo hori definitzen hasiko gara, ondoren tituluan jartzeko arreta osoa.

5.1. GOIBURUA: IRAKURKETA GIDATZEKO AUTOBIDEA

Kazetari-ofizioan, ezinbestekoa da gidatzea irakurlearen begiratua testuan zehar. Lehen orrialdetik azkenekoraino etenik ez duen sekuentzia narratibo konplexua da prentsa idatzia —klasikoa—. Egunkariaren diseinuak, albistea ataletan klasifikatzeak, albistea bera taxutzeko erak, eta goiburuko elementuek —denek— dute helburu bertsua: irakurlea laguntzea irakurketan, gal ez dadin, nahi duena aurkitu dezan orrialdeetan zeharreko irakurketa-bidaian.

Autobideetako seinaleak dira goiburuko elementuak. Haiek bezala markatu behar dute horiek bidaiaren eta zentzuaren norabidea. Tituluarekin batera, hainbat tresna dauzka kazetariak eskura efektu hori lortzeko. Edozelan ere, argi eduki behar du kazetariak ezen, elementu horiek guztiek beren buruaren jabe behar dutela izan, ikuspuntu narratibotik eta semantikotik begiratuta, alegia: beste elementu narratiboak kontuan hartu gabe, zein bere bidetik joanda ere, ulergarriak izan behar dute —oso osorik ulergarriak, eta erraz ulertzeko modukoak—.

Zintak, tituluak, azpitituluak, goitituluak, sarreratxoak, tartekiak, leihoak, sumarioak, zatidura-tituluak, argazki-oinak… zein bere bidetik joanda ere, osorik izan behar dute ulergarri eta lagungarri kontakizun periodistikoan. Erreparatu 40. irudiari.

Asko dira horiek, bai; baina, helburu bat eta bakarra dute denek: irakurleari laguntzea narrazioaren baitan murgiltzen, eta hantxe bertan gozatzen.

Hona hemen elementu garrantzitsu horietatik batzuk.

Zinta

Orrialdearen gainaldean idatzi ohi den testu laburra da zinta: hitz solteak nahiz esaldi laburrak. Elementu grafikoak eraman ditzake inoiz. Eta bere funtzio nagusia da egunkariko edukiak ordenan jartzea.

Noiz erabili? Bada, albiste batek orrialde bat baino gehiago hartzen duenean. Edo, egun batzuetan errepikatuko den albiste-sail bat izango denean. Nolabaiteko maiztasunez errepikatzen diren aktibitateak direnean. Arrazoi asko dago zinta erabiltzeko. Ez gutxiegi erabili. Ezta gehiegi ere. Neurri egokian dago bertutea. Hona hemen adibide batzuk:

- *Joko Olinpikoak*
- *Hauteskundeak*
- *Ordizia eta Gernikako feriak*

Titulua

Albisteak azaldu behar duen informazioaren oinarria jasoko du tituluak. Albistearen *sarrera* laburbiltzen du. Garrantzitsuena azaldu behar da tituluan, inoiz ez bigarren mailako elementurik. Ikasturte honetan, berebiziko garrantzia aitortuko zaio sarrerak eta tituluak ongi uztartzeari: bat etorri behar dute beti sarrerak eta tituluak. Beti. Are gehiago, titulu informatiboaren kasuan.

Informatu ez ezik, tituluak piztu ere arreta piztu behar du irakurlearengan, lehen begi-kolpean. Ez da titulu ona bi aldiz irakurri behar den titulua. Ez.

Tituluak izan behar du:

- *Laburra:* esaldi laburra da titulua, trinkoa, irakurketa-une bakar batean ulertzeko modukoa.
- *Zehatza:* zalantzagabekoa izan behar du tituluak.
- *Egiazkoa:* egiari zor zaio titulua, egia esan behar du, albistearen egia esan behar du, albistearen *corpus*ean azalduko dena aurreratu behar du.
- *Iradokitzailea:* arreta piztuta, irakurtzen segitzeko gogoa eman behar du tituluak.

Goititulua eta azpititulua

Goiburua osatzeko elementuak dira, tituluaren ondoan agertzen diren horiek: aurretik edo atzetik. Narrazio-teknikaren ikuspuntutik begiratuta, titulua baino luzeagoak dira elementuok. Eduki informatiboari gagozkiola, esan dezagun ezen *item* garrantzitsuak direla, halere tituluan azaltzen den informazioa baino apalagoak; ulertzeko moduan esanda: bigarren mailako informazioa aurreratzen dute goiburura (tituluak berak azaleratu du-eta, jada, lehen-lehen mailakoa).

Ez da ohikoa azpititulua eta goititulua, biak, azaltzea albiste berean. Ohikoena da bata ala bestea azaltzea, tituluarekin batera, jakina. Baina, ez da beti horrela izaten.

Edozelan ere, goiburua osatzen duten elementu guztiek bezala, goititulua nahiz azpititulua idazteko unean, argi eduki behar du kazetariak elementu burujabeak direla horiek: gramatikaren ikuspuntutik nahiz informazioaren ikuspuntutik begiratuta.

Bestela esanda: osoak dira, eta ulergarriak dira, baita modu isolatu batean hartuta ere.

Sarreratxoa

Ez nahastu —arren— *sarrera*rekin. Sarreratxoa esan ohi diogu albistearen corpusaren aurretik eta tituluaren ostean idatzi ohi dugun testu esplikatiboari. Gehienetan, albiste luzeen kasuan darabilgu; baina ez hor bakarrik derrigorrez.

Albistearen item garrantzitsu bat baino gehiago biltzen du.

Tartekia, tarteko titulua

Albistearen barruko corpusaren baitako titulu txikiak dira. Testuaren zutabe bat hartzen dute, eta helburu bikoitza dute: informatiboa eta grafikoa. Ezaugarri nagusia da: labur-laburra izatea. Ez du elementu ezagunik errepikatu behar. Ez dira *gehiegi* jarri behar: ez du albistearen diseinua oztopatu behar, haren estetika-lerro nagusia zaindu behar du. Ez ohi da esaldi osoa izaten.

Corpusean agertzen diren elementuei buruz arreta erakartzeko erabili ohi dira. Ikasturteko ariketa praktikoetan, tartekia ezkonduko da azpituluan aurreratutako elementuekin, bai eta lepoan azaldutakoekin ere.

Leihoak

Testuan bertan azaldutako eduki bat modu grafikoan nabarmentzeko espazioa da leihoak osatzen duena. Testuan azaldutako zerbait da, testuan bertan jada idatzita dagoena, ez da ezer berria, ezta desberdina ere.

Testuan azaldutako datu bat azpimarratzeko erabili ohi da leihoa. Ideia bat gogora ekartzeko. Protagonista baten jarduna, begietara aurreratzeko.

Zatidura-titulua

Albistearen zati berezitu bati dagokion titulua da. Albistearen diseinuak, gaiak edo iritzia eta informazioa ongi bereizteko konpromisoak bultzatuta, inoiz, bi edo zati gehiagotan ematen da albistea. Zati bakoitzak bere titulu propioa hartzen du, titulu nagusiaren teilatupean.

Zatidura horietan, albistearen zati burugainak joan ohi dira: gertakariaren aspektu bat nabarmentzeko, protagonista batekin izandako elkarrizketari leku berezia emateko, kazetariak iruzkin bat egiteko…

Ongi bereiz itzazu zatidura-titulua eta tartekia edo tarteko titulua.

Tarteko titulua da: albistearen gorputzean txertatzen dugun lerro bakarreko titulu modukoa, kontakizunaren piramidean txertatutako elementua da. Sarritan azpititulua gogora dakarrena.

Zatidura-titulua da: albiste handiaren baitan kokatzen den albiste txikiago baten titulua. Albiste nagusiaren gorputzetik atera izan dena eta modu beregainean erakusten dena.

Argazki-oina

Argazkiari gehitu ohi zaion testu laburra da argazki-oina. Goiburuko elementutzat hartzen da, kokapen espezifikoa eta nabarmendua duen aldetik.

Era askotarikoak dira argazki-oinaren funtzioak: argazkia bera datatzea, bertan azaltzen diren protagonistak identifikatzea, irudia hartua izan den lekua adieraztea, fokuak ongi hartu ez duen bertan dagoen elementuren bat gogora ekartzea, albistearen testu nagusiarekin erlazionatzea irudia…

Infografia-titulua

Inoiz, albisteak badu marrazki azaltzaile bat, gertakariaren aspektu bat modu bisual batean azaltzeko. Krokis bat izan daiteke hori. Edo organigrama bat. Errealtasun birtualeko azalpenen bat. Mapa kartografikoren bat…

Elementu horiek denek beren titulu propioa eraman ohi dute.

5.2. TITULU MOTA NAGUSIAK

Arestian esan bezala, goiburuko elementuetako bat da titulua, seguru asko garrantzitsuena. Funtzio bikoitza du kazetaritzan: irakurlearen atentzioa jasotzea eta albisteak kontatuko duena aurreratzea. Eta hori, modu askotara agian ez, baina era bakarrera baino gehiagora egin daiteke.

Lortu nahi den efektuaren arabera, titulu mota bat baino gehiago erabili ohi da profesioan. Bi mota ikusiko dira ondoren. Bakoitzaren funtzionamendua azalduko da. Baita adibide batzuk eman ere.

Halere, ikasturtearen arlo praktikoan, eredu jakin bakarra erabiliko da.

5.2.1. Titulu informatiboak

Ideia bat, eta ideia oso bat azaltzen du titulu informatibo deitzen zaionak. Beraz, titulu informatiboa erredaktatzeko unean, bikoitza da gogoan hartu beharreko maxima: batetik, ideia bat azaldu behar duela, zerbait esan behar duela, zerbait komunikatu; eta, bestetik, ideia hori, informazio-item hori, osorik azalduko dela, oso-osorik. Begi-kolpe batean harrapatu behar du irakurleak tituluak dioena, ez du beste elementurik behar hura ulertzeko, *informazioa* hor dago: tituluan.

Era berean, albistearen mamia azalduko du, modu trinkoan azaldu ere. Baldin eta irakurleak aurrera egingo ez balu albistearen kontakizunean barna, titulua besterik irakurriko ez balu ere, informaturik gelditu beharko luke, titulu hura irakurrita.

Esaldi osoa da titulua: *subjektu* bat, *aditz* bat, eta *predikatua* dituena. Normalean, esaldi bakarra idatziko da. Normalean, esaldi zuzena: irakurketa moztu dezaketen elementurik gabekoa (puntuazio-markarik gabe).

Edukiari buruz, arestian esandakoaz gain, joera du titulu informatiboak ekintza bat edo protagonista bat zehazteko. *Zer, nor* edo *nork* estiloko datuak dira titulu informatibo batean saihestu ezin litezkeen ideiak.

Titulu informatiboetan, albisteetan bezala, kazetariaren judizio eta baloraziorik ez da jasoko.

Lan praktikoetan, titulu informatiboa izango da gehien erabiliko dena. Hurrengoarekin batera: titulu azaltzailea.

Titulu azaltzailea

Titulu informatiboarekin batera, lan praktikoetan gehien landuko den titulu mota da azaltzailea deitzen zaion hau. Titulu informatiboa baino osatuagoa da azaltzailea: luzeagoa eta datu gehiago dakartzana.

Hasteko eta behin, titulu informatibo batek duen balio nagusia du azaltzaileak ere: informazioa modu trinko batean. Informazio hori, *bat* da eta *osoa:* ideia bakarra azaltzen du eta oso-osorik azaltzen du (beste elementuen beharrik ez duena ulertua izateko). Hartara, titulu azaltzailean, *zer* eta *nor (nork)* elementuak azalduko dira, ezinbestean.

Horretaz gain, ohikoa da titulu azaltzailean *zergatik* galderari erantzutea. Horrexek ematen dio estatus propioa titulu azaltzaileari. Horrexek bereizten du titulu informatibotik.

Titulu azaltzailearen kasuan, ekintzaren azalpena gehitzen zaio tituluari, beraz, titulu informatiboari. Ekintza diogu, baina, protagonistari buruzko azalpena ere izan daiteke titulu azaltzaileak dakarrena.

Osoa eta beregaina da titulu azaltzailea. Hura ulertzeko, ez da testuingurua ezagutu behar.

Informatiboa:

Haizetegieta jauregia kiskali du suak Zaratamon

Azaltzailea:

Haizetegieta jauregia kiskali du suak Zaratamon, zirkuitulabur batek eragin du ezbeharra

- Adibide gehiago kontsultatzeko, ikus kapituluaren bukaeran 41-42 irudiak.

5.2.2. Titulu adierazkorrak

Bestelakoak, guztiz bestelakoak dira titulu adierazkorrak. Oso erabiliak dira kazetaritzan, batez ere arlo batzuetan: kirol- eta iritzi-sailetan, adibidez. Historia luzea dute profesioan. Interesgarriak dira. Sormen-lan handikoak dira batzuetan; inoiz *hori* samarrak badira ere. Ez dira landuko ikastaro honetan.

Titulu adierazkorrak ez dira informatiboak: ez dute gertakariaren edo item informatiboaren muina adierazten. Titulu mota adierazkorraren helburu nagusia ez da informatzea.

Irakurleari atentzioa ematen diote titulu adierazkorrek. Alderdi horretatik ikusita, funtzio pragmatiko nabarmen bat dago horietan.

Titulu adierazkorren funtzio semantikoa, aldiz, txikia da: ez du ia ezer kontatzen. Ikus titulu mota bi, adierazkorren artekoak.

Titulu adierazgarria

Titulu informatiboekin eta azaltzaileekin alderatuta, atentzioa ematen duen lehendabiziko desberdintasuna da gehienetan ez duela perpausa osatzen, ez duela esaldia osorik ematen: subjektua, aditza eta predikatua.

Titulu mota hau arrakastatsua izateko, beharrezkoa da gertakaria aldez aurretik izatea ezaguna, bestela —oinarrizko informaziorik eza dela-eta—, irakurleak ez baitio zentzurik aurkituko.

Era berean, zalea da titulu mota hau hitz soltez eta zeinu grafikoz horniturik azaltzeko.

Beraz, testuingurua ezaguna den heinean, titulu adierazgarriak egiten duena da gertakaria gogoratzea edo gertakaria bera baloratzea, kazetariaren ikuspuntutik.

Zalea da kirol-kazetaritza horrela titulatzeko.

Deigarria

Albisteetan baino, deigarria deitutako titulua erabiliagoa da interpretazio- eta iritzi-generoetan. Arreta erakartzea du helburu nagusi era honetako tituluak.

Arreta hori erakartzeko, ohikoa da hizkuntza-baliabideak erabiltzea. Gaiaren erreferentzia ematen badu ere, berebiziko informaziorik ez du eskaintzen titulu mota honek.

Esan bezala, interpretazio- eta iritzi-generoetan aurkitu daiteke gehienbat, bai eta prentsa zirraratsuan ere.

Adierazgarria eta deigarria desberdindu, gaiaren aipamenagatik desberdintzen dira gehienbat.

- Adibideak kontsultatzeko, ikus kapituluaren bukaeran 43-45 irudiak.

5.2.3. Adierazpen-titulua

Albisteko protagonisten hitzak titulura eramatean osatzen da adierazpen-titulua. Horretarako, protagonistaren adierazpenak —aipuak— dira tituluaren oinarri nagusi. Esan ohi denez, protagonisten aipuek sinesgarritasun-maila handia eman ohi diote kazetariaren jardunari. Tituluan, nabarmenagoa da funtzio hori.

- Ikus adibideak kapituluaren bukaeran (46-47 irudiak).

Hiru modutara agertu ohi dira protagonistaren hitzak tituluan:

– Zuzen-zuzen: hizlariak, protagonistak esan duena hitzez hitz jasota, komatxoen artean.
– Zehar-aipu gisa: kazetariaren hitzetan jarrita protagonistak esan duena, komatxorik gabe.
– Eredu misto gisa: aurreko estilo biak uztarturik. Hots, hitz esanguratsuenak, indar gehien dutenak, komatxoen artean sartuta.

Jardun praktikoetan, behin baino gehiagotan erabiliko dira eredu honetako tituluak. Betiere, haien balio informatiboa kontuan hartuta.

5.3. ONGI TITULATZEKO AHOLKUAK

Honetan ere, aritzea da gauzak ongi egiteko bide ohikoa, ofizioan jarduteak eman ohi duen eskarmentua da giltza nagusia. Hedabide bakoitzak bere irizpideak ohi ditu, etxetik etxera aldatzen direnak… batean balekoa dena, bestean ez, agian.

Titulu informatiboak izan behar du: argia, laburra, egiazkoa, erakargarria, gaurkotasunari lotua, eta beregaina.

Ongi titulatzeko, hona hemen aholku nagusiak, dekalogo moduko batera:

1. Esaldi osoak eta beregainak egin: subjektua, aditza eta predikatua. Ez derrigor ordena horretan. Baina, hiru horien beharra du titulu informatiboak ongi funtzionatzeko.
2. Beti eman behar zaio aditzari bere lekua esaldian, eta, inoiz —elipsia egin bada—, koma batekin adierazi beharko da aditzaren falta. Aditza idatzi: orain aldian edo iragan hurbilean.

   Bi gazte hil dira (iragan hurbila)

   Bi gazte daude desagertuta (orainaldia)

Bi gazte hil ziren (iragana)

Bi gazte, desagerturik (aditzaren falta adierazten du komak)

3. Tituluak izan behar du zehatza eta egokia. Zalantza gabea eta orokortasunik gabea. Muinera jo behar du tituluak. Hura irakurrita, nahikoa beharko litzateke, albistearen muina osotasunean ulertzeko.
4. Tituluan ez da kazetariaren adjektibo baloratzailerik erabiliko.

   Rajoy-ren adierazpenak *lotsagarriak eta iraingarriak* izan ziren

   Burtsek egun *txarra* izan zuten

   - Aurreko balorazio markatuen ordez, erabili tankera honetakoak:

     Euskal nazionalismoaren kontra aritu da Rajoy

     Beherakada izan dute burtsek
5. Tituluetan, baiezko esaldiak idatzi, ahal dela.

   Zuzendaritzak *ez* dio konfiantza kendu entrenadoreari

   - Horren ordez, hobetsi:

     Taldearen konfiantza izaten segitzen du entrenadoreak
6. Hizkuntzaren eta edukiaren ikuspuntutik begiratuta: erraztu, erraztu eta erraztu beti estiloa. Ez siglarik erabili, oso-oso ezagunak ez badira. Era berean, ez errepikatu ideiak.
7. Zifraz idatzi kopuru konplexuak.

   149 pertsona hil dira, New Yorkeko hegazkin-istripuan
8. Testu laburra da titulua. Ez idatzi hamahiru hitz baino gehiago.
9. Ahal dela, puntuazio-ikurrak saihestu.

   Halere, aditzaren elipsietan, ezinbestekoa izango da koma [,]

   Berriro itxita, A-8 autopista
10. Tituluak **ez darama** punturik amaieran.

Azken oharra: titulu mota guztietarako baliagarri, titulu motak ez dira kazetaritza-eredu baztertzaileak. Zein bere tokian jartzea da maxima nagusia, mota bakoitzari aitortzea bere balioa eta modu arrakastatsuan erabiltzea, horixe da erronka. Sarritan uztarturik ikusiko ditugu eredu batekoak eta bestekoak. Hedabidearen estilo propioarekin lotuta dago, oso, ereduen erabilera.

5.4. ARIKETA PRAKTIKOETARAKO GIDA

Eskola-ordu praktikoetan egingo diren ariketetarako oinarrizko estilo- eta diseinu-irizpideak dira ondorengo hauek.

TITULUA	Times letra mota, beltza, ezkerrean lerrokaturik Letra-gorputza: 24-18 bitartekoa EZ bi lerro baino gehiago EZ hamahiru hitz baino gehiago
AZPITITULUA	Times, etzana, ezkerrean lerrokaturik Letra-gorputza: 14koa EZ bi lerro baino gehiago
TARTEKO TITULUA	Times, beltza, ezkerrean lerrokaturik Bi-hiru hitz
SARRERATXOA eta SUMARIOAK	Times, arrunta, ezkerrean lerrokaturik Letra-gorputza: 14koa Bulet batekin, hasteko
LEIHOAK	Times, arrunta, eskuinean lerrokaturik Letra-gorputza: 14koa Aipua bada, identifikatu iturria: maiuskula txikiak erabili EZ lau lerro baino gehiago

2 II berria II 2010eko irailaren 25a, larunbata

1 Harian ›

2 BBKren batzarra → CajaSur eskuratzeko operazioa

Alderdi Andaluzistak dirua ateratzeko gomendatuko du

Lehen unetik Alderdi Andaluzista (PA) BBK-k CajaSur erostearen aurka azaldu da. PAko 20 militante inguruk elkarretaratzea egin zuten atzo Bilbon. Pilar Gonzalez PAko idazkari nagusiak gutun bat igorri dio BBK-ko presidente Mario Fernandezi. Haren ustez, «andaluziarren interes ekonomikoen eta politikoen aurkako» operazioa izan da. Gaitzetsi egin du Elizaren eskuetan zen aurreko zuzendaritza, Unicajarekin bat egiteari uko egin ziolako. Gutunean, ohartarazi du langile bakar bat kaleratzen badu BBK-k, «aurrezkia ateratzea» gomendatuko dietela herritarrei. «Andaluziarren aurrezkiek Euskadin ordainduko ditutze zergak, eta gure ahaleginarekin bertako aberatasunari ekarpen egingo diogu».

PAko kideak, atzo, Bilbon. MONIKA DEL VALLE / ARP

%13,2

▪ **Tier 1 kapitala.** Akzioak, erreserbak eta beste finantza tresnak biltzen ditu kaudimen adierazle horrek. Cajasurrek FROBetik hartutako 1.190 milioi euroak aintzat hartuta, bi erakundeen Tier 1 kapitala %13,2koa da —%6tik behera egoteak adierazten du kiebra arriskua—.

3 # CajaSurren ostean, beste bat

5 Mario Fernandez BBK-ko presidentea, atzoko batzarrean hizketan, alboan Jose Maria Iruarrizaga duela. MONIKA DEL VALLE / ARGAZKI PRESS

6 Batzarrak oniritzia eman dio CajaSur erosteari, eta Fernandezek ukatu egin du BBK-ko kaudimena arriskuan jarriko duela

Basilea IIIk ekarriko dituen aldaketen ondorioz, «tamaina garrantzitsua» dela dio

Joxerra Senar

Beste bat gehiago nahi du BBK-k. «Orain arte bezala, gertaerak adiadi jarraituko ditugu». Atzo Bilbao Bizkaia Kutxako batzarrak baimendu egin zuen Kordobako CajaSur eskuratzea, baina behin hori lortu ostean, BBK-k ez du geldi geratzeko asmorik. Mario Fernandez BBK-ko presidenteak batzarkideei azaldu die Espainian aurrezki kutxen artean gertatzen ari den moldaketak «bigarren itzuli bat» izango duela, eta fase berri hori gauzatzen bada, BBK-k beste operazio batean sartzea aztertuko du; hau da, aukerarik ateratzen bada, ez da CajaSurrekin soilik konformatuko.

CajaSur onbideratzeak zer-nolako kostua eta arriskua eragingo dion BBKri, hori da orain zalantza nagusia. Andaluziako aurrezki kutxa finantza arazo zailetan da. Iaz, 596 miloi galdu zituen, eta lehen hiruhilekoan, beste 119 milioi euro. Espainiako Bankuak maiatzaren 22an esku hartu egin zuen FROB funtsaren bidez, 800 milioi euro jarri zituen. Uztailaren 16an, CajaSur BBK-ri egokitu ostean, beste 392 milioi maileguan utzeko prest da.

Batez ere CajaSurrek ekarriko dituen abantailak azpimarratu ditu Fernandezek batzarrean. Haren iritziz, CajaSur «frankizia on» bat da, eta bere negozioaren izaera aldatu behar izan gabe «bigarren merkatu» bat izatea ahalbidetuko dio BBKri —CajaSurrek Kordoban merkatu kuotaren %46 inguru du gaur egun—. Era berean, aktiboetan tamaina irabaziko du: 30.000 milioi euroko aktiboak zituen, eta 48.000 milioi izango ditu.

CajaSur onbideratzeko, BBK-ren 2.700 milioi euroko kapital soberakinaren «zati bat» jarri beharko duela esan du, beste zehaztasunik eman gabe. Azkenaldian, 900 milioi euro izan litezkeela zabaldu da. Dena den, kaudimena ez dagoela arriskuan eta CajaSurrek ez duela BBKren finantza ahalmena desorekatuko nabarmendu du. «Lehen unetik», bi erakundeen Tier 1 kapitala %13,2koa da, berandutze tasa %4,9koa eta estaldura tasa %60,2koa, «batez bestekoaren gainetik».

7 **Urtarrilaren 1etik abian**

Fernandezek azaldu du «CajaSur berria» urtarrilaren 1erako martxan jarri nahi dutela. Egungo CajaSurreko langileek lan egingo dute bertan, baina lehen egunetan BBK-ko talde bat egongo da «BBKren kudeaketa ereduari buruz duten ezagutza balia dadin» eta luze gabe emaitza eraginkorragoak lor daitezen: «Helburua da irabaziak lortzeko bidean jartzea CajaSur, eta bere etorkizuna eta hari lotutako enpleguak bermatzea».

Txikiagoa bada ere, CajaSurrek BBK-k baino 62 bulego gehiago ditu, eta enplegu arloan, doikuntzak egingo dituela berretsi du. Moldaketa sindikatuekin hitzartu eta «ahalik eta trauma txikiena» eragitea espero du.

Basilea IIIk ekarriko duen aldaketa ere hizpide izan du. Irailaren 12an kapital baldintzak nabarmen zorroztea hitzartu zen nazioartean. Egokitzapena epeka egingo bada ere, Fernandezek ondorioztatu du «baliabide propio» gehiago izatera behartuko dituela finantza erakundeak. Lehia bizia iragarri du. «Kapitala gehiago eta hobeto» bereganatzeko gai ez diren kutxek jarduera murriztu beharko dute, eta tokian tokiko eremu txikiago batera bultzatuak izango dira, haren ustez: «Tamaina garrantzitsua izango da».

Testuinguru horretan, Fernandezek gaineratu du BBK-k aldaketa horren lidergoa hartu behar duela «Estatu espainiarrean tokian tokiko bankaren eremuetako eragile nagusietako bat bihurtzeko helburuarekin».

Euskal kutxen arteko balizko fusio bati buruz, ordea, ez du aipamenik egin. Ez du esan nahi erabat baztertuta geratu denik. Proiektua kaxoi batean dago, eta egitekotan ez dute aurreko parametroetan egingo. Tamainaren garrantziari buruzko erreferentziak adierazten duen legez, orain indar harremana desberdina delako.

4 «Aldaketaren lidergoa hartu behar dugu, estatu espainiarreko eragile nagusietako bat izateko»
MARIO FERNANDEZ
BBK-ko presidentea

1: atala, 2: zinta, 3: titulua, 4: leihoa, 5: argazki-oina, 6: azpititulu modukoak, 7: tartekia

40. irudia. Goiburuaren elementu ohikoak (*Berria*, 2010-09-25)

berria

Asteartea
Apirilaren 6a
2010. VIII. urtea
2.108. zenbakia
1,10 €
www.berria.info

Liburu artean solasean
Sarako Idazleen Biltzarrak
Alexandre de la Cerda eta
Enaut Elkar...

Diru laguntzak agortzear daudela, auto salmentak ia %60 igo dira Hegoaldean

...ameskeria» dela salatu dute auto saltzaileek, eta ohar... laguntza publikoak amaitzen direnean eta BEZa igotzen de...

Bezero uholdea hain handia izanik, baliteke ... Diru laguntzak ... saldutako hainbat auto ...

Bigarrena irabazle. Besoak altxatuta sartu zen atzo Oscar Freire Zierbenako helmugan (Bizkaia), aurrena. Halaxe sartu zen Alejandro Valverde ere, bigarrena –argazkian–. Poz itxura zuen aurrenak, ordea, eta kexu tankera bigarrenak. Freirek traba egin ziola esan zuen Valverdek, eta arrazoia eman zioten epaileek: Caisse d' Espargnekoarentzat izan zen Euskal Herriko Itzuliko lehen etapa. Samuel Sanchezek 1.38 min ...

50 lagun inguru hil dituzte Pakistanen, eraso suizidetan

Lower Dir barrutian alderdi politiko baten mitinari egin diote eraso, eta Peshauar hirian, AEBen kontsuletxeari. Azken eraso hori talibanek hartu dute beren gain

Jon Kortazar
idazlea eta literatur kritikaria

«Irakurle askoz trebatuagoa du gaur egun euskal literaturak»

Espainiako Kritikaren Sariko epaimahaikide ez izatea erabaki du kritikariak

Elkarrizketa

Hegoaldeko osasun arloan lanpostuak gutxituko dituzte

Arabako ... eta Nafarroan BPGaren %5,23 bideratuko da osasunera, Europan baino %1,4 gutxiago

Informazioa eta testuinguru-azalpena daude azaleko titulu nagusian.

Informazioa bai, arrazoirik eta azalpenik ez, beheko tituluan.

41. irudia. Informazio-tituluak (*Berria*, 2010-04-06).

4 EBAGOIENA 2011-09-10 | ASTELEHENA | GOIENA

1

Patxi Lopez Lehendakariak Mondragon Unibertsitatearen ikasturtea inauguratu du

▶ Martin Garitano Diputatu Nagusia, hezkuntzako ordezkariak eta bestelako eragileak batu ziren Oñatin

Enpresagintza Fakultateko Mondragon Team Academy komunitateak garatu zuen hasgai akademikoa

EDU MENDIZABAL

Mondragon Unibertsitatearen ikasturte berriari hasiera emateko egubakoitzean, Oñatiko Enpresagintza Fakultatean. Besteak beste, Patxi Lopez Lehendakaria, Martin Garitano Gipuzkoako Diputatu Nagusia, Isabel Zelaa Hezkuntza saiburua, Josu Zabala MUko errektorea, Javier Sotil MUko presidentea edota Idoia Peñakoba MUko idazkari nagusia izan ziren ekitaldian. Era berean, Oñati, Eskoriatza edota Arrasateko alkateak, Deustoko eta EHUko errektoreak, Bergarako UNEIletako zuzendaria eta bestelako eragileak gonbidatu zituzten.

Enpresagintza Fakultateko Mondragon Team Academy ekintzaile komunitateak garatu zuen hasgai akademikoa. *Gaia, We make our dreams become true creating our teams learning cooperatives*. 22 ekintzailek hartu du te parte egitasmoan. "Aurrera, beti aurrera" da haien leloa eta ametsak gauzatzeko ilusioa agertu zuten egubakoitzean. Aipatutako leloa esan zuen [illegible] aminatu zituen [illegible] ak, agintariak barne, [illegible] Mari Arizmendiarrietaren eta bestelako ekintzaileen bideari eustea da helburua.

Agintariak eta MUko ordezkariak, dantzarien aurrean, egubakoitzean Oñatin. | E.M.

Ekintzaileen garrantzia

Patxi Lopez Lehendakariak ametsak gauzatzeko la[illegible] ekintzaileen lana ezinbeste koa dela azpimarratu. "Aurrera, beti aurrera" esaldiarekin amaitu zuen hitzaldia Lehendakariak, bide batez ikasturte berriari hasiera emanez. Bestalde, Josu Zabala MUko errektoreak adierazitakoaren arabera, "astebete pasatxo barru zabalduko dugu oficialki Basque Culinary Center: Zientzia Gastronomikoetako Fakultate berriaren egoitza eta Elikadura eta Gastronomiako Ikerkuntza eta Berrikuntza Zentroa. "Lanerako prest dago jadanik. Garatu eta sustatuko dugula hitzeman dugun unibertsitate -proiektu baten abiapuntuaz ari gara, hezkuntza eta eskari aldetik arrakasta izango duen proiektu bater". Honako hau ere esan zuen Zabalak: "Hemen gaude, beste behin, ilusioz beterik, ikasturte akademiko berri bati ekiteko prest. Apustu berezkoa garrantzitsu batzuk egin genituen duela lau urte eta horietatik hi erreferentzia bihurtu dira estatu mailan: LEINN (Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza) Gradua eta Gastronomia eta Sukaldaritza Artetako Gradua"

Tradizioak agintzen duen moduan, *Gaudeamus Igitur* abestiarekin amaiera eman zioten ekitaldiari.

"Ekin[illegible]aileen lana e[illegible]beste-koa d[illegible]are ge[illegible]go krisi [illegible]ai honetan"

PATXI LOPEZ | LEHENDAKARIA

"Astebete pasatxo barru zabalduko dugu Basque Culinary Center"

JOSU ZABALA | MUKO ERREKTOREA

2

Antolatzaileen aurreikuspenak gainditu ditu Euskal Herriko historialarien biltzarrak

Egubakoitzean Lope de Agirreri buruzko liburua aurkeztu zuten

TXOMIN MADRA

Nabarraldek a[illegible] Euskal Herriko historialarien II. biltzarraren hartara ekitaldi ugari egin dituzte Oñatin, batzuk pribatuak, eta beste batzuk irekiak. Azken hauen artean sartzen da egubakoitzean kultur etxeko zinema aretoa bete zuen *Lope de Aguirre o la posteridad arbitraria* liburuaren gaztelerazko edizioaren aurkezpena. Ingrid Galster alemaniarra da liburuaren idazlea, eta bera izan zen hizlaria.

Mendetan zehar oñatiarraren figura landu duten dokumentuak aztertzen ditu liburuan Galsterrek, eta ondorioztatzen du garai eta egilearen arabera heroia edo barrerua kontsideratu izan dela. Azaldu zuenez, ez zen ez bata, ezta bestea ere, pertsona anbiguoa baizik. Zalantzazkoa izan ez zena liburuak izandako arrakasta izan zen: salgai jarritako hogei aleak berehala agortu ziren-eta.

Ingrid Galster egubakoitzeko aurkezpenean. | TXOMIN MADRA

160 parte-hartzaile

Biltzarraren zuzendari Joseba Asironen esanetan, sekulako arrakasta izan da biltzarra. "160 pertsonak eman dute izena, eta aurreikuspen guztiak gainditu dira. Arlo zientifikoari dagokionez, ponentziek maila altua izan dute eta landu nahi genuen gaia, mendebaldeko lurraldeek estatu nafarrarekin izan zuten harremana, erabat asetuta geratu da", zioen atzo Asironek. Biltzarretik kanpo herritar guztiendako antolatutako ekitaldiek, besteak beste Joseba Tapiak emandako kontzertuak, erantzun oso ona izan dutela azpimarratu zuen zuzendariak.

Bateraguneko epaian kondenatutakoei babesa adierazteko elkarretaratzeak gaur

E.M. | ARRASATE

ELA, LAB, STEE-EILAS, HIRU eta EHNE sindikatuek deituta, gaur, astelehena, "Bateraguneko epaian kondenatuak izan diren guztiei babesa eskaini eta bidegabekeria hori salatzeko", elkarretaratzea izango da Arrasateko Udaletxe aurrean, 12:00etan. Ordu berean elkarretaratzea egingo dute baita Eibarren ere.

Auzitegi Nazionalak Arnaldo Otegi eta Rafa Diez hamar urtera zigortu ditu, ETAko buru izatea egotzita. Era berean, Arkaitz Rodriguez, Miren Zabaleta eta Sonia Jacinto zortzina urtera zigortu ditu eta guztiak inhabilatu dituzte. Txelui Moreno, Arnaia Esnal eta Mariel Serra, berriz, absolbitu egin dituzte. Zigortuek helegitea jarriko dutela jakinarazi dute.

Euskal gehiengo sindikalak dei egin die langile guztiei gaurko elkarretaratzean parte hartzeko.

Guardia Zibilen protesta asmoen aurrean batzar informatiborako deia egin dute

X.U. | ARRASATE

Guardia Zibileko Asociación Unificada delakoak (AUGC) Euskal Herrian lanean diren guardia zibilen aldeko kanpainari ekin zion joan den astean eta datorren hilean Eusko Legebiltzarraren aurrean eta Oñatin protesta ekitaldiak egingo dituztela aurreratu zuten.

Horrekin batera, AUGCko kideek salatu zuten Bilduren aldetik guardia zibilek jasaten duten presioa, eta gogorarazi zuten guardia zibilen atzean familiak daudela.

Batzar informatiborako deia

Guardia Zibilek urrian Oñatin egin nahi duten protesta ekitaldia dela-eta, zapatu goizean Oñatiko hainbat kaletako etzebizitzetan esku-orriak azaldu ziren, bihar, martitzena, kultura etxean (19:00), herritar talde batek deituta egin nahi duten batzar ireki eta informatiboan parte hartzeko eskatuz. Esku-orri horretan aditzera ematen dutenez batzar horretan Guardia Zibilek egin nahi duten protesta ekimena izango dute berbagai.

1: Ohiko titulu informatiboa: zerbait egin du subjekturen batek.
2: Itxuraz, titulu informatiboa; halere, ez dago argi zein den informazioaaren muina (zer eratako aurreikuspenak diren gainditutakoak).

42. irudia. Titulu informatiboa eta sasi-informatiboa (*Goiena*, 2011-09-10).

20 | berria | 2010eko abenduaren 5a, larunbata

Kirola

Urte askotarako

Lehen Mailako klasikoetako bat jokatuko dute gaur Realak eta Athleticek Anoetan, hiru denboraldiko etenaldiaren ondoren

Diego Ifran sartu dute Realaren deialdian; Athleticen ez dago aldaketarik

Reala

Entrenatzailea: Martin Lasarte

Bravo; Ansotegi, M. Gonzalez, C. Martinez, De la Bella; Rivas, Aranburu; X. Prieto, Zurutuza, Griezmann; Llorente

Espainiako Liga

C+ 21:00 | Anoeta (32.000 leku) | Ramirez Dominguez

Athletic

Entrenatzailea: Joaquin Caparros

Iraizoz; San Jose, Amorebieta, Iraola, Aurtenetxe; Javi Martinez, Gurpegi; Susaeta, Toquero, Muniain; Llorente

Xabier Lopetegi Donostia
Haritz Gallastegi Bilbo

Haientzat bain garrantzitsua ez dela esango dute alde batekoek. Hiru puntu baino ez direla bestekoek. Baina inork ez die diametsiko. Galde diezaietela, Donostian edo Bilbon, eguraldi kaskarrari aurre eginez sarrera lortzeko ilara amaiezinak egin dituztenei. Edo galde diezaietela jokalariei, estadiorako bidean autobusetik kalean dagoen giroa ikusten dutenean, edo 30.000 pertsonek sortutako zalapartaren erdian zelaian agertzen direnean. Realaren eta Athleticen arteko derbia uz da futbol partida huts bat, futbola bera kirol huts bat ez den lagez. Derbia lehia da. Ospakizuna. Historia. Herri baten arnasa.

Gaurko egunez, duela 34 urte, *Kortabarriak eta Iribarrek ikurrina plazaratu zuten Atotxan.* Gertaera gogoangarri hark markatu zuen partida, baina Realeko zaleek ez dute berehalakoan ahaztuko euren taldeak sartutako gol zaparrada, eta Satrustegik areaz kanpo jotako burukada ikusgaria. Ezta Kodroren arratsalde magiko batean Anoetan sartutako 5-ekoa ere. Athleticeko zaleek ere gogoratuko dute, derbia derbia delako, eta derbietan gertatzen den guztiak arrastoa utzten duelako. Fernando Garcia Makua Athleticeko presidenteak besterik badio ere, albiste bikaina da etenik izan behar ez zuen Lehen Mailako Euskal Herriko klasikoa berreskuratzea. Iraun dezala urte askoan.

Realeko jokalari askorentzat estreinako derbia izango da. Baita Martin Lasarterentzat ere: «Horrelako norgehiagoketan, hiru puntuez gain, beste hainbat gauza egoten dira jokoan. Derbi hau ez dut jokatu, baina hai beste batzuk, bakoitza bere ezaugarrekin. Gustatzen zait berezkoa duten lehia bizia eta pasioa». Uruguaitarra baikor azaldu zen herenegun: «Aste lasaia izan da barruan, bestean antzekoa. Giro ona izan dugu. Ausardia erakutsi beharko dugu irabazteko, eta gugan konfiantza eduki. Uste dut taldeak ez duela goia jo, eta gauza gehiago lor ditzakeela».

Amestutako egoeran egingo dio aurre Realak norgehiagokari, askok uste baino askoz hobeto egokitu delako Lehen Mailara, eta beheko postuak urrun dauzkalako. Hiru puntuak oso tentagarriak dira. Lehen itzulia bukatzeko bost jardunaldiren faltan 22 puntu edukitzeak, hau da, lan erdiak baino gehiago eginda izateak, sekulako konfiantza emango lioke. Partidaz partida joan beharra badago ere, ezin da ahaztu Bartzelona eta Valentzia datozela ondorengo bi jardunaldietan, eta puntuak batzea zaila izango dela. Hala ere, Gijonen irabazitako partida altxor bat izan da txari-urdinentzat, bi gorrol zeramatzatelako jarraian, ondo jokatu arren, eta bolada txarra lehenbailehen moztu behar zelako.

Fernando Llorente da Realarentzat buruhauste nagusia. Ez da harritzekoa, munduko aurrelaririk onenen artean baitago orain, eta orain arte Lasarteren jokalariek ez baitute haren tankerako errematatzaile batekin topo egin. Baina Realak konfiantza du bere erduko atzelariengan eta *bere* Llorenterengan, Josebarengan. Ligako lehen zatian arazo fisikoengatik dezente sufritu ondoren, joko bolada onean dago. Golak sartzeaz gain, taldekideekin ere ederki jokatzen ari da. Molinoren Prietori eman zion goloko pasoa ikusi besterik ez dago.

> Ausardia erakutsi beharko dugu irabazteko, eta gugan konfiantza eduki. Ez dugu goia jo»
> **MARTIN LASARTE**
> Realeko entrenatzailea

> «Reala-Athletic gisako partidetan ikuskizuna bermatuta egoten da beti»
> **JOAQUIN CAPARROS**
> Athleticeko entrenatzailea

Anoetarengan ere fede itsua du Realak. Eroso ari da bertan, zaleek lagunduta, eta gaur inoiz baino laguntza handiagoa izango du. Badaki, gainera, Athletici kostatzen ari zaiola etxetik kanpo emaitza onak izatea, gol asko jaso dituela, eta zeiu erduko hirukotearekin min handia egin diezaiokeela. Baina bilbotarrek egutegi oso zaila izan dutela ere kontuan hartu behar du. Tamudo min hartuta dago, eta haren ordezkoa da delgarriena deialdian, Diego Ifran lehen aldiz sartu baitu Lasartek. Ondo entrenatzen ari da, eta Mirandesen aurkako lagunartekoan gol ederra sartu zuen. Markel ere osatu da, eta zerrendan dago, Estradaren kaltetan.

Dinamika aldatzeko asmoz

Azken hamaika hilabetetan etxetik kanpo norgehiagoka bakarra irabazi duen talde batentzat gurutzehidea behar luke zaleen bebesetik urrun jokatzea. Athletic dago egoera horretan. Baina zuri-gorriei ez dieaparteko kezkarik sortzen. Barneratuta daukate orain arte erakutsi dutena baino askoz gehiago eman dezaketela etxetik kanpoko partidetan. Horrenbestez, berandu baino lehen emaitza onak eskuratzen hasiko direla uste dute. Taldeak duen gaitasunean konfiantza izatea oso garrantzitsua da aurreikusitako helburuak betetzeko. Baina konfiantza izatea ez da nahikoa. Konfiantzak ez baitu punturik ematen.

Sei onenen artean sailkatzea xede duen talde batek ezin du gehiago itxaron etxetik kanpo aurrerapausoa emateko. Ezin da denboraldi osoan zehar San Mamesoko mirarien zain egon, jakina baita lehenago edo geroago huts egingo duela. Seguruenik ez da euskal derbia baino neurketa aproposagorik egongo etxetik kanpoko dinamika txarrari amaieru emateko. Anoeta gunezka egongo da. Sarrera guztiak bukatu dira. Beraz, futbol giro aparta egongo da. Beroa. Etxeko taldeak sekula baino babes gehiago izango du. Beraz, ez da erraza izango motibatzeko aukera hoberik aurkitzea.

Neurketa bakarra azterketa sakonak egiteko nahikoa izan ez arren, euskal talderik onena zein den erakusteko aukera izango dute lehoiek. Pentsamendu horrekin zelairatu beharko lukete, behintzat. Zuri-gorriek argi dute Reala ez dela eurak baino gehiago. «Gu gara faboritto», esan dute

Skoubo, Sarriegi, Elustondo, Mikel Gonzalez, Garmendia eta Xabi Prieto, 2007ko urtarrilaren 28an, Realak eta Athletice

Tituluari erreparaturik, ez dago jakiterik albisteak zertaz hitz egin behar duen. Benetako informazioa jakina da jada, eta iruzkin moduan funtzionatzen du tituluak.

43. irudia. Informaziorik gabeko titulua (*Berria*, 2010-12-05).

2010eko abenduaren 5a, igandea · berria · 35

Euskal Herria · Harian

Durangoko 45. Euskal liburu eta Disko Azoka →

Horixe dauka Durangok

Ahaztu baino lehen

Juan Luis Zabala

Abarlotz Olano • Musikaria

«Kantu batek gauza asko aldaraditzake jendearengan»

Abarlotz Olano

Hamar urte dar-dar ama musikaren munduan Abarlotz Olanok (Zaldibia, Gipuzkoa, 1980), eta *Antilla* lehen diskoa kaleratu berri du.

Zaila da egun disko bat ateratzea?

Mendizale bati mendira joateko sena barrutik ateratzen zaion bezala, abeslari bati abestiak egitea ateratzen zaio. Lan handia dago disko baten atzean; gauzak argi eta garbi eduki behar dituzu, eta zer nahi duzun dakizula, egia horrekin aurrera joan behar duzu.

Mixel Ducaurekin elkarlanean aritu zara. Zergatik Ducau?

Mixel moldakeren egilea izan da, produktzioa ere berak uraman du, eta musika tresna asko sartu ditu. Maketa bidali nion, gustatu zaio, eta seme bat bezala hartu nau. Aita-semeak bezala gara.

Musikari handi askok parte hartu dute lanean. Nondik nora lortu duzu horiek denak biltzea?

Mixetek lan handia egin du. Nik aurrez ezagutzen nituen batzuk, berak beste batzuk, eta biok ezagutzen genituenekin egin dugu diskoa.

***Antilla* izenburua nondik dator?**

Antilla zen baserrian nuen behor bat, zuri-zuria, eta ezagutu nuenean lur jota zegoen gaixoa. Gauza handia izan zen niretzat; ordindik pertsona batekin ezagutu ez dudan mailasuna eman zidan.

Naturak presentzia handia du zure kantuetan. Inspirazio iturri duzu?

Bizitzako maisurik handiena natura da, dudarik gabe. Badu ikasi behar genukeen gauza bat: emankorra da. Min asko egiten diogu, eta, hala ere, beti ematen ari zaigu. Pertsonek jokabide hori izan beharko genuke, bizi garen munduhonetan gauza asko daudelako aldatu beharrekoak.

Gai sozialak ere agertzen dira hitzetan. Kantuek gizartea aldatzeko indarra badutela sinisten duzu?

Kanta batek jendearengan eta norberarengan gauza asko aldaditzake, onerako, sentimendua egazkoa baldin bada.

Zuzenekoak nolakoak izango dira? Zein musikarekin ariko zara?

Mixetekin ari naiz prestatzen, eta harekin eta Ermanan Martikorenarekin frisarrin izan naiz. Aldean ere badituzu musikariak, eta lekuaren arabera prestatzen dugu zein tresnarekin jo, edo akustikoan... Gogoz nabil aurrera jarraitzeko.

KARLOS ZABALA

Egitaraua

LANDAKO

- **13:00:** Mahainguruа: 'Euskara eta kurdutera: estatu gabeko bi hizkuntza'. Hizlariak: Josune Aristondo Bizkaiko Aldundiko Kultura diputatua, Edurne Brouard AEK-ko kidea eta Ronayi Onen kurduera irakaslea. Moderatzailea: Urtzi Urrutikoetxea.
- **16:30:** Kurdistango kantak eta dantzak.
- **18:30:** Mahai-ingurua: 'Nik ere badut hitza (adierazpen askatasunaz)'. Hizlariak: Eser Uyansiz, Martin Garitano. Moderatzailea: Maixelo Olarrendi.

ARETOA

- **11:00:** 'Iruña Veleiako euskarazko grafitoak'. Juan Martin Elexpuru.
- **11:30:** 'Laztantzen nauen eskua'. Miren Fernandez.
- **12:00:** Denon artean: Nafarroako argitaldari-zigilu berria.
- **12:30:** 'Barricada electricaos'. Dabid Mariezkurrena, Fernando G. Garaioa eta Barricada taldea.
- **14:00:** Anitzak Hitzak Bunpada Sound.
- **14:30:** Poesia errezitaldia. Idazle kurduak eta euskaldunak.
- **15:30:** 'Pierre Narbaitz. Antologia'. Euskaltzaleen Biltzarra.
- **16:00:** 'Iraupenean etorkizuna 2'. Euskaltzaleen Biltzarra.
- **16:30:** 'Sarako liburu azoka'. Jean-Michel Garat, Daniel Landart, Teresa Guijarro
- **17:00:** 'Albokak 2.1 Upgrade bizialdi berria'. Ibon Koteron, Xabier Valle, Ruben Isasi.
- **17:30:** 'Zigortzaileak' filma.
- **18:00:** 'Idazlea zeu zara, irakurtzen duzulako'. Hik Hasi.
- **19:30:** 'Tzupadak'. Nahikan.

AHOTSENEA

- **10:30:** Kurduen Itzulpenak.
- **11:00:** Kherau. 'Munduan ortogik'.
- **11:30:** Leak'k. 'Une bat'
- **12:00:** Miren Agur Meabe. 'Zazpi orduak'.
- **12:20:** Xabier Mendiguren. 'Vikingoen sorterria'.
- **12:50:** Miren Agur Meabe. 'Errepidea'.
- **13:00:** 'Neskatiliak'.
- **13:30:** Yolanda Arrieta eta Leire Urbeltz. 'Itzalpetik'.
- **14:00:** Zea Mays. 'Era'.
- **14:30:** Irati Jimenez. 'Atsekabe zaitut'.
- **15:00:** Patxi eta konpainia. 'Euskal urratsa'.
- **15:30:** Asier Serrano. 'Hirl gorritik'.
- **16:00:** Manent. 'Barrutik'.
- **16:30:** Audience. 'Amenkanuak'.
- **17:00:** Mongo. 'Dirua, ze gezura'.
- **17:30:** Miren Fernandez. 'Laztantzen nauen eskua'.
- **18:00:** Ibai Aturka. 'Tatxatuaren azpiko nazioa'.
- **18:30:** Miren Agur Meabe. 'Bitsa eskuetan'
- **19:00:** Azkaiter Pelox. 'Sormena landu'.
- **19:30:** Eneko Bidegain. 'Patxa. Besta bai, berroka ere bai'.

berriak harpidedunen fideltasuna saritu nahi du!!!
Olentzero
Abenduaren 9an,
BERRIAko harpidedunen artean,
Gorrotxategiren
'Olentzero' txokolate turroizko
50 txapel zuzenean zozkatuko dira.
HARPIDEDUN IZATEAREKIN NAHIKOA DA.
erraza, ezta?
Saridunen izenak abenduaren 10ean argitaratuko dira egunkarian.
Aukera ezazu, 902 200 202
berria
ANDOAIN
bastero
Abendua / estreno
10
21:30tan
Rosana

Horixe dauka Durangok delako goiko adibide horretan, zinta batek laguntzen du titulua ulertzen, bestela zail litzateke.

44. irudia. Informazio zehatzik gabeko titulua (*Berria*, 2010-12-05).

EL MUNDO.es

... De aquí a la eternidad

Un golazo de Iniesta en la segunda parte de la prórroga da el Mundial a España

Iker: el beso de España

EDUARDO MENDICUTTI

Los 7 DVD que valen un Mundial

El miércoles con EL MUNDO, entrega doble: España-Suiza y España-Honduras

YO SOY AHORRADOR

3,5%

SIN COMISIONES

SIN CONDICIONES

901 020 020

¡Y en la oficina!

ING DIRECT

Menos del 1% de los catalanes asistió a la marcha contra España

175 fotos aéreas de Lynce prueban que no hubo más de 64.400 personas

(— betikotasuna, eskura)

45. irudia. Informazioa barik, besterik hobesten duen titulu mota (*El Mundo*, 2010-07-12).

PERTSONAIA

«Galderak dira bizitzaren motorea»

Eskuak ebakiko dizkidate... Besorik gabe, sorbaldarik gabe, ahorik gabe, sudurrik gabe utziko naute, baina arimarekin defendatuko dut... nire burua.

UXUE ALBERDI
Argazkiak: Dani Blanco

Nondik atera duzu hain izen estetikoa?
Lehen ez nintzen Concetta; Kontxi nintzen, eta hala sinatzen nuen. Baina Jorge Gonzalez Aranguren poeta donostiarrak Kontxi izen pobrea zela esan zidan, askoz ederragoa zela Concetta. Eta niri ere hala iruditu zitzaidan. Soinu ederra du Concettak. Hori bai, jende guztiak atzerritarra naizela uste du, italiarra edo. Gustuko dut nahasmen hori eragitea, dena den.

Estetikari garrantzi handia ematen diozu, beraz.
Bai, artistak estetika zaindu behar du: soinuena, irudiena, hitzena... Gure lan tresna da. Armonia bilatzen dugu.

Margoen bidez errealitateko puska batzuk erreproduzitzen dituzu. Zer puska izaten dira normalean hautatzen dituzunak?
Emozioak, sentsazioak, galderak... Gizakiak ematen dit atentzioa, gizakiaren ezaugarri humanoek: kontraesanek, eguneroko gauza txikiek, eguneroko bizitzan dagoen surrealismoak, sentimenduek... Barrura begiratzea gustatzen zait, eta azaleko gauzak ez zaizkit hainbeste interesatzen. Objektuak ere humanizatu egiten ditut askotan, haien zentzua bilatzen baitut, ez objektu izaera bera. Oraindik nire begiradaren bila ari naiz, baina normalean, gauza xumeetan jartzen dut arreta.

Begiak oso presente daude zure obran. Zergatik erakartzen zaituzte hainbeste?
Bakoitzak bi ditu, eta pertsona batzuek begi bat oso alaia izan dezakete eta bestea erabat tristea. Bi ikuspuntu dauzka bakoitzak; begiak kontraesanaren metafora dira. Gainera, begiradak gauza asko kontatzen ditu. Ahoa irribarrez egon daiteke eta begiak tristeziaz beteta. Kontraste hori gustatzen zait.

Jerri

"Jerri pertsonaia bat da: izaki bat, erdi gizakia erdi automata. Historiaurreko formak ditu, panpina itxura, oso sinplea da. Zaindu beharreko norbait da Jerri, gure alderdirik samurrena adierazten du, itsusiena, erakutsi nahi ez duguna. Ez dauka sudurrik, ez ahorik, ez eskurik... Mugatuta eta zikiratuta gaudela adierazi nahi nuen, eta bizitzaren kontzientzia hartzeak bakarrik lagun diezagukeela pixka bat aurreratzen. Hori da ideia, baina gogoetak obra sortu ondoren egiten ditut beti. Gorputzean dauzkan orbanek itsusitasuna adierazten dute, gure gaixotasunak, inperfekzioak... Baina begiak mantentzen ditu: sudurrik eta ahorik gabeko gizakia imajina dezaket, baina begirik gabekorik ez".

Begiak ikusten duena marrazten du eskuak?
Ez. Ikusmena tranpa bat da: zerbait lehen aldiz ikusten dugunean ez gara azalekoaz baino jabetzen. Atzerago begiratu behar da. Koloreek, formek... nahastu egiten gaituzte, eta haratago begiratzen ikasi behar da. Hori da interesgarriena.

Gizakia da zure margoetako protagonista. Nolako gizakia?
Gizaki horiek bizitzaren kontzientzia dute. Bizitza ez da ipuin bat, gogorra da askotan, baina ez dugu bizitzen jarraitu beste erremediorik. Hala ere, gure existentziaren jabe izan gaitezke. Pertsona mugatuak dira nire margolanetakoak; Jerri bezala.

Zure gizakiak ez al du sexurik?
Saiatzen naiz bi sexuak ez bereiztea, bestela ere nahikoa bereizten dira! Mila irudi daude bi sexuak bereizteko, eta rolak, eta iragarkiak, eta ereduak... Gustatzen zaizkit feminitatea eta maskulinitatea, desberdinak dira, baina nire irudi propioak egin ditzakedanez, nahiago dut asko ez markatzea. Zalantza gelditu dadila. Batzuek emakumeak ikusten dituzten lekuan gizonak ikusten dituzte beste batzuek, eta nahasmen hori atsegin dut. Zergatik behar dugu bereizketa? Zenbaitetan, bizirik ala hilda dauden ere ez da bereizten, mamu itxura dute.

Mamututa ikusten duzu gizakia?
Batzuetan bai. Hainbeste gauza txar gertatzen dira gure inguruan! Horrek mamu bihurtzen gaitu, eta automatak bagina bezala jokatzen dugu maiz, gauza asko zalantzan jarri gabe: zertan ari garen, norantz goazen... Ez gara kritikoak, eta gauza asko besteek egiten dituztelako egiten ditugu, artaldetik irteteko beldurrez. Erantzun propiorik ez duen gizakia erdi mamua da.

12 ▸ argia 2008ko azaroaren 30a

Elkarrizketatuaren hitzak jasotzen ditu tituluak, zuzen-zuzen jaso ere. Halere, ez dago jakiterik nor den pertsonaia. Komeniko litzateke hori argitzea.

46. irudia. Adierazpenak tituluan (*Argia*, 2008-11-30).

10 | DEBAGOIENA 2011-09-10 | ASTELEHENA | GOIENA

UDAL ORDEZKARI IZANDAKOAK

Inazio Lakuntza | EAJ-EA koalizioko alkatea Arrasaten (2003-2007)

- Lau urtez izan zen Arrasateko alkate; politikan ez du bestelako jardunik izan
- Garaia, Abaroa berria eta Olandixoko tunelaren proiektua bultzatu ditu, besteak beste
- Egun, INNOBASK berrikuntza agentzian dihardu lanean

"Herri honekiko neukan zor sentimenduagatik erabaki nuen politika munduan sartzea"

MAIDER ARREGI | ARRASATE

Inazio Lakuntza tolosarra da, baina 1974a ezkero Arrasaten bizi da. Beti hezkuntzari oso lotuta, eskola eta enpresa munduan ibili da lanean. Unibertsitateko lehen errektorea ere izan zen Lakuntza.

2003-2007 agintaldian Arrasateko alkate izan zinen; zelan gogoratzen dituzu urte haiek?

Lau urte egin nituen alkate moduan. Lehen hirurak oso pozgarriak izan ziren niretzako. Proiektu berriekin hasi ginen eta aurrera atera ziren, gainera. Azkenengo urtean, ordea, dena okertu egin zen. Politika estilo zikina sortu zen, bai EAJ-EA koalizio berriaren barruan eta baita oposizioko alderdietan ere. Une hura izen zen niretzako gogorrena.

Zergatik hasi zinen politikan?

Tolosarra naiz, baina Arrasatera 1974. urtean etorri nintzen bizi izatera. 25 urte Eskola Politekniko an eman nituen lanean denetarik egiten; batez ere, kudeaketan ibili nintzen. 15 urte eman nituen zuzendari lanetan. Herri honek aukerak eman dizkit gauza asko eta berriak bultzatzeko. Pozgarria izan zen herri txiki bati lotutako unibertsitate pribatuko lehen errektorea izatea. Herriarekin zorretan nengoela sentitzen nuen. Hala, unibertsitatetik irten nintzenean, Oñatin nengoela, Mone negozio eskola bultzatzen, politikan koalizio moduan sartzeko aukera eskaini zidaten. Baiezkoa eman nuen, ilusioz, herriarekin nuen zor hori ordaintzeko modu egokia zela uste nuen-eta.

Orduan, EAJ-EA koalizioa; egun, EAk bestelako bide bat hartu du.

Ez dakit zenbat EA dauden momentu honetan; orduan, bi [illegible] zenbat dauden. Betidanik ez naiz alderdiaren barruan egon eta ez dut jarraitzen. Nire ustez, ez dago hainbeste toki horrenbeste alderdi politikorendako. Pentsatzen dut koalizio moduan egoera politikoa pixkanaka bere zentzua hartzen joango dela.

Aurrera ateratako proiektuen artean zein azpimarratuko zenuke?

2003an gabezia handia zegoen etxebizitzaren esparruan eta gazteek etxebizitza izateko arazoak zituzten. Guk desblokeatu egin genuen egoera hura eta etxebizitza planak aurrera atera genituen. Etxebizitza babestuak, tasatuak eta libreak atera genituen eta modu askoko etxebizitzak egin genituen. Egia da etxe batzuk oraindik ez daudela beteta, baina etxebizitzen egungo egoerak ere bete-betean eragina izan du. Bestalde, Garaia Berrikuntza Gunean ere parte hartu genuen udal moduan, eta kontseiluan izan nintzen. Abaroa berria ere azpimarratuko nuke, oso pozgarria izan zen niretzako; baita auzoen mugikortasunari dagokionez jarritako igogailuak ere. Eta ez esanik ez Olandixoko tunela bultzatu izana. Ikusi besterik ez dago herritarrei ekarri dien onura.

Eta okerrena?

Etxebizitza planaren ondorioa izan zen okerrena. Oso gogorra izan zen salaketa jartzea eta erabili zuten politika estiloa. Bergarako epaitegiak kasua artxibatu zuen.

Zer eman dizu politikak?

Aukera eman dit proiektu berriak bultzatzeko eta jendearekin, herritarrekin lotura estua izateko. Alde batetik, oso pozgarria, baina politika nola zikintzen den penagarria da, edozer botatzea pertsona batzuei... dena zikintzen da horrela.

Egun, zertan zabiltza?

LKSko bazkide izaten jarraitzen dut, eszedentzian nago. Udaletik irtendakoan aukera izan nuen INNOBASK berrikuntza agentziara joateko. Bertan, Ekintzailetza Departamentuan dihardut. Enpresa berriekin lanean nabil. Lan polita benetan, hor ikusten da gure herria bizirik dagoela eta jendeak enpresa eta proiektu berriak bultzatzeko duen ekimena; oso pozgarria eta aberasgarria da.

Arantzarik geratu zaizu?

Jende batek nirekiko daukan jarrera. Baina dagoeneko orria pasa dut, eta kito. Orokorrean, garai hartan oso pil-pilean zeuden proiektuak komunikabideetan. Dinamika handia zegoen gauzak martxan jartzeko. Orain, kanpotik ikusita, hori pixka bat galdu egin dela ikusten dut.

Lakuntza, Garaiako eraikinaren aurrean. | MAIDER ARREGI

2007ko otsailean egindako osoko bilkura. | GOIENA.NET

"Politika estilo zikina sortu zen; penagarria da edozer botatzea"

"Dinamika handia zegoen; proiektuak komunikabideetan pil-pilean zeuden"

MAGAZINEA

GOIENA TELEBISTA | GOIENA MAGAZINEA

ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA, 19:45 | ARRITXU BARRUSOK AURKEZTUA

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA goiena

47. irudia. Adierazpenetan oinarritutako titulua (*Goiena*, 2011-09-10).

6. Aipuak: errazena ez zailtzeko aholkuak

Norbaitek zerbait garrantzitsua esan duenean erabiltzen dira aipuak. Informazio hori ematea merezi duenean, alegia. Adierazpen horiek testuan txertatzen dira orduan, zuzenean edo zeharka. Aipuak halako kasuetan baino ez lirateke erabili beharko, ez testua besteen hitzak erabiliz modu arinago eta errazagoz bukatzeko, lerroak besterik gabe betetzeko. Ez.

6.1. ESTILO MOTAK

Lau motatako aipuak ditugu kazetaritza-testuetan: zuzenak, zeharkakoak, bitarikoak eta interpretatiboak. Hona hemen berorien ezaugarriak:

Estilo zuzena

Esaldi osoak ematen dira aipu-marken barruan:

Barack Obama: «AEBen eta Israelen arteko adiskidetasuna eternala izango da».

«AEBen eta Israelen arteko adiskidetasuna eternala izango da», adierazi du Obamak.

Lehen kasua tituluetan erabiltzen da normalean. Bigarrena testuaren barruan, sarreran edo corpusean.

Aipu hauek sartzeko garaian kontuan izan adierazpenak bi puntuen ondoren jarriz gero, komatxoen artean joango direla, aipu-markekin, eta lehen hizkia larriz idatziko dela. Bukaerako puntua, aipu-marketatik kanpo joango da.

Hiesari modu eraginkorrean aurre egiteko, detekzio lasterraren garrantzia nabarmendu du Asier Saez Cirion Pasteur institutuko ikertzaileak: «Tratamendu oso goiztiarra jasotzea funtsezkoa da GIBa kontrolatzeko».

Adierazpenen eta adierazpenetatik kanpoko testuen artean komak jarriko dira:

«Tratamendu oso goiztiarra jasotzea funtsezkoa da GIBa kontrolatzeko», adierazi du Asier Saez Cirion Pasteur institutuko ikertzaileak.

Laburbilduz:

- Bi puntuen ondoren, **letra larria** erabiliko da (**maiuskula**).
- Adierazpenaren eta kazetariaren diskurtsoaren artean, **koma** erabiliko da.
- Bukaerako puntua aipu-marketatik kanpo jarriko da beti.

Zehar-estiloa

Ez da aipu-markarik erabiltzen. Adierazpenak zeharka ematen ditu kazetariak, bere erara, baina jatorrizko hitzen esanahi eta espiritua traizionatu gabe. Batzuetan, perpaus osagarriaren bidez egingo du:

AEBen eta Israelen arteko adiskidetasuna eternala izango dela adierazi du Obamak.

Beste batzuetan, zehar-galdera baten bidez:

AEBen eta Israelen arteko adiskidetasuna eternala izango ote den galdetu dio Netanyahuk Obamari.

Bitarikoa

Izenak azaltzen duenez, goiko bi kasuen arteko konbinaketa da hirugarren estilo hau. Kasu honetan hitz bat, esaldi zati bat, zerbait benetan aipagarri jartzen da aipu-marken artean, baina **ez esaldi osoa:**

*AEBen eta Israelen arteko adiskidetasuna **"eternala"** izango dela adierazi du Obamak.*

*GIBa kontrolatzeko tratamendu oso goiztiarra jasotzea **"funtsezkoa"** dela adierazi du Asier Saez Cirion Pasteur institutuko ikertzaileak.*

Estilo interpretatiboa

Kasu honetan kazetariak deskribatu egiten du hitz egin duenaren asmoa. Horretarako, kazetaria aditz batez baliatzen da gehienetan: *aitortu, egotzi, gaitzetsi, iragarri, kritikatu, iradoki, laudatu, goratu, goretsi, leporatu, salatu ...*

*Israelek kolonoentzako kokagune gehiago eraikitzea **gaitzetsi** du Nazio Batuen Erakundeak.*

6.2. ERABILTZEKO AHOLKUAK

Berez, lau estilo horiek daude. Teorian, errazak dira erabiltzeko, baina kazetaria, ez gutxitan, nahasi egiten da. Ez ditu arauak ondo ezagutzen, edo utzikeriaz idazten du.

Gutxi, asko baino hobeto

Argitasuna eta egokitasuna ezinbestekoak dira aipuak egoki kokatzeko. Ez da aipuez abusatu behar. Egungo joera hori da, baina kalitatezko kazetaritzan ondo neurtu beharko litzateke horien erabilera, gehiegizkoa izan ez dadin. Aipu bat jartzeko urrezko araua hauxe da:

Saiatu zure hitzekin hobeto azaltzen hirugarren pertsona horrek esan duena. Zure hitzekin ezin baduzu, orduan aipua jarri. Esan beharrik ez dago kazetariak, kasurik gehienetan, ondo azaltzen jakin beharko dituela beste pertsona batek hedatutako adierazpenak. Lengoaia menderatzen du. Hitza. Bestela, ez litzateke kazetaria izango. Hona hemen *Berria* egunkariaren estilo-liburuak zer dioen horri buruz:

> Neurrian erabili behar dira aipu-marken barruko adierazpenak, bai estilo zuzenekoak eta bai bitarikoak: oso ondo aukeratu behar dira, indarrik gal ez dezaten. Izan ere, esaldi eta hitz esanguratsuak bakarrik mugatu behar dira aipu-marken bidez. Horrela jokaturik, hitzez hitzeko adierazpenei behar duten indarra ematen zaie; bestela, gerta liteke testua aipu bilduma huts bihurtzea, inolako irizpiderik gabe bata bestearen atzetik kateaturik, era monotonoan.

The Guardian egunkari britainiarrak ere antzeko aholkuak ematen ditu bere estilo-liburuan, baita bitariko estiloarentzat ere, hau da, teorian aipu laburrenak erabiltzen diren kasuarentzat. Arau zorrotzak ematen ditu: «Baztertu beharrezkoak ez diren hitzak. Adibidez: *Benitezek esan du "haserre" dagoela, Liverpool taldea lasterketatik kanpo geratzen ari delako.* Bai, aipu-markak erabil litezke hitzak ***'sutan'*** edo ***'biraoka'*** izan balira, baina aipuak guztiz baztergarriak ditugu ohiko hitz edo esamolde arruntak baldin badira. Halakoak tituluetan ere sartzen ari zaizkigu. Izutzeko modukoa da». Eta aurrerago, halako irudiaz konparatzen du egunkariak aipuen erabilera soberakoa: «Ez da aipu-markak erabiltzeko behar handirik. Aipu-markak confetti moduan barreiaturik daude egunero egunkari eta web orrietan, baina soilik guztiz beharrezkoak direnean erabili beharko genituzke, bai testuan bai tituluetan».

Beraz, argi ibili. Lehen esanikoa ekarri behar dugu gogora orain: kazetaria bere hitzekin saiatu beharko da beste pertsona baten adierazpenak azaltzen. Hori ezinezkoa denean baino ez du erabiliko aipua. Prentsaurreko batean, esaterako, informazioaren profesionalak notak hartuko ditu, eta esandako guztiaren mamia biltzen duten ideiei erreparatuko die. Gero, idazteko garaian, hauxe galdetuko dio bere buruari: «Ba al dago modurik hizlariak azaldutako guztia neure hitzekin esateko? Hala ez bada, zein hitz edo adierazpen zehatz jarri beharko nuke haren ahoan, gehiegi jarri gabe, bestela testuak indarra galduko duelako?».

Adibidez:

*Ongizate estatuaren egoera **«larria»** dela esan du lehendakariak asteroko agerraldian (ez oso egokia)*

*Ongizate estatua **«lehertzear»** dagoela esan du lehendakariak asteroko agerraldian (egokia)*

Lehen kasuan oso ohikoa den berba erabili du agintariak. Bigarrenean, aldiz, adierazkortasun handia eta konnotazio bereziak dituen esamoldeaz eman du egoera ekonomiko larriaren berri. Kasu horretan bai, aipu-marken artean sartu behar da hitz hori.

Ez nahastu estiloak

Ez da itxurosoa estilo zuzena eta zeharkakoa nahastea. Hona *Berria*ren estilo-liburuak zer dioen honen inguruan:

Nahas-mahas erabiliz gero, zaila zaio irakurleari kazetariaren diskurtsoa eta albistegiko protagonistaren hitzak bereiztea. Gainera, joskera arazoak ere sortzen dira perpaus osagarriak aipu-marken barruan sartzeko tentazioa izaten duelako kazetariak:

*EAk **zehaztu du** «beti oinarrizko eskubide horren alde aritu dela eta horretan segituko duela».* (Txarto)

EAk zehaztu du «beti oinarrizko eskubide horren alde» aritu dela eta horretan segituko duela. (Bitariko estiloa. Ondo)

EAk hau zehaztu du: «Beti oinarrizko eskubide horren alde aritu gara eta horretan segituko dugu». (Ondo. Estilo zuzena)

Aditz laguntzailea aipu-marketatik ateratzeak ez du konpontzen arazoa. Aditz nagusia eta laguntzailea batera joatekoak dira: edo biak aipu-marken barruan edo biak aipu-marketatik kanpo.

«Umorea eta gogoeta uztartzen» dituela azpimarratu zuen Mujika Iraolak. (Txarto)

«Umorea eta gogoeta» uztartzen dituela azpimarratu zuen Mujika Iraolak. (Ondo. Bitariko estiloa)

Ondo bereizi hirugarren eta lehen pertsonak

Zenbat aldiz ez ote den halakorik irakurri:

Entrenatzaileak (hirugarren pertsona) *esan du jokalari onenak zelairatuko dituela «partida irabazi nahi dugulako* (lehen pertsona)».

Hau saihesteko estilo zuzenera jo:

Jokalari onenak zelairatuko dituela esan du entrenatzaileak eta horren arrazoia eman du: «Partida irabazi nahi dugu». (Ondo)

Edo:

Jokalari onenak zelairatuko dituela esan du entrenatzaileak, partida irabazi nahi dutelako. (Hobeto)

Izan ere, ez da ezer berezirik gertatzen entrenatzaileak irabazi nahi duela esaten badu. Ohikoena da hori. Beraz, zer dela eta aipu-marken artean?

Ezustekoa, harrigarriena, galdu nahi izatea izango litzateke. Orduan bai, beharko lirateke aipu-markak:

*Partida **«galdu»** nahi duela esan du entrenatzaileak.* (Ondo. Bitariko estiloa)

Entrenatzailearen hitzek kazetari guztiak harritu dituzte prentsaurrekoan: «Partida galdu nahi dugu. Nazkatuta gaude, eta edozer egingo dugu lehiaketatik kanpo geratzeko». (Hobeto. Estilo zuzena).

Azken kasu horretan entrenatzailearen adierazpen guztiak sartu dira, oso-osorik, ezohiko kasua delako, berezia, bitxia oso.

Aipuek osotasuna izango dute

Kontuz ibili behar da aipu-marken barruan zer jarriko den eta zer ez aukeratzean. Komeni da sintagma bereko osagaiak batera egotea, ez zatitzea.

Zuzendari estatubatuarrak ez ditu gustuko «film beldurgarri» horiek. (Txarto)

Zuzendari estatubatuarrak ez ditu gustuko «film beldurgarri horiek». (Ondo)

Betegarririk ez jarri

Irakurleari argi utzi behar zaio adierazpenak nork egin dituen. Hitzak pertsona bakar batenak badira, ez da haren izena edo kargua behin eta berriro errepikatuko. Nekagarria da.

Zipreko turismo elkarteko buruak erreskatearen baldintzak kritikatu ditu:

«Bruselaren inposizioa da. Gure herriaren irudia zikinduko du eta turista gutxiago etorriko dira gurera», esan du turismo elkarteko buruak. (Txarto) Hasieran esana da nork esan duen. Zergatik errepikatu?

Egitatea gertatu dela adierazteko aditz bakarra erabiliko da. Hemen ere ez da ezer errepikatu beharko:

> *Zipreko turismo elkarteko buruak erreskatearen baldintzak kritikatu ditu: «Bruselaren inposizioa da. Gure herriaren irudia zikinduko du eta turista gutxiago etorriko dira gurera», esan du.* (Txarto) Hasieran jakinarazi dugu esan egin duela. Zer dela-eta berriro jarri aditz bat bukaeran?

> *Zipreko turismo elkarteko buruak erreskatearen baldintzak kritikatu ditu: «Bruselaren inposizioa da. Gure herriaren irudia zikinduko du eta turista gutxiago etorriko dira gurera*». (Ondo. Estilo zuzena)

Atribuzioa non jarri ondo pentsatu

Arau moduan, esleipena edo atribuzioa hasieran jarri. Batez ere bi kasutan: protagonistaren hitzak lehen aldiz aipatzen direnean, eta aipuak luzeak direnean. Horrela ez da inor nahasiko. Irakurlea egunkaria irakurtzen ari da, ez nobela beltz bat; ez du burua hautsi behar nork zer egin edo esan duen jakin ahal izateko.

Aholku hau are beharrezkoagoa da protagonista biren edo gehiagoren aipuak tartekatzen direnean. Hasieratik identifikatu beharko da bakoitza nor den eta zer esan duen. Protagonista aldatzen bada, atribuzioa aipuen aurretik jarri beharko da, argi uzteko beste pertsona baten adierazpenak sartu direla:

> *«Aurrekontuak lehenbailehen bozkatu eta onartu behar ditugu», esan du Josu Erkorekak. «Aurrekontuei baiezkoa emateko erabat aldatu beharko litzateke Jaurlaritzaren politika soziala», erantzun du Patxi Lopezek, irmo.* (Txarto)

> *Josu Erkorekak premiazkotzat jo du akordioa lortzea aurrekontuak aurrera ateratzeko: «Lehenbailehen bozkatu eta onartu behar ditugu». Patxi Lopezek irmo erantzun dio: «Aurrekontuei baiezkoa emateko erabat aldatu beharko litzateke Jaurlaritzaren politika soziala».* (Ondo)

Ez errepikatu informazioa adierazpenen sarreran

Batzuetan, ez beti, komenigarria da adierazpenei sarrera moduko testutxo bat egitea aipu-marken barruko testua hobeto ulertzen laguntzeko edo testuinguruan kokatzeko. Ez du misterio handirik, baina zenbait kazetarik ez dute asmatzen testu mota hori garatzen. Edo aipu-marken barruko informazioa eta kanpokoa errepikatzen dituzte edo ez dute ezer ere jartzen, *hau*, *honakoa* edo —okerrago—, *zera* bezalako hitzak baizik, gehienetan betegarriak, burua gehiegi astindu nahi ez izanaren ondorioz:

> *Hego Europari diru gehiago ez emateko eskatu du Alemaniako kantzilerrak Bruselan: «Hego Europari ez diogu diru gehiagorik eman behar. Guk ez ditugu besteen zorrak ordainduko».* (Txarto)

Nork bereari eutsi beharko diola gogorarazi du Alemaniako kantzilerrak Bruselan: «Hego Europari ez diogu diru gehiagorik eman behar. Guk ez ditugu besteen zorrak ordainduko». (Ondo)

Alemaniako kantzilerrak hauxe esan du Bruselan: «Hego Europari ez diogu diru gehiagorik eman behar. Guk ez ditugu besteen zorrak ordainduko». (Oso egokia ez)

Alemaniako kantzilerrak honakoa esan du Bruselan: «Hego Europari ez diogu diru gehiagorik eman behar. Guk ez ditugu besteen zorrak ordainduko». (Oso egokia ez)

Alemaniako kantzilerrak zera esan du Bruselan: «Hego Europari ez diogu diru gehiagorik eman behar. Guk ez ditugu besteen zorrak ordainduko». (Oso egokia ez)

Eztabaidaren mamia zein den gogorarazi du Alemaniako kantzilerrak Bruselan: «Hego Europari ez diogu diru gehiagorik eman behar. Guk ez ditugu besteen zorrak ordainduko». (Ondo) Kasu honetan *hauxe, honakoa, zera* horien ordezko sintagma egokia jarri dugu.

Era berean, kazetariak saihetsi beharko luke, ahal dela*, -(r)en ustez, -(r)en iritziz, -(r)en aburuz, -(r)en arabera, ... esan duenez, ... adierazi duenez,* eta halako esamoldeen ondoren, jarraian, aipu-markak jartzea. Egin egiten da, baina ez da oso itxurosoa. Normalean, zehar-estiloan edo bitarikoan heda dezakegu informazio hori, hobeto idatzita:

Patxi Zabaletaren arabera, «Madrilek erabakitzeko eskubidea onartu behar lioke Euskal Herriari». (Oso egokia ez)

Patxi Zabaletaren ustez, «Madrilek erabakitzeko eskubidea onartu behar lioke Euskal Herriari». (Oso egokia ez)

Patxi Zabaletak esan duenez, «Madrilek erabakitzeko eskubidea onartu behar lioke Euskal Herriari». (Oso egokia ez)

Patxi Zabaletak adierazi duenez, «Madrilek erabakitzeko eskubidea onartu behar lioke Euskal Herriari». (Oso egokia ez)

Esaldi horiek ez dute ezer galtzen, zehar-estiloan osatzen badira:

Patxi Zabaletaren arabera, erabakitzeko eskubidea onartu behar lioke Madrilek Euskal Herriari. (Ondo)

Patxi Zabaletaren ustez, Madrilek erabakitzeko eskubidea onartu behar lioke Euskal Herriari. (Ondo)

Patxi Zabaletak esan duenez, Madrilek erabakitzeko eskubidea onartu behar lioke Euskal Herriari. (Ondo)

Patxi Zabaletak adierazi duenez, Madrilek erabakitzeko eskubidea onartu behar lioke Euskal Herriari. (Ondo)

Esaldi horiek lasai asko jar ditzakegu aipu-markarik gabe. Azken batean, hain nabarmengarria da, berezia, abertzale batek defendatzea Euskal Herriak erabakitzeko eskubidea izatea? Bitxia, aipagarria, eta ezinbestean aipu-marken barruan joateko modukoa hauxe izango litzateke: eskubide hori, espainiazale sutsu batek defendatzea gaur, atzo arte Espainiaren batasun hautsezin betierekoaren alde egon denak. Orduan, bai:

José María Aznarrek esan duenez, «Madrilek erabakitzeko eskubidea onartu behar lioke Euskal Herriari».

Kasu horretan, bai: aipu-marken barruan joango lirateke Aznarren hitzak. Esaldia ez litzateke txarto egongo, baina are txukunagoa izango litzateke aurretik sarrera moduko testu batek lagunduko balio. Tarte horretan hitz horiek eragindako lurrikara politikoa aipa genezake, esaterako. Horrela, testuinguruaren berri emanez, nabarmendu beharrekoa nabarmentzen hasiko ginateke, adierazpenak zuzenean aipatu aurretik ere: ezohikoa, ezustekoa.

José María Aznarrek iritzia aldatu izanak PP astindu du. Izan ere, Espainiako presidente ohiak argi hitz egin du gatazka bide demokratikoen bitartez konpontzeko beharrari buruz: «Madrilek erabakitzeko eskubidea onartu behar lioke Euskal Herriari».

7. Mundua interpretatzen: gertakaria eta albistea, aurrez aurre

Une oro interpretatzen eta baloratzen du gizakiak inguratzen duena. Hona begiratu, hari so jarri, hura gogoan hartu… gizakiak ezinbestean sartzen du ingurua arrazoiaren katean, pentsamenduaren katean, konprentsioaren katean.

Ariketa intelektual horretan, zenbat buru, hainbat aburu.

Esan ohi denez, nork bere begiekin ikusten du mundua. Eta hala da, edo… agian, ez. Zeren, ikusi, begiekin baino buruarekin ikusten baita. Ikusi, den-denek ez dugu zer bera ikusten, zer beraren aurrean jarrita ere.

Horregatik diogu interpretatu egiten dugula mundua, inguratzen gaituen hori.

Diskurtsoa eraikitzean, alegia *ikusi* den hori azaltzean, nork bere hitzak dauzka, bere ikuskera propioari erantzuten diotenak. Eta horiek darabiltza, ez besterik.

Bada, berdin egiten du kazetariak berak ere. Munduaren aurrean eta hari so, ezinbestean eraikitzen du hark ere bere ikuskera propioa. Ezinbestean, zeren *ikusten* duen moduan ikusten baitu mundua, eta *azaltzen* duen moduan azaltzen baitu hura.

Kazetaritzak bere-berea du jardun deduktibo eta arrazionala: «Genero periodistiko orok darama bere baitan, hein batean edo bestean, testuan islatu den errealaren interpretazioa» (Salaverria, 2005: 311).

Hedabideak eta kazetariak, gainera, ez dira bizi mundutik at, linbo idiliko batean, kasurako. Kontrara baizik, inguru sozial, politiko eta kultura jakin batean bizi dira, eta «hedabideek gizarte aldaketen presioa jasotzen dute eta, horrexegatik, borroka politikoak azaltzen diren guneak dira berak ere» (Idoyaga, 2001: 177).

Ez dago esaterik, bada, denek berdin ikusten dugunik mundua, ezta denek berdin eraikitzen dugunik ere haren inguruko kontakizuna.

Zer irizpide profesional erabili ohi du kazetariak ikusten duena eta dakiena albisteen eraikuntza-lanetara eramateko? Zergatik dio kazetariak *hori albiste da, eta hori ez?* Zertan oinarritzen da mundua hedabideen diskurtsora eramateko? Zergatik jartzen du *kontu* bat gizarte-komunikazioaren eskuetan eta, aldiz, beste bat ez?

Azken itaun horiei erantzun gura die kapitulu honek.

7.1. HEDABIDEAREN LAN-MEKANIKA, INTERPRETAZIO-ERABAKIEN ARRAGOA

Mundua albiste bilakatzeko, hedabideak berak markatzen du bidea sarritan. Hedabidearen beraren lan-mekanikak sortzen ditu jarduera batzuk, zeintzuek eramaten baitituzte zenbait gertakari egunkariaren orrialdeetara eta beste batzuk ez.

Hedabideen eguneroko martxan, aparteko garrantzia du agendak —egunerako aurreikusitako ekitaldien zerrendak—. Normalean, eguneko gaien zerrenda hedabideko *staffak* lantzen du.

Gai-zerrendaren konfekzioan ez du zuzen-zuzen parte hartzen kazetariak, nahiz eta berak gauzatu beharko duen hedabidearen hierarkiak erabaki duena.

Normalean, bai zuzendaritzak, bai erredaktoreburuek baita sekzio-arduradunek ere lantzen dute agenda —aurreikuspen multzoa—.

Lehen teilatu interpretatibo horren azpian dago kazetaria, eta hierarkiaren begiak dira bere begi propioen aurreko begiak, mundua baloratzen hasteko erabiliko dituen betaurrekoak.

Staff horrek aukeratzen ditu lantzeko gaiak.

Baina, ez hori bakarrik. Zeren enpresa barruko hierarkia horrek erabakitzen baitu, normalean, gertakariari eman beharreko *tratamendua:* zein hedadura izango duen albisteak (luzea ala laburra izango den), non kokatuko den (atala, orria, azala…), zein elementu grafiko eta bisual eramango dituen (infrografia, leihoak, tituluen tamaina), zein ikuspuntu landuko den (gaia nola fokuan hartu)…

Informazioaren *atezainak* dira lehen mailako erabaki horiek hartzen dituztenak.

Hedabide bakoitzak bere mekanika propioak sortzen ditu, agenda eguneratzeko.

Baina, hedabide denek funtzionatzen dute agendarekin. Hori gabe, deus ez dira.

Hedabidetik hedabidera, berezia da gai-zerrenda: nork berea du.

Lehen orrialdea —azala— da gai-zerrendaren ereduzko isla.

Eta ez bakarrik gai-zerrendarena, baita albiste bertsuaren moldaketarena ere.

Ikus honako hiru adibideok, zein bere testuinguruan kokaturik eta gai bertsuaren inguruan. Egun berekoak dira egunkariok.

DILLUNS 11 DE FEBRER 2013

BONDIA

El primer diari gratuït i independent de Lleida

Milers d'esquiadors omplen les pistes del Pirineu lleidatà

L'ocupació hotelera frega el 100% a la muntanya

La quantitat de neu fins ara acumulada és el gran aliat

Avui Pàgina 3

> Cinc cooperatives d'oli lleidatanes, estafades per un fals comprador

COMARQUES Pàgina 9

> Agredeixen els mossos acampats a Vielha i en detenen un dels autors

COMARQUES Pàgina 9

ESPORTS Pàgina 13

> Taules del Lleida amb el Logroñés i desfeta del Llista contra l'Igualada

> El Barça guanya la Copa de bàsquet i a futbol apallissa el Getafe (6-1)

AJUNTAMENT DE LLEIDA

Cursa de llits de rècord

TEL.: 973 260 065 - FAX: 973 261 067

NÚM. 1.723 ANY 8 / BONDIA cat

TEIXITS Balcells

Roba de la llar

MES BLANC a Teixits Balcells!!!

Fins un 50% de descompte!!!

Pl. Paeria, 6 · Tel. 973 241 887 · Lleida

;DENTALOFFICE

EL PRIMER DENTAL SPA DE LA PROVINCIA DE LLEIDA

Odontologia general
Implants
Ortodòncia invisible (Invisalign)
Odontopediatria
Cosmètica dental

Nutrició
Fisio-Osteopatia
Homeopatia
Estètica facial

facebook.com/dentaloffice mollerussa

T'agradarà venir al dentista.

Clínica Dental - Tel. 973 60 11 52 - Avda. de la Pau, 26 - Mollerussa

(— milaka eskizale hurbildu da Lleidako pistetara)

48. irudia. Elurtea Lleidan (*Bondia,* 2013-02-11).

SUD OUEST
PAYS BASQUE

Rugby/ Top 14
Biarritz, une leçon à retenir Sports page 10

Automatismes • Portails
FAAC
losa
13, allée de la Forêt
BIARRITZ
Tél. 05 59 24 09 35

LUNDI
11 FÉVRIER 2013
1,00€
WWW.SUDOUEST.FR

600 touristes priés de partir

PYRÉNÉES Râteliers saturés de neige, dix voitures ensevelies sous une coulée : le risque d'avalanches entraîne l'évacuation de la station de Barèges. Sa population est confinée. Page 7

Seules les personnes extérieures à la commune ont été évacuées, par mesure de précaution.

Findus a retiré du circuit commercial ses barquettes de lasagnes, mais d'autres plats pourraient poser problème.

Le soupçon pèse sur les plats cuisinés

LASAGNES FINDUS L'affaire révèle un marché de la viande très complexe. Un représentant des consommateurs s'inquiète des contrôles face à l'opacité du secteur des plats cuisinés. P. 2, 3 et 12

TOURNOI DES SIX-NATIONS
Des têtes vont tomber chez les Bleus
Pour relancer une équipe en panne, Saint-André annonce aujourd'hui des changements. Sports pages 8-9

SUD OUEST
RÉGLER MES LITIGES
DÉFENDEZ VOS DROITS !
Conseils et fiches pratiques pour des solutions à tous vos problèmes
5€90 seulement
En vente chez votre marchand de journaux et sur boutique.sudouest.fr*
SUD OUEST

(— 600 turistari eskatu zaio eski-estaziotik alde egiteko)

49. irudia. Elurtea Biarnon (*Sud Ouest*, 2013-02-11).

Año XX Núm. 6.411 1,30 euros EL PERIÓDICO DE TODOS LOS NAVARROS NAFAR GUZTION EGUNKARIA Lunes, 11 de febrero de 2013

Diario de Noticias

300 KILOS
Inaxio Perurena bate en Leitza su récord
PÁGINA 43

CARNAVAL TXIKI
Los pequeños de Lantz desafían a la lluvia
PÁGINAS 18 Y 19

El informe de Salud sobre sus conciertos pone en evidencia la mala gestión de UPN

REVELA UNA FALTA DE ESTRATEGIA EN LA DERIVACIÓN A CENTROS PRIVADOS
PÁGINAS 6 Y 7

Navarra registra 738 prejubilaciones parciales y rompe la tendencia a la baja

LA REFORMA LABORAL CUMPLE UN AÑO CON EL PARO EN CIFRAS RÉCORD
PÁGINAS 54 Y 56

CACEROLADA
DESPEDIDA DE LAS COCINAS EN UBARMIN
PÁGINA 10

El Consejo de Navarra, el gran desconocido de los navarros

PAMPLONA. Los siete nuevos miembros del Consejo de Navarra, el órgano consultivo superior de la Comunidad Foral, tomarán posesión la próxima semana y renovarán una institución prácticamente desconocida para la población navarra. Los siete son expertos juristas de reconocido prestigio, elegidos por el Gobierno (2) y el Parlamento (5) para períodos de seis años. PÁGINA 12 Y 13

Prohibido hablar de... BALONMANO
IBAI MEOKI
JUGADOR DE HELVETIA ANAITASUNA
"Los políticos en España tienen muy poca o nula credibilidad"
PÁGINAS 36-37

EL PP PIERDE ONCE PUNTOS EN INTENCIÓN DE VOTO EN 15 MESES

Un inspector fiscal analiza los papeles de Bárcenas: "El caso es de libro, muy burdo"
PÁGINAS 15-16

Moisés Eseverri, vecino de Burguete, posa delante de su casa junto a la nieve acumulada. FOTO: JAVIER BERGASA

VIVIR CON LA NIEVE

Los vecinos de Burguete y Espinal afrontan las consecuencias de las intensas nevadas, solo comparables a las caídas en el año 1945

Los alcaldes de Roncal y Erro instan a que se limpien vías como la de Erremendia, y la previsión anuncia hoy un nuevo frente polar

PÁGINAS 8-9

ESTACIÓN METEOROLÓGICA HOY CARTILLA RECORTABLE Oregon Noticias

ESTACIÓN METEOROLÓGICA 1 Oregon Noticias

batería de cocina ecológica Magefesa 2ª entrega Tartera 24 cms. Cupones 11-15 febrero

Periódico + LibroCD Ópera: 8,25 euros. Periódico + Pendientes Joid'art: 3,29 euros.

www.noticiasdenavarra.com

(— Elurrarekin bizi)

50. irudia. Elurtea Nafarroan (*Diario de Noticias*, 2013-02-13).

7.2. GERTAKARIAK BALORATZEKO IRIZPIDE PROFESIONALAK

Zenbait irizpideren arabera erabaki ohi du profesionalak zer den garrantzi informatiboa duena eta zer ez. Ildo horretatik, profesionalak berak erabakitzen du gertakarien arteko zein eraman egunkariko orrialdeetara hura albistetzat hartuta.

Bost bat ardatz hartu ohi ditu kazetariak gogoan mundua interpretatu, baloratu eta albistea ekoizten hasteko, honako hauek:

Gertakariaren oinarrizko balioa

Alegia, konta daitekeen edukiarekin zerikusi zuzena duena. Konta daitekeen edukiaren garrantziarekin eta interesarekin du zerikusi zuzena.

Kazetariak baloratzen duen lehen gauza da gertakari horretako protagonistaren beraren garrantzi sozial eta mediatikoa: pertsona esanguratsua ote den, ezaguna, gizarte-maila jakin bat duena…

Era berean, kazetariak baloratu behar du gertakari horrek irakurle-nazioaren interesa piztu ote dezakeen. Nazioari berari dagokion zerbait den, egunkaria argitaratzen den esparru geografiko, politiko eta kulturalaren baitako herritarrei dagokiena, bertako administrazioari, sare instituzionalari, elkarteei…

Baloratzen jakin behar du jende askoren arreta piztuko ote duen. Kazetariak gogoan eduki behar du bere irakurle potentzialen arreta bereganatzeko modukoa ote den kontatzeko duena, jakin-mina nahikoa hedatua izan daitekeen…

Baloratzen jakin beharko du kontatuko duenak etorkizunean garrantzirik izango ote duen. Alegia, hurrengo egunetan jarraipena izango ote duen, edo zeresana ematen jarraituko duen…

Arestian esandako balio horietako bat duenean gertakariak, kazetariak ez du dudarik izaten, eta kontatzeari ekiten dio. Adibidea ikus atzerago: 51. irudia.

Gertakariaren ezaugarri bereziak

Produktuarekin zerikusia dutenak dira horiek. Gertakariak *normaltasuna* apurtzen duenean, kazetariak badu argudio bat gertakaria landu eta albistea garatzeko horren inguruan.

Gertatutakoa bitxia denean, ohikoa ez denean, erraz aurkitzen zaio toki bat egunkariaren orrialdeetan.

Ankerkeriak berak ere badu sarrera orrialdeetan, normaltasuna apurtzen duen heinean.

Gertatutakoan zantzu positiboak aurkitzea ere izan daiteke arrazoia albistea idazteko. Bai eta kontrako kasuetan ere, alegia, zantzu negatiboa izateak ere piztu ohi du irakurlearen interesa. Inoiz, handiagoa positiboak baino.

Aparteko kontalariak ia edozer bihur dezake albiste interesgarri, sentsazionalismoan erori gabe.

Hedabidearekin zerikusia duten ardatzak

Hedabidearen beraren ezaugarriak ere hartu ohi dira gogoan albiste zer izan daitekeen eta zer ez erabakitzeko unean.

Telebista batean, irudiak izateak edo ez izateak asko markatzen du. Irudirik ez izatea oztopo da gertakaria albiste izateko. Eta, kontrara, irudiak izateak ekar dezake munta txikiko zerbait albistetzat hartzea eta albistegian eskaintzea.

Gauza bera irratietan: soinua izanda —adierazpenak, musika, dena delakoa—, errazago egingo du bidea gertakariak albiste izateko.

Hedabidearen ezaugarri teknikoek beren eskakizun propioak dituzte. Baina, baita ideologikoek ere. Hedabidearen idearioarekin bat ez datozen gertakariek zailago izango dute argia ikustea hedabide horretan.

Publikoarekin zerikusia duten irizpideak

Kontu aski ezagun eta jakina da hedabide bakoitzak bere bezeroak dituela: irakurleak, ikusleak, entzuleak…

Ahaleginak egin ohi ditu hedabideak bezeria hori ezagutzeko, jakiteko zein eratako kontsumitzaileak dauzkan, haien beharrak asetzeko moduko eduki mediatikoak ekoitzi eta helarazteko.

Gai globala eta generikoa bada ere esku artean hartutakoa, hedabidea saiatuko da gaia bere irakurleari hurbiltzen. Ikus adibidea atzerago: 52. irudia.

Lehiakortasunaren garrantzia

Hedabideak kontatu nahi izaten du besteek ezin dutena. Horrek aparteko gizarte-eragina eskaintzen dio hedabideari. Besteek ez dutena norberak edukitzea bada *plus* moduko bat kazetarien artean, hedabideen artean.

Beraz, primiziek erraz aurkitzen dute beren bidea albiste bilakatzeko lasterketan. Horrek bere arriskuak dauzka: beste inork ez duena eman behar frenetiko horrek ekarri ohi du gezur bat baino gehiago kontatzea, edo sentsazionalismoan erortzea. Halere, primizien zalea da komunikazioaren mundua.

Era berean, lehiakortasunaren ardatzekoa da besteek baino lehen argitaratzea.

Edo besteek ez bezala ematea.

EL CORREO

BIZKAIA
Lunes 11.02.13
Nº 32.710•1,30€

EL CORREO ESPAÑOL-EL PUEBLO VASCO. DESDE 1910. www.elcorreo.com

¿POR QUÉ ESTAMOS GORDOS?
En 50 años, el español medio ha pasado de ser enjuto y fibroso a fofo y barrigón por su mala dieta P73

CINCO MUERTOS EN UN SIMULACRO DE UN CRUCERO EN LA PALMA P20

Las cajas vascas recortarán alrededor del 60% su gasto en Obra Social

Para salvar centros de la tercera edad o colonias de verano se aplicará una drástica rebaja en patrocinios

Las cajas vascas asumen que el cierre de 2012 con una caída de beneficios cercana al 60% obligará a aplicar una reducción prácticamente similar en el gasto que supone su Obra Social. Para salvar las subvenciones a centros de la tercera edad o el programa de las populares colonias de verano habrá que meter la tijera de forma drástica en el patrocinio de todo tipo de actividades relacionadas con la cultura, el ocio, el deporte o los proyectos solidarios. También se contempla la subida de precios en servicios como las guarderías. JULIO DÍAZ DE ALDA P38

DEPORTES

ATHLETIC 0 ESPANYOL 4
IRAIZOZ DESESPERA A SAN MAMÉS
El portero vuelve a ser el triste protagonista del partido y desenchufa a un equipo ilusionante P47

El guardameta rojiblanco muestra su desconsuelo después de encajar uno de los goles. IGNACIO PÉREZ

Rubalcaba propone que se supriman las donaciones de empresas a los partidos

«No le ha ido mal a Rajoy en estos añitos, madre de Dios», ironizó ayer Alfredo Pérez Rubalcaba en el cierre del congreso de los socialistas vascos en Bilbao, un día después de que el presidente del Gobierno difundiera su renta y patrimonio. El líder del PSOE propuso que la mejor medida para atajar la corrupción en los partidos es «suprimir las donaciones de las empresas». P22 EDITORIAL P30

Apoyo sin entusiasmo a la nueva ejecutiva de Patxi López P23

BARÇA REGAL 85 VALENCIA 69
El Barcelona se regala la Copa
Juan Carlos Navarro.

Atronadora pitada al Rey. El Buesa Arena tapó el himno con un estruendoso coro de silbidos P60

Ciudadanos	2	Deportes	47
Enlace	10	Tus Anuncios	65
Españolas	12 Y 33	V	73
Política	22	SERVICIOS	
Opinión	30	El tiempo	80
Mundo	34	Pasatiempos	81
Economía	38	Agenda	82
Culturas	42	Televisión	84

En nuestro Centro, vosotros sois el centro
Odontología • Implantes Dentales • PADI
Cirugía Maxilofacial • Cirugía Estética
Oftalmología
Puente de Deusto, 11-13. 48014 BILBAO
Tfno.: 94 475 00 00 • www.clinicacqd.es

(— hamarretik sei murriztuko dute kutxek gizarte-lanetan)

51. irudia. Gertakariaren oinarrizko balioa —denei eragingo dien gaia— (*El Correo*, 2013-02-13).

Diario de Teruel

Fundado en 1936 • Nº 22.687 Lunes, 11 de febrero de 2013 www.diariodeteruel.es

PRECIO 1,30 €

La recuperación definitiva de la laguna del Cañizar pasa por la definición de un plan de gestión adecuada del agua

El grupo local de SEO/BirdLife en Teruel realiza un censo de aves acuáticas

El estudio revela un descenso preocupante de las especies invernantes

La laguna del Cañizar está pidiendo a gritos un plan de gestión adecuada del agua que permita la recuperación definitiva de este humedal entre Villarquemado y Cella. Un censo de aves acuáticas invernantes realizado ayer por el grupo local de SEO/BirdLife en Teruel reveló un descenso preocupante de este tipo de especies, indicativo de la situación crítica en la que se encuentra el humedal por la falta de agua. Los participantes identificaron 38 especies diferentes en la laguna, de las cuales solo 10 eran acuáticas. En los últimos años se han llegado a censar unas 200.

Págs. 2 y 3

ESPAÑA Pág. 19

Mueren cinco marineros al caer al agua un bote salvavidas de un crucero

Cinco tripulantes del crucero Thomson Majesty murieron ayer al caer al agua dentro de un bote salvavidas en el que realizaban ejercicios de seguridad, desde una altura de 20 metros, cuando el barco permanecía atracado en el puerto de Santa Cruz de La Palma.

DEPORTES Suplemento en páginas centrales

La victoria frente al Real Unión salva a Embela

El entrenador del CD Teruel, José Manuel Embela, seguirá al frente del equipo después de la victoria conseguida ayer ante el Real Unión Club de Irún (3-2). Los rojillos lograron remontar un 1-2 en contra a pesar de contar con un jugador menos tras la expulsión del capitán, Monforte, por una doble tarjeta amarilla. El primer triunfo en casa para los turolenses desde el pasado 30 de septiembre fue un partido vibrante, para guardar en la memoria de la afición. Beltrán y Trujillo fueron los autores de los goles locales.

Trujillo, autor de los dos goles de la remontada turolense. Maribel Castro

Un Andorra sin ideas se deja dos puntos en el Endeiza ante el Valdefierro (1-1)

El Barça iguala al Real Madrid como 'rey de copas' del baloncesto nacional

Hoy con Diario de Teruel

te regalamos la revista 'El ajuar de Isabel'

¡GRATIS! 68 PÁGINAS A TODO COLOR

elajuar de isabel

VESTUARIO 2013

Diego e Isabel un amor de leyenda

TERUEL UNIVERSITARIA

Estudio sobre motivación y clima escolar

El equipo de docentes de Psicología que coordina Sebastián Lombas investiga sobre inteligencia emocional y 'mindfulness'

Págs. 14 y 15

PROXIMA PROMOCIÓN EN TERUEL

39 VIVIENDAS, LOCALES Y GARAJES CALLE SAN MIGUEL 7

INFORMACIÓN: TEL. 978832594 Y 978611042

Visite nuestro blog: sanmiguel-teruel.blogspot.com.es

teruel casa

CASAS en Venta Alcañiz

Clepsidra

Thomas Sabo

(— gai orokorra da uraren kudeaketa, Teruelen garrantzia du urmaelen egoerak)

52. irudia. Uraren kudeaketa —gai globala—, hurbiltasunera ekarria (*Diario de Teruel,* 2013-02-11).

7.3. CARL WARREN IRAKASLEAREN BEDERATZIKO HANDIA

Zerk egiten du ezer albiste? Zerk bihurtzen du albiste gertakaria? Nola igarotzen da mundu erreala orrialde idatzietara?

Galdera horiei erantzuteko, Carl Warren irakasleak bederatzi osagai definitu zituen, honako hauek: *gaurkotasuna, hurbiltasuna, gailentasuna, ezohikotasuna, gatazka, suspentsea, zirrara, ondorioak izatea, eta zerbitzu-eskaintza.* Hona hemen:

7.3.1. Gaurkotasuna

Albistea ezerk definitzen eta ezaugarritzen baldin badu, gaurkotasunak definitzen du. Horixe da albistearen lehenbiziko osagaia: *gaurkoa* izatea.

Berria izan behar du albisteak. Arraina bezalakoa da albistea, usaina dario bigarren egunetik aurrera.

Nolabait esanda, produktu erabat galkorra da albistea: berehala galtzen du bere freskotasuna.

Zerbait *zahar* kontatzen baldin badugu, hura ezagutzearen gaurkotasuna hartuko dugu kontuan. Alegia, *zahar* den horren ikuspuntu *berri*ren bat eskaini beharko dugu, zeren bestela ustela izango baita *arraina.*

Gaur egun, egunkarietako kazetaritza klasikoak badu arazo larri bat gaurkotasunaren aplikazioan. Zeren, hedabide gero eta goiztiarragoak dauzkagu, berehalakotasunean dihardutenak, unean unekoa kontatzen dutenak, eta, hartara, biharamunean argia ikusiko duen paperezko egunerokoaren kasuan, non geratzen da gaurkotasunaren printzipioa?

Ez da kontu erraza hori. Esan ohi denez, biharamunerako, dena da ezaguna. Zer aporta dezake, orduan, egunkariak?

Bada, zehaztasuna, alderdi askotarikotasuna, analisia, egiaztagarritasuna… Ez da, ez, agorra gaurtik biharreko kazetaritzaren jarduna!

7.3.2. Hurbiltasuna

Inpaktu handikoa da hurbiltasuna. Eragin handia du hurbilekoak irakurlearengan, albiste-egarri den inorengan. Askotan aipatu da munduan den gauzarik eta garrantzitsuena dela berarentzat nor —norbera—, eta, era berean, norberaren inguru hurbila. Bada, kazetaritzan, maxima hori oso da kontuan hartzekoa.

Kazetariaren lana da, hartara, besteren bizitzak irakurleen bizitzetara hurbiltzea. Zenbat eta kontu hurbilagoak esan, orduan eta interesgarriago egingo zaio irakurleari narrazioa.

Hiru hurbiltasun motaz jardun ohi da kazetaritzaren eskola-liburuetan: espaziala, afektiboa eta tematikoa.

Hurbiltasun espazialak gogoan hartzen du egunkariko irakurlearen berezko espazio hurbila, alegia testuinguru fisikoa: nazioa, erkidegoa, lurraldea, herria, auzoa… Adibidez, Errusiako Astrakhan herrian izandako sute txiki batek ez du, seguru asko, zirrara berezirik eragingo handik aparte, handik urrun; aldiz, bertako jendearentzat izango du, seguruenik, erakargarritasunik.

Hurbiltasun afektiboaz dihardugu hurbiltasuna maila psikologikokoa denean. Etxetik egotzi berria denarentzat, interesgarriak izango dira etxe-kaleratzeak aipatzen dituzten albisteak, berari gertatutakoaren antzeko zerbait kontatzen duten heinean.

Hurbiltasun tematikoaz ari gara, irakurleek gogokoak izan ditzaketen gaienganako hurbiltasunaz dihardugunean. Adibidez, euskal hiztunentzat, interesgarria izan daitezke Euskaltzaindiak aditz trinkoaz emandako irizpide gramatikalak; eta euskal filologoentzat, akaso, albistearen interesgarritasuna goragoko koska batean izango da; aldiz, erromatar batentzat, pentsa liteke ez duela interesgarritasunik izango, baldin eta hura ez bada hizkuntza aurre-indoeuroparretan trebatua.

7.3.3. Gailentasuna

Publikoak ezagutzen dituen pertsonek, lekuek, gauzek, eta egoerek —beren berezko posizioagatik, aberastasunagatik, publizitateagatik, beren lanengatik…— interesgarritasun periodistikoa pizten dute sarritan.

Egoera batzuetan, pertsona batzuek erraz erakusten dute gandorra, edozein delarik horretarako arrazoia. Baina, pertsona horiek egiten, esaten, erosten duten orok piztu ohi du irakurlearen jakin-mina: erraz sortzen dute famosoek albistea.

Politikoak, heroiak, atletak, miss eta misterrak… kazetarien jomugan egon ohi dira, irakurlearen jomugan dauden heinean.

7.3.4. Ezohikotasuna

Erraz kontatzen eta irakurtzen da normaltasunetik ateratzen den hori. Bitxia, arraroa, oso gutxitan gertatzen dena… erraz bihurtzen du kazetariak albiste.

Ez da albiste eguzkia ekialdetik irtetea… hala litzateke —albiste, alegia— baldin eta mendebaletik aterako balitz egunen batean.

Orduan heltzen diren trenak ez dira albiste. Istripurik ez duten hegazkinak ez dira albiste. Zebra jaten duten lehoiak ez dira albiste. Uharka barruan diren ibaiak ez dira albiste… Baina, ordutako atzerapena izan duten trenak, lurra jo duten hegazkinak, misiolaria jan duten lehoiak, gainezka egin duten ibaiak badira, izan, albiste.

7.3.5. Gatazka

Gerrak, talde-borrokak, interes kontrajarriak, protagonista oldartuak… albiste dira. Jendetzaren arreta piztu ohi du gatazkak, edozeinek. Gure artean aipatu izan denez, berez kontatzen dira gatazkak. Gatazkak beti du zerbait *berri* kontatzeko.

7.3.6. Suspentsea

Gertaeraren baten inguruan suspentsea eraikiz gero, aurrera egingo du gertaerak albisteen munduan, baita lehen orrialderaino ere.

Suspentsea da gertakarien pilaketa bat klimax ezezagun batera ailegatu gura duena. Antzerkian bezala, ondoren zer gertatuko den galdetzen dio irakurleak bere buruari.

7.3.7. Zirrara

Heriotza, ezbeharra, gertakari hunkigarriak, pertsonaia hunkigarriak… horrelako osagaiekin, aurrera egin du albisteak, traba handirik gabe.

Kazetariarentzat bezala irakurlearentzat, maitagarriak dira emozioak pizten dituzten gertakariak eta pertsonaiak.

Orrialde asko eta asko bete ohi ditu morboak.

7.3.8. Ondorioak

Alegia, emaitzaren bat izango al du gertakariak? Delako autobus-konpainiako gidariek grebara joko dutela idaztea ez da, agian, interesgarria izango, baldin eta konpainia horrek zerbitzatzen duen eremua ez bada egunkariko irakurlearen inguru hurbilekoa. Baina, bestela, bai. Alegia, baldin eta greba horrek erakarriko badio irakurleari lanera oinez joan beharra, taxi garestia hartu beharra, bere autoa mugitu beharra eta auto-pilaketetan denbora galdu beharra… hitz batez esanda, baldin eta irakurlearentzako ondorioak izango baditu gertakariak, albiste izateko proportzioa du, eduki.

Zerga berriak noiz dira albiste? Irakurleengan eragina dutenean.

7.3.9. Zerbitzuak

Eguraldia, errepideen egoera, ur-etenak, trenetako ordutegien aldaketak… txikian edo handian, argia ikusi ohi dute egunkariaren orrialdeetan.

7.4. ZENBAIT ADIBIDE

Azken atal honetara ekarri dira zenbait albiste, arestian esandakoaren adibide gisa, esandako horiei guztiei nolabaiteko aurpegia jartzearren. Adibideetan ikusiko duzunez, arrazoi bat baino gehiago egon daiteke gertakari bat albiste bihurtzeko. Alegia, gorago emandako irizpide horiek ez dira elkarren etsai, ezta gutxiago ere; izatekotan, elkarren osagarri dira.

Bost albiste dituzu jarraian, 2013. urtekoak. Bostak zerbitzu digitaletatik atereak:

- Korrikaren ibilbidearen aurkezpen-ekitaldia.
- Jaurlaritzaren murrizketa ekonomikoak osasungintzan eta hezkuntzan.
- Nafarroako aurrezki-kutxaren ibilbide nahasia.
- PP alderdi politikoaren balizko iruzur finantzarioak.
- Leioako pop-rock musika lehiaketa.

Korrikaren ibilbidea

Gaurkotasun osoko albistea da honako hau. Agerkari digitalak berak ere horri erreparatu dio: «prest» eta «gaur» gako-hitzak darabiltza berriemaileak testuari indar informatiboa emateko. Irakurri arretaz albistearen sarrera:

53. irudia. Korrikaren ibilbidea, gaurkotasunaren eta hurbiltasunaren adibide.

Berria.info gunetik jasotakoa da goiko hori. *Gaur* —bere unean, «gaur»— gertatutako zerbait da goiko hori. *Gaur* ikusi duena argia. *Berri-berria* dena, orain arte —ordura arte— ezagutzen ez zena. Horra bere gaurkotasun-balioa.

Korrika egingo zela jakina zen. Datak, ezagunak. Ibilbidea aurkeztu gabea, artean. Hortik dator berrikuntza, hortik *gaurkotasuna.*

Webgune batean azaldutako testua da goiko hori, unean unekoaz arduratzen dena. Biharamuneko egunkariak, paperezkoak, ezingo du «gaur» esan, baina gaurkotasunari eusten ahaleginduko da.

Bestalde, mapa interaktibo hori eskainita, irakurleak aukera du Korrika bere herritik zer ordutan igaroko den jakiteko, Korrikaren *hurbiltasuna* sentitzeko aukera du, bertan inplikatu eta parte hartzeko aukera.

Jaurlaritza eta CAN

EiTB.com agerkariak eskainitako albisteak dira hurrengo biak, orrialde berean argitaratuak, batera. *Hurbiltasuna*ren kontzeptua azaltzeko hona adibideak. Irakurri arretaz albiste bien tituluak.

54. irudia. Hurbiltasunaren kontzeptua lantzeko adibidea.

Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako Foru Komunitateko albiste bana daude hor goian, aurrez aurre.

Lurraldetasunari erreparatuz, baliteke bat bestea baino hurbilago sentitzea irakurleak, eta hartara interesgarriagoa iriztea. Ematen du Euskal Autonomia Erkidegoko irakurleak *hurbilago* sentituko duela Jaurlaritza jomugan hartu duen albistea. Eta eman, ematen du antzera gertatuko zaiola nafarrari CAN aurrezki-kutxaren afera azaltzen duenarekin. Ez du horrela behar, derrigor.

Gaiari erreparatuta, osasuna eta hezkuntza ditu gogoan batak. Aurrezki-kutxa bat, entitate finantzarioen kudeaketa eta presio politikoak, besteak. Gaitegiaren aldetik ere izan daiteke ulertua hurbiltasunaren kontzeptua: gai bat bestea baino erakargarriagoa izan baitaiteke irakurlearentzat, berari eragiten diolako zuzenean, bere arlo profesionalekoa delako, edo arreta soziala piztu diolako.

Protagonistak ere, modu askotara sentitu ditzake irakurleak. Eta, hartara, albiste bat hurbilago sentitu bestea baino.

Modu askotara sentitu dezake irakurleak albistea hurbil. Baina, hurbil sentitu behar du, interesgarria izan dakion.

Bestalde, gogoan hartu Jaurlaritzaren murrizketak azaltzen dituen albiste horretan, tituluan barik, azpitituluan, komunztadura-arazo larria dagoela, sahietsi beharrekoa.

PP eta ustelkeria finantzarioa

Orrialde asko eta asko betetako kontua izan da hori PPk Madrilen 2011n hasitako legegintzaldian. Politikarien sinesgarritasuna kolokan jarri du. Sistema politikoaren ustelkeria azalera ekarri du… Gai larria, larrienetan. Ikus arretaz argazkietako protagonistak.

55. irudia. Pertsonaien gailentasuna.

Albiste, edo albiste multzo batean, pertsonaiaren gailentasunak marka dezake, inoiz, albistea justifikatzeko aukera.

Gai beraren inguruan —korrupzioa, alderdien finantzaketa, PP—, gailentasun askotariko albiste-muturrak eskaintzen ditu goiko adibide horrek. Pertsonaia horien artean, nok bere *garrantzi* soziala du. Horra hor albistea eraikitzeko giltza, bai eta amua, irakurlea harrapatzeko.

Hiru ildo nagusi eskaintzen ditu EiTB.com delakoak horko orrialde digitalean. Honako hauek:

El Pais egunkari madrildarraren informazioa PPren finantzazio ez-legezkoaz, PPko buruzagiek jasotako gainsari ekonomikoez, Espainiako Ogasunari ezkutatutako diru-mugimenduez.

Segidan, PPko zenbait bururen adierazpenak azaltzen dira. Beste guztien gainetik, Mariano Raxoi Espainiako presidentearenak daude hor, gailentasuna inork izatekotan hark duelakoan.

Barcenas PPko diruzainaren *bisita* Ustelkeriaren Aurkako Fiskaltzara. Eskandalua Barcenasen inguruan lehertu zen. Hark gidatu zituen PPren finantzak urteetan. Hark lortu zituen alderdiarentzako diruak. Hark partitu omen zituen gainsariak lagunen artean.

Zerbitzuaren ideia

Zerbitzuaren ideia lantzeko hona hurrengo adibidea. Era askotako zerbitzuak eskaini ditzake agerkari batek, egunkari batek. Era askotako jendearentzat interesgarriak izango diren esperantzarekin. Adibidean, musika-lehiaketa baten albiste/iragarpena irakurriko duzu.

Bizkaie.biz aldizkari digitalean irakurritakoa da hurrengoa. Leioako Pop Rock Lehiaketaren berri ematen du, iragarri egiten du lehiaketa, bertan parte hartu nahi dutenak gogoan hartuta. Haiei zerbitzu bat eskainita.

Askorentzat, *bigarren* mailako albistea izango da. Baliteke horrela izatea. Baina, punta-puntakoa izango da, lehen-lehen mailakoa, pop-rock musika gogokoa izan eta hori jotzen duenarentzat.

56. irudia. Zerbitzuaren ideia, adibide bat.

Albistearenganako hurbiltasuna garrantzi handikoa da hemen ere. Bizkaikoek modu berezian begiratuko diote. Zer esanik ez Leioakoek. Adin jakin batekoek…

8. Informazio-iturriak, kazetaritzaren giltzarriak

Informazio-iturriak ezinbesteko osagaiak dira informazioaren koktela prestatzeko eta mahaiaren gainean jartzeko, herritar informazioz egarriak kontsumitu, dastatzeko moduan. Koktel guztiek behar dituzte osagaiak; batzuek gehiago; beste batzuek gutxiago. Edari horiek era batera edo bestera prestatzen dira. Osagai horiek ezagunak izaten dira sarri, baina ez beti: zenbaitetan ezkutuko osagaiak dira, sekretupekoak. Inork ez daki zehatz-mehatz edariaren barruan zer dagoen, zerk ematen dizkion bizitasun eta zapore horiek. Hala ere, horrek ez du ardura. Inportanteena gustuko edaria osatzea da, dastagarria, gozagarria, benetako funtzioa beteko duena: freskatzea.

Albisteak osatu eta informazioa hedatzearekin berdin antzean gertatzen da. Albistea idazteko hainbat osagai daude. Horiek guztiak modu egokian txertatuz eta taxuz garatuz sortuko du kazetariak albistea. Produktu informatibo hori sortzeko era guztietako materiala behar du informazioaren profesionalak: lehenik eta behin, noski, gertakaria edo gaia, kazetariaren beraren edo haren hedabidearen arabera albistea izateko moduko garrantzia izango duena. Gero, horri heltzeko elementuak izango ditu. Tresnak. Horietako bat, garrantzitsuenetakoa, informazio-iturriak izango dira.

8.1. DEFINIZIOA

Iturrien ezaugarriek, haien funtzioak eta interesek eta kazetariek haiekin dituzten harremanek hainbat galdera eta kezka sortzen dituzte, informazioaren munduan ez ezik, gizartean ere. Azken batean, iturri horiek hedatzen duten informazioak zuzenean eragiten dio gizarteari.

Zer edo nor dira informazio-iturriak? Zer ezaugarri dituzte? Zeren arabera aukeratzen ditu kazetariak iturri jakin batzuk? Zerk bultzatzen du informazio-iturri bat hedabide jakin batera jo eta haren zerbitzura egotera, beste komunikabide baten alde lan egiteko aukera baztertuta?

Definizio klasikoaren arabera, kazetariari haien borondatez informazioa ematen dioten pertsonak dira informazio-iturriak. Pertsona horien adierazpenak, azalpenak, testigantzak, iritziak eta datuak oinarrizko erremintak izango dira kazetariak albistea idazteko behar beste material izan dezan. «Informazio-iturriak, gehienbat, kazetariek elkarrizketatzen dituzten gizakiak dira. Hauek, normalean, funtsezko datuak ematen dituzte kazetariek informazioak egituratu ahal izateko» (Gans, 1979: 80).

Hala ere, definizio horren esparrua murritza da, batez ere gaur teknologia berriek eskaintzen dituzten baliabideak kontuan hartzen badira. Egun, bada bestelako informazio-iturririk, nahiz normalean gizakiek berebiziko garrantzia izaten segitzen duten. Informazio-iturri horiek era askotakoak dira: berri-agentziak, artxiboak, datu-baseak eta hedabideak beraiek, besteak beste.

8.2. ITURRIEN JOKAERA ETA HELBURUAK

Informazio-iturriak ugari dira. Haien helburu edo interesen arabera jartzen dira harremanetan hedabideekin. Erlazio hori samurra izan daiteke; latza ere bai, zenbait kasutan. Hainbat faktore daude informazio-iturriaren sortzailea den pertsona edo erakundearen eta hedabidearen arteko loturak baldintzatzen dituztenak: hurbiltasun ideologikoa, interes ekonomikoak, pragmatismoa. Baina, ezer ez da ematen ezeren truke.

Interesgarria da Belgikako Kazetari Profesionalen Elkarteak eta Kazetaritza Deontologiaren Kontseiluak iturriei buruz egiten duten balorazioa, 2012. urtean argitaratutako dokumentuan: «Kazetariek erabiltzen dituzten informazio asko informazio-emaileek helarazi dizkiete, kazetariek hala eskatuta edo informazio-emaile horien beraien ekimenez». Informazioa emateko arrazoiak anitz direla aipatzen dute Belgikako profesionalek. «Informazio-emaile horiek era askotakoak dira; esparru desberdinetan ari dira eta arrazoi anitzek bultzatzen dituzte: politikariak, haien mezua zabaltzeko asmoz edo haien irudia hobetu nahian; haien jarduerak eta produktuen balioa nabarmentzeko irrikan dauden enpresak; laguntzak eskatzen dituzten talde humanitarioak; gizarte-mugimenduak, euren burua sendotzeko hedabideak behar dituztenak …».

Informazio-iturriak asko dira baina, euren aniztasuna gorabehera, iturri horiek helburu bera dute: haien komunikazio-gaitasuna hobetzea, fintzea eta hedabideei etekin mediatiko handiena ateratzea. Iturriek informazioa jartzen dute prentsaren eskuetan. Alta, Belgikako kazetariak eta haien ordezkariak biltzen dituzten elkarteen iritziz, informazio horiek ez dira inoiz ere neutroak. «Konkurrentzia-merkatu batean abilezia handiagoz edo txikiagoz sortutako komunikazio-estrategia batzuei erantzuten diete, baita informazio-emaile horiek *kausa on* baten alde ari direnean ere».

Iturriek zein helburu eta interes duten, horixe da gakoa. Kasu ia guztietan dago arrazoi, asmoren bat iturriak hedabideetara hurbiltzeko. «Ez da erraza izaten iturri bakoitzaren asmoa zein den jakitea, ager daitezkeen interesak oso anitzak direlako. Dena dela, iturri aktiboen kasuetan, hots, informazio ematearren hedabideetara hurbiltzeko ekimena hartzen duten iturrien adibideetan, ia beti esan daiteke euren jardueraren atzetik helbururen bat dagoela» (Armentia, Caminos eta Palazio, 2000: 183). Beste alde batetik, aipatu beharra dago iturriek oso ondo aukeratzen dituztela euren informazioak jasoko dituzten hedabideak. Informazio-iturri batzuek —askotan

botere edo erakunde publikoetako edo enpresa handietakoek— hedabide batzuk dituzte gogokoak, normalean haien jarduera edo politikarekiko oso kritikoak ez direnak. Arlo horretan, ikuspegi zorrotzagoz ari diren hedabideak alboan uzten ditu botereak: «Estatu baten botere bakoitzak erabakitzen du zein izango den bere komunikazio-politika. Politika horretan hedabide batzuen aldeko apustua egiten da eta beste batzuk baztertzen dira» (Borrat, 1989: 92).

Beraz, begi bistakoa da iturrien eta kazetarien arteko harremanak interesatuak direla beti, alde batetik zein bestetik. Hedabideek eta iturriek elkar behar dute. Lehenek informazioa lortzeko; bigarrenek, gizartearen begi-belarrietara iritsi eta euren lan edo jardueraren berri emateko. Zenbait kasutan, gainera, tentsioz beteriko erlazioa da, jario naturalik ez duena.

Adibide bat: *Berria* egunkariko «Gizartea» saileko kazetari batek Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Sailera deitu zuen behin, idazten ari zen artikulua osatzeko datu ofizial batzuen eske. Kazetaria nor zen jakin ahala, sail horretako prentsa-arduradunak errieta egin zion, lehenago beste artikulu batean sailaren politika kritikatu zuelako: «Bai, orain informazio eske zatoz, baina lehengoan egurra ematen ibili zinen». Kazetaria eta prentsa-arduraduna hor ibili ziren liskarretan. Azkenean, informazioa eman zioten.

Beste behin ere, egunkariaren orrietan publizitatea sartzeko politika berriro aztertuko zutela esan zioten sail bateko arduradunek egunkariko kazetari bati. Anekdotikoa dirudi, bitxikeria, baina kontua larria da. Ez da hori kasu bakarra; hamaikatxo dira halakoak. Horiek guztiek agerian uzten dituzte iturrien eta kazetarien arteko harreman gorabeheratsuak, eta kezka bat azaleratzen dute: noraino barneratu dute erakunde publikoen ordezkariek gizartearen zerbitzura daudela eta hedabideei, gizartearen begi kritikoa gorpuzten duten heinean, lagundu behar dietela euren eginkizuna garatzen, denon artean, harreman ez beti gozo horretan, herri baten osasun demokratikoa sendotzeko? Ondo oinarritutako kritikak egiteak nolabaiteko zigor ekonomikoak ekar ditzake bueltan? Enpresa pribatu baten aldetik ulergarria izan liteke portaera hori; erakunde publiko baten jokabidea bada, ordea, ez.

8.3. INFORMAZIO-ITURRI MOTAK

Iturririk gabe ez dago kazetaritza egiterik. Horregatik kazetariek informazio-iturri asko izan behar dituzte eskura. Zer material behar duten, zer datu edo zehaztasun baieztatu nahi duten… horrek guztiak berebiziko garrantzia izango du iturri mota jakin batera jotzeko. Lanean jarduteko hainbat iturri ditu profesionalak. Iturriak funtsezko lanabesa izango dira. Horregatik haien fidagarritasuna frogatu beharko da. Iturri horiek guztiak lau atal nagusitan biltzen ditu *Ouest-France* egunkariak. Horien barruan era bateko edo besteko iturri gehienak sartzen dira. Hedabide frantsesaren sailkapenetik abiatuta, honelako multzoak izango genituzke:

8.3.1. Informazio-agentziak eta beste hedabideak

a) Informazio-agentziak

Informazio-agentziak informazioak bildu, egiaztatu, osatu, idatzi eta hedatzen dituzten enpresak dira. Lan hori kazetariek egiten dute. Agentziek harpidetza kontratua duten hedabideei bidaltzen dizkiete albisteak. Munduko informazio-agentzia garrantzitsuenak lau dira, *the big four* deituak: AP Associated Press eta UPI United Press International, (AEB), Reuters (Erresuma Batua) eta AFP Agence France Presse (Frantzia), munduko informazio-agentzia zaharrena, 1856an sortua, Parisen.

Lau agentzia horiek 34 milioi hitz hedatzen dituzte egunero. Munduko egunkarietan argitaratzen diren nazioarteko informazio guztien % 90 inguru agentzia horien bulegoetatik irteten da. Zer-nolako informazioa den beste kontu bat da: Hirugarren Munduan planetako biztanleen bi herenak baino gehiago bizi diren arren, lau agentzia erraldoien informazioen % 25 baizik ez datoz lurralde horietatik. Datuak argi uzten du kolonialismo informatiboaren pisua: Paris, Londres, Washington eta New Yorkeko buruek erabakitzen dute zer izango den albiste bost kontinenteetan eta zer informazio helduko zaien munduko irakurle gehienei.

Informazio-agentzia horiek informazioaren jarioa kontrolatzen dute munduan barrena. Baliabide ekonomiko eskasak dituzten hedabideak —normalean txikiak— horien menpe daude informazioa lortzeko. Ez dute behar adina dirurik atzerrian korrespontsalak izateko —informazio-gune garrantzitsua den leku batean modu iraunkorrean bizi eta lan egiten duten kazetariak—, edo berriemaile bereziak norabait bidaltzeko —gertakari garrantzitsu bat sortu den lekura denbora labur batez egoteko joaten diren profesionalak, informazioa bertatik jorratzeko asmoz —. Baliabideak dituzten hedabide garrantzitsuak, aldiz, saiatu egiten dira euren iturri propioak izaten, agentziekiko menpekotasuna ahalik eta txikiena izan dadin.

Bada informazio-agentzien ezaugarriak eta lan egiteko modua paradoxikotzat jotzen dituenik. Izan ere, kazetariaren iturria beste kazetari bat da; kazetari batzuk —agentziakoak— egunkarietako kazetarien iturri bihurtzen dira, edo behintzat hedabideen informazio-iturri. Bestalde, zenbait adituk ez du uste agentziak, berez, informazio-iturriak direnik. Horien arabera, agentziak ez dira informazio-iturriak, informazio-ekoizleak baizik, agentziek beraiek euren iturri propioekin lan egiten dutelako.

b) Beste hedabideak

Hedabideak ere informazio-iturriak dira. Asko edo gutxi, haien orri, uhin edo irudietan hedatutako albisteak erreferentzia izan daitezke beste egunkari, irrati edo telebistentzat. Batzuetan hedabide batek aireratu duen albisteak lekua izango du beste hedabide batean, horren ustez garrantzi handikoa baita. Beste batzuetan,

albistea ez da zuzenean eramango beste egunkari batera, baina haren gaia, mamia, abiapuntua izango da informazio horri buruz beste testu batzuk osatzeko, ildo horretan sakontzeko.

Egunkari batek garrantzi handiko albiste, erreportaje edo elkarrizketa argitaratu badu, eta beste inork horren berri eman ez duenean, informazio hori esklusiba izango da. Hedabide bakar baten eskuetan egongo da. Gaia aipatzea saihestezina denean, gizartearentzat oro har inportantea delako, esklusiba hori beste hedabideen informazio-iturria izango da.

Esklusiba informazio-iturri moduan erabiliko duen hedabideak hiru aukera izango ditu kasu honetan:

- Informazioa hedatzearekin batera, esklusiba lortu eta argitaratu duen egunkaria aipatzea. Horixe da etikoena. Hala ere, kazetaritza-munduko taldeen artean dagoen lehiak ilundu egiten du, ez gutxitan, jokaera hori. Konpetentziako egunkariaren izena aipatzeak min ematen dio, antza, esklusiba lortu ez duen hedabideari. Azken batean, beste kazeta horren izena aireratuko du bere orrietan, haren aldeko publizitatea egingo du, dohainik. Norberak lortu ez eta, gainera, lortu duena laudatu behar. Non eta bere etxean, bere orrietan. Batzuetan, hori saihesteko erdibidera jotzen dute hedabide askok: informazioa beste egunkari batek argitaratu duela aitortzen dute, baina haren izena zuzenean aipatu gabe, batez ere bi hedabideak zuzeneko lehian baldin badaude. «*The Daily Telegraph* egunkari britainiarrak argitaratu duenez…» idazten dute urruneko egunkaria denean. Hurbilekoa denean izena esan daiteke, noski, baina ez beti. «Gipuzkoako egunkari batek argitaratu duenez…» bezalako formulak, esaterako, nahiko hedatuak dira.
- Informazioa hedatzea, baina hura nondik hartu duen azaldu gabe. Ez da etikoa. Hala jokatzen duen egunkariak bere egiten du informazioa, nondik hartu duen adierazi gabe. Ez da zuzena, argi utzi beharko bailuke iturria zein duen.
- Hirugarren aukera ezer ez aipatzea dugu. Kasu honetan, beste hedabideak kaleratu duen informazioa ez ematea erabakitzen du egunkariak zenbaitetan, haren ustez, informazioak ez duelako behar beste garrantzirik argitaratzeko. Beste batzuetan, ez duelako informazio-iturri zehatz bat aipatu nahi, beste egunkari bat, alegia. Ebazpena ondo baino hobeto neurtu behar du egunkari horrek, albistea eskaini ezean informaziorik gabe utziko dituelako bere irakurleak. Egunkari horrek zintzo jokatu eta hauxe galdetu beharko lioke bere buruari: «Albiste honetan ematen den informazioa gure konpetentziakoa ez den egunkari batetik helduko balitzaigu, argitaratu egingo genuke? Informazio hori geuk *deskubritu* izan bagenu, argitaratuko genuke».

8.3.2. Komunikatuak eta komunikatzaileak

Hedabideetako erredakzio edo idazgeletara hamaika agiri, komunikatu, gonbidapen, txosten eta abar bidaltzen dituzte erakundeek, enpresek, elkarteek edo herritar xumeek. Edozein aukera edo zirrikitu aprobetxatzen dute euren komenentziazko informazioa eguneko albistegian, hedabidearen uneko *online* edizioan edo egunkariaren biharamuneko argitalpenean sartzeko. Kazetariak etengabe jasotzen ditu agiri horiek fax edo posta elektronikoaren bidez, eta ondo bereizten jakin behar du zer garrantzi duen eta atzean zer nolako interesak dauden, inork ziririk sar ez diezaion.

Komunikatuen atzean, komunikatzaileak ditugu, informazioak ematen dituztenak. Komunikatzaile horiek bi taldetan sailkatzen dira, gehienbat: prentsa-kabineteetan eta prentsaurrekoetan. Lehen kasuan komunikatzaileak ezezagunak izan daitezke, erakunde baten barruan bulegoan ari direnak. Beste zenbait kasutan, ostera, aurpegi ezaguna dute. *Argitara* ateratzen dira. Sarritan batean zein bestean aritzen dira, baina: prentsa-kabineteetan dauden profesionalek prentsaurrekoetan ere hartzen dute parte.

a) Prentsa-kabineteak

Prentsa-kabineteek bitartekari-lanak egiten dituzte euren erakunde edo enpresen eta hedabideen artean. Hedabideekin harremanetan jartzen dira, baina hori ez da haien eginkizun bakarra. Kabineteek nolabaiteko harresi informatiboa eraikitzen dute haien erakundea edo enpresa babesteko. «Hortaz prentsa-kabineteek komunikabideen sarrera erakundeen informazioetara iragazten dute. Beste alde batetik, kabineteek erakundeei edo enpresei interesatzen zaizkien informazioak igortzen dizkiete hedabideei. Jakina, informazio horien atzean normalean helburu politiko edo ekonomikoren bat egon ohi da» (Armentia, Caminos eta Palazio, 2000: 196).

Iritzi kontrajarriak daude prentsa-kabineteen jardueren eta eginkizunen helburuei buruz (Ramirez de la Piscina, 1995). Horren arabera, kazetari batzuen ustez, kabinete horiek propaganda-tresna hutsak besterik ez dira; beste batzuen aburuz, aldiz, ezinbesteko informazio-iturriak. Bata edo bestea izan —erdibideak egon badaudela ahaztu gabe—, ukaezina da prentsa-kabineteek, onerako edo txarrerako, kazetarien lana baldintzatzen dutela.

b) Prentsaurrekoak

Izenak berak aditzera ematen duenez, erakundeek, elkarteek, taldeek, gizaki multzoek edo gizabanakoek kazetarien aurrean eskainitako agerraldi publikoak dira, informazio haien ustez garrantzitsua helarazteko asmoz. Prentsaurrekoaren antolatzaileak informazio-emaileak deitzen ditu, hedabideen ordezkariak bertaratuko direlakoan.

Prentsaurreko batean kazetariak kontuan izan beharko du informazio-emailea nor den eta zer dioen. Horretaz gain, deialdiaren arrazoia zein izan daitekeen ere hausnartuko du, zergatik erakunde, alderdi, enpresa, talde edo gizabanako batek transmititu gura dion informazio jakin bat; zein den ekimen informatibo horren azaleko arrazoia eta zein izan litekeen ezkutukoa, baldin eta halakorik balego. Adibidez, alkate batek udalaren hirigintza-planen berri emateko deitu ditu kazetariak. Informazioaren profesionalek ondo aztertu beharko dute asmo hori informatibo hutsa den edo propaganda. Agian irudi-kanpaina da: sei hilabete barru udal-hauteskundeak izango dira eta azken urteetan egin ez duena egin nahi du orain alkateak. Horrek tituluari eragingo: *Kiroldegiak doan izatea erabaki du udalak herritarrei osasuntsu bizitzen laguntzeko eta Kiroldegiak doan izatea erabaki du udalak hauteskundeen atarian* antzeko tituluak dira, bai, baina oso interpretazio desberdinak ematen dizkiote irakurleari.

Prentsaurrekoetara, ahal dela, kazetari aditua bidaliko du hedabideak, agerraldi publikoan eskainiko den informazioaren eremuan eskarmentua duena. Hori nahitaezkoa da, batez ere gaia interes handikoa denean. Prentsaurrekoan galderak baino garrantzitsuagoak izango dira erantzunak, erakunde edo enpresaren ordezkariaren mintzaira, portaera, erreakzioak… Testua idaztean lortutako informazio esanguratsuena nabarmenduko da lehen-lehenik; kazetariak ez dio adierazpenen ordena kronologikoari segituko. Hizlariaren azalpenak edo erantzunak zuzeneko estiloan edo zeharka idatziko dira, aurreko atalean azaldu bezala.

Lehen esan denez, agiri, txosten edo bestelako informazio-testuak informazioaren arloko profesionalek ekoizten eta hedatzen dituzte —kazetariek, alegia— erakunde edo enpresen bulegoetan. Hori dela-eta, beste bulegoetako kazetariek, hedabideetan lan egiten dutenek, kontu handiz hartu beharko dituzte informazio horiek eta ondo neurtu eta aztertu, hedabideari, herritarrei eta, oro har, gizarteari benetan interesatzen zaizkien. Gero, datu edo informazio horien zehaztasunak frogatu beharko ditu. *Ouest-France*k azaltzen duenez, komunikatu eta komunikatzaile horien trebeziak «behartu» egiten du kazetaria erne egotera informazioa baloratzeko unean.

8.3.3. Dokumentazioa

Kazetariek dokumentazioa erabiltzeko aukera dute gertakari, kopuru, data edo bestelako datu edo informazioak egiaztatzeko. Egunkari handiek dokumentazio-adituak dituzte kazetariekin batera lan egiteko eta haiei laguntzeko. Hedabidearen dokumentazio-zerbitzuaz gain, badira dokumentu ugari, kazetariarentzat lanabesa direnak. Liburuak, aldizkari espezializatuak, publizitatea, foiletoak, esku-orriak. Artxiboetan, liburutegietan, kultura-etxeetan aurkituko ditu.

Kazetari askok, batez ere arlo zehatz batean luzez lan eginez trebatu direnek, dokumentazio pertsonala dute, eskarmentuzko urteetan pilatua. Hala ere, profesional guztiek, kazetariek zein dokumentazio-adituek, gero eta gehiago jotzen dute

Internetera informazio eske. Erraza da sarean datuak lortzea; informazio-olde horretan itotzea bezain erraza. Horregatik, Interneten bilatu eta aurkitutako *informazio* horiek kontrastatu, frogatu egin beharko ditu kazetariak.

Internetek aipamen berezia merezi du informazioa lortzeko lanean, gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari baita. Internet informazioa eman, jaso eta trukatzeko bide azkarra da. Sarea funtsezko baliabidea da XXI. mendeko kazetarientzat. Saguari eragin eta klik bat emanez informazioaren uhinetan has gaitezke surfean, informazioaren munduko itsaso guztietan barrena, hesi geografikorik eta denbora-mugarik gabe. Mirari dirdiratsua dirudi. Alta, mirari horrekin kontuz ibili beharra dago, haren argiak itsu ez gaitzan. Izan ere, iturrien fidagarritasuna hala-moduzkoa izan daiteke, eta kazetarien presak, utzikeriak edo, are okerrago, etika ezak erabilera okerrera eraman dezake profesionala. Plagiora, alegia.

8.3.4. Kazetarien sarea

«Kazetari baten ikerketa-lana haren iturrien kalitatearen menpe dago», dio *Ouest-France*k. Profesionalek telefonoz deitzen diete gertakari batekin zuzeneko harremanak dituzten lagunei eta beste ikuspuntu bat izan dezaketen iturrietara jotzen dute. Zenbaitetan, adituen laguntza behar dute albiste baten aurrekariak, oinarriak, datuak eta, hau ere garrantzitsua, ondorioak ulertzeko eta hobeto helarazteko herritar irakurle-ikusle-entzuleari. Helbide, telefono, kontaktu-sare oparoa izan behar du kazetariak eskura. Hori ez da goizetik gauera lortzen. Informazio-iturri propio hori bereganatzeko hazia erein egin behar du profesionalak, arrosatu, landu eta zaindu, bi aldeen arteko konfiantza sor dadin.

8.4. ITURRIEN SAILKAPENA

Informazio-iturriak sailkatzeko, hainbat modu daude. Laburbilduz, iturri garrantzitsuenak bi taldetan sailkatuko dira: iturri pertsonalak eta iturri idatziak edo dokumentalak.

8.4.1. Iturri pertsonalak

Kazetariarekin harremanetan dauden pertsonek edo iturri gehienek osatzen dute multzo hau. Lagun horiek informazioa helarazten diote profesionalari. Ohiko kontaktuak izan daitezke —politikariak, erakunde publiko edo pribatu bateko kideak, enpresa eta sindikatuetako ordezkariak, presio edo lobby taldeak…— edo iraunkortasunik gabeko iturri pertsonalak —albiste izango den gertakari baten lekukoak edo aditu bat albiste horri buruz duen iritzia ematen—.

Armentiak, Caminosek eta Palaziok hiru sailetan banatzen dituzte iturri pertsonalak:

a) Kazetariaren eta iturriaren arteko harremanaren iraupenaren arabera:

- Iturri iraunkorrak: informazioaren profesionalarekin denbora luzeko harremana duten iturriak dira. Kazetariak bilatutako iturriak daude horien artean, baina ez beti. Askotan, iturriak hurbiltzen zaizkio. Bi aldeen arteko erlazioak estutu egiten dira denboraren denboraz, eta horrek konfiantza eta fidagarritasuna handitzen ditu bi aldeen artean.
- Behin-behineko iturriak: kasu honetan kazetariaren eta iturriaren arteko erlazioa ez da denboran luzatzen. Gertakari jakin baten inguruan informazioa lortzeko edo hedatzeko sortutako kontaktuaren ondorioa da iturri hori, besterik ez. Lehen kasuan kazetaria jarri da harremanetan; bigarrenean, ostera, iturriak jo du kazetariarengana, informazio bati buruzko zehaztasunak jakinarazteko.

b) Iturriaren egoeraren arabera. Multzo honetan, lau azpitalde ditugu:

- Publikoak: kargu publiko batean daude eta erakunde publiko horretatik ematen dute informazioa. Gehienetan arazorik gabe aipa ditzake kazetariak bere testuetan.
- Pribatuak: ez daude kazetari askoren eskura. Askotan anonimotasuna nahi dute, eta hari eusteko eskatzen dute.
- Isilpekoak: iturri hauek kazetari kopuru are txikiagoaren eskura daude. «Aparteko gaiei buruz ematen dute informazioa, eta ezin dira aipatuak izan» (Rodríguez, 1994: 69).
- Adituak: informazio berezitua eskaintzen diote kazetariari. Normalean profesionalak jotzen du haiengana. Sarri askotan gai zail, nahasi samarrak direnean gertatzen da hori, batez ere datu teknikoegiak direnean, datu zehatz batzuk ondo ulertzeko eta, ondoren, irakurleei edo ikus-entzuleei behar bezala azaltzeko.

c) Iturriak kazetariarenganako hartzen duen jarreraren arabera:

- Aktiboa: kasu honetan, iturria hurbiltzen da informazioaren profesionalarengana. Informazioa iturri horren ekimenari esker eskuratzen du kazetariak. Iturri horiek informazioa zabaldu nahi dute gizartean, eta hedabideak behar dituzte horretarako. Esate baterako, prentsaurreko baten deialdiaren berri ematen duen iturria aktiboa da.
- Pasiboa: ez dute inoiz ekimenik hartzen, ez dira beren kabuz hurbiltzen kazetariarengana. Profesionalak kontaktatzen ditu, hura dabil informazioaren bila. Héctor Borraten arabera, iturri pasiboak bi motatakoak izaten dira:
  1. Iturri oztopatzailea: mugak eta eragozpenak jartzen dizkiete haiengana informazio eske jotzen duten kazetariei.

2. Iturri irekia: pasiboa da, ez du ekimenik hartzen eta harengana jo behar du kazetariak. Kasu honetan, ordea, iturriak ez du lana oztopatzen.

8.4.2. Iturri idatziak edo dokumentalak

Multzo honetan era guztietako dokumentuak sartuko lirateke: artxiboak, liburuak, datu-baseak. Dokumentuak, oro har, eskuragarritasunaren arabera banatuko ditugu:

- Dokumentu publikoak, edonoren eskura daudenak.
- Pribatuak, edonork ezin kontsultatu dituenak. Sarrera murriztuta dute.
- Isilpeko dokumentuak. Publikoak ez du horien berri.

8.5. ITURRIEN ESLEIPENA

Esleipena edo atribuzioa kontu korapilatsua da kazetariaren eta informazio-iturrien arteko harremanetan. Izan ere, iturriak baldintza jakin batzuetan emango dio informazioa profesionalari. Kazetariak argi izan behar du iturria aipatu behar duen, noiz eta nola. Iturriak emandako informazioa hedatzerik duen ere jakin beharko du, gerora arazorik ez izateko.

Oro har, hiru esleipen mota daude informazio-iturriekin lan egiten dugunean: *on the record*-eko informazioa, atribuzio ezkutuko informazioa eta *off the record*-eko informazioa. Komeni da elkarrizketa edo solasaldia hasi baino lehen iturriarekin argitzea zein esleipen-mota izango den, hau da, zein baldintzatan emango duen informazioa.

***On the record*-eko informazioa:** atribuzio mota honetan, kazetariak ez du arazorik lortutako informazioa hedatzeko, ezta iturria zein duen azaltzeko ere. Zuzeneko atribuzioak dira, *on the record* deituak. Egoerarik onena da kazetari batentzat: eskura duen informazio guztia argitara dezake eta, gainera, informazio-iturriaren izena ere esateko baimena du. Besterik espero daiteke? Noski, egoera ideal hau ez da kasu guztietan ematen.

Atribuzio ezkutuko informazioa: kasu honetan kazetariak informazioa hedatzeko baimena dauka, baina ezin du esan nork eman dion. Atribuzio ezkutuak sinesgarritasuna ken diezaioke informazioari. Batzuetan modu bitxia erabiltzen da iturria zeharka aipatzeko, baina izena zehaztu gabe. *Egunkari honek jakin ahal izan duenez, ministerioko iturriek hedabide honi jakinarazi diotenez* eta antzeko formulek duda-mudak sor ditzakete irakurleen artean, bi aldetatik: nola frogatu egunkariak benetan lortu duela informazio hori, iturri batetik hartu duela, ez duela asmatu? Nork dio iturri horrek, benetan iturririk egon bada, egia esan diola kazetariari, ez duela engainatu bere izena ezagutuko ez dutela aprobetxatuz?

Ezkutuko atribuzioak ahalik eta gutxien erabili beharko lirateke. Informazioa benetan garrantzitsua bada, eta iturriak aipatzerik ez badago, hedabideak argi eta garbi utzi beharko du anonimotasunari eutsi behar diola, adierazpen, azalpen edo datu horiek kaleratu ahal izateko. Batez ere, iturria arriskuan egongo bada, haren izena argitaratuz gero. Dena den, oraingo joera ez doa ildo horretan. Egun inoiz baino gehiago irakurri eta entzuten da «ondo informatutako iturriak» edo «egunkari honek jakin ahal izan duenez…». Horixe jakin dutela, jakin ezean ez zuten albistea argitaratuko. Baina nola jakin dute? Noren bidez?

Berria egunkariaren estilo-liburuak hauxe dio gai honen harira: «Argi eta garbi adieraziko da kazetariak zein iturri erabili duen informazioa lantzeko. Informazio-iturriak behar bezala identifikatu behar dira. Iturria zehatz aipatu ezin bada, ez da erabiliko *iturri fidagarrien arabera* eta antzeko formulaziorik. Izan ere, fidagarria izan ezean, kazetariak ez du aintzat hartuko».

Jarraian fidagarritasuna zaindu beharra aipatzen du egunkariak: «Iturri anonimoek ez dute lekurik *Berrian. Jendeak dioenez, politika adituen esanetan* eta antzeko formulazioek ez diote sinesgarritasunik ematen albisteari; alderantziz, kazetariaren iritzia estaltzeko bidea dira. Tentazio hori saihestu egin behar da beti. Jendea, auzokideak, adituak eta beste nor diren ere ongi identifikatuko da. Informazio-iturria beste hedabide bat bada, lehenbailehen aipatu behar da».

Off the record: hirugarren kasu honetan kazetariak ezin du ez informazioa argitaratu, ez iturria aipatu. Teorian, kazetariari geroko lanak lantzen lagunduko dion informazioa da. Haren jakituria informatiboaren zatia izango da, baina isilean gordeko du, altxor bat izango balitz bezala. Atribuzio mota honen interpretazioak eta erabilerak eztabaida eta zalantza franko eragiten dituzte adituen eta kazetarien artean. Batzuen ustez, informazio hori ezin da inondik inora ere argitaratu. Beste batzuek, aldiz, zilegitzat jotzen dute argitara ematea iturriaren izena aipatzen ez bada. Hau da, ezkutuko esleipen baten moduan.

Off the record-eko informazioa ezin da argitaratu, baldin eta beste iturri baten bidez baieztatzerik ez badago: «Gure aburuz, *off the record* formulapean jasotzen den informazioa ezin da inondik inora ere publikatu, informazio horiek kazetariaren lana gidatzeko dira eta beronen ulermena hobetzeko (…) *Off the record*-aren bitartez lortzen diren datuen atribuzioa ezin dakioke inori egin eta datuok ezin dira zabaldu ere egin. Kazetariaren erabilpen pertsonalerako datuak dira, azken batean» (Armentia, Caminos eta Palazio, 2000: 186).

Jarraian *off the record* formularen bidez lortutako informazioa zein testuingurutan argitara daitekeen adierazten dute: «Botere politikoaren inguruan kokatzen diren iturriak maiz kazetari jakin batzuekin biltzen dira, egoera politikoa iruzkintzeko. Bilera horien edukia ez da agertuko hedabideetan baina hedabide horietako kazetariek jakingarri interesgarriak eskuratuko dituzte testuinguru politikoa hobeto ulertzeko.

Noski, iturri horiek jakin behar dute kazetariek jasotako datuak beste iturri baten bitartez egiaztatzea lortuz gero, berauek argitaratzeko eskubidea dutela».

Iritzi horretakoa da *Berria* ere. Hona hemen egunkari horren estilo-liburuan zer azaltzen den

«Batzuetan, iturri batek informazioa ematen du bere izena isilean gordetzeko esanda: *off the record* lortutako informazioa dela esaten da. Horretarako benetako arrazoiren bat dagoenean bakarrik onartuko da *off the record* izatea, eta ez iturriaren kapritxo bati —edo maltzurkeriaren bati— men eginda. *Off the record* eskuratutako informazioa ez da bere hartan argitaratuko, salbu beste alde batetik baieztatua denean».

The Washington Post egunkari estatubatuarrak erlazio berezia izan du iturriekin. AEBko hiriburuko hedabideak horiei esker lortu zuen *Watergate kasua*ri buruzko informazioa, Richard Nixon presidentearen dimisioa ekarri zuena. *The Post*ek lau atribuzio mota bereizten ditu, ohi baino bat gehiago. Hauexek dira:

On the record: iturriak ematen duen informazioa eta iturriaren izena esan daitezke, arazo barik.

On background edo atribuzio zehatzik gabea: bi termino hauek gauza bera esan nahi dute: «poliziaren departamentuko funtzionario bati» edo «taldeko jokalari bati» esleitu dakiokeen informazioa, baina haren izena esan gabe. *Ez jarri nire izenean* formula deituko genioke. *The Washington Post*ek onartu egiten du zenbait kasutan formula hau erabiltzen dela, baina kontu handiz ibiltzeko gomendatzen die kazetariei: «Sen onez eta ganoraz jokatu eta presionatu atribuzioa ahalik eta ondoen ezagutarazi ahal izateko».

Deep background edo atribuziorik gabea: kategoria hau iruzurtia da eta, salbuespenak salbuespen, saihestu egin beharko litzateke. *Deep background* formulaz lortutako informazioa testuan aipatu daiteke, baina atribuziorik gabe. *The Post* horren kontra azaltzen da: «Horrek esan nahi du ez dagoela ezelango modurik irakurleari laguntzeko informazio horiek nondik datozen uler dezan. Horregatik guk gaitzetsi egiten dugu *deep background*-a erabiltzea».

Off the record: formula hau artetsuena da, beste edozeinek baino azpijoko gehiago sortzen baititu, AEBetako egunkariaren arabera. Izan ere, zenbait iturrik nahasi egiten dituzte *off the record* eta *on background* edo atribuzio zehatzik gabeko formulak: «Gure definizioaren arabera, *off the record* informazioa ezin da erabili, ez egunkarian, ez geroagoko informazioetan. Baina iturri askok, funtzionario sofistikatu batzuk barne, izen hori erabiltzen dute, benetan hauxe adierazi nahi dutenean: "ez jarri nire izenean". Oso kontu handiz ibili behar da *off the record*-eko informazioa eman nahi duten iturriekin hitz egiten denean. "Ez jarri nire izenean" esan nahi badute, diferentzia azaldu behar diegu eta argitu zer atribuzio jarriko dugun egunkarian.

Benetan *off the record* esan nahi badute, guk termino hori definitzen dugun moduan, orduan, kasurik gehienetan uko egin beharko genioke informazio hori entzuteari. Ez dugu nahi iturri batek gu paralizatzerik, iturri horrek zerbait esaten badigu, erabili ezinezkoa, *off the record*-eko baldintzetan ematen digulako».

*The Washington Post*ek *off the record*-en alternatiba proposatzen du: *for guidance* edo *laguntza moduan.* Kasu horretan, iturri batek informazioa eman nahi dio egunkariari, laguntza moduan, geroan gai horri buruzko albisteak idaztearen komenentzia iradokitzeko. Iturriak argi uzten du egunkariak ez dituela haren hitzak edo iruzkinak oinarri legez erabiliko hedabidean zerbait argitaratzeko. Horixe, izan zen, hain zuzen, *Deep Throat, Eztarri Sakona*ren eta Bob Woodward eta Carl Bernstein kazetarien arteko harremanen akordioa *Watergate kasua*n.

8.6. ITURRIEKIKO ITUNAK ETA JOKABIDEAK

Hedabidearen eta iturrien arteko harremanak ez dira beti samurrak. Horregatik komeni da akordio batean oinarritzea bi aldeen arteko oreka mantentzeko. Azken batean, elkarren beharra dute bai egunkariak, bai iturriak. Itun hori argi utzi behar dute erlazioaren hasieran, eta bi aldeek errespetatu egin behar dute. Hori gertatu ezean, akordioa hautsi egingo litzateke.

Askotan, iturrien atribuzioa zer motatakoa izango den zehazten da itunean. Informazio-emaile anonimoan izatea erabakitzen dute iturriek sarri, euren burua babesteko. Izan ere, zenbait kasutan kaltegarria izan daiteke informazioa ematea, baldin eta iturriaren nortasuna argitzen bada. Pertsona hori lanetik kanpora dezakete edo auzitara eraman informazio sentsiblea kaleratzeagatik. Bada egoera okerragorik: informazio-emailearen bizitza bera ere arriskuan egon daiteke zerbait hedatu izanaren ondorioz. Horregatik iturri horien anonimotasuna zaindu behar da. Kasu horietan guztiz justifikaturik dago ezkutuko atribuzioa erabiltzea, informazioa nork eskaini duen ez esatea. «Anonimotasuna ulertu behar da babes-neurri bat bezala iturriaren kontrako balizko errepresalien aurrean» (Quesada, 1987: 99). Egunkariak ituna errespetatzen ez badu, anonimotasuna hausten badu, iturriaren konfiantza galduko du eta, ondorioz, hark ez dio beste informaziorik helaraziko.

Atribuzioa ez da iturriaren eta kazetariaren arteko harremanetako puntu gatazkatsu bakarra. Bada besterik. Esaterako: kazetari batek elkarrizketa egin dio, *on the record*, pertsona bati, hau da, informazio-iturri bati. Idazgelara itzuli denean iturriaren deia jaso du, zerbait aldatu edo kendu nahi duela esateko. Teorian kazetariak ez luke halakorik onartu beharko. *The Washington Post*ek halaxe dio: «Guk ez diegu onartzen iturriei adierazpenak erregulatzen dituzten oinarrizko arauak aldatzea. Behin aipu bat *on the record* grabatuta egon ostean, bere horretan geratuko da».

Beste zenbait kasutan iturriak testua irakurtzen uzteko eska diezaioke kazetariari elkarrizketa edo artikulua argitaratu aurretik. Hori ere ez da onargarria.

Hedabidearen eta iturriaren artean konfiantza-itun bat dago. Kazetariak badaki horri eutsi behar diola, bestela hurrengoan ez du iturri horren laguntzarik izango lan egiteko. Beraz, ez zaio komeni informazio-emaileari huts egitea. Hala gertatuko balitz, iturriak kolaboratzeari utziko lioke, baina hori gertatu arte, konfiantza izan behar du kazetariarengan.

Hala ere, gerta liteke iturriak soilik elkarrizketa ematea, baldin eta kazetariak aldez aurretik onartzen badu haren adierazpenak irakurtzen uztea testua argitaratu aurretik. Kasu korapilatsua da hau. Ezetz esanez gero, kazetariak informazio baliotsua gal dezake. *The Post*ek ondo pentsatzeko eta editorearekin hitz egiteko gomendatzen dio kazetariari: «Guk ez dugu nahi iturriek jatorrizko elkarrizketan esandakoa aldatzerik, baina batzuetan ezin da hori saihestu edo, saihesten bada, iturri garrantzitsu baten aipua galtzea ekarriko du. Egoera honetan bazaude, aholkua eskatu editoreari».

Zenbait kasutan zilegi da testua argitaratu aurretik erakustea. Adibidez, kazetariak oso artikulu teknikoa idatzi badu eta zalantzarik badu datu edo interpretazioren bati buruz, komenigarria da iturriarekin mintzatzea idazkian egon litezkeen hutsak zuzentze aldera. Horrek, ordea, salbuespena izan beharko luke: argitaratu aurretik, kazetariak ez lieke artikuluak irakurtzen utzi beharko iturriei.

Informazio-iturriek lana errazten diote kazetariari, baina bidea oker diezaiokete. David Randallek zenbait aholku ematen ditu, iturriekin lan egiteko garaian kontuan izan beharrekoak. Batez ere iturri horiek oso fidagarriak ez direnean. Hona gomendioak:

- Kazetariak bere buruari galdetu beharko lioke zergatik iturri horiek jarri diren harremanetan harekin. Altruismo hutsa existitu egiten da, baina kazetaritzaren arloan oso gutxitan azaltzen da.
- Kazetariak bere buruari galdetu beharko lioke albistearen beste bertsio batzuk ba ote dauden, eta galdera bera egin iturriei. Jendeak joera du gauzak zuri-beltzean ikusteko eta dosi dramatiko gehiegiz zipriztinduta.
- Haien ustez eta hitzez dakitena frogatzeko baldintzetan ote daude iturriak? Uste baino gehiagotan, iturriek puztu egiten dute dakitena; gehiago dakitelako itxura egiten dute, batez ere *off the record*-eko formula darabiltenean.
- Zalantzak dituenean, kazetariak beste iturri batzuk kontsultatu beharko ditu. Profesionalaren intuizioak eta eskarmentuak balio handia dute horretan. Halakoetan informazioa beste edozeinek baiezta dezakeen galdetuko dio iturriari.
- Ez sinetsi, ez eman fidagarritasuna informazio bati soilik egiazkoa izatea komeniko litzaigukeelako. Zenbait kazetariren karrerak hautsi egin ziren albisteak asmatu egin zituztelako. Profesionalak zuzen eta zorrotza behar luke izan.

- Inoiz ez ordaindu informazioak jasotzearen truke. Ez fidatu grabazioak edo bideoak saldu nahi dizkiguten iturriez. Saiatu informazioaren merkatu horretatik ihes egiten, tranpaz eta gezurrez betea baita.
- Arau bihurtu beste aldearen bertsioa ezagutzea. Jendeari aukera eman behar zaio bere burua defendatzeko, eta horretarako denbora eskaini. Edizioa itxi baino hamar minutu lehenago deitzeak ez du balio. Beste alde batetik, ez da presatua ibili behar informazio konprometituak argitaratzeko. Komenigarria da lehenago ondo egiaztatu eta osatzea.
- Kazetaria argi ibiliko da «kontuan izan horrek ekarriko dituen ondorioak» edo «arduratsu jokatu» esaten diotenean. Esaldi horien atzean balizko zentsuratzaile bat egoten da sarri. Gerra edo garai gatazkatsuetan gobernuek «patriotismoa» aipatzen dute, edo «segurtasun nazionala». Hortik desinformaziora urrats bat besterik ez dago.

Informazio-iturriei buruz luze eta zabal hitz egin liteke. Atal honetan funtsezko arau eta aholku batzuk baizik ez ditugu aipatu. Nahikoa izango ahal dira informazioaren koktela behar besteko osagaiz eta behar bezalako neurrietan nahasteko. Edari horrek ez gaitu mozkorkerian erorarazi; ez ditu gure zentzumenak desaktibatuko. Koktela freskagarria izango da eta burua argi mantentzen lagunduko digu, informazioaren mundu lainotsuan itsu ez ibiltzeko. Edari osasungarria izango da sistema demokratikoa sendotzeko eta gizartearen espiritu kritikoa garatzeko, desinformazio, engainu eta etika ezaren pozoirik gabe.

9. Ariketa-proposamenak

Zenbait ariketa dituzu atal honetan. Lanerako proposamenak dira, eskuliburuan azaldu diren kontzeptu eta ideia zenbait garatzen joan zaitezen.

Metodologia sinplea du atalak: hasteko, testu bat eskaintzen zaizu, zuretzako oinarrizko informazioa duena; ondoren, lana egiteko hainbat irizpide.

Saia zaitez zure kabuz betetzen hemen azaltzen direnak. Arazorik baduzu, jo zure irakaslearengana.

Hona hemen ariketak:

1. *Gertakaria itsasoan*

   Gaurkotasuna lantzeko ariketa duzu. Jarri zure arreta sarrera eta goiburuko elementuak modu egokian uztartzen. Eta ez ahaztu: *bihar* irakurriko da *gaur* idatzia.

2. *Lan-istripua*

   Gertakari- eta istripu-estiloko albistea idatzi behar duzu. Gaurkotasuna da ardatz nagusia: konplexutasunean, foku egokia aurkitu behar duzu.

3. *Trafiko-istripuak*

   Bat baino gehiago dira testuko ezbeharrak. Zein bere tokian eta unean gertatu da. Baina, irakurleak denak batera aurkituko ditu egunkarian, *bihar*.

4. *Ikuskizuna*

   Elkarrizketa bat duzu oinarria. Estiloa transformatu, gaurkotasunezko elementua bilatu eta albistea idatzi behar duzu. Adi tempusarekin. Adi fokuarekin. Lan konplexua da. Eskaini denbora eta arreta.

5. *Nafarroako ikastolak*

   Informazio multzo handia hartuko duzu esku artean. Erreportaje landua duzu oinarrizko testua, testu multzoa. Gaurkotasunaren betaurrekoekin begiratu behar diezu horiei guztiei, eta albiste bat idatzi, *biharko* egunkarirako.

9.1. GERTAKARIA ITSASOAN

GERTAKARIA ITSASOAN

DATUAK

Ondoko lerroetan ematen zaizun informazioarekin 25 lerroko albistea idatzi behar duzu.

Albisteak honako elementu hauek izan behar ditu: titulua, azpititulua, sarrera, corpusa eta tarteki bat.

Nuevo Pilin itsasontzia Santoñako (Kantabriako) atunaria da. 145 tonako pisua du, 30 metroko luzera eta 7 metroko erruna. Hiru urte ditu eta hegaluzeen arrantzan ibili ohi da.

Bilboko Itsas-salbamendu Zentroak emandako informazioaren arabera, gaur goizaldeko 6etan dei bat jaso da bertan eta ohartarazi du Bizkaiko Golkoan itsasontzi bat hondoratu dela. Hondoratu den itsasontzia Nuevo Pilin izan da. Itsasontzian bost marinel zihoazen.

Ertzaintzaren salbamendu taldeak goizeko 8ak inguruan atera dira eta itsasoan galdutako 5 arrantzaleak salbamendu txalupa batean aurkitu dituzte onik, Luzero lurmuturraren inguruan, Bizkaiko Golkoan. Izan ere, itsasontzia guztiz hondoratu baino lehen bertatik alde egitea lortu dute. Itsas Salbamenduko zerbitzuek 5 marinelak txalupatik jaso eta Bilboko portura eraman dituzte. Han Gurutze Gorriko boluntarioek artatu dituzte eta ondoren Bilboko hotel batean ostatu eman diete.

Nuevo Pilin arrantza-ontziak izandako istripuaren arrazoiak argitzeke daude oraindik. Itsasontziak hiru urte eskas zituen, eta agiri guztiak legezkoak eta behar bezala zituen. Istripua izan eta ordu gutxira, Santoñako portuko marinelek ez dute jakin gaur goizean zein izan zitekeen ezbeharraren arrazoia: «Ez dakigu zer gertatu zaien, agian itsaso kolpe batek itsasontzia hondoratu du».

Celestino Sañudo arrantzaleak, lesio bat dela eta, ezin izan zuen Nuevo Pilin itsasontziko eskifaiarekin itsasoratu. Bere lagunen antzera bizia salbatu du Sañudok. Lankideen ezbeharra ikusita honako hau esan du: «Hau ikusita, ziur nago ofizioa utzi egingo dudala. Ez naiz itsasora bueltatuko, bi urte baino ez zaizkit falta erretiroa hartzeko eta».

Era berean, Nuevo Pilin itsasontziko patroiaren semeak ere ontzian lanean behar zuen, baina gaixoaldi baja zuen. Hona hemen berak esandakoa: «Eskerrak denak onik atera diren, ni izan nintekeen horietako bat. Gure ofizioan ez dira gertakari hauek askotan gertatzen baina izaten direnean, normalean ez dute amaiera onik izaten. Ohikoagoa da marinelak itsasoan desagertu eta hiltzea».

Ertzaintzaren lehenengo hipotesien arabera, ontziak zeraman karga bat itsasora jausi eta ontzia jo du. Hasieran, itsasoaren egoera zakarraren ondorioz ontzia irauli egin dela uste bazuten ere, adituek esan dute ez dela eguraldiagatik izan, eguraldia «normala» baitzen.

Espainiako Gobernuak Bizkaian duen ordezkaritzaren aburuz, litekeena da ur gainean zebilen edukiontzi bat jo izana, ontzia pitzatu eta irauli izana.

GERTAKARIA ITSASOAN

–LANERAKO ESKEMA–

Albistean, gaurkotasunezko elementua nabarmendu behar da. Prentsa idatzian arreta jarri behar zaio aditz-denborari. Izan ere, egunean gertatu denak hurrengo egunean ikusiko du argia.

Titulua idatzi aurretik sarrera egin eta behin sarrera eratuta, horretan oinarrituz titulua eta azpititulua idatzi. Sarreraren osteko paragrafoak garrantziaren arabera idatzi, goitik beherako kontakizun-ereduari jarraituz (garrantzitsuena hasieran eta bestelakoa ondoren).

Sarrera idazteko aholkuak:

1. Ezer idazten hasi aurretik ideiak ordenatu eta sarrera antolatzeari ekin.
2. Paragrafo bat da sarrera, bospasei lerro dituena.
3. Sarrerak eta tituluak bat etorri behar dute.
4. Sarreran, honako galdera hauei erantzun behar zaie: Nor/nork, Zer, Noiz, Non, Zergatik. Hildakorik gabeko gertakaria da eta horixe da kontatu beharrekoa. Bost erreferente horiek (Nor/nork, Zer, Noiz, Non, Zergatik) ez dira esaldi bakar batean bildu behar. Informazioa eta testuaren ulergarritasuna ongi ezkondu behar dira albiste osoan, eta modu bereziki artatsuan lehen paragrafoan: sarrera deitzen diogun honetan.
5. Gertaera *gaur* goizeko 6etan gertatu da, eta *biharko* egunkarirako idatzi behar da.

Titulua idazteko aholkuak:

1. Titulua idazteko orduan, hautatu sarreratik osagairik garrantzitsuenetako bizpahiru, eta horiekin osatu titulu *zuzena*. **Nor/nork, Zer** eta **Non** galderei erantzutea komeni da tituluan.
2. Titulua orainaldian idatzi, eta letra xehez.
3. Ez jarri punturik tituluaren ostean.
4. Tituluaren luzera gehienez 13 hitzekoa izatea aholkatzen da.
5. Tituluak eta sarrerak bat etorri behar dute.

Hona **titulua**n idazteko hiru proposamen:

- Kantabriako ontzi bateko bost marinel erreskatatu ditu Ertzaintzak Bizkaian
- Bost arrantzale erreskatatu ditu Ertzaintzak Bizkaiko uretan
- Bizkaiko uretan hondoratu den ontzi bateko bost arrantzale erreskatatu ditu Ertzaintzak

Azpititulua idazteko aholkuak:

1. Ez du tituluak jasotzen duen ideia bera errepikatzen.
2. Ez da tituluaren jarraipena. Alegia, ez du titulua behar berau ulertzeko.
3. Tituluan, azpitituluan eta tartekian ez da hitz bera errepikatuko.
4. Bigarren mailako daturen bat jaso ohi da bertan.

Azpititulurako ideia hauek lan ditzakezu:

- Hondoratzearen arrazoiak edo horien inguruko hipotesiak aipa daitezke.
- Itsasontziko patroiaren semearen hitzak.
- Itsasontziaren ezaugarriak.

Tartekia idazteko aholkuak:

1. 2-3 hitz dira. Ez da esaldi osoa. Titulu txiki bat da, albiste nagusiaren baitan.
2. Ez da jartzen lehenengo eta bigarren paragrafoen ostean, bukaera aldera baizik, azken aurreko paragrafoaren aurretik.
3. Ez du punturik bukaeran.
4. Hurrengo paragrafoan garatuko dena laburbilduko dute 2-3 hitz horiek.

Tartekirako ideiak:

- Beste arrantzaleek esandakoa istripuaren inguruan.
- Itsasontziaren ezaugarriei buruzko informazioa.

9.2. LAN-ISTRIPUA

LAN-ISTRIPUA

DATUAK

Berria egunkarian 2010eko azaroaren 11an kaleratu zen eta zenbait aldaketa izan dituen informazio honetaz baliatuz, 20 lerroko albiste bat idatzi behar duzu.

Albisteak honako elementu hauek izan behar ditu: titulua, azpititulua, sarrera, corpusa eta tarteki bat.

Beste izen bat idatzi behar da lanean hildakoen zerrenda beltzean: oraingo honetan Mañarian gertatu da ezbeharra eta hildakoa J.M.A langilea izan da. Ertzaintza arduratu da gertatukoaren ikerketaz. Osalan, Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearen arabera, langilea harria ehotzeko makina bat garbitzen ari zen, makinaren barruan, eta bertan harrapatuta geratu da, oraindik argitu ez diren arrazoiengatik.

Gaur goizean gertatu da ezbeharra Mañariko (Bizkaia) harrobian, harria ehotzeko makina batean harrapatuta geratuta. Hildakoak 33 urte zituen eta 11 urte zeramatzan Mañariko harrobian lanean. Hormigoi plantako langilea zen. Ezkonduta zegoen eta bi alaba zituen.

Gaurkoa ez da aurten Mañarian gertatu den lan istripu bakarra. Apirilaren 8an, Atarrabiako (Nafarroa) M.I.L. 32 urteko kamioi gidaria hil zen Mañariko harrobitik gertu. Kamioia harrobira joateko bidetik atera zen, erreten batera erori, eta iraulita geratu zen. Gidaria kamioian harrapatuta geratu zen eta hilda zegoen suhiltzaileek atera zutenean.

LAB sindikatuak egindako zenbaketaren arabera, 68 lagun hil dira aurten Euskal Herrian lanean ari zirela.

Bizkaiko UGTk lan istripuari buruzko ikerketa zorrotz bat eskatu du. Enpresei gogorarazi die segurtasun neurriak bete behar dituztela, eta Administrazioari exijitu dio zain ditzala lan osasunean egiten diren irregulartasunak. Zigorrak jarri behar baditu, zigorrak jartzeko eskatu dio, «lantegi seguruak eta osasungarriak lortzeko».

Hijos de León Amantegui S.A. enpresaren jabeak jada egin du istripuaren lehen ikerketa, eta jakinarazi du lehen balorazioa: «Guztiak erakusten du bai enpresak bai langileak ezarritako segurtasun neurriak bete zituztela. Beraz, zorigaiztoko istripu bat izen dela dirudi». Enpresako administrazio kontseiluak, zuzendaritzak eta langileek beren dolumina agertu diote hildakoaren familiari.

LAN-ISTRIPUA

–LANERAKO ESKEMA—

Albistean, gaurkotasunezko elementua nabarmendu behar da. Prentsa idatzian arreta jarri behar zaio aditzaren denborari. Izan ere, egunean gertatu denak hurrengo egunean ikusiko du argia.

Titulua idatzi aurretik sarrera egin eta behin sarrera eratuta, horretan oinarrituz titulua eta azpititulua idatzi. Sarreraren osteko paragrafoak garrantziaren arabera idatzi, goitik beherako kontakizun-ereduari jarraituz (garrantzitsuena hasieran eta bestelakoa ondoren).

Sarrera idazteko aholkuak:

1. Ezer idazten hasi aurretik ideiak ordenatu eta sarrera antolatzeari ekin.
2. Paragrafo bat da sarrera, bospasei lerro dituena.
3. Sarrerak eta tituluak bat etorri behar dute.
4. Sarreran, honako galdera hauei erantzun behar zaie: Nor/nork, Zer, Noiz, Non, Zergatik. Albiste honetan lan-istripu bat gertatu da eta ondorioz hildako bat dago. Hori da kontatu beharrekoa. Bost erreferente horiek (Nor/nork, Zer, Noiz, Non, Zergatik) ez dira esaldi bakar batean bildu behar. Informazioa eta testuaren ulergarritasuna ongi ezkondu behar dira albiste osoan, eta modu bereziki artatsuan lehen paragrafoan: sarrera deitzen diogun honetan.
5. Kontuz aditz-denborarekin eta adberbioekin. Guretzat *gaur* dena, irakurlearentzat *atzo* da.

Titulua idazteko aholkuak:

1. Titulua idazteko orduan, hautatu sarreratik osagairik garrantzitsuenetako bizpahiru, eta horiekin osatu titulu *zuzena*. **Nor/nork, Zer** eta **Non** galderei erantzutea gomendatzen da tituluan.
2. Titulua orainaldian idatzi, eta letra xehez.
3. Ez da punturik jarriko tituluaren ostean.
4. Tituluaren luzera gehienez 13 hitzekoa izatea aholkatzen da.
5. Tituluak eta sarrerak bat etorri behar dute.

Hona **titulua**n idazteko proposamen zehatz bi:

1. Langile bat hil da Mañariko harrobian
2. Langile bat hil da Mañariko harrobian, harria ehotzeko makinan harrapatuta

Informazio kopuruaren ikuspuntutik begiratuta, aberatsagoa da bigarren titulua. Lehena bera ere nahikoa informatiboa da. Azalpen zehatzagoa ematen du bigarrenak, gaiaren aurrerapen xumea eskaintzen du lehenak. *Informatiboa* litzateke lehena, *azaltzailea* bigarrena.

Azpititulua idazteko aholkuak:

1. Ez du tituluak jasotzen duen ideia bera errepikatzen.
2. Ez da tituluaren jarraipena. Alegia, ez du titulua behar berau ulertzeko.
3. Tituluan, azpitituluan eta tartekian ez da hitz bera errepikatuko.
4. Bigarren mailako daturen bat jaso ohi da bertan.

Azpititulurako ideia hauek landu:

- Enpresak egin duen adierazpena.
- Aurretik gertatu diren istripuak.
- Sindikatuek esandakoa istripuaren inguruan.

Tartekia idazteko aholkuak:

1. 2-3 hitz dira. Ez da esaldi osoa. Titulu txiki bat da albiste nagusiaren baitan.
2. Ez da jartzen lehenengo eta bigarren paragrafoen ostean, bukaera aldera baizik, azken aurreko paragrafoaren aurretik.
3. Ez du punturik bukaeran.
4. Hurrengo paragrafoan garatuko dena laburbilduko dute 2-3 hitz horiek.

Tartekirako ideia hauek landu:

- Aurretik gertatu diren gisa horretako istripuak.
- Sindikatuek esandakoa istripuaren inguruan.

9.3. TRAFIKO-ISTRIPUAK

TRAFIKO-ISTRIPUAK

DATUAK

Berria egunkarian kaleratu zen eta zenbait aldaketa izan dituen informazio honetaz baliatuz, 20 lerroko albiste bat idatzi behar duzu.

Albisteak honako elementu hauek izan behar ditu: titulua, azpititulua, sarrera, corpusa eta tarteki bat.

Irurtzun (Nafarroa) eta Andoain (Gipuzkoa) arteko A-15 autobia zortzi orduz itxita egon zen atzo Donostiara bidean, kamioi batek su hartu zuelako Berastegin (Gipuzkoa). Laranjak zeramatzan kamioiak eta 07:10ak aldera su hartu zuen, arazo tekniko baten ondorioz. Suak kamioiko kaxa asko erre zituen, baina ez zuen kalterik eragin kabinan. Istripuak hainbat kilometrotako ilarak eragin zituen Donostiara bidean. Ilarak Nafarroako mugaraino iritsi ziren. 13:15ak aldera zabaldu zuten bideetako bat. Bitartean ibilgailuak Tolosatik eta Betelutik barrena bideratu zituzten.

Hildakoak
Donostian pertsona bat hil zen herenegun gidatzen zihoan autoak zuhaitz bat jo ostean. Hildakoa 41 urteko M.I.S da. Bizkaia pasealekuan zihoala zuhaitza jo eta hil zen; oraindik ez dute argitu istripua nola eta zergatik gertatu zen. Gertaera eguerdiko 12:00ak aldera gertatu zela jakinarazi zuen Herrizaingo Sailak.

Bestetik, emakume bat hil zen atzo arratsaldean, Andoaingo Ricardo Arregi kalean auto batek harrapatu ostean. 17:00ak inguru jazo zen gertaera. Emakumea larri zaurituta eraman zuten Donostiako ospitalera. Egoera oso larrian igaro zituen hainbat ordu eta gaueko 23:00etan hil zen.

Gaur 23 urteko gazte bat hil eta 20 urteko beste bat larri zauritu dira Urdiainen (Nafarroa) gertatutako auto istripu batean. Hildakoa Bakaikukoa zen (Nafarroa). Hildakoa eta zauritua zihoazen autoak pareta bat jo du Urdiain eta Etxarri Aranatz arteko errepidean, 09:20ean. Foruzaingoak zehaztu du autoa 30 metroan irristan joan dela eta gidariaren aldeak jo duela zuhaitza zuzenean. Hildakoak ez zeukan jantzita segurtasun uhala, atestatuaren arabera. Kolpearen ondorioz, zauritua toraxeko traumatismoa eta barruko odol jarioa dituela eraman dute Iruñeko Nafarroako Ospitalera, egoera larrian.

TRAFIKO-ISTRIPUA

–LANERAKO ESKEMA—

Albistean, gaurkotasunezko elementua nabarmendu behar da. Prentsa idatzian arreta jarri behar zaio aditzaren denborari. Izan ere, egunean gertatu denak hurrengo egunean ikusiko du argia.

Titulua idatzi aurretik sarrera egin eta behin sarrera eratuta, horretan oinarrituz titulua eta azpititulua idatzi. Sarreraren osteko paragrafoak garrantziaren arabera idatzi, goitik beherako kontakizun-ereduari jarraituz (garrantzitsuena hasieran eta bestelakoa ondoren).

Sarrera idazteko aholkuak:

1. Ezer idazten hasi aurretik ideiak ordenatu eta sarrera antolatzeari ekin.
2. Paragrafo bat da sarrera, bospasei lerro dituena.
3. Sarrerak eta tituluak bat etorri behar dute.
4. Sarreran, honako galdera hauei erantzun behar zaie: Nor/nork, Zer, Noiz, Non, Zergatik. Hemen hildako bat baino gehiago dago eta istripuak ere bat baino gehiago dira. Hori da kontatu beharrekoa. Bost erreferente horiek (Nor/nork, Zer, Noiz, Non, Zergatik) ez dira esaldi bakar batean bildu behar. Informazioa eta testuaren ulergarritasuna ongi ezkondu behar dira albiste osoan, eta modu bereziki artatsuan lehen paragrafoan: sarrera deitzen diogun honetan.
5. Istripuak hiru egunetan izan dira, eta *biharko* egunkarirako idatzi behar dira. Bi gauza hartu behar dira kontuan: bata hildakoak, eta bestea zein izan den azken istripua. Beraz, kontakizuna antolatzeko lehenengo idatzi *gaur* gertatu den istripua, jarraitu *atzo* gertatu zenarekin eta bukatu *herenegunekoarekin.* Kontuz aditz-denborarekin eta adberbioekin. Kazetariarentzat *gaur* dena, irakurlearentzat *atzo* da.

Titulua idazteko aholkuak:

1. Titulua idazteko orduan, hautatu sarreratik osagairik garrantzitsuenetako bizpahiru, eta horiekin osatu titulu *zuzena*. **Nor/nork, Zer** eta **Non** galderei erantzutea gomendatzen da tituluan.
2. Titulua orainaldian idatzi, eta letra xehez.
3. Ez punturik jarri tituluaren ostean.
4. Tituluaren luzera gehienez 13 hitzekoa izatea aholkatzen da.
5. Tituluak eta sarrerak bat etorri behar dute.

Hona **titulua**n idazteko proposamen zehatz batzuk:

- Hiru hildako eta zauritu bat, Gipuzkoako eta Nafarroako errepideetan
- Hiru pertsona hil dira Gipuzkoan eta Nafarroan izan diren kotxe istripuetan
- Hiru pertsona hil dira euskal errepideetan hiru egunean
- Hiru pertsona hil eta bat zauritu da euskal errepideetan hiru egunean

Azpititulua idazteko aholkuak:

1. Ez du tituluak jasotzen duen ideia bera errepikatzen.
2. Ez da tituluaren jarraipena. Alegia, ez du titulua behar berau ulertzeko.
3. Tituluan, azpitituluan eta tartekian ez da hitz bera errepikatuko.
4. Bigarren mailako daturen bat jaso ohi da bertan.

Tartekia idazteko aholkuak:

1. 2-3 hitz dira. Ez da esaldi osoa. Titulu txiki bat, albiste nagusiaren baitan.
2. Ez da jartzen lehenengo eta bigarren paragrafoen ostean, bukaera aldera baizik, azken aurreko paragrafoaren aurretik
3. Ez du punturik bukaeran
4. Hurrengo paragrafoan garatuko dena laburbilduko dute 2-3 hitz horiek.

Azpititulurako eta **tarteki**rako ideia hauek landu:

- Kamioak A-15 autobidean izan duen istripua.
- Kamioaren istripuak A-15 autobidean eragin dituen ilarak.

9.4. ELKARRIZKETA

ELKARRIZKETA LANDU, ALBISTEA IDAZTEKO

Ez da erabat benetako elkarrizketa, transformatua izan da jatorrizko bertsioa.

Gipuzkoar Erako Aurresku Txapelketa irabaziz egin zen ezagun dantza munduan. Egun, 'Kukai' konpainia sortzen eta zuzentzen egindako lanarengatik da batik bat ezaguna.

Umetatik izan du lotura estua dantzarekin Jon Maia Seinek (Errenteria, Gipuzkoa, 1977), eta halaxe segitu nahi du, dantzari eta koreografo lanetan. Berak zuzentzen duen 'Kukai' dantza-konpainiarekin batera, Euskal Herriko dantzaren munduko erreferentzia ezinbestekoa bihurtu da azken urteetan.

Errenterian bukatu berria da erakusketa bat, Kukai konpainiaren hamar urteko ibilbideari buruzkoa. Zer balantze egiten duzu, konpainiaren horren sortzaile eta zuzendari moduan?
Beti dago, dudarik gabe, gauzak hobeto egitea, baina ni oso pozik nago, uste dudalako egin dugun bidea oso koherentea izan dela hasierako asmoarekin baina, aldi berean, urratsak ematen joan garela, naturaltasunez…. Hori, jada, historia zaharra da, gurea, baina zaharra… etorkizunari begira gaude jada, proiektu berriekin. Interesgarria eta polita izango da lan berria, guk uste.
Baina, egin dezadan atzera. Kukai sortu genuenean, gure asmo nagusia zen dantza tradizionaletik abiatzea eta dantza tradizionalak ematen dituen lan tresnak erabiltzea, gaur egungo ikuspegitik ikuskizunak sortzeko eta beste arlo batzuetako artistekin elkarlana sustatzeko. Orain dela hamar urte egiten genituen proposamenak eta eskaintzen genituen ikuskizunak oso ezberdinak dira azken urteetakoekin alderatuz gero. Eta horrek pozten nau, ze azken batean horrek erakusten du hasierako bide berean goazela baina dantzariak formatzen joan garela eta, formatzen joan garen heinean eta gure lana finkatzen joan den heinean, aurrerapausoak ere egin ditugula, oso modu naturalean. Eta hurrengo lanean ikusiko dira transformazioaren emaitzak.

Lan berrian sartu aurretik… zer eratako aurrerapausoak egin dituzue hamar urteotan?
Gaur egun, niretzat, poz handia da gure bide horretan elkarlanak egin ahal izatea, bai gure esparruko jendearekin, bai kanpoko koreografoekin eta bai beste arte adierazpen batzuetan lan egiten duen jendearekin. Gure jendeak gaur egun badauka gaitasuna, nire ustez, dantza tradizionala eta beste lengoaia batzuk uztartzeko eta naturaltasunez mugitzeko lengoaia ezberdinetan.

Dantza garaikidea ere lengoaia horien artean delarik.
Bai. Esate baterako, orain prestatzen ari garen *Komunikazioa-Inkomunikazioa* ikuskizunerako Jone San Martinekin ari gara lanean; Jone San Martin Frankfurteko The Forsythe konpainiako dantzari eta koreografoa da. *Karrikan* ikuskizunean, La Intrusa konpainiako Damian Muñoz eta Virginia Garciarekin lan egin genuen, eta Iker Gomez koreografoarekin... Dantzari buruzko beste ikuspuntu bat duen jendea da hori. Horrez gain, oso garrantzitsua da hasieratik Tanttakarekin eta Mireia Gabilondorekin izan dugun elkarlana, eta elkarlan horretan sortutako proiektuetan beste diziplina batzuekin etengabe izan ditugun harremanak.

Gero hitz egingo dugu orainaz eta etorkizun inmediatoaz. Baina, utzidazu galdetzen beste behin ere iraganaz: zer mugarri nagusi aipatuko zenituzke hamar urteko ibilbide horretan?
Lehenengo mugarria, eta betiko geratuko den hasierako zigilua, Tanttaka konpainiarekin lanean hastea izan zen, bai pertsonalki dugun harremanarengatik, bai alderdi profesionaletik. Gure lehen hiru lanak Tanttakarekin elkarlanean egin ditugu, eta uste dut trilogia moduko horretako hiru lanetan nabari dela izan dugun eboluzioa. Lehenengoa, *1937. Gogoaren bidezidorretatik*, Juan Mari Beltranen musikarekin, lengoaia tradizionaletik oso gertu dagoen ikuskizuna da; *Otehitzari biraka*-k aldaketa estetiko bat dakar, nire ustez; eta *Hnuy illa...*-n lehenengo aldiz dantza garaikidearekin harremanetan jarri ginen, oso modu sotilean eta zertzelada batzuekin. Etapa bat osatzen du, niretzat,

trilogia horrek. Geroztik, nahiz eta Tanttakarekiko elkarlana ez erabat utzi, beste lan ildo bat zabaldu genuen, beste koreografoekiko elkarlanean oinarritutakoa; koreografoak gurera ekarri eta haiekin lan egin, Pantxika Telleria izan zen lehenik, *Soka* eta *[Sok]2*-rekin, *Karrikan* ondoren… Beste inflexio puntu bat izan dira horiek, dantzari buruzko beste ikuspegi bat duen jendearekin lan egiteko eta fusioak egiteko aukera izan dugulako horiei esker. Horrez gain, aipa daitezke izan ditugun beste kolaborazio batzuk, oso aberatsak: Juan Mari Beltranekin, Oreka TXrekin, Logela Multimediarekin…

Orain bai, hitz egin dezagun orainaz eta etorkizun hurbilaz. Kukairen bidean, hurrengo urratsa da *Komunikazioa-Inkomunikazioa*…
Bilboko Arriaga antzokian estreinatuko dugu segituan, martxoaren 1ean.

Eta, ze eratako ikuskizuna izango da?
Nik uste dut aldaketa bat ekarriko duela lan berriak. Lehen aipatu dudan trilogia moduko horren ondoren, ikusten genuen une polita zela hasieran sentitu genuen hori berriz sentitzen hasteko: zerbait berriaren aurrean gaudela, nondik zer bide hartu, guk egiten duguna beste kontestu batean jarri… Orain artean Kukaik eta Tanttakak elkarlanean sortu ditugun ikuskizunetan Kukaiko zazpi dantzariak egon gara oholtza gainean. Oraingoan, aldiz, Kukai konpainiako bost dantzari eta Helena Golba ariko dira oholtzan, Miren Gaztañaga eta Aitor Beltran aktoreekin eta Iñaki Telleria musikariarekin. Mireia Gabilondo arduratuko da zuzendaritzaz, eta ni haren ondoan ariko naiz lanean, eszenatokitik kanpoko lanean. Eta Jone San Martinen eta Israel Galvanen kolaborazioa ere izango dugu. Kukaik hasieratik hartutako bidean aurrera jarraituz, beste unibertso batean sartuko gara. Lan taldea aurreko ikuskizunetakoa izango da oinarrian, baina beste modu batean planteatuko da ikuskizuna, bai lan estilo aldetik bai eszenatokiaren antolaketaren aldetik… Uste dut ezberdina izango dela, baina lehen aipatu dudan bide horretan aurrerapauso naturala aldi berean.

Mikel Laboaren lan ezagun batetik hartua da *Komunikazioa-Inkomunikazioa* izenburua. Zer harreman izango du zuen ikuskizun berriak Mikel Laboarekin?
Mireia Gabilondok beti izaten du oso kontuan Mikel Laboa lan egiten duenean, eta Tanttakak eta Kukaik elkarrekin egindako lanetan beti agertu izan dira Mikel Laboaren kantuak. *Komunikazioa-Inkomunikazioa*-k ez du omenaldi bat izan nahi, ezta Mikel Laboaren lanean oinarritutako ikuskizuna ere. Haren *Komunikazioa-Inkomunikazioa* inspirazio iturritzat hartu dugu eta hark utzitako eta erakutsitako lanen haritik tiraka egindako lana izango da. Keinu batzuk badaude, kantu batzuk ere azalduko dira, batzuk argiago beste batzuk sujerituago… Ez da Mikel Laboari buruzko lan bat izango, haren lanetatik abiatuta sortutakoa baizik.

Zuk esan duzun bezala, dantza tradizionala abiapuntu hartu eta beste dantza mota batzuekin eta are beste diziplina batzuekin uztartuta, ikuskizun modernoak sortu dituzue. Baina dantza tradizionalaz egin duzuen erabilera hori ez da denen gustukoa, baditu aurkariak ere. Sentitu duzue aurkari horien presioa?
Nik beti esan izan dut ez zaizkidala gustatzen irakurtzen ditudan liburu guztiak, ezta entzuten ditudan disko guztiak ere. Gauzak garbi esatea da garrantzitsuena auzi honetan. Ni dantzari tradizionala sentitzen naiz, formazioz hala naizelako. Dantza tradizionala egin dezaket Ereintza taldean edo Errenterian dantza irakasle gisa, eta gainera sinesten dut gaur egungo gizartean txertatuta dagoen dantza tradizional bizi batean. Baina Kukaik ez du dantza tradizionala egiten. Dantza tradizionaletik abiatzen da sorkuntza garaikidea egiteko, batzuetan dantza garaikideko teknikak erabiliz, beste batzuetan dantza klasikoarenak… Eta iruditzen zait dantza tradizionalean aberastasun handia dugula eta posible dela aberastasun horretatik abiatuta sorkuntza garaikidea egitea. Uste dut erabat osagarriak diren gauzak kontrajartzeko joera handia dagoela. Koreografo garaikideei dantza tradizionaleko materiala eskaintzen diegunean, altxor bat iruditzen zaie teknika eta lan tresna gisa. Irrikatan egoten dira. Eta gure lanak kanpoan ematen ditugunean, ikusleek ez dute planteatzen tradizionala den edo ez, gustatzen zaie edo ez eta kito. Eta asko pozten nau askotan entzuten dugun gauza batek: nortasun propio bat erakusten dugula, igartzen dela nongoa den konpainia, baina aldi berean edozein lekutan erakusteko modukoa dela ikuskizuna, unibertsala.

ELKARRIZKETA LANTZEKO: IKUSKIZUNA

–LANERAKO ESKEMA—

Albistean, gaurkotasunezko elementua nabarmendu behar da. Elkarrizketaren helburua bat da; eta albistearena, beste bat: genero bakoitzak bere helburua du, eta bere estiloa. Hori dela-eta, transformazio handia eskatzen dute eredu honetako elkarrizketek, albiste bilakatzeko. Erabat desberdinak dira tempusa eta fokua elkarrizketan eta albistean. Ez zaio utzi behar elkarrizketari albistea *gidatzen*.

Sarrera idazteko aholkuak:

1. Ezer baino lehen sarrera bera idatzi, goiburuko elementuen aurretik.
2. Sarreran, honako galdera hauei erantzun behar zaie: Nor/nork, Zer, Noiz, Non, Zergatik. Albiste honetan, gaurkotasunezko elementu nagusia honako hau da: aurki estreinatuko den ikuskizuna. Hartara, *Komunikazioa/Inkomunikazioa* delako lana da albistearen ardatz nagusia. Bost erreferente horiek (Nor/nork, Zer, Noiz, Non, Zergatik) ez dira esaldi bakar batean bildu behar. Informazioa eta testuaren ulergarritasuna ongi ezkondu behar dira albiste osoan, eta modu bereziki artatsuan lehen paragrafoan: sarrera deitzen diogun honetan.
3. Titulua idazteko orduan, hautatu sarreratik osagairik garrantzitsuenetako bizpahiru, eta horiekin osatu titulu *zuzena*.

Hona **titulua**n idazteko proposamen zehatz bi:

- Ikuskizun berria aurkeztuko du datorren astean Kukai dantza-taldeak
- «Komunikazioa/Inkomunikazioa» dantza- eta antzerki-lan berria estreinatuko du aurki Kukai konpainiak, Arriaga antzokian

Informazio kopuruaren ikuspuntutik begiratuta, aberatsago da bigarren titulua. *Informatiboa* litzateke lehena, *azaltzailea* bigarrena.

Azpititulu eta **sumario**etarako ideia hauek landu (azpitituluari *tartekia*n eman jarraipena):

- Kukai eta Tanttaka taldeen elkarlana.
- Jon Maiaren zuzendaritza-lana.
- Amaitu berria den erakusketa erretrospektiboa.
- Mikel Laboa, ikuskizunaren oinarri.
- Dantza tradizionala eta modernoa.

Era berean, elkarrizketa hau erabil ezazu **aipuak** lantzeko. Gogoratu giltza nagusia: elkarrizketa da biren arteko hizketa saioa (kazetaria eta entrebistatua); albistea, aldiz, bakarrizketa bat (kazetariaren jarduna).

Pertsonaiaren hitzak albistean txertatzeko hiru modu daude:

a) *Aipu zuzena:* elkarrizketatuaren diskurtsotik esangura osoko tarte bat, esaldi oso bat txertatzeko. Gogoan izan komunztadurak landu behar direla, eta protagonistaren hitzei aipu-markak zor zaizkiela.

b) *Zehar estiloko aipua:* kazetariak bere egiten ditu protagonistaren hitzak, oso-osoan. Ez dago aipu-markarik. Bere diskurtsoan, zehar-galdera edo esaldi konpletiboen laguntzarekin txertatuko du kazetariak elkarrizketatuaren jarduna.

c) *Bitariko estiloko aipua:* elkarrizketatuaren diskurtsotik bizpahiru hitz hautatuko ditu kazetariak. Aipu-marken barruan eskainiko ditu horiek, eta bere hitzekin kontatuko ditu kazetariak gainerakoak.

9.5. ERREPORTAJEA, ALBISTEA EGITEKO

2 II **berria** II 2010eko azaroaren 3a, asteazkena

Harian

Ikastolak → Nafarroako egoera

Eremu erdalduneko ikastolak

Arangoiti ikastola
- **Herria.** Irunberri.
- **Sorrera.** 1980.
- **Ikasle kopurua.** 69. Ikastolarik txikiena da.
- **Ikasketa eskaintza.** Lehen Hezkuntza amaitu bitartean aritzen dira ikasleak.
- **Nafarroa Oinez.** 2003. Eguraldi txarrak zapuztu zuen.

Argia ikastola
- **Herria.** Tutera-Fontellas.
- **Sorrera.** 1985.
- **Ikasle kopurua.** 222.
- **Ikasketa eskaintza.** Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza amaitu bitartean jardun dezakete ikasleek.
- **Nafarroa Oinez.** 1995 eta 2002.

Erentzun ikastola
- **Herria.** Viana.
- **Sorrera.** 1977.
- **Ikasle kopurua.** 131.
- **Ikasketa eskaintza.** Lehen Hezkuntza amaitu bitarte. Gero Lapuebla eta Oionera (Araba) joaten dira gehienak.
- **Nafarroa Oinez.** 1992 eta 2007.

Garces de los Fayos ikastola
- **Herria.** Tafalla.
- **Sorrera.** 1970.
- **Ikasle kopurua** 381.
- **Ikasketa eskaintza.** Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza amaitu bitartean aritzen dira ikasleak.
- **Nafarroa Oinez.** 1986 eta 1997.

Nafarroako eremu erdalduneko ikastolak, estualdian

Lau urte dira Viana, Lodosa, Tutera eta Irunberriko ikastolek legeztatzea lortu zutela, baina haizea kontra dute oraindik

2009an laguntzak urritu ziren, eta ordutik Lodosako ikastola dago egoerarik zailenean

Mikel Rodriguez

Duela lau urte, Nafarroako hegoaldeko ikastolek, legearen arabera eremu erdaldunean zeudenek, legeztatzea lortu zuten. Aspaldiko aldarrikapena bete zuten horrela Vianako, Lodosako, Tuterako eta Irunberriko ikastolek. Nafarroako ikastetxeen sarean sartzea lortu zuten. Horrela, gastu arruntetarako ituna lortu zuten, eta, gainera, Nafarroako Gobernuaren aldetik bortz urterako diru laguntza eskuratu zuten. Itxaropena piztu zen arren, lau urte geroago egoera zailean jarraitzen dute ikastola horiek, eta Lodosakoaren kasuan, egoera muturreraino larritu da. Bertze behin, erauntsiaren kontra borrokan ari dira Nafarroako hegoaldeko ikastolak, baina bertze behin ere, aitzinera aterako direla ziur da Peio Mariñelarena, NIE Nafarroako Ikastolen Elkarteko lehendakaria. «Ez dugu ikastola bakar bat ere itxiko».

Nafarroako Euskararen Legeak eremu erdaldun gisa hartzen duen lurraldean sei ikastola daude guztira. Tafallako Garces de los Fayos ikastolak eta Zangozako Rincon del Carmenek, baina, gaur egun ez dute gainerako lauren arazorik, 1990eko hamarkadaren erdialdean lortu zutelako egoera legeztatzea. «Pegenautek esaten zuen eremu erdaldunean ikastolak legeztatzea ezinezkoa zela, baina horrek kontrakoa erakutsi zuen», dio Mariñelarenak.

Pedro Pegenaute 2000tik 2007ra bitartean izan zen Nafarroako Gobernuko Hizkuntz Politikarako Zuzendaritza Nagusiko arduraduna. Haren aroaren amaieran legeztatu zituzten gainerako lau ikastolak, 2006an, eta 2010. urtera bitarte 1,7 milioi inguruko diru laguntza ematea onartu zuen Nafarroako Gobernuak. Laguntza horri, ordea, itunaren bidez jasotakoa kendu behar zitzaion, hortaz, urtero murriztuz joan zen. Itunetatik jaso beharreko laguntza erabakitzeko, gela bakoitzeko ikasle kopuru jakin bat edukitzea eskatzen du Nafarroako Gobernuak. Zentro txikiek, baina, ratio txikiagoak dituzte. «Ezin daitezke alderatu Iruñea bezalako hirigunea, eta landa gune bat, are gehiago azken hori eremu erdaldunean badago», dio Iñaki Duquek, Vianako Erentzun ikastolako lehendakariak. Ratioa, ordea, bera da guztientzat, eta, horregatik, zentro txikienek gutxiago jasotzen dute.

«Administrazioari ahalegin berezi bat egiteko eskatu genion», azaldu du Mariñelarenak. «Azken finean, eremu erdaldunean zerbitzu publikoa betetzen ari gara, euskarazko irakaskuntza publikorik ez dagoelako. Horrek tratu berezi bat merezi duela uste dugu, gastu arruntak gainditu ahal izateko gutxienez». Nafarroako Gobernuak, ordea, ez du laguntza gehiagorik bideratu.

2009an alarma gorria piztu zen Nafarroako hegoaldeko ikastolentzat. Nafarroako Gobernuaren laguntzak bukatzeaz gain, Eusko Jaurlaritzak ordura arte emandakoak etengo zituela erabaki zuen. «Motelago zegoen ikastolari, txikiena zenari, Ibaialderi, zulo bat egin zitzaion laguntza horiek etetean», azaldu du Mariñelarenak. Gainerakoek ere pairatu dute Jaurlaritzaren erabakia. Erentzun ikastolan, Vianan, egoerari aurrea hartzen saiatu zirela dio Duquek. «Ürtebete lehenago laguntza horiek jaso gabe funtzionatu ahal izateko planteamendua egin genuen, eta gure baliabideak berregituratu genituen: lanpostuak, ordutegiak...». Hala ere, laguntzarik gabe aitzinera ateratzea «bideraezina» dela aitortu du Duquek.

Zailtasunekin, baina bizirik

NIEk, oraingoz, bi bide ditu estualdi ekonomikoari aurre egiteko. Bata, «elkartasuna» dela adierazi du Mariñelarenak. Zehazki, Lodosako ikastolaren kasuan eduki du horrek garrantzia. Nafarroako ikastoletako guraso eta bazkideek 240.000 euro bildu zituzten Ibaialde laguntzeko, eta azken Nafarroa Oinez ekitaldian bildutako diruaren %20 emanen diote. «Oso pozik gaude gure sareak erakutsi duen elkartasunarekin», dio Mariñelarenak. «Kontuan hartu behar da gainerako ikastolen finantza egoera ere ez dela oso ona, eta ahalegin handia da».

Bigarren bidea Espainiako aurrekontuetatik bideratutako laguntza da. Espainiako Gobernuak EAJrekin hitzartu zuen iazko abenduan bi milioi euro



Lodosako Ibaialde ikastolako ataria. LANDER F. ARROIABE / ARGAZKI PRESS

14 » Emakume bat bortxatzea egotzita, 14 urteko espetxe zigorra ezarri diete lau gizoni

19 » Auto berrien salmenta %45,6 jaitsi da urrian, iazko urriarekin alderatuta

Ikastolak → Nafarroako egoera

Ibaialde ikastola
- **Herria.** Lodosa.
- **Sorrera.** 2002.
- **ikasle kopurua.** 79.
- **Ikasketa eskaintza.** Lehen Hezkuntza amaitu bitarte. Gero Lizarrako ikastolara joaten dira ikasleak.
- **Nafarroa Oinez.** 2001 (Lodosak eta Sartagudak batera).

Rincon del Carmen ikastola
- **Herria.** Zangoza.
- **Sorrera.** 1978.
- **Ikasle kopurua.** 233.
- **Ikasketa eskaintza.** Derrigorrezko Bigarren hezkuntza amaitu bitartean jardun dezakete ikasleek.
- **Nafarroa Oinez.** 1987 eta 1998.

Vianako Nafarroa Oinez, 2007an. LANDER F. ARROIABE / ARGAZKI PRESS

1.115

- **Eremu ez euskalduneko ikastoletan dauden ikasleak.** NIE Nafarroako Ikastolen Elkarteko datuen arabera, 6.325 ikasle daude Nafarroako ikastoletan, eta horietatik 1.115 eremu ez euskalduneko sei zentroetan banatuta daude. Nafarroako ikastoletako ikasleen %17,6 dira.



Eusko Jaurlaritzak laguntza eten zuenetik Ibaialdek elkartasunari esker iraun duela azpimarratu du Ana Mendizabal ikastolako lehendakariak.

Lodosan, euskara jokoan

M.R. Lodosa

Lodosako eta Sartagudako ikastolek elkarrekin antolatu zuten 2001eko Nafarroa Oinez, eta horri esker bat egin eta Ibaialde sortu zuten, Lodosatik Sartagudara doan errepidearen bazterrean. Eraikin dotorea da, eta berritasuna agerikoa duena, baina horren gibelean lan eskerga eta zailtasun ugari gordetzen ditu. Nafarroa Oinez-ek ez zuen eraikina ordaintzeko beste eman, eta orain 750.000 euroko hipoteka kreditua ordaintzen ari da ikastola. «Zor ekonomikoak ditugunean hori da trabarik handiena», dio Ana Mendizabal Ibaialdeko lehendakariak. Egoera hagitz larria bada ere, Ibaialde ez dela itxiko ziurtatu du, ikastetxe baten etorkizuna baino gehiago baitago jokoan Lodosan. «Haur hauek euskaraz hitz egingo dute».

79 ikasle ditu Ibaialdek, haurtzaindegian, Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan banatuta. Denera, zortzi herritako haurrak hartzen ditu, Errioxako (Espainia) bi herritakoak barne. Eremu zabala da, eta horrek garraioaren beharra sortzen du; hor du Ibaialdek gasturik handiena: 38.000 euro. «Garraiorako jasotzen dugun laguntza bakarra Udalbidek emandakoa da. Ez du dena betetzen, baina gastua arintzen laguntzen digu». Garraioarekin batera, herrietatik hurbildutako haurrentzat beharrezkoa da jantokia edukitzea, baina zerbitzu hori finantzatzeko laguntzarik ez du Ibaialdek. «Erabiltzaileen gurasoek ordaindu behar dute. Horren eraginez, ikastolaren zerbitzua garestitu egiten da, eta inguruko herrietako gurasoek bi aldiz pentsatzen dute haurrak ikastolara ekarri aurretik».

Ibaialdeko ikasleek duten bertze eragozpen bat, behin ikastola utzita, euskaraz ikasten jarraitzeko zailtasuna da. 12 urterekin bukatzen dute Lehen Hezkuntza, eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan euskaraz jarraitzeko aukerarik hurbilena Lizarrako ikastola da, Lodosatik 35 kilometrora. «Gurasoek ikastolaz gain, garraioa ere ordaindu behar dute». Horren eraginez, haur anitzek Lodosan bertan ikastetxe publikoan jarraitzen dute ikasketekin, gaztelaniaz.

Ibaialde ikastolako ikasgela bat. LANDER F. ARROIABE / ARGAZKI PRESS

«Irudi txarraren» beldur

Nafarroako Gobernuarekin duen itunarekin, Ibaialdek langileei ordaindu beharrekoaren zati bat betetzen du soilik, gela bakoitzeko ikasle kopuru txikia duelako. Hain zuzen ere, azken urteetan Lodosako ikastola ez da anitz hazi matrikulazioetan, eta ratio txikia mantendu du. Mendizabal beldur da azken urte honetako arazoek ez ote duten ikastolaren inguruan «irudi txarra» sortu. «Kalitateko hezkuntza eskaintzen dugu, baina beti Ibaialde ixtear dela errepikatzeak alarma sortzen du, eta horrek guraso anitz uxa ditzake».

Iazko abendutik, Nafarroako ikastoletako gurasoek emandako laguntzari esker iraun du Ibaialdek, Mendizabalek aitortu duenez. Orain, Espainiako Gobernuaren diru laguntza jasotzen ari da, «baina pixkana-pixkana iristen da, eta ez du ikasturte guztirako emango». Aitzinera egiteko gakoa «elkartasuna» dela sinetsita dago Mendizabal. Horren azken adibidetzat paratu du Atarrabiako Nafarroa Oinez-en bildutako diruaren %20 Ibaialdera bideratzea. «Horren erdia oparituta emango digute, eta beste erdia ahal dugunean itzuliko diegu», azaldu du. Oraingoz, Nafarroa Oinez Lodosara ekartzea ez du bideragarri ikusten. «Gure ikastolan 60 familia gara. Berez honi guztiari eustea zaila bazaigu, imajinatu Nafarroa Oinez-en azpiegiturari. Nafarroako hamabost ikastolak hemen egotea beharko genuke. Gaur egun ditugun arazoekin ez dugu horrelako erronkari aurre egiteko gaitasunik. Ez da hain erraza».

Ibaialdek jaso duen elkartasun keinu ororen garrantzia nabarmendu du Mendizabalek. «Nafarroaren Egunetik deitu ziguten, Baigorritik, guretzat 10.000 euro bildu zituztela esateko. Argia eta ura ordaintzeko eman zigun horrek. Eta, Argentinatik, euskaljatorriko gizon batek gure egoeraren berri izan, eta 100 euro eman zizkigun». Guztien laguntzarekin, Ibaialde ataka zailetik aterako dela ziur da Mendizabal.

ematea Nafarroako ikastolei. Diru laguntza horrek ez du luzerako egoera konponduko, baina epe motzean sarrera garrantzitsua da. «Funtzionatzeko balio digu, baina aurrez berregituraketa egin genuelako», zehaztu du Duquek.

Une honetan, Tuterako, Vianako eta Irunberriko ikastolek egoera egonkorra dute, baina finantzaketa bide ziurrik ez edukitzeak zailtasunak ekar diezaizkieke etorkizunean. Tuterako Argia ikastolak —gaur egun Fontellas herrian dago— DBH Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza behin-behinean legeztatua du, eta etorkizunerako erronka nagusia erabateko legeztatzea lortzea du. Horretarako, legeak agindu bezala, kiroldegia eraikitzen ari da.

> Eremu erdaldunean zerbitzu publikoa egiten dugu, euskarazko eredu publikorik ez dagoelako»
> **PELLO MARIÑELARENA**
> NIEko lehendakaria

> «Jaurlaritzaren laguntza gabe funtzionatu ahal izateko, berregituraketa egin genuen»
> **IÑAKI DUQUE**
> Vianako Erentzun ikastolako lehendakaria

«Argia asko hazi da, eta proiektu sendoa da», dio Mariñelarenak. Azken urteetan gehien aurreratu duena, berriz, Irunberriko Arangoiti ikastola da. «Txikia da, eta arazoak dauzka besteek bezala, baina 2003ko Nafarroa Oinez-en ondoko laguntza historikoari esker, ongi iraun du». Vianan, bi erronka nagusi dituzte: 2007ko Nafarroa Oinez-en ondotik hasitako azpiegitura lanak bukatzea, eta 2008an sortutako ikastolaren fundazioa indartzea.

Egoera zaila den arren, etorkizunera begira baikor dago Mariñelarena, bertzeak bertze, legeztatu zirenetik, matrikulazioak igo egin baitira hegoaldeko ikastoletan. Agintariek ikastolen egoera konpontzeko inplikatu behar dutela aldarrikatu du. «Berdin zaigu zein politikari dagoen agintean. Administrazioak erantzukizuna du hezkuntzan».

NAFARROAKO IKASTOLAK

–LANERAKO ESKEMA—

Albistean, argi utzi behar da Nafarroako ikastola horien egoera ekonomiko larria. Hain zuzen ere, horixe baita erreportajearen ardatz nagusia. Hartara, modu ezinago zuzenean azaldu beharko da kontu hori bai *goiburua*n baita *sarrera*n ere.

Sarrera idazteko aholkuak:

1. Ezer baino lehen sarrera bera idatzi, goiburuko elementuen aurretik.
2. Sarreran, honako galdera hauei erantzun behar zaie: Nor/nork, Zer, Noiz, Non, Zergatik. Albiste honetan, euskarazko irakaskuntza eskaintzen duten zentroak dira protagonista nagusiak. Ez denak, jakina, egoera ekonomiko larria bizi duten horiek baizik. Eta egoera hori larritzen doa unez une, zenbait arrazoi direla medio. Hori guztia kontatu behar da sarreran, modu argi batean. Bost erreferente horiek (Nor/nork, Zer, Noiz, Non, Zergatik) ez dira esaldi bakar batean bildu behar. Informazioa eta testuaren ulergarritasuna ongi ezkondu behar dira albiste osoan, eta modu bereziki artatsuan lehen paragrafoan: sarrera deitzen diogun honetan.
3. Titulua idazteko orduan, hautatu sarreratik osagairik garrantzitsuenetako bizpahiru, eta horiekin osatu titulu *zuzena*.

Hona **titulua**n idazteko proposamen zehatz bi:

- Arazo ekonomiko larriak dituzte Nafarroako hegoaldeko ikastolek
- Arriskuan jarri ditu diru-laguntza publikoen etenak Nafarroako hegoaldeko lau ikastola

Informazio kopuruaren ikuspuntutik begiratuta, aberatsagoa da bigarren titulua. Lehena bera ere nahikoa informatiboa da. Azalpen zehatzagoa ematen du bigarrenak, gaiaren aurrerapen xumea eskaintzen du lehenak. *Informatiboa* litzateke lehena, *azaltzailea* bigarrena.

Azpititulu eta **sumario**etarako ideia hauek landu (azpitituluari *tartekia*n eman jarraipena):

- Eusko Jaurlaritza eta Nafar Gobernua, euskarazko hezkuntzaren aurrean.
- Euskarazko hezkuntza eta zerbitzu publikoa.
- Nafarroako Ikastolen Elkartearen aurrera egiteko asmoa.
- Lodosako ikastolaren egoera.
- Ikasle kopuruak, laguntzen tamaina.

10. Bibliografia

Agirreazkuenaga, J. (1989): "Prentsa euskaraz: 1936.eko Gudaldian eta Lehen Euskal Gobernuaren Garaian", *Jakin,* 95-119.

Aiestaran, A. (2009): "Euskarazko hedabideetako profesionalen lan-baldintzen analisia", *Uztaro,* **69**, 79-101.

Alsius, S.; Salgado, F. (2010): *La ética informativa vista desde los ciudadanos. Contraste de opiniones entre los periodistas y el público,* UOC, Bartzelona.

Altzibar, J. —J.M. Torrealdai— (1976): "Euskal prentsa euskaraz", in *Anaitasuna,* 1976-9-15, 24-25.

Aranguren, J. L.; Arrarats, I.; Goikoetxea, A. eta Zabalondo, B. (2006): *Berria Estilo Liburua,* Berria, Andoain.

Armentia, J. I. eta Caminos, J. M. (2009): *Redacción informativa en prensa,* Ariel, Bartzelona.

Armentia, J. I.; Caminos, J. M. eta Palazio, G. J. (2000): *Kazetaritzaren hasi-masiak,* Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, Bilbo.

Atxaga, M. (2001): "Hamarkada urratzailea eta emankorra", *Larrun,* **48**, 18-19.

Basterretxea, J. I. (2002): *Kultura-aniztasuna eta gizarte-komunikazioa,* Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo.

Basterretxea, J. I. eta Zuberogoitia, A. (2005): "Euskararen komunikazio-esparrua" in Batzuen artean, (2005): *Kazetaritza euskaraz, oraina eta geroa,* EHU, Leioa.

Basterretxea *et al.,* (2006): *Gu gara euskal prentsa,* Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo.

Batzuen artean, (2005): *Kazetaritza euskaraz, oraina eta geroa,* EHU, Leioa.

————, (2007): *Euskara hedabideetan,* Eusko Jaurlaritza, Gasteiz.

Batzuen artean, (2011): "Euskarazko hedabidea, beste jauzi baterako ordua", *Berria,* 2011-02-01, <http://paperekoa.berria.info/iritzia/2011-02 01/004/002/euskarazko_hedabideak_beste_jauzi_baterako_ordua.htm> [2012ko martxoaren 14an kontsultatua].

Borrat, H. (1989): *El periódico, actor político,* Gustavo Gili, Bartzelona.

Díaz Noci, J. (1994): *Euskarazko aldizkari eta almanaken erroldea (1834-1959),* Eusko Ikaskuntza, Sociedad de Estudios Vascos, Donostia.

————, (1995)a: "Euskal informazio-kazetaritza abertzalea: Euzkadi eta Euzko (1913-1934)", *Uztaro,* **15**, 81-95.

————, (1995)b: *Euskal Prentsaren sorrera eta garapena (1834-1939),* Eusko Ikaskuntza, Sociedad de Estudios Vascos, Donostia.

————, (2000): *Informazio-generoak,* Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, Bilbo.

Dovifat, E. (1960): *Periodismo, 2 vols,* Uthea, Mexiko.

Elias, N. (2000): *Teoría del símbolo, un ensayo de antropología cultural,* Península, Bartzelona.

Eusko Jaurlaritza, (2011): *HEDABIDEAK deialdia / 2011,* deialdia ebazte aldera berariaz izendatutako balorazio-batzordeak egindako txostena, Gasteiz.

Figueras, M. M. (2010): "El tratamiento informativo de los grupos socialmente desfavorecidos", in S. Alsius eta F. Salgado, *La ética informativa vista desde los ciudadanos. Contraste de opiniones entre los periodistas y el público,* UOC, Bartzelona, 87-105.

Fontcuberta, M. (1993): *La Noticia. Pistas para percibir el mundo,* Paidós, Bartzelona.

Gans, H. (1979): *Deciding what's news. A study of CBS Evening News. NBC nightly News, Newsweek and Time,* Pantheon Books, New York.

González, M. (2008): *Euskal Herriko prentsa. XVIII. mendetik 1945era,* Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, <http://www.euskaltzaindia.net/dok/iker_jagon_tegiak/anaitasuna/Azterketa.pdf> [Kontsulta: 2012/02/14].

Idoyaga, P. (2001): *Euskal gatazkaren begiak,* Alberdania, Irun.

Iparraguirre, P. eta Irazustabarrena, N. (2001): "Agustin Ezeiza: 'Momentu honetan ondo harrapatzen jakin genuen'", *Larrun,* **48**, 22-25.

Muxika, J. (2002): "Euskaraz idatzitako aldizkarien errolda:1960-1999", *Mediateka, cuadernos de comunicación,* **9**.

Marin, C. (2003): *Manual de periodismo,* Grijalbo, Mexiko.

Martín Vivaldi, G. (1981): *Géneros periodísticos: reportaje, crónica, artículo, (análisis diferencial),* Pananinfo, Madril.

Martínez Albertos, J.(1989): *El Lenjuaje periodístico,* Pananinfo, Madril.

Pérez, F. J. (2004): *Ética periodística. Principios, códigos deontológicos y normas complementarias,* Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, Bilbo.

————, (2010): "Grado de asunción de la práctica de mezclar información con opinión", in S. Alsius eta F. Salgado, *La ética informativa vista por los ciudadanos. Contraste de opiniones entre los periodistas y el público,* UOC, Bartzelona, 61-85.

Quesada, M. (1987): *La investigación periodística. El caso español,* Ariel, Bartzelona.

Ramirez de la Piscina, T. (1995): "La influencia de los gabinetes de prensa. Las rutinas periodísticas al servicio del poder", *Telos,* **40**, 47-56.

————, (1998): *Kazetari lan@ Euskal Herrian. Interpretaziorako eta espezializaziorako abiaburuak,* Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo.

Randall, D. (1999): *El Periodista Universal,* Siglo XXI, Madril.

Real, R. E. (2010): "La autorregulación. Valoración de los códigos. Conocimiento de los mecanismos de autorregulación", in S. Alsius eta F. Salgado, *La ética informativa vista por los ciudadanos. Contraste de opiniones entre los periodistas y el público,* UOC, Bartzelona, 275-291.

Reuters, (2008): *Handbook of Journalism,* <http://handbook.reuters.com/index.php/Main_Page> [Kontsulta: 2012/02/17].

Rodriguez, P. (1994): *Periodismo de investigación: técnicas y estrategias*, Paidos, Bartzelona.

Salaverria, R. (2005): *Cibermedios. El impacto de internet en los medios de comunicación de España,* Comunicación Social, Sevilla.

Suárez, J. C. (2010): "Sobre el uso de medios de legitimidad dudosa en la investigación periodística", in A. Salvador eta F. Salgado, *La ética informativa vista por los ciudadanos. Contraste de opiniones entre los periodistas y el público,* UOC, Bartzelona, 47-60.

The Guardian, (2002): "Comment is free, but facts are sacred", in *The Guardian,* UK, <http://www.guardian.co.uk/commentisfree/2002/nov/29/1> [Kontsulta: 2012/02/18].

——————, (2004): *The Guardian, Observer and guardian.co.uk style guide,* UK, <http://grammar.about.com/gi/o.htm?zi=1/XJ&zTi=1&sdn=grammar&cdn=education&tm=31&f=10&su=p284.13.342.ip_&tt=2&bt=9&bts=9&zu=http%3A//www.guardian.co.uk/styleguide> [Kontsultatua: 2013-3-27].

Torrealdai, J. M. (2010): *Anaitasuna. Aldizkariaren historiaren eta edukien azterketari sarrera,* Euskaltzaindia, Bilbo.

Warren, C. (1975): *Géneros perdiodísticos informativos*, ATE, Bartzelona.

Zalbidea, B. (2010): "Los límites a la opinión e información veraz", in S. Alsius eta F. Salgado, *La ética informativa vista por los ciudadanos. Contraste de opiniones entre los periodistas y el público,* UOC, Bartzelona, 181-203.

Sailean argitaratu diren beste liburu batzuk

Semiotika eta masa-komunikazioa. Panorama europarra
Jose Inazio Basterretxea eta Marian Gonzalez
1997an argitaratua
ISBN: 84-86967-84-8

Komunikazioaren ikerkuntzarako metodologia
Iñaki Zabaleta Urkiola
1997an argitaratua
ISBN: 84-86967-85-6

Komunikazioaren eta informazioaren oinarriak
Jose Inazio Basterretxea
1997an argitaratua
ISBN: 84-86967-87-2

Kazetari-l@na Euskal Herrian
Txema Ramirez de la Piscina
1998an argitaratua
ISBN: 84-86967-94-5

Irratibidearen barrunbean zehar
Gorka Jakobe Palazio
2000n argitaratua
ISBN: 84-8438-005-10

Irratirako idazketa eta gidoigintza
Arantza Gutierrez Paz
2000n argitaratua
ISBN: 84-8438-008-4

Hedabideak eta Euskal Herria
Nor ikerketa-taldea
2000n argitaratua
ISBN: 84-8438-010-6

Ekoizpena eta errealizazioa
Arantza Gutierrez Paz
2001ean argitaratua
ISBN: 84-8438-019-X

Kultura-aniztasuna eta gizarte-komunikazioa
Jose Inazio Basterretxea Polo
2002an argitaratua
ISBN: 84-8438-026-2

Ikus-entzunezko informazioaren teknologia
Iñaki Zabaleta Urkiola
2002an argitaratua
ISBN: 84-8438-032-7

Euskal irratigintzaren historia
Arantza Gutierrez Paz
2002an argitaratua
ISBN: 84-8438-0031-9

Informazioaren teoria eta teknika irrati eta telebista digital eta analogikoan
Iñaki Zabaleta, Jexuxmari Zalakain
2004an argitaratua
ISBN: 84-8438-050-5

Programaziogintza irrati-telebistan
Edorta Arana Arrieta
2004an argitaratua
ISBN: 84-8438-055-6

Nola esan albisteak ikus-entzuleari
Jose Larrañaga Zubidarreta
2005ean argitaratua
ISBN: 84-8438-057-2

Irratsaio bat egiteko tailer praktikoa
Arantza Gutierrez eta Itxaso Fernandez
2005ean argitaratua
ISBN: 84-8438-070-X

Informaziorako dokumentazioaren oinarriak. 2. argitalpena
Teresa Agirreazaldegi Berriozabal
2006an argitaratua
ISBN: 84-8438-078-5

Enpresa Komunikazioa profesionalen ikuspegitik
Ana Urkiza Ibaibarriaga (arg.)
2007an argitaratua
ISBN: 978-84-8438-093-1

Arrazoiaren hitza. Argudio-bideen arrastoan
Jose Inazio Basterretxea Polo
2007an argitaratua
ISBN: 978-84-8438-096-2

Kazetari aditua unibertso digitalean
Txema Ramirez de la Piscina (edit.)
2009an argitaratua
ISBN: 978-84-8438-229-4

Masa-komunikaziotik informazioaren gizartera
Lierni Alkorta Zeberio eta Aitor Zuberogoitia Espilla
2009an argitaratua
ISBN: 978-84-8438-284-3

EITB aro digitalean. Kudeaketa estrategikoa konbergentziara bidean
Jotxo Larrañaga Zubizarreta (edit.)
2011an argitaratua
ISBN: 978-84-8438-338-3

Irudiaren hiria. Euskal herritarren komunikazio-gaitasunak
Jose Inazio Basterretxea, Amaia Andrieu, Petxo Idoiaga, Estefania Jimenez, Txema Ramírez de la Piscina
2011an argitaratua
ISBN: 978-84-8438-342-0

Komunikazio-enpresa: kalitatea, helburu eta xede
Maria Gonzalez Gorosarri
2012an argitaratua
ISBN: 978-84-8438-246-7

Kazetaritza Sailean Uztaro aldizkarian argitaratu diren artikuluak

Analisi sintomatikoa eta politika nazionala
Agirre, J. Kolektiboa, *Uztaro* **23**, 65-86.

Euskarazko prentsa elkarlanerako estrategien bila
Aiestaran, A., *Uztaro* **49**, 45-57.

Debabarreneko euskarazko komunikazio-sistema. Tokian tokiko kazetaritza-genero eta gaien analisia 2000-2004 bitartean
Aiestaran, A., *Uztaro* **62**, 81-97.

Euskarazko hedabideetako profesionalen lan-baldintzen analisia
Aiestaran, A., *Uztaro* **69**, 79-101.

Euskarazko herri-prentsaren irakurleen profila aztergai
Aiestaran, A., *Uztaro* **74**, 59-72.

Emakume gazteen estereotipoak Disney Channel kateko telesailetan
Aiestaran, A.; Lopez, S., *Uztaro* **76**, 43-56.

Iritzi publikoa, iritzi publikatua eta publikoaren iritzia: hedabideen eragina euskal politikagintzan
Amezaga, J.; Arana, E.; Iturriotz, A.; Martín, R., *Uztaro* **22**, 41-57.

Kale-borroka Euskadiko prentsan. ETAren su-etenaren garaian, aurretik eta ondoren (1997-2000)
Andonegi, A.; Azurmendi, I.; Osa, M., *Uztaro* **43**, 87-103.

Telebista-albistegiak eta errealitatearen errepresentazioa
Arana, E., *Uztaro* **5**, 47-57.

Telebista-albistegiak: diversitas inter pares
Arana, E., *Uztaro* **19**, 41-54.

Tokian tokiko telebistagintzaren programazioa, ordainsariak eta erronkak
Arana, E.; Azpillaga P.; Narbaiza, B., *Uztaro* **46**, 61-80.

Goiena Komunikazio Taldea: tokiko talde multimedia baten kasu-azterketa
Arana, G.; Zuberogoitia A., *Uztaro* **83**, 71-89.

EEBB-etako kazeta azterketa
Armentia, J. I., *Uztaro* **6**, 89-97.

Euskal Herriko egunkarien irudi berria
Armentia, J. I., *Uztaro* **11**, 37-46.

Euskarazko telesailen produkzioaren uzta eta mugen zertzelada XXI. mendean: Goenkale saioaren kasu-azterketa
Astigarraga, Idoia, *Uztaro* **78**, 5-29.

Kazetarien tipologiarako zenbait ohar
Azkargorta, A., *Uztaro* **6**, 99-109.

Egia eta egiantzekotasuna. Prentsa Euskadin
Azkargorta, A. eta Xamardo, N., *Uztaro* **0**, 37-46.

Herri mugimenduak eta komunikazio prozesua
Azkargorta, A. eta Xamardo, N., *Uztaro* **3**, 77-85.

PRAVDA eta IZVESTIÅ sobietar egunkariak
Basterretxea, J. I., *Uztaro* **8**, 63-91.

Kartel politiko sobietarra: propaganda eredu baten azterketa eskripto-ikonikoa
Basterretxea, J. I., *Uztaro* **17**, 85-107.

Ulertaraztaile kolektiboa: interpretazio-eredu mass-mediatikoa
Basterretxea, J. I., *Uztaro* **24**, 49-58.

Masa-komunikazioaren funtzio eta pragmatika sozialak identitateen eraikuntzan
Basterretxea, J. I., *Uztaro* **29**, 39-50.

Hizkuntza eta hedabideak: prentsa idatziaren kasua
Basterretxea, J. I., *Uztaro* **39**, 63-74.

Euskal Herriko eskola-gazteak telebistaren katean
Basterretxea, J. I.; Idoiaga, P.; Zarandona, E.; Ramirez de la Piscina, Tx., *Uztaro* **55**, 63-87.

Euskarazko herri-aldizkariak eta teknologia berriak
Camacho, I., *Uztaro* **31**, 85-100.

Euskarazko herri-aldizkarien funtzioak hirugarren milurtekoaren atarian
Camacho, I., *Uztaro* **43**, 67-85.

Euskal Preso politikoen informazioa Nafarroako egunkarietan
Castañeda, K., *Uztaro* **38**, 43-58.

Euskal informazio-kazetaritza abertzalea: Euzkadi eta Euzko 1913-1934
Díaz, J., *Uztaro* **15**, 81-95.

Euskal komunikabideak Interneten
Díaz, J.; Meso, K., *Uztaro* **27**, 25-32.

Kazetaritzari buruzko lehen doktore-tesia, euskaratua
Díaz, J., *Uztaro* **50**, 59-75.

Bibliografiaren erabilera eta plagio akademikoa unibertsitate-ikasleen artean
Egaña, Tx., *Uztaro* **76**, 23-40.

Semeiotike tekhne
Erzilla, J. M., *Uztaro* **10**, 85-94.

Zuzeneko marketing-a, enpresa berrirako disziplina
Etxebarria, J., *Uztaro* **4**, 85-101.

Emakumearen irudia aldizkari femeninoetan
Expósito, M., *Uztaro* **13**, 87-105.

Alkoholaren kontrako kanpainak: edan-neurriaren bila marketingaren bidez
Expósito, M., *Uztaro* **16**, 79-97.

Zurrumurruen mekanismoak. Argelgo mahaiaren kasua
González, M., *Uztaro* **1**, 115-123.

Euskarazko tokiko hedabideen kalitatea
Gonzalez Gorosarri, M., *Uztaro* **59**, 41-61.

Tokiko irratiak, herri-partaidetasunaren guneak
Gutiérrez, A., *Uztaro* **18**, 41-48.

Irratia erronka digitalaren aurrean
Gutiérrez, A., *Uztaro* **32**, 35-47.

Irratiak eta internet bat eginda, hedabide erraldoien aurrean
Gutiérrez, A., *Uztaro* **48**, 55-66.

Eskola-irratia, komunikabidea tresna pedagogikoa bihurtuta
Gutiérrez, A., *Uztaro* **56**, 87-106.

Euskal gatazka, prentsaren portaera eta herritarren iritzia (1998-2001)
Idoiaga, P.; Ramirez de la Piscina, Tx., *Uztaro* **42**, 85-101.

Ikerketa-bideak konbergentzia mediatikora hurreratzeko
Larrañaga, J., *Uztaro* **64**, 69-81.

Perpaus adjetibalak albisteetako testuetan
Larrinaga, A., *Uztaro* **8**, 53-61.

Iraganeko jazoerak zelan hurbildu narrazioan eta albisteetan
Larrinaga, A., *Uztaro* **16**, 99-108.

Fikzio poliziakoaren logika, gaur eguneko irudian
López, E., *Uztaro* **0**, 47-84.

Euskal Telebista, Golkoko gerran
Martín, R. M., *Uztaro* **3**, 69-75.

Euskal irrati eta telebistetako kazetarien soslai soziologikoa
Martín, R. M.; Amurrio, M. *Uztaro* **58**, 29-52.

Irrati modernoaren testuinguru teknologizatua
Murelaga Ibarra, Jon, *Uztaro* **51**, 65-80.

Norberarenganako konfiantza eta beldur eszenikoa irrati eta telebistan
Murelaga, J.; Lopez, N.; Toral,G., *Uztaro* **63**, 65-75.

Gogoetak irrati-programazioaren kontzeptuaren inguruan. Programaziotik mezura
Murelaga, J., *Uztaro* **65**, 21-32.

Komunikazio emozionala: hersturari aurre egiteko komunikatzaileentzako trebakuntza-programa baten efektuak
Murelaga, J.; Garcia, I.; Barea, P.; Cea, I.; Toral, G., *Uztaro* **70**, 65-77.

Euskarazko publizitatea prentsan
Ogiza, J., *Uztaro* **7**, 97-109.

Leintz bailarako nerabeak eta ikus-entzunezko edukien kontsumoa, digitalizazioaren garaian
Pavon, A.; Zuberogoitia, A., *Uztaro* **78**, 31-49.

Euskal komunikabideetako euskara
Palazio, G. J., *Uztaro* **1**, 105-114.

Exotoponimiazko problemak kazetagintzan
Palazio, G. J., *Uztaro* **7**, 77-95.

Ziberguneak: komunikazioguneez haratago (III. milurtekoko enpresa multimediatikoak)
Palazio, G. J., *Uztaro* **32**, 49-57.

Kable bidezko telebista Hego Euskal Herrian
Peñafiel, C.; Zabaleta, I.; Agirreazaldegi, T.; Xamardo, N., *Uztaro* **28**, 79-88.

Birmoldaketa digitala
Peñafiel, C., *Uztaro* **32**, 59-68.

Politikariak-kazetariak: boterearekiko lilura
Ramírez, Tx., *Uztaro* **3**, 87-96.

Masa-hedabideen efektuen inguruko zenbait xehetasun
Ramírez de la Piscina, Tx., *Uztaro* **21**, 68-78.

Lurruna kristaletan: apala da eskola-gazteen alfabetizazio-maila ikus-entzunezkoetan
Ramírez de la Piscina, Tx.; Basterretxea, J. I.; Idoiaga, P.; Andrieu, A.; Jimenez E., *Uztaro* **74**, 43-56.

Drogak eta komunikabideak. Fenomenoaren eguneroko eszenifikazioa eta irudi kapen soziala
Rekalde, A., *Uztaro* **50**, 77-87.

Julio Medem eta haren unibertsoa: Caótica Ana eta Habitación en Roma filmen kasua
Sistiaga, A., *Uztaro* **79**, 25-47.

Informazioaren iraultza
Swerdlow, J. L., [Itzul.: Xabier Artola], *Uztaro* **17**, 169-177 [Jokin Zaitegi Itzulpen Laburren Sariketa].

Citizen Kane, hedabideak, boterea eta beren mugak
Xamardo, N. eta Zalakain, J. M., *Uztaro* **52**, 35-74.

Hurbiltasun-zatidura irrati-telebistako kazetaritzan: praktika desegokia
Zabaleta, I., *Uztaro* **14**, 49-60.

Prentsa nazionala eta prentsa lokala
Zalakain, J. M., *Uztaro* **12**, 55-65.

EGUNKARIA itxi dute, baina proiektua bizirik dago
Zalakain, J. M., *Uztaro* **45**, 29-69